

GEORGIO

1851-

CRISTOFANO


INTELLIGENZA


HAYONAN

1769

AN


17324



















JESU-CHRISTOREN  
IMITACIONEA;

M. CHOURIO Donibaneco Erretorac,

*Esclararar itçulia.*

E M E N D A T U A

Meçaz eta Igandetaco Beperez.

---

*Hunen Preciosa da 45 s.*

---



B A Y O N A N,

FAUVET-DUHART, Erregueren Liburu-  
Eguille eta Saltçaille baitan, Apou-  
maiouco carrican.

---

M. D C C. L X I X.

PERMISSIONE AREQUIN.





## MEÇA SAINDUÇO OTHOITÇAC.

*Meça behar beçala entçuteco Preparacionea.*

**C**URE Aldare sainduaren oiñetan ahuspez-emanie; adorategen çaitur, Jainco bothere guciac ditutçuna; fermuqui sinhesten-dut, entçuterat nohan Meça dela, Jesu-Christo çure Seme-Jaincoaren Gorphutz eta odolaren sacrificioa; ofritceco manera halaberecoa ez-içan-arren, harc-berac Calbarioco mendian guizon gucientçat offritu-çuen sacrificio lurabera. Eguidaçu gracia sartceco, ô ene Jaincoa, Apheçaren elcuz, hau çuri dignequi ofritceco behar ditudan disposicionetan. Offriteen darotçut; bat eguiten naicelarie J. Christoren eta haren Eliçaren intencionequiñ. 1. Çure Maiestate dibinoari, çorçaioen homaia eta ohore soberanoa errendatececo; 2. Eguindarozquigutçun on eta ungui guciez elquerrac bihurtceco; 3. Munduco bekhatu gucientçat eta bereciqui eneentçat çuri satisfaccione eguïteco; fiñcan arimaco salbamenduarentçat eta gorphutceco biciaientçat behar ditudan laguntçac eta sokhorriac çure ganic ardiotstececo. Çure ganic gracia haue guciac usteditur, J. Christe çure semearen merecimenduen bidez, ceññac nahi-baitu berac içan, Sacrificio adoragarri huten Apheça eta victima.

*Meçaren halbean, eta Confiteor erratean.*

**E**NE bekhatuen iaquiteco eta eçagutceco, ô ene Jaincoa! behar-ez-duçun-arren ene aithorric eta confessioric, eta ene galchtraqueriac guciac ene bihotsean irakhurtteen-ditutçun-arren; confessiatecenda-rozquitçut halere cernaren eta luttaren aicñean; aithorcen-dut offensatu çaitudala gogoz, hitceç, eta obraz. Ene bekhatuac handiac-dire, baiñan çure misericordie neurririe ez-dute. Urrical-naquiçu, ô

**IV** *Meça sainduco Othoitçac.*

ene Jaincoa. Orrhoit çaitte çure haustra, çure escuco obra, çure odolaren precioa naicela.

Birgina saindua, Ceruco Aingueruac Parabisuco Saindu eta Saindae, guretçat othoitz-eguiçue; eta nigarrezco eta miseriazco haran huntan dolhamentan gaudecen orduetan, gracia eskaçaçue guretçat; eta ardietz-dieçaguçue bekhatuen barkhamendua.

*Introitean.*

**I**AUNA! çuc Patriarkhei eta Profetei Inspiratu-dioçotçure, çure Seme bakhortcha luterat iausten ikhusteco, haiñ desira kharçuac; indaçu heien khar saindueie parte bat; eta eguiçu, bicitee mortal hunen embraçuen erdian, ene baitan senti-deçadan çure-quiñ bat-içateco lehia saindu bat.

*Kyrie, eleisonetan.*

**D**OLHAMEN eta suspira doblatuez, ô ene Jaincoa, eirequeriteen-çaitut, eguidaçu misericordia, eta momento gaciez, bici-naiceino, erran-banieçaçu: *Iauna! nauçun urricari*: ez liteque oraiño alqui ene bekhatuen nombreatentçat eta handitafunarentçat.

*Gloria in excelsisetan.*

**G**LORIA in excelsis Deo: Et in terra pax hominibus bonæ voluntatis. Laudamus te; benedicimus te; Adoramus te; Glorificamus te; Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam: Domine Deus, Rex celestis, Deus, Pater omnipotens: Domine, Fili unigenite, Jesu Christe; Domine Deus, Agnus Dei, Filius Patris, qui tollis peccata mundi, miserere nobis: qui tollis peccata mundi, suscipe deprecationem nostram: qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis: quoniam tu solus sanctus, tu solus Dominus, tu solus Altissimus, Jesu-Christe, cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris. Amen.

*Oremusetan, edo Oracionetan.*

**A**GRADA-bequizquitçu, iauna, guretçat eguiten-çaizquitçun othoitçac; igutçu, Eliça çure escopac, Apheçaten ahoz, çure fagoretan galdeguiten.

*Meça sainduco Othoitçac.*

V

darozquitçun , graciaç eta berhuteac. Ez-dugu-mercicen [hala-da] entçunac içatea, baiñan consideraçaçu gracia horiec eskateen-darozquitçugula, Jesu-Christo, çure Semearen bidez, ceina çurequiñ bici-baita eta erreguiñateen-baitu menden mende gucietan. Halabiz,

*Epistolari.*

**E**PISTOLA huni beguiratcen-diot, ô ene Jaincoa, çure borondateac irakhasfecu egortcen darotaçun guthun bati beçala Othoi, indaçu manatcen-darotaçunaren complitecco indarra. Çuc ceronec, Iau-na, profetei eta apostoluei inpiraru-diotçatçute, iscri-bus utci-darozquitçuten eguiac : heien arguitaric parte indaçu ; eta pich-çaçu ene bihotcean, hec erretcen-cituen su sacratu hura, maita-çaitçadan eta cer-bitça, hec beçala, ene bici gucian.

*Ebanyelioan, çhutitwic.*

**C**HUTITCEN-naiz, ô Legueguille soberanoa, çuri mareatecco Ebanyelio sainduan diren eguia liandiac, ene odolaz ciguillatcerat prest-naicela. Eguia horiec ene bihotcean ceronec, othoi, Iau-na, harneariño grabat çatçu. Horiec betçate-erreguela ene go-goetac, ene hitçac eta ene obrac. Ez-dut guehiago se-guitu-nahi çure maximez bertecic : mintça-çaitçate, Iau-na ; huna-non aditcen-çaitçudan, sebi baten sumetimendu osso batequiñ. Indaçu çure erranen complitecco hambat indar, nola baitut sermutasun heien liñhestecco.

*Credoçtan.*

**C**REDO in Deum, Patrem omnipotentem, factorem Cœli & terræ, visibilium omnium & invisibilium. Et in unum Dominum Jesum-Christum, Filium Dei unigenitum ; Et ex Patre natum ante omnia secula ; Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero, genitum, non factum, consubstantialem Patri, per quæ omnia facta sunt : qui propter nos homines & propter nostram salutem descendit de

Vj *Meça sainduco Othoitçac.*

cœlis; & incarnatus est de Spiritu sancto ex Maria Virgine; ET HOMO FACTUS EST: Crucifixus etiam pro nobis sub Pontio Pilato, passus & sepultus est: Et resurrexit tertiâ die secundum Scripturas: Et ascendit in cœlum; sedet ad dexteram Patris: Et iterum venturus est cum gloria judicare vivos & mortuos; cujus regni non erit finis. Et in Spiritum sanctum Dominum, & vivificantem, qui ex Patre Filioque procedit: Qui cum Patre & Filio simul adoratur & conglorificatur: qui locutus est per Prophetas. Et unam, Sanctam, Catholicam & Apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum Baptisma in remissionem peccatorum. Et expecto resurrectionem mortuorum, & vitam venturi seculi. Amen.

*Offertorioan.*

**C**REATURA hillcor, eta bekhatuz cagatu bat baicen, ez-naicen-arren; ofritcen darozquitçut Apheçaren eskuz, ô eguiazco Jainco bici eta eternaia, ogui hori eta arno hori; ceñnac içan-hehar-baitute-gambiatuac çure Seme J. Christoren Gorputceerat eta odolerat. Errecibi-çaçu, Iauna, ecin-erranezco Sacrificio hau, amulsuqui eta gofoqui, eta soffriçaçu, ofrenda saindu hori iunta-dioçadan, ene gorputçaz, arimaz, ontasunez, biciaz, eta ditudanguciez eguiten-darotçudan, sacrificioa. Eguiçu nitaz, ô ene Jaincoa! creatura berri bat; ogui hori eta arno hori çure bothereaz cambiatceerat çohacen beçala.

*Apheçac bere erriac garbitcean.*

**G**ARBI-naçaçu, Iauna, sacrificatua-içaterat doatçun Bildoxaren odolcan; nota gucietaric chahutua, eta çure graciaren espos-arropaz bestitua, çure ganat escu çhuri eta bekhatu-gabeac altcha-detçadantçat; eta esparantça içan egun batez errecibitua-içateco, çure Hautatuei Ceruan preparatu-dioçuten banquet sacratuan.

*Ichilltoric Apheçac erraten-disuen Othoitceetan.*

**A**GRADA-bequiçu, ô ene Jaincoa, çure icen sainduaren ohoretan eta gloriarentçat, çure

abantailletan, eta çure Eliça sainduarenetan, offritcen-çaitçun Sacrificioa: haren intencione-beretan farthuric, huna non galdetcen-darozquitçudan, Eliçac orai, Apheçaren bidez, eskhatcen-darozquitçun gracia guciac; hortacotz bat eguiten-naiz Apheçarequin, accorda-dietçagutçun amoreac garic, J. Christo gure launaren-bidez eta icenean.

*Prefacioan.*

**O**RDU-da, ô ene arima, alcha-gaitecen beherhuntaco gauça guciez gorago. Tira-etçatçu, Iauna, tira-etçatçu, gure bihotçac çure-ganat: lof-fri-çaçu, çor-çaizquitçun laudorioac eta esquerrac errendatceco, iunta-detçagun gure boz fiacoac, Izpiritu dohaxuen alegranciazco eta extassiasco aire iustuarequin; eta desferruco lekhu huntan errandietçagun, hec gloriaren egoitçan cantatcen-darotçutena: *Saindua, Saindua, Saindua-da armadetaco Jainco-Ianna, içan bedi glorificatua cernetaco gortuean.* **PREFACIOA COMMUNEA.**

**P**ER omnia secula seculorum. *ÿ.* Amen.

Dominus vobiscum. *ÿ.* Et cum Spiritu tuo.

Sursùm corda; *ÿ.* Habemus ad Dominum.

Gratias agamus Domino Deo nostro: *ÿ.* Dignum & justum est.

Verè dignum & justum est, æquum & salutare: nos tibi semper & ubique gratias agere, Domine sancte, Pater omnipotens, æterne Deus, per Christum Dominum nostrum; per quem majestatem tuam laudant Angeli, adorant Dominationes; tremunt Potestates: cœli cœlorumque Virtutes, ac beata Seraphim sociâ exultatione concelebrant. Cum quibus & nostras voces, ut admitti jubeas deprecamur, supplici confessione dicentes:

Sanctus, Sanctus, Sanctus, Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cœli & terra gloriâ tuâ, Hosanna in excelsis. Benedictus qui venit in nomine Domini, Hosanna in excelsis.



*Sanctus erran-ondoan.*

**A**ITA bethierecoa, arçainetaco Arçain soberanoa! çure Eliça conferba eta governa-çaçu, fincaçaçu eta heda lurraren baster gucietarat. Izpiritu-bat eta bihotz-bat emoçute Christau guciei. Benedicaçaçu gure Aita saindua, gure Aphezpicua, gure Erregue, gure Erretora, eta çure Eliçaren finhestean bicidiren guciac.

*Lehenbicio Mementoan.*

**I**AUNA, orai çure errefuman çarena, orhoit çaitenitaz çure misericordian, eta sacrificio saindu hunen merecimenduz indaçun necessario ditudan bertute guciac. Eta batac berttearentçat othoitzegeutea manatu darokuçunaz-gueroz; Iauna, othoi, aditçatçu eta entçun humillqui eta confidenciarequiñ eguiten-darozquitçudan othoitçac ene abaideentçat, adisquideentçat, arimaco etagorputceco unguie-guilleentçat. Ene bihotz guciac hialaber gomendatcen-darozquitçut ene etsaiac eta tratamendu gaichto cerabait eguiñ ahal-darotaden guciac: alianz-bequizquitçu heien bekhatuac, eta neureac: ene bihotçetie khen-etçatçu khiratstafun eta gaitzirizco guciac; eta defira-araz dieçadaçu eta ardiets-araz heyen amudioa. Mundu guciac senti-beça Sacrificio hunen ona. O ene Jaincoa, iguçun guciei bake eguiazco bat, ceñnac, elkharrequiñ unionean atchiquitcen-gaituela, bethicotz baitgaitu-unionean emanen Birgina-Amarequiñ, çure Apostoluequiñ, Martyrequiñ, Saindu eta Sainda guciequiñ, eta fincan eternitate gucian çurequiñ.

*Apheçac Kalitçaren eta Ofiaren gainean esnac çabalduac daduzcanean.*

**H**EDA çaçun, Iauna, ene gainerat çure escu dibino, possessionetan sariceco ene bihotçean eta ene sensuetan, ene baitan corregitceco çure-contraden gucia; ni consecratceco çure Aita Jaincoari çure-baitan eta çutaz; eta ni moyan hortaz libratceco

deabruaren escuetarie eta damnacione eternaletic.

*Hofia saindua alchatcean.*

**O**JESUS, ene Salbatçaillea, eguiazco Jaincoa eta eguiazco guizona, sinhesten dut ciniez eta fermuqui Ostia sainduan errealkui hor çarela; adoraten-çaitut hor, ene launa eta ene Jaincoa çarena. Iguçu, niri eta hemen garen guciei, Mysterio adoragarri huntan çor-darotçugun debocionea, amudioa, eta eçagutça.

*Khalitça alchatcean.*

**A**DORATCEN dut khalitz hortan, ô ene Jesus dibinoa, ene crospenaren precioa, eta guizon guciena. Odol adoragarri hortarie chorta bat iusterat urfaçu ene arimaren gainerat, içan dadinçat garbitua bekhatu gucietarie, eta fustatua çure amudioaren khar sacratuaz.

*Jaincoa altchatu ondoan.*

**E**Z darotçugu guchiago oguia eta arnoa ofritcen; baiñan bai Christo çure Semearen Gorphutz adoragarria, ô ene Jaincoa, haren Passionearen, pitchtearen, cerurat igatearen orrhoitçapenctan: çure eskutic, launa, errecibi-erçatçu, eta bethe gaitçatçu çure graciez.

*Bigarren Mementoan.*

**O**RRHOIT-çaitte halaber, launa, Purgatorioan diren arima gaichœz: dohatçuqui çureac dire, eta çure esposac-ere dire. Bereciqui gomendatcen-darozquitçut ene ahaideenac, adilquideenac, arimaco eta gorphutceco unguie-guilleenac, eta othoitcen-bearra guchien duteneac.

*Nobis quoque peccatoribus erratean.*

**G**UCIA bekhatorea naicelarie, ausartatcen-naiz galdetcerat gracia bera enerçat, erran nahi-da, ô ene Salbatçaillea! çure glorian parte picheca bat. Milla bekhatu hango çucena galdu dudala, ikhustendut eta aithoreen çure presencian, ô ene Jaincoa! Ene mereciei beguirateen-badioçute, ez duçut



**X** *Meça sainduco Othoitçac.*

esparantçarie plaçatua-içateco Erresuma hartan, ceifitarat Apostoluec, Martyrec, eta Birgina sainduco eciiñ-ardietli-baitutei, beñhi soffrituz eta berthute guiriltiñozco guciac praticari emanex baicen. Nola beraz aufarta-cre-othenaiteque, Iauna, esparantça-içaterat: Çure odolac eguiten - du ene fidancia gucia. Barkha - dietçaquidarçu ene faltac, eta penitencia eguitzeco batez digne errenda - naçaçu hartarat helceco.

*Pater erratean.*

**C**REATURA ez deus eta dohacabe bat baicen ez-naicen arren; halere, Jainco handia! aufartatzen-naiz çu ene aita deitcerat, ceren hola nahi-duçun: eguidaçu gracia, ô ene Jaincoa, ez deçadan nihoiz-ere gal çure umearen qualitatea. Içan bedi çure Içena santificatua Ceru-lurretan. Erreguiña çaqu oraitberetic çure graziaz bihotcean, çurequiñ erreguiña-deçadantçat eternitatean çure-glorian; eta çure bostadatean compli - detçadantçat lurtean, sainduco compliteen-duten beçala ceruan. Ene Aita çare, indaçu beraz othoi, ceruco Ogui hura, ceifetaz neurritcen-baidituçu çure hautrac. Barkhamendu accorda - dieçadaçu, nie çure amoreac gatic bihotz onez ofensatu nautenei accordatcen-diotedan-beçala; eta ez-deçaçula permeri nihoiz tentamendu batec - ere garaitaçan: aitiric, çure graziaz lagunduric, eguiçu bençu-deçadan ene salbamenduaren etsai guciac.

*Agnus Dei erratean.*

**J**AINCOAREN Bilotfa, munduco bekhatuez cergatu-nahi-içatu-duçuna, garbi-çatçu eta borra neure-guciac çure odolean; haiñ khario erofi-duçun bakea-içateco, digne errenda-naçaçuntçat. Indaçu bake hura çurequiñ, bake hura proximoarequiñ, bake hura neure buruarequiñ; inspiretce darocaçularic humiltasun ofloena; eta ene-baitan ithortcen-dituçularic bendecuzeco desira guciac.

*Domine, non sum dignus erratean.*

**A**H Iauna, sobra-baicen ez-da eguia, ez-dudala

mereci çure errecibitcoa ; indigne errendatu-naiz  
osloqui ene bekhatuez : guciez urriqui - dut eta  
dolore , ceren damustatu baitçaituzte eta çure ganic  
urrhundu-baitnante. Çure hiez bakhar batec senda-  
deçaque ene arima : ez naçaçula abandona , ô ene  
Jaincoa ; eta çure escutic atchic-naçaçu.

*Apheçaren Communionean , norc berac communiatcen  
ez-duenean errealqui.*

**O** ENE Jesus maitagarria ! egon çure Haragui  
sainduaz neurritua-içateco çoriona ez badut ;  
sotriçaçu errecibi-çaitçadan bederen izpirituz eca bi-  
hotcez , eta çurequiñ bat eguiñ nadiñ fedeez , espa-  
rantçaz eta kharitateaz. Sinuesten-dut çure baitan ;  
çure baitan dut ene esparançea ; eta maite-çaitut ene  
bihotz guciatz.

Ala dohatfu-baitniñteque , ene Salbatçaille maitea ,  
çure ganat hurbillececo , çure mahaiñ sainduan pre-  
sentatececo , çure Gorphuts sacratua errecibitceco , eta  
çure odola edateco estatutan-baniñs. Ah ! cer fran-  
quia , cer consolacione , cembat gracia ez-dioçute  
ematen heraz neurritcen-ditutçunei !

*¶ Norc berac communiatcen duenean , horren orde  
eguin-behar-dire communiatceco Actac.*

*Ostia pieheac Apheçac billicean.*

**I** AUNA , çure graciariç mendreçnac aingue-hiagoqui  
baliofa-da : ya erran-dut ; ez du mereci çure Ma-  
haiñean , çure haurren herruncan iarçea : baiñan  
permeti-dieçadaçu bill-detçadan bederen erroteen-  
diren papurac , Kananearrac galdereç-çuen beçala ,  
Eguiçu ez deçadan çure inspiracionerariç batere ne-  
gliya ; ecen negliyencia horrec obllga-çaitçaque gu-  
cies elcas eguiterat.

*Post-Communionean.*

**C**ONSOMMATU-dire guciac , ô Iauna ! ene beguien  
çaitçinean sacrificaturic çatoz. O ene Jaincoa !  
elnais nihois guelditueco çuri laudoriosco sacrificioa  
errendatecic : eta gucis , bihots , çu ofensatuas

doloratu, çaurthu eta humiliatu baten sacrificioa of-  
fricetic.

*Azqueneço Oracionetan.*

**N**AHI-duçu, Iauua, arteric-utci-gabe gure othoit-  
çac adreça - dietçatçugun; çeren dugun bethi  
çure graciën beharra: isur-çaçu çure gairerat eta  
iguçu othoitçaren ispiritua, ceina baita humiltafu-  
nelco, confidenciasco, eta amudiosco ispiritu bat:  
hortas errequeritcen-çaitugu J. Christo çure Semeas,  
ceinac çurequin erreguinateen-baitu glorian.

*Benediccionearen aittinean.*

**T**RINITATE gucis saindu eta adoragarria Aita, Se-  
mea eta Ispiritu Saindua, Jainco choitl eta bakar-  
bat çarena; çutas sacrificio hau hasli-dugu, çutas  
fiñatcen-dugu: agrada bequçu, eta ez gaitçatçula  
egor çure benediccionea gabetarie.

*Azqueneço Ebanyelio erratean.*

**V**EASO eternala, gança gucien Eguillea, demborac  
bethe - cirenean gure gatic Guiçon eguinië, Sa-  
cificio miragarrihau etablitu duçuna: esquerrac hu-  
millqui errendatcen darozquitçugu, çeren eguin da-  
rokuçun gracia, hunen entçuteco; hunen effectu sal-  
bagarriac errecibi-detçaguntçat. Aingueru eta Saindu  
gucieç hortas lauda-beçaitçate bethi çeruan, eta gu  
has-gaitecen çu hortaz benedicatcen lutrean, com-  
portatcen-garelarie egungo egunean çure leguearen  
arabera. Barkha-dieçadaçu, ó ene Jaincoa, ene ispiri-  
tucó barrayamendua eta ene bihotceco hostasuna,  
çutas occupatua eta çureçat sustatua içan-behar-çu-  
ren moment hortan. Ahants-bequisquitçu, Iauua, ene  
bekhatuac, ceinenteçat J. Christo çure Semea, Alda-  
re hunen gairanean immolaturic heldu-baita: eta es-  
deçaçula permeti asqui ondicoscoa içan - nadin, çu  
hemendie-harat ofensatceco, bainan eguçu, çu-  
qui comportatcen-naicelarie, bethi beguira dieçaçu-  
dan ene gogoeten, ene hitcen, eta ene obren erregue  
eta asquen fiñari beçala. Halabiz.

I G A N D E T A C O  
B E S P E R E T A N .

**D**EUS in adiutorium meum intende. *ry.* Domine,  
ad adjuvandum me festina.

¶ Gloria Patri, & Filio, & Spiritui sancto, sicut  
erat in principio, & nunc, & semper, & in secula  
seculorum. Amen.

*Ant.* Dixit Dominus.

*Psalma 109.*

**D**IXIT Dominus Domino meo: \* Sede à dextris  
meis.

Donec ponam inimicos tuos \* scabellum pedum  
tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion: \*  
dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendo-  
ribus sanctorum: \* ex utero ante luciferum genui te.

Iuravit Dominus, & non poenitebit eum; \* Tu es  
Sacerdos in æternum secundum ordinem Melchise-  
dech.

Dominus à dextris tuis. \* confregit in die iræ suæ reges.

Judicabit in nationibus, implebit ruinas, \* con-  
quassabit capita in terra multorum.

De torrente in viâ bibet; \* propterea exaltabit caput.

*Ant.* Dixit Dominus Domino meo: Sede à dextris  
meis.

*Ant.* Fidelia.

*Psalma 110.*

**C**ONFITEBOR tibi, Domine, in toto corde meo, \*  
in concilio justorum & congregatione.

Magna opera Domini; \* exquisita in omnes vo-  
luntates ejus.

Confessio & magnificentia opus ejus; \* & justitia  
ejus manet in seculum seculi.

xiv *Igandetaco Bezperetan.*

Memoriam fecit mirabilium suorum misericors & miserator Dominus : \* escam dedit timentibus se.

Memor erit in seculum testamenti sui , \* virtutem operum suorum annuntiabit populo suo.

Ut det illis hæreditatem gentium : \* opera manuum ejus veritas & judicium.

Fidelia omnia mandata ejus , confirmata in seculum seculi , \* facta in veritate & æquitate.

Redemptionem misit populo suo : \* mandavit in æternum testamentum suum.

Sanctum & terribile nomen ejus : \* initium sapientiæ timor Domini.

Intellectus bonus omnibus facientibus eum : \* laudatio ejus manet in seculum seculi.

*Ant.* Fidelia omnia mandata ejus , confirmata in seculum seculi.

*Ant.* Qui timet Dominum.

*Psalmoa III.*

**B**EATUS vir qui timet Dominum : \* in mandatis ejus volet nimis.

Potens in terra erit semen ejus \* generatio rectorum benedicetur.

Gloria & divitiæ in domo ejus ; \* & justitiæ ejus manet in seculum seculi.

Exortum est in tenebris lumen rectis ; \* misericors & miserator & justus.

Jucundus homo qui miseretur & commodat , disponet sermones suos in judicio : \* quia in æternum non commovebitur.

In memoria æterna erit justus , \* ab auditione mala non timebit.

Paratum cor ejus sperare in Domino , confirmatum est cor ejus : \* non commovebitur donec despiciat inimicos suos.

Disperfit , dedit pauperibus ; justitiæ ejus manet in seculum seculi ; \* cornu ejus exaltabitur in gloria.

Peccator videbit & irascetur , denubus suis fremet

& tabescet : desiderium peccatorum peribit.

*Ans.* Qui timet Dominum , in mandatis ejus volens nimis. *Ant.* Sit nomen.

*Psalma 112.*

**L**AUDATE, pueri, Dominum : \* laudate nomen Domini.

Sit nomen Domini benedictum \* ex hoc nunc , & usque in seculum.

A Solis ortu usque ad occasum : \* laudabile nomen Domini.

Excelsus super omnes gentes Dominus , \* & super cœlos gloria ejus.

Quis sicut Dominus Deus noster , qui in altis habitat , & humilia respicit in cœlo & in terra ?

Suscitans à terra inopem , \* & de stercore erigens pauperem.

Ut collocet eum cum principibus , \* cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in domo , \* matrem filiorum latantem.

*Ans.* Sit nomen Domini benedictum in secula.

*Ant.* Nos qui vivimus.

*Psalma 113.*

**I**N exitu Israël de Ægypto : \* domus Jacob de populo barbaro.

Facta est Judæa sanctificatio ejus : Israël potestas ejus.

Mare vidit & fugit , \* Jordanis conversus est retrorsum.

Montes exultaverunt ut arietes , \* & colles sicut agni ovium.

Quid est tibi mare quod fugisti , \* & tu , Jordanis quia conversus es retrorsum ?

Montes exultastis sicut arietes , \* & colles sicut agni ovium.

A facie Domini mota est terra , à facie Dei Jacob.



XVj *Igandetaco Besperetan.*

Qui convertit petram in stagna aquarum, & rupem  
in fontes aquarum.

Non nobis Domine, non nobis, sed nomini tuo da  
gloriam.

Super misericordia tua, & veritate tuâ, nequan-  
do dicant gentes, Ubi est Deus eorum?

Deus autem noster in cœlo; omnia quaecum-  
que voluit, fecit.

Simulacra gentium argentum & aurum, opera  
manuum hominum.

Os habent & non loquentur; oculos habent & non  
videbunt.

Aures habent, & non audient; nares habent, & non  
odorabunt.

Manus habent, & non palpabunt; pedes habent,  
& non ambulabunt: non clamabunt in guttore suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea, & omnes qui  
confidunt in eis.

Domus Israël speravit in Domino; adjutor eorum  
& protector eorum est.

Domus Aaron speravit in Domino, adjutor eorum  
& protector eorum est.

Qui timent Dominum speraverunt in Domino;  
adjutor eorum & protector eorum est.

Dominus memor fuit nostri, & benedixit nobis.  
Benedixit domui Israël, benedixit domui Aaron.

Benedixit omnibus qui timent Dominum, pusillis  
cum majoribus.

Adjiciat Dominus super vos, super vos & super  
filios vestros.

Benedicti vos à Domino, qui fecit cœlum & terram.  
Cœlum cœli Domino, terram autem dedit filiis  
hominum.

Non mortui laudabunt te, Domine, neque omnes  
qui descendunt in infernum.

Sed nos qui vivimus, benedicimus Domino, ex  
hoc nunc & usque in seculum,



*Ant.* Nos qui vivimus, benedicimus Domino.

*Capitula.* Ephes. 1.

**B**ENEDICTUS Deus, & Pater Domini nostri Jesu Christi, qui benedixit nos in omni benedictione spirituali in celestibus in Christo, sicut elegit nos in ipso ante mundi constitutionem, ut essemus sancti & immaculati in conspectu ejus in caritate.

*Deo gratias. Hymnoa.*

**O** Luce qui mortalibus  
Lates inaccessâ, Deus!  
Præsente quo sancti tremunt;  
Nobuntque vultûs Angeli.

Hic ceu profundâ conditi  
Demergimur caligine:  
Æternus at noctem suo  
Fulgore depellet dies.

Hunc nempè nobis præparas;  
Nobis reservas hunc diem,  
Quem vix adumbrat splendida  
Flammantis astri claritas.

Moraris heu! nimis diâ,  
Moraris, optatus dies;  
Ut te fruamur, noxii  
Linquenda moles corporis.

His cum soluta vinculis  
Mens evolârit, ô Deus!  
Videre te, laudare te,  
Amare te non desinet.

Ad omne nos apta bonum;  
Fœcunda donis Trinitas:  
Fac lucis usuræ brevi.  
Æterna succedat dies. Amen.

*ÿ.* In Deo laudabimur totâ die. *ÿ.* Et in nomine  
tuo confitebimur in seculum.

*Anta Birginaren Canticoa. Luc. 1.*

**M**AGNIFICAT anima mea Dominum.  
Et exultavit spiritus meus; in Deo salutari meo

xviii *Igandetaco Besperetan.*

Quia respexit humilitatem ancillæ suæ: ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Quia fecit mihi magna qui potens est; & sanctum nomen ejus.

Et misericordia ejus à progenie in progenies: timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo; dispersit superbos mente cordis sui.

Deposuit potentes de sede; & exaltavit humiles.

Esurientes implevit bonis; & divites dimisit inanes.

Suscepit Israël puerum suum, recordatus misericordiae suæ.

Sicut locutus est ad patres nostros, Abraham, & semini ejus, in secula.

---

IGANDETAÇO COMPLETETAN.

Converte nos, Deus, salutaris noster.

Ps. Et averte iram tuam à nobis.

Deus, in adjutorium. Gloria Patri, &c.

Ant. Miserere.

*Psalms 4.*

**C**UM invocarem, exaudivit me Deus, justitiæ meæ: in tribulatione dilatasti mihi.

Miserere mei: & exaudi orationem meam.

Filii hominum usquequò gravi corde: ut quid diligitis vanitatem & quæritis mendacium?

Et scitote quoniam mirificavit Dominus sanctum suum: Dominus exaudiet me, cum clamavero ad eum.

Iraescimini & nolite peccare: quæ dicitis in cordibus vestris, in cubilibus vestris cumpungimini.

Sacrificate sacrificium justitiæ, & sperate in Domino: multi dicunt; Quis ostendit nobis bona?

Signatum est super nos lumen vultus tui, Domine: dedisti lætitiâ in corde meo.

¶ A fructu frumenti, vini & olei sui; multiplicati sunt.

In pace in idipsum dormiam, & requiescam.

¶ Quoniam tu, Domine, singulariter in spe constituisti me.

*Psalmas 90.*

**Q**UI habitat in adiutorio altissimi, in protectione Dei commorabitur.

Dicit Domino, susceptor meus es tu, & refugium meum: Deus meus, sperabo in eum.

Quoniam ipse liberavit me de laqueo venantium; & à verbo aspero,

Scapulis suis obumbrabit tibi, & sub pennis ejus sperabis.

Scuto circumdabit te veritas ejus: non timebis à timore nocturno.

A sagitta volante in die, à negotio perambulante in tenebris; ab incursu, & dæmonio meridiano.

Cadent à latere tuo mille, & decem millia à dextris tuis: ad te autem non appropinquabit.

Verumtamen oculis tuis considerabis, & retributionem peccatorum videbis.

Quoniam tu es, Domine, spes mea: altissimum posuisti refugium tuum.

Non accedet ad te malum, & flagellum non appropinquabit tabernaculo tuo.

Quoniam Angelis suis mandavit de te, ut custodiant te in omnibus viis tuis.

In manibus portabunt te, ne fortè offendas ad lapidem pedem tuum.

Super aspidem & basiliscum ambulabis, & conculcabis leonem & draconem.

Quoniam in me speravit, liberabo eum: protegam eum, quoniam cognovit nomen meum.

Clamabit ad me, & ego exaudiam eum, cum ipso sum in tribulatione; eripiam eum, & glorificabo eum.

XX *Igandetaco Completetani.*

Longitudine dierum replebo eum, & ostendam illi  
salutare meum.

*Psalma 133.*

**E**CCE nunc benedicite Dominum, omnes servi  
Domini.

Qui statis in domo Domini, in atriis domus Dei  
nostri;

In noctibus extollite manus vestras in sancta, &  
benedicite Dominum.

Benedicat te, Dominus ex Sion; qui fecit caelum  
& terram.

*Ant.* Misere mei, Domine, & exaudi orationem  
meam.

*Trinitatic Abendoraino Hymno.*

**G**RATIAS, peracto jam die,  
Deus, tibi persolvimus:

Pronoque, dum nox incipit,

Prosternimus vultu preces,

Quod longa peccavit dies

Amarus expiet dolor;

Somno gravatis ne nova

Infigat hostis vulnera.

Infestus usque circuit

Quærens leo quem devoret;

Umbra sub alarum tuos

Defende filios, Pater.

O quando lucecet tuus

Qui nescit occasum dies?

O quando sancta se dabit

Quæ nescit hostem patria?

Deo Patri sit gloria.

Ejusque soli filio;

Sancto simul cum Spiritu;

Nunc & per omne seculum. Amen.

*Capitula.* I Thesl. 5.

**O**MNES vos filii lucis estis, & filii diei: non sumus  
noctis, neque tenebrarum; igitur non dormitis

mus, sicut & cæteri, sed vigilemus & sobrii simus.

*ps. br.* In manus tuas, Domine, commendo spiritum meum. *ps.* In manus. Redemisti me, Domine, Deus veritatis. Commendo. Gloria Patri. In manus.

*Ant.* Domine.

*San Simonem Canticoa. Luc. 2.*

**N**UNE dimittis servum tuum, Domine, secundum verbum tuum in pace.

Quia viderunt oculi mei: salutare tuum.

Quod parasti ante faciem omnium populorum.

Lumen ad revelationem gentium: & gloriam plebis tuæ Israël.

*Ant.* Domine, custodi partem tuam, ut sive vigilemus, sive dormiamus, simul cum Christo vivamus. *ps.* Dominus vobiscum. *ps.* Et cum spiritu tuo.

*Oracionea.*

**V**ISTA, quæsumus Domine, habitationem nostram, & omnes insidias inimici ab ea longè repelle: Angeli tui sancti habitent in ea, qui nos in pace custodiant, & benedictio tua sit super nos semper; Per.

*ps.* Dominus vobiscum. Benedicamus Domino, &c.

*Gaudeat erran ondoan erraten dute emequi. psalm 359.*

Gratia Domini nostri Jesu-Christi, & caritas Dei, & communicatio sancti Spiritus sit cum omnibus vobis. *ps.* Amen.

*Officiaaren ondoan emequi erraten dute. Pater. Ave.*

*Credo.*

*CANTICOA.*

**T**E DEUM laudamus, te Dominum confitemur.

Te æternum Patrem, omnis terra veneratur.

Tibi omnes Angeli, tibi cæli, & universæ potestates.

Tibi cherubim & Seraphim incessabili voce proclamant,

Sanctus,

Sanctus,

Sanctus,

Dominus Deus Sabaoth.

Pleni sunt cœli & terra majestatis gloriæ tuæ.

Te gloriosas Apostolorum chorus,

Te Prophetarum laudabilis numerus,

Te Martyrum candidatus laudat exercitus.

Te per orbem terrarum sancta confitetur Ecclesia,

Patrem immensæ majestatis :

Venerandum tuum verum, & unicum Filium,

Sanctum quoque paracletum Spiritum.

Tu Rex gloriæ, Christe,

Tu Patris sempiternus es Fillus.

Tu, ad liberandum suscepturus hominem, non  
horruisti Virginis uterum :

Tu, devicto mortis aculeo, aperuisti credenti-  
bus regna cœlorum.

Tu ad dexteram Dei sedes in gloria Patris.

Judex crederis esse venturus.

Te ergo quæsumus, famulis tuis subveni, quos  
pretioso sanguine redemisti.

Æternâ fac cum Sanctis tuis in gloria numerari.

Salvum fac populum tuum, Domine, & benedic  
hæreditati tuæ.

Et rege eos, & extolle illos usque in æternum.

Per singulos dies benedicimus te.

Et laudamus nomen tuum in seculum, & in secu-  
lum seculi.

Dignare, Domine, die isto sine peccato nos  
custodire.

Miserere nostri, Domine, miserere nostri.

Fiat misericordia tua, Domine, super nos, quem-  
admodum speravimus in te.

In te, Domine speravi; non confundar in æter-  
num.







---

**APPROBACIONEA.**

**D**EBORAC gaitu arima leialec egartsu handi bat quicla *JESU-CHRISTOREN Imitacionea escarax ikaulteco*, handic plazer egulazco bat iñan dut gure Jaun Aphetpicuac egorri darotanean *Michel de Chourio Donibaneco Jaun Errator cenac* liburu saildu hortaz eguin çuen traduccionea. Haren ordenaz iracurri, eta examinatu dut artha bereci barequin, baita erremarcatu-ere obra labur, eta eder hau, choillqui Autorac eguin tuen meditacione luce batçuen effectu bat dela. Hargatic da haiñ iustua non ez bainatiz beldur, nic beçala iracurtcen duren guciec ez deçaten approba, eta nic eguin ahal deçaquedan baino hobequiago lauda. Azcainen maiatçaren 4 eguina 1720. **DOLHABIDE Azcaingo Eretora.**

---

**A**NDRÉ, par la grace de Dieu, Evêque de Bayonne, Conseiller du Roi en ses Conseils : Vû le témoignage des personnes par Nous commises pour l'examen de la traduction basque de l'*Imitation de JESUS-CHRIST*, faite par le feu sieur Curé de Saint Jean-de-Luz : témoignage par lequel il Nous est assuré qu'elle est entièrement conforme à son original : Nous en permettons l'impression, autant qu'il est en Nous. Donné à Bayonne, dans notre Palais Episcopal, le cinquieme jour du mois de Décembre mil sept cent vingt. *Signé A.* Evêque de Bayonne. *Et plus bas*, Par Monseigneur, **DUHALDE.**



# JESU-CHRISTOREN IMITACIONEA.

---

---

LEHENBICICO LIBURUA.

Bicitce spiritualecorz on diren abifuac.

---

---

## I. CAPITULUA.

*Imita JESU-CHRISTO, mezpreça mundo vanitate guciac.*

**N** IRI darraitana ez dabilla ill- Joan.  
hunbean, dio JESU-CHRISTOC. 8. 12.  
Hitz horiez gure salbatçailleac  
irakhasten darocu nola behar di-  
tugun imitatu haren accioneac  
eta berthuteac, eta bici hura bici içatu den  
beçala, eguiazco arguiaz nahi badugu arguitu  
eta bihotceco itsutafunetic osoqui libratu.

Beraz gure artharic handiena ičan behar da JESU-CHRISTOREN bicitcea gogoan etabiltcea, eta hura bethi meditatcea.

2. Sainduac irakhasten darozquiguten gauçac ez dire deus, Jesus berac ikhasten darozquigunen aldean, eta Jaincoaren spiritua luquenac causi leçaque eta guzta haren doctrina sainduan gordea den manna cerucoa.

Ordean hañitcec entçuten dute maiz Evangelioa progotchu gabe, eta haren obratceco guticiariac sentitu gabe. Cergatic? Ceren ez baitute JESU-CHRISTOREN spiritua.

Haren hitçac ungui aditu eta guztatu nahi dituenac hasi behar du haren berthuteen imitacetic, eta bici behar du ahalaz hura biciçatu den beçala.

3. Cer probetchu cinducque Trinitateco misterioaz gauça barrenac eta gordeac iaquirea, eta hetaz çuhurqui eta goraqui miñçatcea, humill ičan faltaz, gaitzetia baçare Trinitateco presunez?

Eguiaz gauça gorez miñçatceac, eta hita ederren errateac ez gaitu sainduten; berthute choillac eguiten gaitu Jaincoaren goçaraco.

Nahiago dut miñqui sentitu bihotcean ene bekhatuezco dolorea, ecen ez iaquiñ nola presuna estudiatuec dolore hura esphicatcen duten.

Escritura gucia eta filosofo gucien erranac gogoz bacinaquizqui ere, cer probetchu cinduque, ez baducu Jaincoaren amudioa eta gracia?

*Vanitatetaco vanitatea, eta gauca guciac dire vanitate; Deus ere munduan ez da funsezcoric, baicen Jaincoaren maitatzea eta hura choillqui cerbitzatzea.* Ecclef.

Çuhurciatic handiena da mundua mezeptaturic, cerurat gure guticia gucien itçaltzea eta harat lehiatzea.

4. Vanitate da beraz eta errhoqueria aberastafun galkhorren ondoan ibiltzea, eta heran norc bere esparañaren eta fidanciareren ematea.

Vanitate da eta enganio munduco ohoreen billhatzea, eta bertceac baiño gorago igan nahi içatea.

Gauca vanoa eta funsgabecoa da oraiño haraguiaren guticien seguitzea, eta haiñ garrazqui punituco diren arseguiñen maitatzea.

Vanitate eta çoratuqueria da bicitce lucea desiratzea, eta ungui bicitceaz contu guti eguitea.

Vanitate dohacabe bat da balaber norc bere artha guciac bicitce huntan ematea, eta ethorquicuneco bicitceas hurren ez orrhoitcea.

Fiñean vanitate handi bat da haiñ laster

iragaten diren gaucei amudios lotcea, eta bethi irauñ behar duen çorionarentçat eta kharric ez lehiaric içatea.

5. Orrhoit çaita maiz errancomun huzta: *Beguia ez da ajetcen ikhustez, ez be harria aditcez.*

Hari çaita ahal guciaz çure bihotça gauç ikhusten direnen amudiotic apartatcen, eta ikhusten ez diren ontasunei iratchequitcen. Ecen bere sensuen nahicarak complitu nahia dituztenec lohitcen dure bete conciençia eta galtcen Jaincoaren gracia.

## II. CAPITULUA.

*Guti iduc gure buruac, humill behar dugu içan gure iaquin guciequin ere.*

**G**UIÇONAC bere eguitez eta naturaleçat du iaquiteco guticia. Baiñan certaco da iaquitea, Jaincoaren beldurtasuna gabe?

Eguiaz laborari humill eta Jaincotiarrac guehrago du balio filosofo supherbioac baiño, ceñac bere arimaren artha largaturic, ceruari eta içarrei beha baitarama dembora.

Bere burua ungui eçagutcen duenac, arguiatcen du bere burua, eta halacoac ez du atseguinic hartcen guiconec ematen dioçaten laudoriotan.

Munduco gauça guciez iaquin sun banintz, eta ez banu caritatea, cer probetchu nuque

Jaincoaren aitciñean, ceñac ene obrea  
atabera iuiatuco bainau.

2. Urçaçu sobera iaquiteco guticia; ecen  
hirritz harc hañitz spirituco barraiadura da-  
kharque, eta maiz enganioa.

Iaquinfunec aguertu nahi dute eta çuhur  
fama ardietsi munduan.

Bizquitartean badire milla gauça, ceñen  
iaquiteaz arimac ez baitu pto betchu gara-  
bic, edo guti haguiz.

Era errhoqueria handia da, salbamenducotz  
on diren gaucez bertcetari gogoaren ematea.

Hitz hañitcec ez dute contentatzen ari-  
ma, baiñan bicitce onac consolatzen du,  
eta conciencia chahuac ematen dio Jaincoa  
baitan fidancia handi bat.

3. Cembatenaz baitçare arguituago, ham-  
batenaz punituco çare garrasquiago, ez ba-  
çare iaquiñaren eredura sailduqui bicitzen.

Duçun beraz burupe baiño beldur gue-  
hiago eman çaizquitçun arguien eta talen-  
duen gatic.

Uste duçu benruraz hañitz gauça ikhasi  
ditutçula eta ungui daquizquitçula; segura  
çaitte haguizçez guehiago direla çuc ez da-  
quizquitçunac.

Ez duçun çute buruaz utguilluzco gogoe-  
tatic; aiticic aithor çaçu garbiqui çute ia-  
quingabetafuna.



Cergatic çure burua iduc bertceac baiño guehiago ; hañitz direnaz gueroz çu baiño iaquinfunagoac eta Jaincoaten legueac arguituagoac ?

Nahi duçu çure estudioaz eta iaquiñaz ungui probetchatu ? Onhetçaçu arbuiatua içatea, eta nihortaz eçagutua içan gabe bicitcea.

4. Ikhascaritic gorenà eta probetchosena da gure buruen eçagutcea eta mezpreçatcea.

Ala çuhurcia eta perfeccione handi baten seiñalea baita norc bere burua guti, eta bertce guciac hañitz, iduquitcea !

Ikhušten bacin du norbait huts agueritan erortcen, edo bekhatu handien eguiten, ercinquque hargatic çure burua hura baiño hobeagotçat estimatu behar : ecen ez daquiçu noiz arteraiño iraunen duçun estatu onean eta graciazcoan.

Guciac flacoac gare : baiñan çuc uste behar duçu ez dela nihor çu baiño flacoagoric.

### III. CAPITULUA.

*Jaincoaren ençutea, norc bere buruaren eçagutcea eta garaitcea dela eguiazco doctrina, eta ikhasi behar den çuhurcia.*

**D**OHATSU eguia, den beçala, bere baitan eçagutcen duena, eta ez figura edo hitz clartafunic utci gabe iragaten direnez.

Gure usteac edo opiniononeac enganatcen

gaitu maiz, eta gure spirituco bichta choill da laburra eta flacoa.

Cer probetchu da haiñ corrozqui arracoinatcea gauça illhunez eta estaliez, ceihen ez iaquirea ez baitçairçu bekhatutçat condatuco Jaincoaren iuiamenduan?

Errhoqueria handia da gauça baliofac eta iaquin beharrac utcitic, probetchu gabe-coen eta caltiarren ondoan ibitcea; hori da beguiac icatea, eta hetaz ez baliatcea.

2. Certaco ditugu filosofoen iharduquitce vanoac, eta hequien questione deuleraco on ez direnac?

Verbo eternala irakhatfaille duenac ez du horlaco gauça alfer eta funsgabecoez spiritua tratatcen.

Gauça guciac Verboac eguin ditu; hartaz mintço çairçigu gauça guciac. Hura da gure lehenbico principioa, eta hura bera mintço çaicu.

Harc ez bagaitu arguitcen ecin deus ikhas deçaquegu, ecin deusez ungui iuiadeçaquegu.

Jainco choilla gauça gucien orde duenac, gauça guciac Jainco choilla-ganat dakharz- quenac, guciac haren baitan ikhusten ditue- nac causitcen du bere bihotceco descansua eta bere baquea Jaincoa baitan.

O ene Jaincoa, eguia eternala eta sobe- ranoa! çurequin bat eguin naçaçu bethi irau- den duen amudioaz.

Hañitcetan unhatcen naiz hambat aditceaz eta iracurtceaz: çure baitan da ene guticia gucien compligarría.

Ichill beitez dotor guciac, ichill beitez creatura guciac çure aitciñean: çu choillqui mintça çaquizquit.

3. Cembatenaz baita nihor gança guciataric apartatuago, bere baitarat bilduago, bere barranean sartuago, hambatenaz etrechquiago eçagutcen ditu misterioric gorenac: ceren eguiazco arguiac heldu baitçaico cerutic.

Arima garbia, simplea, chuchena, eta bere deliberacione onei fermuqui datchacoena, beguiratcen da bere baitaric sobera ilkhilcetic eta hañitz eguitecotan bere burua barraiatcetic: ceren ez baitu gogoan Jaincoaren loria baicen, bere burua deuse-tan ere billhatu gabe.

Deusec ere ez darotçu hambat pena ematen eta hambat traba, nola çure bihotceco guticia desordenatuec, hequien hezteco eta mortificatceco artharic ez duçunean.

Presuna prestu eta Jaincotiarrac bere barranean lehenic moldatcen eta arrimatcen ditu, camporat eguiñ gogo dituen obrac.

Handi heldu da bethi arraçoiñaz gobernatcen baita, eta naturaleça biciofaren nahicatarac ez baititu eguiten.

Norc du gudu borthitçagoric bere burua garaitu nahiz hari denac baiño? Hortaz gure lan baxharra behar leiteque gure pendura gaichtoei guerla eguitea gure buruen heztea, eta egun oroz berthutean aitciña goatea.

4. Gure perfeccionea cerbait escafequin juntatua da bethi ere mundu huntan, eta gure arguiac ez dire cerbait illhuntasun gabe.

Gure buruaren eçagutça humilla bide seguragoa duçu Jaincoa ganat goateco, iaquintafunic handiena baiño.

Ez da hargatic arbuiatu behar edo gaichtotçat iduqui behar iaquintafuna eta estudioaren bidez ardiesten diren eçagutçac: onac dire berenez eta Jaincoaren ordenuaren arabera; baiñan hobeagoa eta preçatcecoagoa bethi ere conciencia garbia eta bicitce saindua.

Baiñan nola guehienec guticia handiagoa baitute hañitz iaquiteco, ecen ez ungui bicitceco, erortcen dire enganiorat eta eguiten dute probetchu guti edo batere ez.

5. Oi haiñ arthosqui hari balire bicioen erroetarie atheratcen eta berthuteen landatcen nola gauça vanoez atraçoiñatcen eta inarduquitcen, ez leiteque hambat gaichtaqueria eta scandala ikhuz munduaren artean, ez hambat defordenu comentuetan.

Eguiaz azquen indicioan etçaicu galdeguinen cer iracurri dugun, baiñan cer eguin

dugun: ez eta ea ederqui mintzatu garen; baiñan ea eta sailduqui bici izatu garen.

Erradaçu, non dire orai dotor eta nauñ çuhur hec noizbait bici ciren demboran eça-gutu ditutçunac? Hequiñ cadirac eta beneficioac bertceç daduzcate, benturaz hetaz orhoitcen ez direla: bici cireiño preçatuac ciren eta laudatuac, eta orai hetaz nihor ez da mintço.

6. Oi ceñ laster doan munduco loria! Ochala iaquinsun beçain saildu izatu balire! Manera hortan etçuten eguiñen estudio eta iracurtce probetçhosic baicen.

Cembat dire munduan bere iaquintasua vanoaz galtcen direnac, contu guti eguiñic Jaincoaren cerbitçatceaz?

Nola nahiago baitute munduaren beguic-tan handi izan, ecen ez humill, errebelatcen dire eta galtcen bere arraçoiñamenduetan.

Caritate handiac eguiten du eguiazco handitasuna, eguiazco handia da bere burua chume daducana, eta ohoreric handiense ere arbuiatcen duena.

Phil. Eguiazco çuhurra da lurteco *gauça guciac basaren pare daduzcana*, JESU-CHRISTO irabaztea gatic.

Eguiazco iaquinsuna da, bere nahiañ ukho eguiñic, Jaincoaren borondatea complitcen daquiena,

## IV. CAPITULUA.

*Ez errechqui sinhets bertceez erraten den  
gaizquia. Ez gaizqui iuia edo mintça  
bertceez. Balia prudenciaz.*

**EZ** DIRE sinhetsi behar erraten çaiçqui-  
gun, edo gogorat heldu çaiçquigun  
guciac: baiñan gaucaç pisatu behar dire  
Jaincoaren arabera astiroqui eta goardia  
handirequiñ.

Helas! gure flacotasuna haiñ handia da,  
non gogotacago bertceez sinhesten eta erra-  
ten baitugu gaizquia, ecen ez unguia.

Baiñan perfetec ez dute arinqui edo cein  
presuna sinhesten: eçagurcen dute cein her-  
bal, cein erorcot den guiçona, eta cein er-  
rechqui minçatcen den gaizqui bere lagun  
proximoaz.

2. Prudencia handia da eguitecotan ez  
lasterregui goatea, eta gute ustean edo sin-  
hestean ez hisituqui gogortcea.

Prudenciari dagoco halaber erran gucien  
ez sinhestea, eta aditu eta sinhetsi gucien  
ez erratea.

Harçaçu bethi ere conseillu guiçon çuhur  
eta prestu baren ganic, eta çure arguiac  
baiño harenac guehiago preçaçatçu.

Bicitce onac eguiten du nihor Jaincoa-  
ren arabera çuhur, eta hañitz gaucen eça-



gutça ematen dio berari frogaraciric.

Cembatenaz baita nihor humillago, cembatenaz haren baitan Jaincoac caufitcen baitu contresta gutiago, hambatenaz du haiñac çuhurtcia eta fofegu guchiago.

### V. CAPITULUA.

*Nola behar diren iracurri Eſcritura ſaindua, eta debocionezco liburuac. Conſeillu galdetu behar çaiela preſuna çuhurt eta preſtuei.*

**E**GUIA behar da Eſcritura ſainduan billhatu, ez eloquencia eta hitcen diſtiadura. Eſcritura gucia iracurri behar da eguiñ den ſpiritu eta chede beratequiñ.

Han ez da billhatu behar hitcen ederrafuna eta arrimua, baiñan arimaren probetchua.

Iracuratcigun haiñ gogotic liburu ſpiritualac eta debocionezcoac, lanoac içan atren eta edergaillu gabeac, nola curioſac eta gauça gorez mintço direnac.

Etçaçula beguira ea liburuaren eguillea iaquinfuna den, ala ez. Baiñan eguiaren amudio choillez iracuraçu.

Piſaçaçtu cor erraten çaitçun, contu eguiñ gabe nor den erraillea.

Pfal. 2. *Guiçnac badoaz, ordean Jaincoaren eguia behi dago.*

38. 7.

Jaincoa mintço çaitçu hañitz manera

fuertez, eta plazer duen presuna guciez.

Gure curiosafuna dela causa gaitcen du-  
gu maiz liburu sailduen iracurtcecie guin-  
duquen probetchua; çundatu nahi dugunean;  
lanoqui iragan behar laitequena, eta arraçoi-  
ñamenduric gabe sinhetli behar laitequena.

Nahi badugu çure iracurtceez probetcha-  
tu, iracuraçu hamilqui, simplequi eta fede-  
requin, iaquin sun aguertceco guticiarie gabe.

Çuhurrei gogo onez galdeguioçute con-  
seillu, eta respeturequin entçun çatçu sail-  
duen hitçac; etçaçula arbuia çaharren er-  
rancomuntac, eçen ez dite arraçoin gabe er-  
raten, eta maiz çarratcen dute çembait  
eguia handi.

VI. CAPITULUA.

*Affezione eta guticia desordenatuez. Ecin  
duquegula baqueric hec mortificaturic  
eta heciric baiten.*

**G**UIÇONAC ez du hain laster guticia de-  
sordenatu bat bere baitan garaitcerat  
uzten, non khechatcen eta alteratcen baita  
berehala.

Supherbioec eta avariciofec ez dute behin  
ere pausuric: pobreac eta spiritu humillac  
baque handi batean daramate bicia.

Bere baitan osoqui mortificatua ez dena  
eta bere passioneac hillac ez dituen, maiz

da tentatua, eta laster garaitua tentacione-  
ric chumeenez.

Presuna flacoa, berthutean guti borthif-  
tua eta sensuen atseguinen guticiac dituena,  
nekhez alde batera libratcen da munduco  
gaucen amudiotic.

Hargatic maiz tristatcen da eta erortcen  
çaiõ bihotça hetaric apartatu behar duenean,  
eta galtcen du errechqui paciencia nihore  
contra eguiten dioenean.

2. Bere guticia contentatcen badu, be-  
rehala concienciaco harrac altaratcen du;  
ceren ez baitu atseguin falso hartan causit-  
cen billhatcen çuen baquea eta fosegua.

Beraz bihotceco baquea ez da edireten  
gure nahi defordenatuac complituric, bai-  
ñan bai hei contra eguiñic.

Hala eguiazco fosegu hura ez daiteque  
causi guizon haraguizcotan, munduco spi-  
rituac darabilçanetan, eta campoco gaucen  
tatarat barraiatuac direnetan: baiñan causitcen  
da debocione kharfua dutenetan, presuna  
barrencoi eta Jaincoaren spirituaren ara-  
bera bici direnetan.



## VII. CAPITULUA.

Gure esparança eman behar dugula, ez gure baitan, edo bertce guizonen baitan, baiñan Jaincoa baitan, ceñna ganie heldu baitire on guciac. Humiliatu behar dugula eta gure buruac iduqui behar ditugula bertce guciac baiño gutiago.

**V**ANOA da eta çoratuá bere esparança guizonetan, edo ceñ nahi den creaturetatan ematen duena.

Etçaren ahalque **JESU-CHRISTO** gatic bertceen çerbitçatcera, eta mundu huntan pobre aguertcera.

Etçaitecela fida çure baitan: baiñan çure fidancia gucia emaçü Jaincoa baitan.

Eguçu çure aldetic çure eguiñ ahala, eta Jaincoa lagunduco çaitçu çure nahi eta che-de onetan.

Etçaitecela segura çure iaquiñean, ez eta ceñ nahi den guizonen prudencian, antcean, edo fehotafunean: baiñan çure esparança emaçü Jaincoaren gracion, ceñnac lagantcen baititu humillac, eta humiliatcen fidofac eta seguratuac.

2. Baldin baditutçu aberastafunac etçaçula hetan eman çure gloria eta burupea, ez eta çure adisquidetan, poderosoac badire ere: baiñan çure consolacionea eta boscarioa

emaçu Jaincoa baitan, ceïña ganic baititu-  
gu guciac eta ceïnac bertce guciën gainerat  
eman nahi baitarocu bere burua ere.

Contu guti eguiçu çure ungui eguiñtasu-  
naz, edertafunaz, eta gorphutceco bertce  
abantaillez, ceïnac eritasun chume batec  
deseguien baititu.

Etçaquizcola boz çure fechorafunari edo  
spirituari; beldurrez gaitci daquion Jaincoa-  
ri ceïña ganic baititutçu ditutçun dohaiñ eta  
talendu natural guciac.

3. Etçaçula iduc çure burua bertceac baiño  
hobeagotçat, beldurrez gucietaco gaichtoena  
aguer çaitecen Jaincoaren beguietan, ceïnac  
eçagutcen baitu guiçonaren barrena.

Ez duçun buruperic çure obra onen gatic:  
Jaincoaren iuiamenduac guteetatic choill  
dire differentac, eta harc gaitzesten du maiz  
guiçonei eder çaitena.

Deus onic balinbada çure baitan sinhetfa-  
çu guehiago dela bertceren baitan, eta horla  
egonen çare humiltafunean.

Ez duçu deus hirrizcatcen çure burua bert-  
ce guciën azpian emateaz: baiñan hañitz gait-  
cen duçu çure burua batez gorago iduquit-  
ceaz.

Bethieteco baquea du humillac: baiñan  
supherbioaren bihotcean maiz caufi daiteque  
ieloscortafuna, eta affarretafuna.

## VIII. CAPITULUA.

Hautatu behar dela adisquide çuhur eta prestu bat ; ez dela behar famillertu edo trebatu , mundanoequiñ , guciz gazteequiñ , aberatsequiñ , emaztequeiñ , bainan gure famillertafuna içan behar dela presuna berthutezcoequiñ , Jaincoarequiñ eta aingueruequiñ.

**E**Z dioçoçula edoceiñ aguer çure bihot- Eccles.  
 ça , bainan mintça çaitte çure eguite- 8. 12.  
 coez guiçon çuhur eta Jainco beldurti bate-  
 quiñ.

Gende gazteequiñ , campocoequiñ , mundanoequiñ , gutitan causi çaitte.

Ez aberatsei lausenga , eta ez çure oldez aguer handien aitiñean.

Adisquide eguiñ çaitte humillequin , simple eta chuchenequiñ , prestu eta Jaincotiattequiñ , eta mintça çaitte bethi ere arimacotz on diren gaucez.

Ez duçun adisquidetasun bereciric edo trebetasunic emaztequi batequiñ ere ; bainan Jaincoari gomenda diotçotçu generalqui emazte berthutezco guciac.

Jainco choillarequiñ eta aingueruequiñ desira çaçu maicenic içatea , egotea , mintçatcea ; eta ihez eguiçoçu guiçonon eçagutçari.



2. Mundu gucia maitatu behar da; baiñan hirriscu da mundu guciarequin trehe içatea.

Maiz preçatcen da presuna eçagutua ez dena bere fama ona gatic, eta bera aguertcen denean galtcen baitu bere estimua.

Uste dugu batçueran bertceec atseguin dutela gure maiz ikhusteaz, eta hec gaitsesten baicaituste hembatenaz guehiago, cembatenaz gure escafac hurbillagotic ikhusten baitiruste.

## IX CAPITULUA.

*Maita obeditea eta bertceren guidaren azpian içatea; nor bere ustean ez sobra finca, eror bertceren nahirat eta abisurat.*

**G**AUÇA handi bat da obedienciaren azpian bethi bicitcea, eta norc bere libertateari alde baterat ukho eguitea.

Segurago bide da, manatcea baino, obeditea. Hañitcec obeditecen dute, ez amarez, baiñan bortchaz; eta hec pena hañitz dute, eta deus gutiz mormoratcen dire.

Ez dute halacoec secular ardietsico spiritu libertatea, non ez diren obedienciaren azpian ematen bere bihotz guciaz, Jaincoaren amorea gatic.

Ibill çaite lekhu lekhu nahi duçun beçambat, ez duçu causituco eguiazco baqueric, aicindari baten guidaren azpian

humiilqui ematen ez baçare

Lekhu aldatceco guticiac, eta bertceran hobequi içateco usteac hañitz enganatu ditu.

2. Eguia da; batbederari on çaio bere buruz gobernatcea, eta guiçonec maitatcen dituzte hequien senfurat eta abisurat erortcen diren presunac.

Baiñan Jaincoa gurequiñ bada behar dio-gute batçueran ukho eguin gure argui propioei baquearen ontasuna gatic.

Ceiñ da guiçon haiñ çuhurra, gauça gu-  
ciac perfetqui daquizquiçna?

Etçaitecela beraz sobera gogor çure abi-  
suan eta siñhestean, baiñan gogotic entçun  
çaçu eta segui bertcerena.

Çurea ona delatic usten baduçu Jaincoa  
gatic eta hartcen bertcerena, merecimendu  
handi içanen duçu.

3. Hañitcetan aditu dut hobeago dela, eta  
segurago, mintçatcea baiño, entçutea, eta  
conseillu ematea baiño, hartcea.

Guertha ere daiteque batçuen eta bert-  
ceen abisua ona den: ordean bertcerenerat  
ez iusteac, arraçoiñac edo occasioneac hala  
galdetcen duenean, orguilletiaren eta hisia-  
ren seiñalea da.

## X. CAPITULUA.

*Utz mundanoen companiac eta solas sobraniazcoac; beguira ichilltasuna; probetchos direla solas spiritualac.*

**I**hez eguioçu ahal guciaz munduco habatarotfari eta nahasmenduari, ecen chede gaichtoric ez ičan arren, munduco gauen erabiltceac trabatcen du haguitz spiritua.

Vanitatezco airea sartcen da solas hetan, ceñac liçuntcen baitulaster gure arima eta debecatcen Jaincoa gana libroqui altchatcetic.

Ala nahi bainuque hañitz orduz egotu baininz ichillic, eta gende artean ez baninz caufiru?

Bañan nondic dugu hambat guticia elkharrequiñ mintçateco, solas hetaric hurren behiñ ere conciencia çaurthu gabe ilkhitcen ez garelaric?

Hori heldu da, ceren solas hequien bidez nahi baitugu cerbait consolamendu elkhatganic hartu, eta gure bihorça gogoeta diferentez cargatua eta nekhatua arindu.

Hargatic atseguñ dugu mintçatecaz haguitz mairatcen eta desiratcen ditugun gaucez, bai eta beldur garenez eta gute nahien contra direnez ere.

2. Bañan helaz! maiz alferric: ecen campo consolamendu hura ez da traba chumea

Jaincoaren barneco consolamenduentzat.

Beraz atcarriac eta othoitcean egon behar dugu, dembora alferrie ezdoa cuntzat.

Mintzatu behar bada, mintza çaite arimacoz on daitezquen gauzez.

Gure usança gaichtoa, eta berthutean aitzina goateco dugun artha gutia da causa hain gaizqui mihi beguiratzen baitugu.

Guciarequiñ ere solas spiritualac ez dire guti baliatzen perfeccioneco bidean aitzina goateco, guciz presuna Jaincoaren baitan iuntatuac, eta spirituz eta bihotzez bat eguinac elkhargana bilcen direnean.

## XI. CAPITULUA.

*Nola behar den ardietsi bihotceco baquea, eta aitzina goan berthutearen bidean.*

*Heci behar direla bicioac, eta guticia desordenatuac.*

**B**AQUE handi bat guindue nahi ez bauguindu sarthu bertcec erraten, edo eguiten dutenetan, eta guc contu eman behar ez dugun gaucetan.

Nola dagoque lucero baquean, bertceren eguitecoez behar gabeco arthac hartzen dituen, camporat spiritua barraiatzen duena, eta bere baitan guti sartzen dena?

Dohatsu simpletasun saindu batean bici direnac, ecen hec goçatuco dire baque handi barez.

2. Ceigatic saindu batçuc hainbat berthute ardietsi dute, eta hain gora contemplacionean altchatu dire?

Ceren bere bihotceic khendu baitute alde baterat lurreco gaucen amudioa, eta bide hortaz ardietsi baitute bere spirituco libertate osoa, eta lothu baitçaizco Jaincoari bere bihotceco indar guciez.

Baiñan guri sobra lan ematen darocu gure guticia desordenatuen contentatceac, eta artha sobra hartcen dugu gauça iragancorrez.

Gutitan garaitcen ere dugu bicio bat osoqui, ez dugu kharric berthutean aitciña goateco; hala bethi ephel eta bethi lacho guelditcen gare.

3. Gu baguine gure alderacotz osoqui hillac, eta munduco amarraduretaric libratuac, Jaincozco gauceti goctu harguinoçoquete, eta contemplacionearen goçotic cerbait froga guineçaque.

Guehienic gu trabatcen gaituena da, gure bicioac, eta guticia gaichtoac oraino biciaic baitire, eta hastantcen baicare sainduac bere exempluez eracutchi darocuten bidetic.

Cerbait atsecabe chume guerthatcen çaicunean ere, gogo hiltcen çaicu berehala, eta abiatcen gare munduco consolamenduen billha.

4. Guc baguindu bihotceic asco guduñan fermu

egoteco, ičan guineçaque falta gabe laguntça handi bat cerutic.

Ecen Jaincoa bethi dago gogotic laguntcerat haren alde guduan hari direnac, eta haren gracion bere esparantça dutenac, eta hanc berac foratazten ere darozquigu patadac guri khoroen mereciarazteco.

Religioneco perfeccionea, eta berthuteco<sup>o</sup> aiteñamendua choillqui ematen badugu campoco gauça batçuen chirrituqui complitean, gure debocioneac ez du hañitz iraunen.

Baiñan goacen gaitçaren erroraiño; hetzaticigun gure bihotceco mobimendu desordenatuac, eta goçatuco gare arimaco baqueaz.

5. Urthe guciez bicio bat atheratcen baquindu, eta khentcen bihotcetic, laster ardiets guineçaque berthuteaten perfeccionea.

Baiñan urrun gare handic: aiticic frogatcen dugu maiz conbertitu berrian berthute guehiago guinduela, handic hañitz urtheren buruan baiño.

Egun oroz saindutasunean behar guinduque berretu, eta orai hañitz daritçagu lehenbico kharraren ez osoqui galtcea.

Haltean gure buruei bottcha pichcabat eguiten baguiñote, handic haratco guciac errechqui eta bozcariorequiñ eguiñ guinetçaque.

6. Gaitz da usança gaichtoen uztea,



bañan gaitçago da oraiño norc bere nahiañ ukho eguitea.

Ordëan gauçaric chumeenetan ez baduçu çure burua garaitcen, nola bada garaituco duçu handienetan?

Hastetic contresta eguiçoçu çure bihotceco iaidurari, eta pendura gaichtoari, etçaçula èntçun çure hazdurac erraten darotçuna: beldurrez egunetic egunera gaitztafunac handi daitecen, eta eguiñ daquiçun ecin garaituzco traba.

Çuc baciñaqui cer baque cinduen cerrorec, eta cer boscario bertceec, çure eguiñbideen atabera bici baciñe, artha guehiago cindue berthutean aitiña goateco.

## XII. CAPITULUA.

*Cein progotchos den sofritea.*

**O**N da batçuetan guretçat penac eta trobelliac içateca, ceren hec gure baitan sararasten baicaituste, eta orhoitarasten deterru barean bici garela, eta ez dugula eman behar gure esparança munduco gauçetan.

On da noicic behin causi deitecen gure contrestarçailleac, eta gutaz opinione gaichtoa dutenac, gure accioneac, eta chedeac onac içan arren. Gauça heri maiz baliatcen da vanaloriatic gure beiratceco eta humilrafunean fincateco.

Nihoiz

Nihoiz ere ez dugu hobequi billhatcen gure barrenean Jaincoaren lekhucoafuna, eta aprobacionea nola campotic guizonac ar- buiatcen eta gaizqui iuiatcen gaituztenean.

2. Hargatic behar luque guizonac Jaincoa baitan hartaraino bortistu, non ez bailuque munduco consolationeen billharceco beharri.

Cembatenaz presuna prestu bat baita affligituagoa edo tentatuagoa, edo gogoeta gaichtoez penatuagoa, hambatenaz frogatcen da bere baitan hobequi Jaincoaren beharra, cein gabe ez baitaguiquegu deus onic.

Orduan tristatcen da, dago plainuz, eta othoitzez sofriteen tuen gaitzetaric libratua icateco. Unhatcen da hain luce bicitceaz, eta hiltcea defiratcen du bere gathetaric libro, eta JESU-CHRISTOREQUIN bat icateco.

Orduan eçagutcen du ez dela mundu huntan segurantça ofotic, ez baque perfetic.

### XIII. CAPITULUA.

*Tentacioneen progotchuaz, eta nola behar çaitoten contra eguin.*

**M**UNDU huntan bici gareino ecin gaitez- que afflictione, eta tentacione gabe.

Hargatic erran du Jopec, guizonaren bi- Job: cia ez dela bethiereco tentacioneric baicen 7. l. lurraren gainean.

Hargatic barbederac guardian egon behaç

I. Petr.  
5. 8.

luque tentacioneen contra, eta othoitcean  
erne beldurrez engana deçan debruac ceña  
ez baita behiñ-ere loharcatcen, eta *bethi gu-  
re ingurutan baitabilla nor irets ahal deça-  
quen.*

Ez da guiconic haiñ sainduric ez haiñ per-  
fetic, noicic behiñ tentacioneac ez dituenic,  
eciñ gaitzque ere osoqui halacoric gabe.

2. Halere tentacioneac maiz arimacotz pro-  
gotchos dire nekhagarric, eta fastigagarric  
diten arren, ceren guiconaren humiliatceco,  
chahutceco, eta arguitceco baliatcen baitire.

Saindu guciac hañitz affliccione eta tenta-  
cionetarie iragan dire, eta progorchatu dire  
hei contra eguiñic, eta tentacioneac eciñ iaf-  
san ditustenac reprobatu dire, eta galdu.

Ez da ordena haiñ sainduric, ez lekhu  
haiñ gorderic non ez baitire penac eta ten-  
tacioneac aurkhitcen.

3. Guicono bici deiño eciñ daiteque segu-  
ratua ez dela behiñ-ere tentatuco, ceren nola  
baicare concupicencian forthuac, gurequiñ  
baitarquegu tentacione guciñ ithurburua.

Tentacioneac eta tribulacioneac bara  
bertceari darraisco, eta gure lehenbicio  
dohatsutafuna galduz gueroftic içanen dugu  
bethi cerbait sofriceco.

Hañitz presuna tentacionei ihesi dabil-  
çala dohacabequiago hetarat etortcen dire.

Ihez eguite choillac ez darocu garaia emanen, baiñan pacienciac, eta eguiazco humiltasunac eguiñen gaitu gure etsai guciac baiño sendoago.

4. Campotic baicen gaitçari ihez eguiten ez dioenac, eta hura erroctaric atheratcen ez duenac, guti abantçatuco du: aiticitic lasterrago bihurtuco çaio tentacionea, eta lehen baiño borthitsquiago.

Errechquiago Jaincoaren laguntçarequiñ batean garaituco tutçu baratche baratche tentacioneac paciencia humilla eta luce batez; ecen-ez çure buruaren contraco gogortasun, eta amore gaitcez.

Har çaçu maiz conseillu tentacioneco demboran, eta ezçaçula gogorqui trata tentacioneez doloratua den presuna: aiticitic consola çaçu ceronec casu berean nahi cinduquen beçala.

5. Tentacione gucien hastapena gure arimaren inconstancia da, eta Jainco baitan fidancia escafa.

Ecen nola untcia lema gabe bat uhiñec norat nahi baitarabillate, hafa presuna lachoa eta bere deliberacionetan inconstanta darabillate tentacioneac.

Suac frogatcen du burdiña, eta tentacioneac guçon iustua. Eccles.  
31. 32.

Ez daquigu maiz certaraíño doan gure

ahala, baiñan tentacioneac eracusten darocinor garen.

Bizquitartean bethi erne egon behar da, eta bere gainqui tentacionearen hastean, ecen errechquiago garaitcen dugu etsaia aitcina goasconean, eta hurbill senti dugun beçain farti arimaco athea çarratcen diogunean.

Ovid. Hargatic erraten çuen çuhur barec : *Hastetic emoçu gaitzçari erremedio, bertcela alferric emanen dioçu sobera luçaturic gaitça naufitu denean.*

Tentacioneac baitu bere graduac; hastean ez da spirituco gogoeta bat baicen, guero imaginacione borthitz bat, guero atseguiña, guero mobimendu defordenatua, eta asqueñean consentimendua : baratche baratche etsaia sartcen da osoqui ariman barrena, ceren etçaiion berehala contra eguiñ.

Ecen cembatenaz berantcenago baitugu hari contra eguiterat, hambatenaz flacatcen gare guehiago, eta hura guehiago borthitsten da.

6. Batçuec bere conberfionearen hastean pairatcen tuste tentacioneric dorpheenac; bertce batçuec fiñean, badire bere bici gucian tentacioneez penatuac ditenc.

Batçuec tentacione ariñagoac dituste, eta horiec guciac guertatcen dite Jaincoaren çuhurtciaren eta iusticiaren ordenuen arabera, ceinac pisatcen baititu batbederaren disposi-

cloneac, eta merecimenduac, eta guciac ar-  
rimatcen bere hautetsien salbamenducotz.

7. Ez dugu betaz etsitu behar tentatuac  
garenean, aiticic hambatenaz khar guehia-  
gorequiñ othoitz eguiñ behar diogu Jaincoa-  
ri arren lagun gaitcan gure pena gucietan,  
eta harc iondoni Pauloc dioen beçala, *pro-* I. Cor.  
*gotchurequiñ atheraco gaitu tentacionetic,* 10. 13.  
*haren garaitceco indarra emanic.*

*Humilia gaitecen beraz Jaincoaren escu* I. Petr.  
*poderosaren azpian* tentatuac, eta affligituac 5. 6.  
garen gucian, ceren *humillac salbatuco,* eta Psal.  
bere loriarat altchatuco baitiru. 35. 19.

8. Guizona tentacionetan, eta trebesietan  
frogatcen da, hetan ikhusten du cembat  
berthutean aicniñatu den, hetan merecimen-  
dua handiago da, eta berthutea eçagunago.

Ez da gauça handi bat debocionean bero  
içatea deulic sofritceco ez denean, baiñan  
trebesietan pairacor denaz esparantça içateco  
da berthutean abantçatuco duela.

Halere badire batçuec ceñac tentacione-  
tic dorpheenac garaitu ondoan erortcen bai-  
tite chumeenetan, eta ardurazcotan, Jain-  
coac hori permetitcen du haiñac humilia-  
daitecentçat, eta bere indarretan fida ez di-  
tecentçat occasione handietan, haiñ flaco  
guerthatu diren ondoan ocasioneric chume-  
enetan.



## XIV CAPITULUA.

*Ez iuia berteez temerarioqui: finca çatçu beguiac çure gainean, eta etçaitecela iar bertceen accioneen iuie.*

**B**ERTCEREN iuiatcen hari dena, alfertic trabaillatcen da, maiz enganatcen da, eta errechqui hutsetan erortcen; baiñan bere buruaren iuiatcen eta examinatcen hari dena, berthi progotchosqui hari da.

Gure bihotceco penduren arabera dire comunsqi gure iuiamenduac, eta gure amudio propioac gaichtatcen tu guchienean.

2. Jaincoa balitz gure chede bakharra, eta gure guticia gucien obiecta ez guintefque haiñ errechqui altara gure sentimendueti contra eguiten çaienean.

Baiñan maiz edo cembait amarradura gordec, edo cembait campoco obietecgaramatça.

Batçuec gordequi eta nola ez daquitela bere buruac billhatcen tuste bere accione gucietan.

Baquean daudez eta foseguan hequiñ gogara gauçac doaceiño, baiñan hequien degogara deus guerthatcen bada, altaratcen dire eta tristatcen berehala.

Sentimendu eta umore contrarioec escatimac forarasten tuste adisquideen, herri-tarren; ordena saindutaco presunen, eta prestuen, eta Jaincotiarren artean.

3. Ufança çaharrac nekhez usten dire,  
eta ez dugu utci nahi gure argui propialez  
urrunago guidatcerat.

Çure spirituan eta çure antcean guehiago  
fidatcen baçare, ecen ez JESU-CHRISTOREN  
indarcean, ceñac irabaften eta garaitcen  
baititu bihotçac, gutitan eta berant içanen  
ditutçu haren arguiac, ecen Jaincoac nahi du  
haren azpian perfetqui humilia gaitecen, eta  
amudio kharfu batec sacrificia diotçan gure  
arraçoiñ eta argui guciac.

---

XV. CAPITULUA.

*Accione guciac amudiorequiñ eguiñ behar  
direra.*

**E**Z da eguiñ behar gaizquitic deusen ere  
gatic, edo nihoren amorea gatic; bai-  
ñan obra on bat hasia utz deçaquegu, edo  
gambia hobego baterara, gute lagun pro-  
ximoaren beharrac hala galdetcen duenean.

Manera hortan gure obra ona ez da galt-  
cen, baiñan bai hobego baretarat gambiatcen.

Jaincoaren amudioa gabe eguiten diren  
obrac, ez dire deusetaco baliatcen; baiñan  
Jaincoaren amudioz eguiten diren gançac  
merecimendusçac dire, chumeac eta mes-  
preçagatriac iduri arren.

Jaincoac ez du hambat consideratcen cer  
obra eguiten dugun nola cer chedezhari garen.

2. Hañitz maite duenac hañitz eguiten du, Ungui eguiten duenac hañitz eguiten du, eta ungui eguiten du bere progotchua baiño bertcerena hobequi billhatcen duenac.

Maiz chede humanoec garabiltçate, eta uste baitugu caritatea garabiltçala; ecen gure pendura naturala, borondate propicia, cembait abantailen esparantça, eta gure aisien guticia hurren sentitu gabe sartcen da gure chedeetan.

3. Jaincoaren amudio eguiazcoa, eta perfeta duenac ez du deufetan ere bere burua billhatcen; baiñan gauça gucietan billhatcen du Jaincoaren loria.

Etçαιο nihori berkaisten, ecen ez du bere baitan ematen bere contentamendua.

Ez da bere baitan aleguetatcen, baiñan bai Jaincoa baitan, ceña baita harc desiraten duen ontasun bakharra, eta hura dohatfu errenda deçaquena.

Ez diote ematen creaturei ontasun baten ere buruperic, baiñan on gucien loria ematen dio creatçailleari, ceña ganic heldu baitire gauça on guciac bere ithurburutic beçala, eta ceña baitan causitcen baitute fainduec bere errepafusu eta dohatfutafun soberanoa.

Oi eguiazco caritatetic den gutiena baguindu, ikhus guineçaque munduco gauça guciac ez direla vanitateric baicen!

## XVI. CAPITULUA.

*Nola behar tugun iasan bertceren escasac.*

**G**URE edo bertceren baitan eciñ corregi detçaquegun escasac, behar tugu pacientqui iasan, Jaincoac bertcela ordena deçaqueen arteraiño.

Sinherfaçu benturaz hori hobe dela gure frogateco, eta gu borthitzteco paciencian, ceña gabe deus guti condatu behar baitire gure merecimenduac.

Halere behar diogu Jaincoari miñqui othoitz eguiñ; deseguiñ detçan gure baitan traba hec, edo eman dieçagun indarra hequin ungui iafateco.

2. Presuna bat behiñ edo bietan abifatu duçun ondoan ez bada erortcen çure sentimendurat, etçaçula guehiago harequiñ ihar due; baiñan utçaçu gucia Jaincoa ganat, haren borondatea compli dadiñtçat, eta haren loria aguer dadiñtçat haren cerbitçarientan, ecen badaqui harc ungui gaitça onera gambiatcen.

Ufa çaitte bertceren escasen eta flaquicien pacienciarequiñ iafaten, ecen baitutçu çuc ere hañitz bertceec pairatu behar ditustenac.

Hortaz ecin çure burua erakhar badeçaçunque nahi cinduquen cozcara; nola bertceac moldatuco tutçu çure nahien eredura?

Atseguin dugu bertceac ičan ditecen escasie gabe, baiñanguerorrec ez ditugu gureac usten.

3. Nahi dugu hec garrafsqui mehatcha ditecen, eta ez dugu gueronec nahi mehatchatuac ičan.

Errateco dugu bertcei bere galdeac errechquiegui complitcen caizcotela, eta ez dugu nahi guri dens errefusa daquigun.

Guldeguiten tugu bertceentçat erreguelamendu hertsiac, baiñan guretçat ez dugu nahi hertsitasun garabic.

Agueri da beraz cein guti bertceac gure buruaz neurtcen tugun.

Mundu gucia escas gabe balitz cer guinduque guionen ganic pairatceco Jaincoaren amorea gatic?

4. Baiñan Jaincoac bertcela ordenatu du, ikhas deçaguntçat elkharren carguen iafaten.

Nola ez baita nihor escas gabe, hala ez da nihor carga gabe.

Nihor ez da beretçat asco, nihor ez da asqui çuhut bere buruaren guidatceco, eta behar dugu guciec elkhar iafan, elkhar conso-latu, elkhar lagundu, era abisu onez arguitu.

Ez da berthutearen froga seguragoric sofricariac baiño.

Ecen occasionec ez gairuste flacatcen, baiñan cein flaco garen etacusten.

## XVII. CAPITULUA.

*Religioneco bicitceaz.*

**I**KHASI behar duçu hañitz gaucetan çure buruari bortcha eguiten, eta çure nahia garaitcen, bertceequiñ batasunean bici nahi baduçu.

Ez da gauça gutia comentu edo congregacione batean errencuratceco suietic eman, edo hartu gabe bicitcea, eta heriotceraïño bicitce erreguelatu batean irautea.

Dohatsua da han eramán duen bicitce saindua heriotce on batez khorotcen duena.

Nahi baduçu berthutean fermu egon, eta goan aitciña, çure burua iducaçudesterratubat edo bideante bat beçala lurraren gainean.

Religioneco bicitcea eramán nahi duenac, eta JESU - CHRISTOREN gogaraco içan nahi duenac, iguriqui behar du errotçat itchi-quico dela munduaren artean.

2. Ordenaco arropa, eta illeaten mochtea deus guti baliatcen dire: bicitcearen gambiantçac, eta pasioneen mortificacioneac eguiten du eguiazqui Religioneco presuna.

Jaincoaz eta salbamenduaz bertceric billhatcen duenac, ez du causituco doloreric eta ondicoric baicen.

Gucien azquen, eta gucien azpico içan nahi ez duenac eciñ duque baque luceric.



3. Orrhoit çaitte obeditecera ethorri çarela, eta ez manatcerat, Religionerat deithua içatu çarela sofriteco eta traillaiteco, eta ez solas alferretan dembora gaitceco.

Comentutan beraz frogatcen dire guicçonac, irrea labean beçala.

Han nihorc ecin iraun deçaque ez bada Jaincoa gatic humiliatcen bere bihotz guciaz.

## XVIII. CAPITULUA.

*Sainduen exempluaraz progotchatu behar dugula.*

**C**ONSIDERA çatçu sainduen exempluar, ceinac içatu baitire Religionearen eta perfeccionearen mirail biciaç, eta caufituce duçu deus guti edo ez deus dela guc eguiten duguna. Helaz! cer da gure bicia hequieneren aldean?

Sainduac eta JESU-CHRISTOREN adifquidec cerbitçatu dute Jaincoa, sofritec dutela gosea eta egarria, hotça eta billhustafuna, nekheac eta traillaueac, beillac eta baturac; eguin dituste othoitçac eta meditaçione sainduac, eta pairatu hañitz persecuçione eta laido fuerte.

2. Oi cembat pena dorphe eta afflicçione gogor ez dute pairatu Apostoluec eta Martyrec, Confesorec eta Virginec, eta JESU-CHRISTOREN urratsei, iarraiqui nahi içatit

IMITACIONEA. I. LIB: 61

caisten bertce guciec? *Higuindu ičan dute Joan:*  
*mundu huntan bere bicia, hartaz goçatceco* 12. 25.  
*eternitatean.*

Oi! ala desertuco aitec eramán duten bi-  
 citcea içatu baita pobrea eta mortificatua!  
 Ala hequien tentacioneac luceac içatu baitire  
 eta dorpheac! Cein maiz ez dire hec içatu et-  
 saiaz persecutatuac? Oi! nolacoa içatu den  
 othoitcetán hequien berotasuna eta iarraiqui-  
 tasuna? Cein garratçac içatu diren hequien  
 abstinienciac? Cein zelo kharfua içatu du-  
 ten debocionean aitciná goateco?

Cer animorequin ez diote guerla eguin  
 bicioei? Cer chede chuchen eta chahurequin  
 billhatu ez dute Jaincoa? Egunaz lanean hari  
 ciren, eta gabaten guebien partea othoit-  
 cean çaramaten, eta lanean hari cirenean  
 ere hequien spiritua etcen othoitz eguitetic  
 guelditcen.

3. Bere dembora gucia progotchosqui em-  
 plegatcen çuten; orenac laburregui citçaiç-  
 coten Jaincoa baitan aplicatuac egoteco, eta  
 contemplacionean sentitcen citusten atse-  
 guinec ahantzarasten ciotçoten gorphutceco  
 beharri handienac.

Ukho eguiten cioten aberatstasunei, car-  
 guei, ohoreei, adisquideei eta ahaideei; eta  
 etçuten desiratcen munduco gauçaric batere.  
 Doidoia hartcen çuten biciarentçat behar-

cena ete, eta etçuten bere gorphutcez eciñ bertcezcó arthatic baicen.

Pobre ciren munduco ontafunez, baiñan aberratatz graciaz eta berthutez. Campotic gaudiac escaz citusten, baiñan barrenean cerucodohaiñez eta consolacionez betheac ciren.

4. Munduarequiñ atce beçala bici ciren, baiñan Jaincoaren adisquideric maiteenac hec ciren.

Munduac mezpreçatcen cituen, eta bere beguietan ete etciren deus; baiñan Jaincoarenetan maite etapreciatu ciren humilitasun eguiazcoan bici ciren, obediencia simple batean, caritate eta paciencia perfet batean, eta hala egun guciez bicitce spiritualean airtciñatcen ciren, eta berretcen ciren gracia eta berthutez.

Saindu hec eman içan diotçate miraillet Jaincoac Religioneço prefuna guciei, eta hequien exempluac hobequiago behar gaitz obra onetarat animatu, ecen ez hañitz ephalen ikhusteac lachatu.

5. Oi nolacoa içatu den fraide eta ferogucien debocioneço kharrta bere ordenen hatapenean! Ceiñ handia hequien othoitceço berotafuna, hequien lehia elkharren berthutean imitatceço, bere erreguela pontaren pontu beiratceço! Nolaco errespetua eta obediencia bere airtcindariençat!

Hec utci darozquiguten berthuteen urrat-  
fec eracusten darocute eguiazqui perferac  
cirela, eta icatu dutela animo munduari  
guerla eguiteco, haren garaitceco, eta bere  
handirasun guciequiñ osticatceco.

Orai gauça handitçat daucate botuac ez  
haustea, eta hartu duten uztattia pacientqui  
iasatea.

6. Oi gure demboraco lachotafuna eta ephel-  
rafuna, lehenbicico khat hura laster iraun  
guituda, eta haiñ gare flacoac eta hagonan-  
duac non bicia ere nekhagarri baitçaicu!  
Ochala hambar fainduten exempluec biche  
baleçate gure baitan ere faindutceco guticia!

XIX. CAPITULUA.

*Deboçioneco pratiquez.*

**R**ELIGIONECO presuna preñtu baten bicit-  
ceac behar du ican berthute guciez  
berreguindua, campotic agueri den beçala-  
coa barranean ican dadiñçat.

Artha guehiago behar du ere ican barre-  
naz, ezen ez campoaz, ceren Jaincoa baita  
gure bihotceco mobimenduen lekhucua eta  
iucua, eta hala haren aitciñean aguertu be-  
har baitugu Aingueruen errespetuarequiñ,  
eta garbitasunarequiñ.

Hortaracotz egun oroz erreberitu behar  
ditugu gure deliberacione onac, eta bichtu

behar dugu gure kharra, gure conberfiotea egun hali balitz beçala. Erran behar diogu Jaincoari: Jauna, lagun naçaçu çure ungui cerbitçatceco eman darotaçun defira onean, eta indaçu gracia egundic ungui hafnadiñ, ecen orai ateraiño eguin ditudan guciac et dire deus.

2. Berthutean gure aitciñatcea, maiz gure deliberacioneen berotasunac eguiten du, eta bide hañitz eguiñ nahi duenac animo handi behar du.

Baldiñ deliberacioneric hoberenac hartcen dituena ere erortcen bada maiz, coiganen da bada gutitan eta flacoqui deliberatcen dutenez?

Hañitz manera fuertez guerthatcen da gure lachatcea deliberacione onetan; eta Jaincozco eguiñ bidetan eguiten dugun hurbichumeena ere hurren bethi gure caltecat eta gutimendutan eguiten da.

Bizquitartean justuen deliberacione onta hobequi dire fundatuac Jaincoaren gracia ecen ez hequien çuhurtcian, eta cerbait eguiterori lotcen çaiztenean, Jaincoa baita emana dute bere esparantça gucia. Ecen gur

Prov. çonac *deliberatcen du, eta Jaincoac dispo*  
16. 9. *fatcen du*; eta guçonac bere çorthea ez da  
Jerem. bere escuco.

10. 23.

3. Gure arduraco debocioneac usten bada

tu,

rugu noicic behiñ Jaincozco chedez, edo gure anaien progotchua gatic huts hura errechqui erremediatuco dugu, baiñan defgustuz edo lachotafunez usten baditugu, hutz handia içanen da, eta sentituco ditugu haren ondoreac.

Jarrai qui gaguizcoten beraz ahal guciatz gure eguimbideci, guciarequiñ sobra baicen ez dugu hutz eguiñen haiñitz gaucetan.

Halere on da bethiere cerbaiti lot gaquizcon particularrean, eta guciatz har detçagun gure deliberacioneac perfeccioneco bidean caufitcen ditugun traben contra. Orobar behar dugu içan artha gure barrenaz, nola gure campoaz, ecen bieç eguiten dute gure aitiñamendua.

4. Instant guciez çure barrenean eciñ sar baçaitezque, sar çaitte bederen demboratic demborara, eta gutiencan egunean behiñ, goicean edo arratsean.

Goicean arrima çatçu çure spirituan egunean eguiñ behar ditutçun gauça guciac, eta examina çaçü arratsean cer eguiñ duçun, nolacoac içata diren çure gogoetac, hitçac eta obrac, eta caufituco duçu menturaz hutz haiñitz eguiñ duçula Jaincoaren eta lagun proximoaren contra.

Harçatçitçu armac soldadu balent batec beçala deabruaren maleciaren contra: ebaç



atçu jan edaneco sobrania guciac, eta errechi-  
quiago garaituco ditutçu haraguiaren bertce  
guticiac.

Ez çaudecela behiñ-ere alferric, aittetic  
aurkhi çaitc bethi othoitcean edo meditacio-  
nean, iracurtcen edo iscribatcen, edo bal-  
facotz cerbait lanen eguiten.

Halere bada campoco praticac eta gor-  
phurceco obra debocionezcoac prudenciare-  
quiñ hautatu behar dire, ecen ez dire guciac  
on guciencat.

5. Gureçat particularqui hartu ditugunac,  
ez ditugu bertcen aitticnean eguiñ behar,  
ecen segurago da hec gordequi eguitea.

Beguirautçu halere içan etçaitecen lacho  
comuneco debocionetarat, eta sobra khar-  
su çure practica hautesietarat, baiñan çure  
eguinbideac arthosqui eta osoqui complitu  
ondoan, balin baduçu guehiagoco dembor-  
ric, emplega çacu çure debocione particular-  
rac inspiratcen darozquitçun gaucen eguiten.

Guciec eciñ duquete emplegu bera, bata  
gauça batecotz da gai, eta bertcea bertcecotz.  
Eta on da ere demboren arabera debocione  
differentac hartcea, ecen batçuec hobegu-  
dagozcote beste, bertceac astelegunei.

Batçuen beharra dugu tentacioneco dem-  
boran; eta bertceena baquean eta sofeguan.

Batçuec on ditugu triste gaten demboran.

eta bertce batquec Jaincoa baitan boztuac  
garenean.

6. Besta handitan erreberritu behar dugu  
gure debocionea, eta galdetu berotasun han-  
direquiñ fainduen arartecotasuna: on da besta  
bateric bertcera presta gaitecen orduan mun-  
duti ilkhi behar baguindu beçala, eta goan  
eternitaterat, ceñetan eguiñen baitugu do-  
hasuen besta handia.

Hala dembora fainduetan gure artha gucia  
behar da içan gure bicia guehiago faindut-  
cea, eta gure eguinbide guciac leyalqui com-  
plitcea, gure nekheen saria, içateco menean  
baguiñe beçala.

7. Eta baldiñ Jaincoac luçatcen badu orai-  
ño gure golardoa, siñhetz agun ez garela  
oraiño asqui prest, eta ez garela digne haren  
gloriaren ikhusteco ceña eracutfico baitaro-  
cu berac ordenatu duen demboran; eguitci-  
gun beraz gure eguiñ ahal guciac ungui pres-  
taturic ilkhitceco mundu huntaric.

*Dohatsu cerbitçaria* ( dio San Luc Evan-  
gelistac ) *jauna heldu denean atçarría edi-* Luc:  
*renen duena, erraten darotçuet eguia bere* 12. 37  
*ontasun gucién gainean eçarrico duela.*

## XX. CAPITULUA.

*Maitatu behar dela erretiramendua,  
eta ichilltasuna.*

**H**AN çaqu dembora çure baitan sart-  
ceco, eta maiz gagoan erabill çatçu  
Jaincoa ganic errecibitu ditutçun ontasunac.

Utz acitçu curiostasun guciac, eta hauta  
çatçu liburuac spirituaren bethetceco baiño  
bihorçaren uquitceco gagaio direnac.

Çure eguirecoen contutic khentcen badi-  
tutçu solas vanoac, visita alferrac, eta mun-  
duco berriac, causituco duçu demboratic al-  
co othoitcean, eta meditacionean egoteco.

Sainduric handienac urundu dire ahal gu-  
ciac guizonen baltzaric, eta hantatu içan  
dute bakhartasunean Jaincoaren cerbitçatcea.

2. Arroçoiñequiñ etran çuen lehenago çu-  
Senec. hur batec: *Ez naiz egundaiño guizonen ar-  
Ep. 7. tean içatu non ez naicen gutiago, eta flaca-  
tuago bihurtu*; eta gauça hori frogatcen du-  
gu çure solasac lucechco diren gucian.

Errechago da garabic ez mintçatcea, ecen  
ez hasi gueroctic ez sobera mintçatcea.

Errechago da etchean bakharric egotes,  
ecen ez camporat gueroctic bete buruaren  
ungui beguiratcea.

Beraz bicitce spiritualean aitciñaru nahi  
duenac behar du Jesusequiñ manduaten

atetic, eta habarrotsetaric erretiratu.

Erretiramendua onherfi behar da segurant-  
çarequiñ campoan aguertceco. Ichillic ego-  
ten ezdaquienac beldurrequiñ behar du mint-  
çatu. Cerbitçatcen ez daquienarençat hirrif-  
cu da buruçagui içatea; obeditcen daquienac  
ungui manatcen du.

3. Ez da bozcario eguiafcoric conciencia  
onaren foseguan baicen.

Halere fainduen segurantça bethiere iun-  
tatua içatu da Jaincoaren beldurtasunarequin,  
eta cembat baitciren ere gracion, eta ber-  
thutean altchatuac, bethi humill içatu dire,  
eta ikharan egotu dire. Contrarat gaichta-  
guinēn seguratasuna heldu da hequien or-  
guilleriatic eta burupetic, eta azquenean ba-  
liatcen da hequien enganatceco eta galtceco.

Ezçaçula çure burua segurean conda mun-  
du huntan çareinō, comentuan edo defertuan  
fainduqui bici baciñ ere.

4. Maiz confidencia sobrac etchatu ditu  
hirrifcuric handienetarat munduac guehienic  
estimaticen cituenac. Hargatic da on hañit-  
cençat tentacionetatic osoqui libro ez iça-  
tea, aiticitic hetaz hufu penatuac içatea;  
beldartez segurantça sobrac erorazar detçan  
orguilleriarat, eta libertate sobrarequiñ ibill  
daitecen consolacione humanoen ondoan.

Oi ala gure conciencia garbia bailiteque;

bozcario iragancorren billia ibiltcen ez baguñe, eta munduarequiñ eguitecoric ez baguindu!

Oi nolacoa litequen gure bihotceco baquea eta sofegua, behargabeco arthac utciric, gure salbamenduan baicic pensatcen ez baguindu, Jaincoa baitan gure esparantça guciac ematen ditugula!

5. Nihor ez da gai ceruco consolacioneen errécibitceco, ez badu maiz sentitu bere baitan bihotz doloratu, eta humiliatu baten urriquia.

Nahi baduçu urriqui miñ harc ukhi deçan çure bihotça, far çaute çure barrenean, utrun çaute munduco habarrotsetaric, eta Psalmoetan escribatua den beçala, çure ohean  
Pfal. eman çaute urriquimenduzco sentimendu  
4. 5. eguiazcoetan. Caulituco duçu çure erretiramenduan maiz mundupean gal ciñeçaquena.

Erretiramendua ederresten da ungui beguiratua denean; baiñan gaizqui beguiratcen bada, unhagarri da eta desgustagarri.

Çure conberfionearen hastetic erretiramenduan lakhet baduçu, guerorat maitatuco duçu, eta çure arimac han gustatuco ditu consolacioneric estienac.

6. Ariina debotac eta Jaincotiarrac ichitrafunean eta sofeguan eguiten da bide berzhutean, eta han ikhasten ditu Scripturaco secretuac.

## IMITACIONEA. I. LIB. 71

Han causticen ditu nigarrezco chirripac  
ceñez garbitcen baitu gau guciez, bere arima;  
eta hambatenaz hurbiltcen da bere  
Jaincoa ganat, cembatenaz urruntcen baita  
munduco eguitecoetatic eta habarrotsetatic.

Bere adisquidetatic eta eçagunetatic ur-  
runtcen dena hurbiltcen da Jaincoa ganat, eta  
aingueruen ganat.

Hobeago da gorderic egotea, eta salba-  
menduaz artha icatea ecen ez attha hura utci-  
ric miraculluen eguitea.

Religioneco presuna batentçat laudagarri  
da guti ilkhitcea, ez ikhufi, ez ikhusia nahi  
icatea.

7. Cergatic nahi duçu ikhufi çuretçat icat-  
tea cilhegui etçaiçuna? Mundua itagaten da,  
eta itaganen dire halaber munduco guticiac  
ere.

Atseguinaren hirritfac bagarabiltça maiz  
pasaïeta alferretan, baiñan dembora hura  
goan denean, cer handie ekharrico dugu le-  
khat concienciaren pisutafuna, eta bihorce-  
co barraiadura.

Maiz nihor aleguera ilkhitcen da, eta  
triste bihurtcen, eta arratz bozcariozcoac  
goiz tristea dakharque.

Hala ohi dire munduco bozcario guciac,  
atseguinequin sartcen dire, azquenean çautt-  
cen dute eta hiltcen arima.



Cer ikhusico duçu bertcetari, ikhusten ez duçunic çaren lekhuari? Beguien aitciñean ditutçu cerua, lurra eta elementac, bada hetaz eguiñac dire munduan ikhus daitez quen gauça guciac.

8. Cer ikhus deçaqueçu iguzquiaren azpian bethi iraun deçaqueñic? Uste duçu menturaz contentamendu oso bat causituco duçula, ezequi ez duçu causituco secular.

Munduco gauça guciac betari çure aitciñean ikhusten bacintu ere, cer liteque ikhuste vano bat baicen?

Altcha çatçu beguiac gorat çure Jaincoaganat, eta othoit çaçü barkha dietçaquitçun çure bekhatuac eta lachotafunac.

Utz diotçatçure gauça vanoac presuna vanoeri, çu lotçaquizco Jaincoac manatcen darotçun lanari.

Hertsaçü barnetic çure guelaco athena eta deithaçü harat çure JESUS mairea. Egon çaita harequiñ, nihon ez duçu causituco hambat sosegu.

Handic ilkhi ez baciñe, eta hambat bertez bacindu aditu hobequi goçatuco ciñen bihotceco baqueaz. Gauça berrien aditcen arseguñ hartcen dugun pontutic, bihotça alataratcen da, eta spiritua barraiarcen.

## XXI. CAPITULUA.

*Bihotceco urriquimendua.*

**N**AHI baduçu aitciñatu debocionean, iducaçu çure bihotça Jaincoaren beldurtasunean, eta ez dioçacula eman çure buruari sobera libertate, baiñan ithecatçu çure sensuac goardia hertsiazen azpian, bozcario vanoeti ihes eguiten dioçutela. Eman çaquizco osoqui çure bekhatuen doloreari, eta ardietsico duçu debocione eguiazcoa.

Dolore harc hañitz ontasun ematen darocu; baiñan spirituco barraiaduta ontasun hec guciac galarastlen darozquigu.

Espantagari da, nola ahal duqueen guiçonac mundu huntan instant batez ere eguiazco bozcarioic; consideratcen duenean bere desterrua, eta cembat hiriticu harrigarriz den inguratua.

2. Gure bihotceco arintasunac, eta bicioen usteco dugun ansicaberasunac debeatcen gaitu gure arimaco çaurien sentitcetic, eta hala hirri eguiten dugu maiz nigar eguiñ behar guinduqueen demboran.

Ez da eguiazco libertateric eta ez bozcario perfetic, Jaincoaren beldurtasunean eta concienciazen garbitasunean baicen.

Dohatsu, traba eta barraiadura gucieta-  
tic spiritua libra ahal deçaqueena, eta bere

bekhatuen urriquiac bere baitan farraraste duena. Dohatsu conciencia lohi edo carga deçaqueten gauça guciac bere ganic hastamen dituena.

Duçun animo eta ezçaitecela guduan unho, ufantça onac gaichtoa garaitcen du. Ikhatte baduçu behin guçonen aldebererat usten, hec ere utcico çaituste laster nahi duçunaten eguitera.

3. Ez çaitecela carga bertceren arthez eta lanez, guciz ez çaitecela sar handien egurecoetan. Çure beguiac finca çatçu lehenc çure buruaren gainean, eta çure abisu onko lchenago emotçu çure buruari, çure adisquideric maiteenei baiño.

Guçonen gracion edo adisquiderafunear ez baçare, ez duçula gauça hortaz bihotz miñic; baiñan çure damu gucia behar da içan cerenetçaren bici Jaincoaren cerbitçari edo Religioneo presuna batec behar luqueen herritasun eta goardia guciarequiñ.

Maiz segurago da eta progotchosago mundu huntan consolacione hañitz ez içareta, guciz sensuen araberacoric.

Jaincozco consolacioneez denaz beçambertean, maiz gure falta da ez balinbaditugueren ez baicare asqui enfaiatcen gure bekhatuen urriquia bihotcean formatcera, eta esbaidiogute ukho eguiten aldebererat consolacione humanoeci.

4. Eçagut çaçu beraz ez çarela digne ceruco consolacioneen errecibirceco, aicitic ez duçula mereci damuric eta desgulturic baicen.

Eguiazco urriquiaz bihotça hautsia denean munduac ez du harentçat kiratsic eta behacunic baicen. Guiristiño on batec berthi cauricen du arraçoĩnic asco nigarretan eta doloretan egoteco.

Ecen considera deçan bere burua edo bere lagun proximoa, ez du ikhusten alde gucietan laceriaric eta ondicoric baicen, eta cembatenaz guehiago bere burua examinatcen baitu, hambatenaz guehiago doloratcen da.

Hortaz gure urriquien eta ni garten arraçoĩn iustuac dire gure bekhatuac eta bicioac, ceĩnec halaco maneraz baicaduscate herstuac eta çapatuac, non hurren ecĩn ceruco gaudetan pensa baiteçaquegu.

5. Bicitce lucean baiño heriotce hurbillean maizago bacindu gogo, khar guehiago cindaque çure biciaren chuchenceco.

Fede bici batequiñ consideratcen bacintu ifernuco eta purgatorioco tormentac, uste dut ez leitequela penaric edo nekheric gogorregui litçaiqueçunic, eta gogo onez paira etcĩneçaquenic.

Baiñan nola eguia important horiec ez baitire sartcen gure bihotceraiño, eta oraiño

fensuen atseguin en ondoan baigabiltsa, bethi  
epheltasunean eta naguitasunean guelditce-  
gare.

6. Maiz gure spirituaren flacotasunen  
heldu da gorphutz dohacabea haiñ sentior  
eta errencutanti baita. Eguiocu beraz otboia  
Jaincoari humilqui, eta galde dioçocu bi-  
hotz urriquimenduz doloratu bat, errate  
Pfal. dioçula Profetarequiñ: *Iauna, ianaraz di-*  
19. 6. *çadaçu nigarrezco oguia, eta edanaraz*  
*dieçadaçu abundantqui ene nigarren ur-*

## XXII. CAPITULUA.

*Consideratu behar ditugula mundu huntan  
miseriac.*

**N**ON nahi den içan çaitecen, eta not  
nahi den itçul çaitecen, bethi dohacabi  
içanen çare, Jaincoari lotcen ez baiçaitce.

Cergatic altaraten çare çute chedete  
heltcen ez çarenean? Nor da gauça gucia  
bere gogara dituen? Ez çu, ez ni, ez mu-  
duan nihor. Ez da mundu huntan nihor pe-  
nariç eta ondioric gabe, licela ere Erregu-  
edo Aita Saindua.

Gucietaco dohatfuen da Jaincoaren am-  
rea gatic, cerbait pairatcen duena.

2. Flacoec erraten dure maiz: Ala hunc  
laco dohatfu baita! ala aberats! ala podoc  
baita!

Baiñan beha dioçoçute ceruco ontafunei,  
 eta ikhufico duçu mundu huntaco gauça gu-  
 ciac ez direla deus; guti segurac bere irau-  
 penean, defcanfu baiño carga hobequiago  
 direla, eta hequien goçamena milla beldur-  
 rez eta grñez bethea dela.

Ez dago guiçonaren dohatfutafuna hañitz  
 ontafunen içatean, haiñ guti asco duenaz  
 gueroftic bicitceco.

Eguiazqui beraz miseria handia da lurtean  
 bicitcea: eta cembatenaz nihor aitciñatcen  
 baita guehiago bicitce spiritualean, hamba-  
 tenaz çaio bicitce hau khiratsez betheago;  
 ceren harc miñquiago sentitcen baititu, eta  
 agueriquiago ikhusten corrupcionezco estatu  
 hunen efcafac.

Ecen iatea, edatea, arçarria, egotea, lo-  
 eguitea, lanean haritcea, pensatcea, eta na-  
 turaleçaren bertce behar gucien azpico içatea,  
 ez da bada bethiereco miseria, eta ondico  
 gogorra guiçon prestu eta Jaincotiarrençat,  
 ceñac nahi bailuque libro içan gorphutçaren  
 amarreratic, etabekhatuarengatibotasuneric?

3. Segut da Jaincoaren spirituaz bici den  
 anima batentçat gorphutçaren beharrac carga  
 pifü bat direla. Hargatic Profetac haiñ bero-  
 qui erraten dio Jaincoari: *Iauna, othoi,* Psalm.  
*libra naçaçu ene behar gucietaric.* 24. 17.

Bainan çorigaitz bicitce huntaco laceria



eçagutcen ez duterentçat, eta çorigaitz gu  
hiago bicitce hau miseriaz eta laceriaz inge  
ratua delaric halere maite duterentçat.

Ecen badire presunac bicitce hunequiñ lu  
taraiño lothnac, bethiereco lanez eta esque  
baicen garraiatcen ez dutelaric, non hor  
bethi goça ahal balitez, ez baileçaque  
eguiñ conturic ceruco erresumaz.

4. O arima fede eta adimendu gabeac, bi  
hotz gogorac, ceñac hartaraiño baitire lu  
rarequiñ iosiac non ez baitute sentimend  
ric munduco gaucençat baicen!

Baiñan helaz! dohacabe hec azquene  
frogatuco dute ceñ ez deusac, eta mezpo  
çagarriac ciren hec hambat maitatu ditut  
gauçac.

Bertcela comportatu dire sainduac, e  
JESU-CHRISTOREN adisquideec ez dute co  
turic eguiñ sensuen atseguinez, edo mun  
huntaco pompez; bere baiñan esparatu  
gucia eman içan dute ceruco ontasuneta  
ceñentçat baitire hequien amudio, eta g  
ricia guciac.

Bethi bere bihotçac altchatuac çaozcar  
ontasun ikhusten, eta fiñatcen ez direnetar  
beldurrez ikhusten diren gaucen amudio  
behera cetçan lurreco alderat.

Ez deçaçula bada gal, ene anaia, bicit  
spiritualean progotchatceco fidancia, eta ar

moa, Jaincoac hortacotz ematen darotçu-  
naz gueroftic oraiño dembora.

5. Cergatic nahi duçu luçatu egune-  
tic egunerat çure conberfionea? Altcha  
çaitte, khecha çaitte, haz çaitte orai bere-  
tic, eta erroçu çure buruari: orai da dem-  
bora cerbait haritcecoa, orai da dembora  
gudicatcecoa, orai da dembora cinciñez  
conbertitcecoa.

Noiz-ere guerthatcen baitçaitçu cerbait  
ondico edo altaramendu, orduanche da dem-  
bora merecimendu eguiteco. Iragan behat  
duçu ecen, *uretic eta fuitic frescaduran sar-* Psalm:  
*thū baiño lehenago.* 65. 12.

Çure buruari ukho eguiten ez badioçu  
eciñ garaitueo ditutçu çure bicioac.

Gorphutz herbal hau dakarqueguiño eciñ  
gaitteque bekhatu gabe, ez eta bici dolo-  
teric edo unhaduratic gabe.

Nahi guindueque eguiazqui fofegu oso ba-  
tez goçatu munduan, baiñan bekhatuaz  
gaitcearequin batean innocencia, galdu du-  
gu halaber dohatfutafuna.

Hartu behar dugu beraz paciencia, eta  
egon Jaincoaten misericordiaren beira: *Ini-* Psalm.  
*quitate a iragan daitequeen arteraiño, eta* 56. 2.  
*gure baitan hilcor den gucia ethorquiçuneco* II. Cor.  
*bicitceac iretsdeçaqueen arteraiño.* 5. 4.

6. Oi! nolacoa den gute flaquecia ceñac

haiñ abiadura handian baigaramatça bicitor.

Egun confesatcen ditutçu eguiñ ditutçu bekhatuac, eta bihar eguiten ditutçu berriz confesatu ditutçun hec berac. Orai deliberratcen duçu beiratuco çarela hutz batetic, eta oren baten buruco erortcen çare hartaz, deliberacioneric hartu ez bacindu beçala.

Arraçoiñ handiac ditugu beraz gure buruen humiliatceco, eta gure indartac degutitçat iduquitceco, haiñ flaco eta mudacor garenaz gueroftic.

Naguitafunac eta anficabetafunac galatzeredieçaquegu instant batez neque gogortequiñ graciac ardietz araci datocun berthutes.

7. Cer içanen da beraz gutaz, egunaterakhabantçan, goicetic haiñ ephel garenaguerostic?

Çorigaitz guretçat paufatuco guticia bedugu, iadanic baquea, eta salbamenduatersegurantça ardietsi baguindu beçala. Gurbicitcean saindutafunaren seiñaleric baten agueri ez den arren.

Beharra baguinducque berriz has lireceogure naufiac gauçaric cheheenac guri iracalten, eta gure guidatcen berthutean aprediaçac beçala; ikhusteco ea baden esparancaric corregituc garelá, edo aitciñartucbicitce spiritualean.

## XXIII. CAPITULUA.

*Heriotcean behar dugula pensatu, eta hartarat preparatu.*

**M**UNDU huntan çureac eguiñ duque laster; ikbutsaçu certan çaren. Egun baçare, bihar etçare; eta presuna bat bichtatic galduz gueroz, galtcen da halaber laster orthoitçapenetic.

O guizonen bihotz gogor, eta sentimendu gabeac, ceinec ez baitute pensatcen oraiñgo ganceran baicen guetocoez conturic eguiñgabe! Egun oroz çure accione eta gogoeta guciac erreguelatu behar cintusque, egun berean hill behar bacindu beçala.

Conciencia ona bacindu, ez cintesque heriotcearen beldur. Hala hobeago lireque bekhatuari ihes eguitea heriotceari baiño.

Egun hiltceco prest ez baçare, nola bihar içanen çare? Biharco egun hura ez da segura: eoen cer daquiçu Jaincoac emanen darotçun?

2. Çet progotcha dugu hañitz bicitcea, hañ guti gure escasac lusten ditugunaz guerostic?

Helaz! bicitce luceac ez ditu maiz gutitcen gure faltac, aiticic guehienean berretcen ditu.

Ochala gure bici gucian egun bat bederen ungui iragan baguindu!

Hanitec condatcen dituste conbertitu

## 82 JESU.-CHRISTOREN

dircla dirusten urtheac, baiñan eciñ eracutcb  
deçaquete cer fruitu gueroftic ekharri duten.

Heriotcea beldurtceco bada, maiz bel-  
durtcecoago da luce bicitcea.

Dohatfua da heriotceco orena bethi be-  
guien aiteiñean darabillana, eta egun gucier  
hiltcera prestatcen dena.

Ikhuñ baduçu nihor hiltcen, orrhoit çaitc  
gauça beta çuri ere guerthatuco çaitçula.

3. Goizean, duçun ufte arratfa ardiestico  
ez duçula; eta arratfa ethorri denean, es  
çaitcecla atrebi çure buruari biharatun  
aguintcera.

Çaren beraz bethi prest, eta bici çaitc  
halaco mängeraz, non herioac ez baitçaitc  
feculan ufte gaberie atcemanen.

Hañitz prefuna hiltcen dire ufte ez dutela,

Luc. eta heriotce supitus; *Ecen guiçonaren Se-*  
12. 40. *mea nihorc ufte ez duen orduan ethortcen da.*

Azqueneco oren hura ethortcen denean,  
bertce guifaz behatuco bide diocu çure bi-  
citce iraganari, eta ungui urriquituco çaitçu-  
ceren haiñ anficabe eta lacho içatu çaren.

4. Ala dohatfu baita eta çuhur haiña cel-  
ñac bere ahal guciac eguiten baititu bicit-  
cean halacoa içateco, nolacoa nahi bailuque  
heriotcean caufitu!

Heriotce on eta dohatfu baten esparanteç  
har ahal deçaquegu, baldiñ balin baduça

IMITACIONEA. I. LIB. 83

munduarentzat meziprecio oso bat, berthutean aitciña goateco desira bero bat, bicitce erreguelatuaren amudio handi bat; baldin penitencia garratz bat eguiten badugu, obeditcera prest bagaudez, gure buruari ukho eguiten badiogu, eta sofricari guciac JESU-CHRISTOREN amorea gatic pairatcen baditugu.

Hañitz ungui daguiqueçu ofafuna duçuiño; baiñan erituz gueroz ez daquit certacotz gaiñanen çaren. Eritasunec ecen, eta errometric nihor guti hobetcen ohi dute.

5. Ez çaçula utrun egor çure salbamenduaren lana, eta ez çaçula utz eguiteco handi lura çure hurcoen edo adisquideen gainean, uste duçun baiño lehenago guicõnei ahantcico çaizcote.

Segurago da hañitcez eta hobeago orai danic çure salbamenduaren eguiten ceroni haritcea, eta çure obra onac çure aitciñean egortcea, ecen ez condatcea çu hill ondoan bertceec eguiñen darosquitçuten laguntcen gainean.

Bici çarela ceronec artharic ez baduçu çure arimaz, norc nahi duçu hartaz duen achola çu hill ondoan.

Orai da dembora baliatcecoa, *orai dire sal-* II. Cor. 6. 2.  
*bamenduco egunac, orai dembora fagorez-*  
*coac, momentu guciac dire orai preciatu.*

Baiñan helaz! ala çuc gaizqui emplegat.



cen baititutu oren eta momentu hec ceinac eman baitzaizquitcu bicitce eternalaren mercedeco.

Ethorrico da dembora ceinetan galdetico baitu egun bat edo oren bat penitenciararen eguiteco, eta ez daquit ardiertico duçun.

6. Oi, ene anaia maitea! ikhufacu cembat hirtiscutatic eta beldurretatic athera deçaqueçun çure burua, bethi herioaren ustean eta beldurrean bici baçare.

Ensaia çaitte orai halaco maneraz bicitcera, non çure heriotceco orenac beldur baino bozcario guehiago eman baitieçaqueçu.

Ikhasacu orai danic munduari hiltcen JESU-CHRISTOREQUIN orduan bicitcen hasteco.

Ikhasacu orai danic gauça gucien arbuiatcen libro içan çaitceçat orduan çure salbatçaillea ganat goateco.

Gastiga çacu orai çure gorphutça penitenciaz, orduan Jaincoa baitan esparantça fetmu bat içateco.

7. Helaz, ethoa! cergatic darabillaçu goçan lucero bicitcea, egun batez segur ez çarenaz guerostic?

Cembat ez ditu enganatu hañitz bicitceco esparantçac, ceinac hill baitire gutien nste çutenean?

Cembatetan ez duçu aditu hunelaco hill da ezpata colpe batez, halaco itho da, bertce

batec goratic eroriric hautsi du burua? Bata hiltcen da iatean, bertcea iocoan; bata consumitcen du subac, bertcea akhabatcen du burdiñac, bata hiltcen da icurriz; bertcea manduleren escuz, eta hala herioac badaramatça guciac, eta guiçonon *bicia sunsitcen* Job. 14. 10; *da itçala beçala.*

8. Çu hill ondoan norc eguiñen du çutaz orrhoitçapen, edo othoitz Jaincoari?

Eguitçu beraz orai danic, ene anaja maitea, eguiñ ahal ungui guciac, ecen ez daquiçu noiz hillen çaren, eta hill ondoan cer guertharuc çaitçun: dembora duçuiño biltçatçu aberastafunac eternitatecotz: ez duçun gogostatic salbamenduaz baicen, ez acholaric Jaincoaz baicen.

*Eguitçatçu orai adisquideac ceruan, sain-* Luc: *duac ohoraturic eta imitaturic, hill ondoan* 16. 9; *errecibi çaitçaten tabernacle eternaletan.*

9. Bici çaitte luttaren gainean artotz eta bideante bat beçala, ceña ez baitute munduco eguitecoec deufetan ere ukhitcen.

Itcheçaçu çure bihotça mundutic apartatua, eta Jaincoa ganat altchatua, ecen ez da hemen çuretçat egoitça iraupenecoric.

Offenda diotçotçu bethiere Jaincoari çure othoitçac, nigarrac eta plainuac, bicitce hunen ondoan çure arimac mereci deçantçat haren ganat dohatfuqui goatea. Halabiz.

## XXIV. CAPITULUA.

*Jaincoaren iuiamendu ikharagarriaz,  
eta Bekhatoreen suplicioaz.*

**G**AUÇA gucietan orrhoit çaitte çute az-  
quen fiñaz, eta ez deçaçula ahantz  
egun batez aguertuco çarela iuie garratz ha-  
ren aitçeñean ceñarentçat ez baita deus got-  
deric, ceñac ez baititu errecibitcen ez gure  
presentac, ez eta gure aitcequiac, baiñan iu-  
iatcen baitu bethiere iustuta funaren arabera.

O bekhatore erho eta dohacabea! ceña  
ikharatcen baitu maiz guiçon baten colerac,  
cer ihardescico dioc bada Jaincoari, ceñac  
ikhusten baititu hire crima guciac?

Cergatic ez haiz prestatcen iuiamenduco  
egun ikhagarri hartacotz, ceñetan nihortz  
ez baitu içanen beguiratçailleric, sustengue-  
ric eta deffendatçailleric, eta ceñetan bat-  
bederac azqui içanen baitu bere carga?

Orai lituzquec hire obrac prugotçofac,  
hire nigarrac entçanac, hire urriquiac me-  
recimenduscoac, eta hire doloreac baliozac  
eta salbamenducotz onac.

2. Oi ala bicitce hau purgatorio ona baita  
guiçon pairacor batençat, ceñac affrontuac  
errecibitcean damuago baitu offensatçail-  
learen bekhatuaz, ecen ez berari eguiren  
çaioen gaizquiaz; ceñac bihotz onez orrhoit

eguiten bairio Jaincoari bere persecutatçail-  
leentçat, ceĩnac barkhatcen baitiote gogoric  
bere etfaiei, eta ceĩna prest baitago bethi  
bere hutfic chumeenen gaincan bertceci bar-  
khamendu escatcera; ceĩnaren bihotcean er-  
rechquiago sartcen baita urricalmendua, ecen  
ez afarradura, ceĩnac maiz bere buruari  
bortcha eguiten baitio; ceĩna enfaiatcen  
baita bethiere bere buruaren garaitcera, eta  
spiritua haraguiaren nausi errendatcerat.

Hobeago da balinba orai gure conciencia-  
ten chahutcea, eta handic bicioac atheratcea,  
ecen ez hec ustea bertce munduco suaz pur-  
gatceco: baiñan gure haraguiarentçat dugun  
amudio desordenatuac enganatcen eta itsut-  
cen gaitu.

3. Helaz! ez dugu pensatcen su icigari  
harc ez duela bertce bazcaric iñanen gure  
bekhatuac baicen?

Cembatenaz hemen çure burua guphide-  
sten baituçu guehiago, hambatenaz guehiago  
han soffrituco duçu; çuc hemen çure hara-  
guia mainozquiago lausenga, hura guehiago  
han puni eta tormenta; cembatenaz Jaincoa  
offensatcen baituçu guehiago, hambetenaz  
biltcen duçu ifernucotz subari guehiago.

Certaz ere guionac eguiñ baitu bekharu,  
hartaric beretic iñanen du pena, eta gastigu  
guehienic,

Han naguiac eta antficabeac içanen dire fuzco punta çorrotceç punchicatuac; han gormantac eta hordiac gofeaz eta egarriaz, cruclqui tormentatuac.

Han lohiac eta defonestac pulumpatuac dire bikhezco, eta suffrezco tulumbio inquituetan; eta bekhaiftiac bere dolorearen violencian egonen dire marrubiaz potço erabiatuac beçala.

4. Han bicio bakhoitchac içanen da bere suplicio particularra. Han içanen dire suphebioac seculaco laidoaz eta abalqueriaz estaliac, eta abariciofac asqueneco laceriaz eta erromesiaz herstuac.

Han oren baten pena gaitçago içanen da pairatcen, hemen ehun uttheren penitencien garratçena baiño.

Hemen nekheac badu bere sofegua, doloreac bere descansua, baiñan han damnaruentçat ez da pausuric batere, ez consolacioneric, ez descansuric.

Duçun bada orai çure bekhatuesco dolore bici bat, eta hari çaite çure falten penitenciaz urratcen, iuiamenduco egunean sat çaitentçat dohatfuen baquean eta sofeguan.

Sap. 5.  
E. Ecen orduan iustuac *altchatuco dire segurança handirequiñ mundu huntan desoherratu, eta persecutatu ditustenen contra.*

Orai hemen guiçonen iuiamendu iniustuac

humilqui paitatcen dituena ethorrico da orduan loriaz bethetic hequien iuie icatera.

Orduan humilla eta pobrea icanen dire se-  
gurantça oso batean, eta superbioac ikha-  
ran eta etsimenduan.

5. Orduan ikhusico da eguiasco çuhurraç  
cirela haiñac ceñec nahi içan baitute mun-  
du huntan içan mespreçatuac edo erhotçat  
iduquiac JESU-CHRISTOREN amore gatic.

Orduan pacienciarequiñ paitaturicaco at-  
secabeac icanen dire persecutatuen loria, eta  
persecutatçailleen iniustutasunac eguiñen du  
hequien atsecabea eta bihotz miña.

Orduan presuna prestua eta debota bosca-  
rioan icanen da, eta gaichtaguiña nigarretan  
eta plainutan.

Orduan gorphutz mortificatua eguiñen da  
distiantago eta edertago, bethi atseguinpean,  
eta mainapean hasia icatu balitz baiño.

Orduan distiatuco dute pobrearen tresna  
tcharrec, eta illhunduco da aberatsaren ber-  
reguintça.

Orduan guehiago preçatua icanen da et-  
chola tcharra, ecen ez iauregui urrestatua.

Orduan hobeago causituco da paciencia  
humilla, ecen ez murduco bothete gucia,  
eta obediencia simple batec guehiago balio-  
co du munduco prudencia eta errefinamendu  
guciac baiño.



6. Orduan boscarío guehiago emanen da conciencia onac eta garbiac, ecen ez filosofoen iaquintasun guciac.

Orduan guehiago laudatuco da aberatstasunen mesprecioa, ecen ez munduco tresotagucien iabetasuna eta posesioea.

Ikhufico dugu orduan othoitcean emplegatu dugundemborahobequiemanaiçatude la, ecen ez atseguinezco othuruncetan iragan çaicuna.

Orduan boscarío guehiago içanen dugu ichillic egonaz, ecen ez solas luceac eguiñaz.

Progotçofago içanen ditugu hirtz ederrac baiño, obra sainduac. Eta descansu guehiago emanen darocu bicitce hertsu eta penitentac, munduan hartu ditugun atseguin guciec baiño.

Ikhafçu beraz bicitce huntaco gaitz chume, eta iragancorren pairacen, bertceco tormenta dorphe, eta eternaletarat eror ez çaitecen.

Froga çaçü hemen, cer han paira deçaqueçun; hemengo gaitz chumeen ia fateco indartie ez baduçü; ikhufaçü nola han pairatuco ditutçun bethi iraunen duten suplicioac.

Hain paciencia guti baduçü orai gaitcis chumeenetan, nola iraunen duçu ifernuco su eta lametan?

Orthoit çaitce ez dela posible boscariotie boscariorat iragatea, mundu huntan lehenic dohatçu içateca, eta guero ceruan JESU CHRISTOREQUIN erreguiñatcea.

7. Çure bici gucia ohorez eta atseguinez  
 orai artheraiño bethea içan balitz ere, cer pro-  
 gotchucindue ora bere anhill behar bacindu?

Gauça guciac dire beraz vano eta ez deus  
 lekhat Jaincoa maitatcea, eta haren choill-  
 qui cerbitçatcea.

Bere hihotz guciac Jaincoa maite duenac?  
 ez du beldurric heriotcearençat, ez supli-  
 cioarentçat, iuiamenduaarentçat, ez ifer-  
 nuarentçat, ceren Jaincoaren amudio per-  
 terac haren ganat segurantçarequiñ hurbill  
 arasten baicaitu.

Baiñan ez da miresteco bekhatuan oraiño  
 lakhet duena heriotcearen, eta iuiamendua-  
 ren beldur içatea.

On da bada halere amudioac oraiño gui-  
 belatcen ez baçaitu bekhatutic, guibela  
 çaitçan bederen ifernuaren beldurrac.

Guciarequiñ ere Jaincoaren baiño bertce  
 cerbaiten beldurrago denac, eciñ onean lu-  
 cero iraunen du, eta laster erorico da dea-  
 bruaren artetarac.

## XXV. CAPITULUA.

*Guerotic guerorat berthutean aitciñatcera  
 behar dugula lehiatu.*

**I**ÇAN çaitte erne eta arthos Jaincoaren  
 cerbitçuan, eta manera bereci batean  
 Jaincoari consecratua baçare, erroçu maiz

çure buruari : Cer chedez ethorri haiz ha-  
nat? Certaco utci duc mundua, Jaincoaren  
cerbitçatceco, eta bicitce spiritual bat era-  
mateco baicen?

Çoaz beraz khar handirequiñ aiteña,  
sinhetfiric nekheen faria laster içanen da-  
çula, eta orduan içanen çarela çure gain  
eta beldur gucietaric campoan.

Nekhe hec chumeac direlaric ere içanari-  
cico darotçute sofegu eternal bat, eta dohat-  
sutasun infinitu bat.

Çaren leial eta khartfu Jaincoaren cer-  
bitçuan, eta Jaincoa leial içanen da eta li-  
beral çure golardoan.

Behar duçu içan esparantça handi bat at-  
dietsico duçula golardo hura, ordean halet-  
ez dioçoçula çure buruari aguiñ segurantç-  
osoric beldutez eror epheltasunerat edo ce-  
guilleriarat.

2. Behiñ Jaincoaren cerbitçari bat khech-  
tua haguitz, eta penatua beldurraren eta es-  
parantçaren artean, goan cen tristeciaz betheric  
Eliça batetara, eta han aldare baten aiteciñean  
hahuspez emanic, gogoeta hau çarabillan  
bere baitan : Oi banaqui bederen iraunen  
dudala Jaincoaren cerbitçuan ! Eta berehala  
aditu çuen boz bat ceñnac bere barrenetic  
ertan baitcioen : Eta bada gauça hori bace-  
ñaqui, cer eguiñ nahi cindaque ? Eguiñ orai

eduan eguin cineaquena, eta iñanen duçu  
desiratzen duçun segurantzã. Errepusta hot-  
taz consolatua gucia, eta borthitstua abando-  
natu cen osoqui Jaincoaren borondatera, eta  
facegatu ciren haren khechagune guciac.

Handic harat etcen curioz içatu iaquire-  
cotz cer guerthatu behar citçaioen ethorqui-  
çuean, baiñan haren artha guciac içatu ciren  
iaquiteco cercen Jaincoaren nahia, cercen ha-  
ren beguictan hoberenic eta perfetenic bere  
obra on guciac sailduqui hasteco eta akha-  
barceco.

3. *Duçun esparantzã Jaincoa baitan*, Psal.  
dio Profetac, *eta eguiçu unguia, egon çaitte* 36. 3.  
*larrean, eta hacico çare haren ontasunez.*

Gauça batec guibelatzen gaitu edo guel-  
darasten salbamenduco bidean; eta hura da  
hau causitcen diren gaitztafunen, eta han  
hasan behar diren guduen beldurra.

Bertcenaz haiñac guehienean berthutean  
aitcinatcent dire, ceñac animo guehiagore-  
quin ensaiatzen baitire trabatic handienen,  
eta gure desira sailduac guehienic contref-  
tatzen ditustenen garaitcerat.

Ecen cembatenaz guiconac bere burua ga-  
raitzen eta mortificatzen baitu guehiago,  
hambatenaz ardiesten du gracia, mereci-  
mendu, eta perfeccione guehiago.

4. Baiñan guciac ez dute hambat passione

mortificatceco, ez haiñ gudu handia eguiñ behar bere buruen garaitceco.

Halere khar eta zelo guehiago duenac bide guehiago eguiñen du berthurean pasione borthitçagoac içan arren, ecen ez pendon onac dituelaric khar gutiago duenac.

Bi moian dire gucz handiac gure escafaric libratceco, lehenbicioa da gure buruei bortcha eguitea, gure bicio naturala contra eguiteco, eta bertcea ciñciñez premiatacea guehienic behar ditugun berthurean ardiertceco.

Ensaia çaita beraz arthosqui çure baita garaitcerat bertceen baita guehien gaitcesten ditutçun escafac.

5. Progotcha çaita gauça gucz çure aicciñean cinamenducotz, eta lehia çaita imitatcean ikhusten, edo aditcen ditutçun exemplua guciac.

Nihorc huts bat eguiten badu çure aicciñean goardia guehiagorequiñ beira çaita huts hartaric, edo çu ere hartara erori baçare altcean çaita lehen bai lehen.

Orrhoit çaita çuc bertceen gaiñean beguila, bertceec ere çure gaiñean beguia iderquia darocatela.

Oi ala on baita eta esti bicitcea presuna da bot eta kharfuequiñ, bere eguiñbideei iartatzequiñ, eta bere bicitcean erreguelatzequiñ!

Contrarat, ala triste eta doloragarti baita ikhustea iende desordenatuac, eta bere eguiñ-bidetarie batere complitcen ez dutenac!

Ala perilloz baita norc bere estatuco obligacioneac ustea, eta obligatu ez den eguitetoei lorcea!

6. Orrhoit çaita bethiere certarat deithua içatu çaren, eta maiz beha dioçoçu JESU-CHRISTO gurutceficatuaren imaginari.

Çuretçat ahalqueria handi baten suieta behar da içan ikhustea cein guti çure bicia harenaren idurico errendatu duçun, hambat dembora duelaric eman çarela Jaincoaren cerbitçuan.

Arima Jaincotiar batec amudiorequiñ meditatcen duenean JESU-CHRISTOREN bicitce saindua, eta haren pasionea, causitcen ditu han bere salbamenduaren eguiteco proçotchos dituen gauça guciac. Alferric billha leçaque bertcetari JESUSEN baitan causitcen duen baino cerbait hobeagoric.

Oi baldin sartcen balitz JESUS gurutceficatua gure bihorcean, ala laster baiquiñaque iaquiñ behar den gucia!

7. Religioneco presuna batec zeloz eta kharrez bihorça bethea duenean, hartcen ditu gogo onez, eta berehala complitcen eguiten çaiçcon manu guciac; baiñan ephetaç eta antisçabeac bere buruari erakhartcen



dio atsecabea atsecabearen gainean, eta ez du halacoac alde gucietaric penaric eta dolereric baicen, ceren gabetua baita barneo consolacioneez, eta debecatcen baitzaico campocoac.

Bere erreguelatic urruntcen dena oloqui gaitceco mencean da.

Aisian eta largotafunean bici nahi duen ondico gogoretan caufituco da; ceren eta gauca barean lachatcen denac ez baitu ukhitcen bertce gucietan desgusturic eta urhaduratic baicen.

8. Nola eguiten dute hambat Religioeez presunec, ceñec bere erreguela haiñ herliqui beiratcen dutela bici baitire comertutan?

Bakhan ilkhitcen dire, bakhartafunec daudez, pobrequi iaten dute, harroqui befitcen dire, hañitz nekhatcen, guti miltzatcen, lucero beillatcen dute, goiz itxerquitcen dire, berant etciten, othoitz luco eguiten, hañitz iracurtcen, eta bere burua bere eguinbide gucietan arthosqui itxerquitcen.

Ikhusaçu Chartrusen Ordena, Ciroscoc eta hambat bertce fraide eta serota, ceñec gau guciez iaiquitcen baitire Jaincoaren laudorioen cantatcera.

Laido handi bat liteque çuretçat lacho et

magui icatea haiñ eguinbide fainduan, ham-  
bat arima on khar eta debocionerequin ot-  
hoitcean daudecen demboran.

9. Oi posible balitz bertce artharic ez  
icatea munduan lekhar gure bihotz guciaz  
Jaincoaren laudatcea! Ez balitz behar behin-  
ete ez ian, ez edan, ez lo eguin, ahal ba-  
guintez bertce artharic gabe Jaincoaren eta  
gure arimaren alderacoez lekhora, orduan  
haguitcez dohatuago bide guintesque orai  
garen baiño, gorphutceco behar gucien ga-  
tibu garen huntan baiño.

Ochala bada gatibutafun huntaric alde ba-  
tera libratuac baguine, eta lan bakhartcar  
baguindu gure arimari bere bazca spirituala  
ematea! ceina, holaz! gutitan dastatcen  
baitogu!

10. Guiconac ardietsi duenean estatu hura  
ceinetan ez baitu billhatcen creaturen con-  
sulationeric, orduan hasten da Jaincoaren  
ungui gustatcen, eta cer nahi den guertha da-  
quoen baque handi batean dago-haren arima.

Orduan ez gauca handiec ez chumeec ez  
diote causatcen boscarioric edo tristeciaric,  
nola osoqui ematen baitcaio Jaincoari, gau-  
ca guciac causitcen ditu Jaincoa baitan, cein-  
rentcar ez baita deus gaitcen, ez hilt-  
cen, eta ceina gauca guciac obeditecen bai-  
tute guibela menduric batere gabe.

11. Bethi orrhoit çaitte çure siña hurbiltcen dela egunetic egunerat, dembora galduae ez direla guehiago bihurtcen, eta artha eta grina handiarequiñ baicen berthuteac ez direla ardiesten.

Epheltcen hasten çaren pontutic, hasten çare gaizquitcen, baiñan çure berotasunean irauten baduçu, baque handi batez goçatuc çate, eta Jaincoaren gracia eta berthutearen amudioac estituc darozquitçute nekhe guciac.

Arima khartsua eta arthosa prest dago gauça gucieraco.

Arimac pena guehiago hartcen du bicioei eta pasionei contra eguiten, ecen ez gorputçac nekheric handi enen iafaten.

Ecclef. 19. 1. *Falta chumeei ez badioçute ihes eguiten, erorico çare baratche baratche handienetarat.*

Nahi baduçu içan aleguera arratsean, emplega çaçü progotchosqui eguna.

Egon çaitte erne çure buruaren gainean, atçaraçu çure burua, anima çaçü, mehatcha çaçü, eta bertceez cer içanen bada ere, edo deçaçula utz çure buruaren artha.

Cembatenaz çure buruati bortcha eguinen baitioçu, hambatenaz goanen çare aitiña berthutean. Halabiz.



# JESU-CHRISTOREN IMITACIONEA.

BI-GARREN LIBURUA.  
Bicitce Spiritualean arimaren  
abantçuaaz.

## I. CAPITULUA.

Saritu behar dugula gure barrenean, eta  
conversatu JESU-CHRISTOREQUIN.

**A INCOAREN** *errefuma* Luc.  
çuen bairan da, dio Salbatçail- 17. 135  
leac, conberti çaitte Jaincoa ga- Joel.  
nat çure bihotz gucziaz, eta utsaçu 2. 125  
mundu dohacabe hau, eta çure arimac cauti-  
tuc du eguiaz co sofegua.

Ufa çaitte campoco gauça gucien arbuiat.

cen, eta maiz çure barranean sartcen, eta sentituco duçu Jaincoaren errefuma çure ganat ethortcen. Ecen Jaincoaren errefuma ezta bertteric lekhat spiritu fainduac bihotçeta dakharquen baquea eta boscarioa, ceñaz gaichtoac ez baitire goçatcen.

JESU-CHRISTO ethorrico da çure ganat, eta daflaracico datozquitçu bere consolacioneac, hari dagocan egoitça bat preparatces badioçu.

Harc maite duen Jotia eta edertasun gucia ariman dago, han egotea du lakhet.

Guiçon barrencoiãc içaten tu haren-ganic bisita hufuac, instruccione famurrac, consolacione estiac, baque handi bat, eta comunicacione batçuc guciz miragarriac.

2. Ea beraz arima leiala aphaïn dioçocu çure bihotça espos divino hari; han bere egoitça eguiñ deçantçat. Ecen berac erran du:

Joan. *Ni maite nauenac ene hitçac beiratuco ditut*  
 4. 23. *ethorrico gare haren ganat, eta eguicac dugu haren baitan çure egoitça. Idec dioçocu beraz çure bihotça JESU-CHRISTO, eta herts bertce guciei.*

Hura baduçu aberatz çare, eta hura baxharric asco duçu, harc betac complituaçitu çure behar guciac; hura içanen da çure habea eta adisquidea, eta etçare içanen guiçonon laguntçaren galdeguiteco beharrea.

Ecen guizonac laster gambiatcen dire, eta escasten berehala; baiñan JESU-CHRISTO *bethicotz dago*, eta haren adisquidetafunac *Joan. 12. 26.* irauten du mende gucietan.

3. Gutti behar duçu pausatatu guizon flaco eta hilcor baten gainean, nahi beçain progotchofa edo maitea çuretçat içan arren: eta etçaitçu halaber sobera gaitcitu behar, haren inconstancia, edo herra çure aldera iiarateen dire haicea beçala, egun çure alde direnac, bihar çure contra içanen dire, eta berriz egun etçaiç diturçunac bihar çure fagore altchatuco dire.

Ez beraz eman çure esparantça bertcetan, baicen Jaincoa baitan; den hura bakharric çure beldurtasun, eta amudio gucien cheçdea. Hare ihardetsico du çuretçat, eta gauça gucietaric probetchu atheraracico darotçu.

*Esta hemem çuretçat iraupenezco egoitçaric*, norat nahi çoacen artotz eta bideante *Hab. 13. 14.* içanen çare, eta estuçü eguiatzco foseguric caustuco non etçaren JESU-CHRISTOREQUIN oloqui iuntateen.

4. Cer ikhusten duçu mundu huntan tricaraz çaitçaquenic, estenaz gueroftic hemem çue pausatatu behar duçun lekhua? Ceruan behar duçu eguiñ çure egoitça hala lurreco gauça guciei eztioçute beiratu behar iragaitçaz baicen.

Gauça hæc iragaten dire eta çu ere bai



hequiequin, beguirautçu hei lor etçaquízco-  
ten beldurrez har çaitçaten eta gal bethicotz.

Itcheçaçu çure spiritua Jaincoa ganat alti-  
chatua, eta ofrenda diotçocotçu bethiere çure  
othoitçac JESU-CHRISTORI. Contemplacio-  
ne gora batera eciñ hel baçaitezque, pausa  
çaire Jesu - Christoren pasionean, eta du-  
çun lakhet haren çauri sacratuetan egotea.  
Ecen ihes lekhu sacratu hartara debocione  
handirequin goaten baçare, causituco duçu  
descansu handi bat çure atsecabe gucietan,  
contu guti eguiñen duçu guiçonon arbuioc  
eta calomniez.

5. Jesu-Christo bera guiçonetarie mes-  
preçatua içatu da, behar suerte guciez inge-  
ratua, bere ahaide eta adisquideez abando-  
natua, laidoen eta doloreen erdian. Jesusen  
nahi içatu du içan penatua eta arbuiatua, gue-  
ro atrebituco çare nihortaz errencuratçea.  
Jesusen içatu ditu etsaiac eta gaizqui errail-  
leac, eta çuc estuçü nahi causitu adisquide-  
ric eta ungui errailleric baicen? Nola Jain-  
coac khordatuco du çure paciencia, ez ba-  
duçu nahi guertha daquiçun atsecaberice? Eta  
ez baduçü deus soffritu nahi, nola içanen  
çare Jesu - Christoren adisquide? Soffri-  
çaçu Jesusen eta Jesus gatic, nahi ba-  
duçu Jesusen erreguiñatu.

6. Oi behiñ far ahal bacintez Jesusen

galtzarrean, eta aphur bat senti baciñeça haren amudioaren kharra eta goçotafuna; et cintezeque casu hari çure amudio propioaren gogara edo desgogara litezquen gaucez, boscarioequiñ har ciñetçaque eguiten çaiquitçun affrontuac, ecen Jesusen amudioac ekharten gaitu gure buruaren mespreçatcerat.

Jesus eta haren eguia ciñciñez maite duena, eta affectione desordenatuetaric libratu ric barreneco bicitceaz bici dena ematen çai osoqui Jaincoati, eta altchatcen da spirituz bere burnaz gorago, sosegu esti batez goçatceco bere maitearen posesionea.

7. Norc ere gaucez iuiatcen baitu ez iendeen nstearen, edo erranaren arabera, baiñan gauçac berenez direnaren arabera, haiña da çuhurra; ez guiçonon ganic heldu den çuhurteiaz, baiñan Jaincoa ganic heldu denaz. Barreneco bicitceaz bicitcen daquienac eta campoco gaucetan guelditcen estenac, estu muga edo lekhu fuerte baten hartceco beharrie bere debocionearen bizteco.

Guiçon barrencoia laster bere ganat biltcen da, ceren ez baita behiñ-ere osoqui camporat airatcen: campoco lanec, eta ardurafco eguitecoec estute trabatcen, ez barraiatcen; baiñan alogatcen da eguitecoequiñ, guerthatcen direnaren arabera. Bere baitan ungnidifposafua denac, contu guti eguitendu

munduan condemnatcen edo laudatcen diren gaucez. Cembatenaz guiçonac hartcen baitu campotic eguiteco guehiago, hambatenaz guehiago barraiatcen da bere barrenan.

8. Bihotça chuchena bacindu, eta garbia gauça guciez, eguiñ ciñetçaque probetchu eta berthutean aitciñamendu. Milla gaucec khechatcen çaituzte, eta altaratcen ceren ez baitçate oraiño çure baitan osoqui hilla, eta munduco gauçetarie apartatua. Deusen estu hala nothatcen eta trabatcen guiçonaren bihotça, nola creaturen amudio lohiaz: munduco consolacioneac hastantcen bacintu çure ganic, ceruco gauçac contempla ciñetçaque, eta senti ciñetçaque hango boscarioac.

## II. CAPITULUA.

*Guiçonec eciñ deus daguiquetela bere esparantça Jaincoa baitan emana duenaren contra.*

**E**TÇAITECELA penetan eman nor den çure alde edo çure contra; baiñan duçun artha solamente Jaincoa den çurequiñ eguiten ditutçun gauça gucietan. Duçun bethiere conciencia garbi, eta Jaincoac deffendatuço çaitu gucien contra. Ecen guiçonan maleciac eciñ eguiñ dioçoque bidegaberie Jaincoac lagundu nahi duenari.

Baldiñ badaquiçu ichillic soffritcen, fro

gatuco duçu falta gabe Jaincoaren laguntça. Hare daqui ungui cein diren çure laguntceco mugaric, eta maneraric hoberenac; hala emaçü çure hutua haren escuetarat. Hare daqui çure laguntcen, eta çure atheratcen çure nahasdura gucietaric. On da maiz gure humiltasuna beiratceco eta handitceco, bertceciakin detçaten gure escasac, eta hequien gatic mehatça gaitçaten.

2. Nihore bere hutsa aihortcen duenean, eta hartaz humiliatcen denean, errechqui facegatcen ditu, eta contentatcen bere mehatçarçailleac. Jaincoac humilla beguiratcen du eta deffendatcen; maitatcen du, consolatcen du, haren ganat ethortcen da, bethetcen du bere graziez, eta beheramendu handi baten ondoan altchatcen du azquenean lotiaric gorenera.

Jaincoac humillari aguertcen diotça bere secretuac, deitcen du eta erakhartcen emequi bere ganat. Cer nahi ahalqueria içan deçan humillac, baquean da hargatic, ceren bere sofegua ematen baitu Jaincoa baitan, eta ez guizonen baitan. Estuçü uste behar perfeccionean aitcinaru çarela, ez badauçü sinhetra gucietaco chumeena çu çarela.

## III. CAPITULUA.

*Barreneco baqueaz.*

**H**Az çaita behiñdic behiñ çure bilho-  
cean baquearen eçartcen, eta guen  
bertceen artean emanen duqueçu. Guiçon be-  
quezcoa progotchosago da bertceentçat gu-  
çon sabanta baiño. Bere pañioncen gathila  
den guiçonac ona ere gaitceta itçultcen da,  
eta errechqui siñhesten du bertceez errate-  
den gaizquia, baiñan guiçon baquetiarru  
guciac onerat aldatcen ditu.

Bere baitan baquean den guiçonac esta  
hortaz suspitcharic, baiñan guiçon khechoñ  
eta pañu gabea hañitz suspitcha suertez be-  
thez da, eta ez bere buruari, ez bertceen  
hori ustendio halacoac baqueric. Mintço  
maiz erran behar ez lituzquen gauçez, es-  
usten ditu eguiñ gabe guehienic eguiñ behar  
lituzquen gauçac. Artha handi du iaquiteen  
bertceac certara diren obligatuac, eta bere  
usten ditu eguiñ gabe obligacionez eguiñ  
behar lituzquen gauçac. Duçun beraz zeñ  
lehenic çure buruarentçat, eta guero bert-  
cetara ere hedatuco duqueçu.

2. Badaquiçu choill ungui çure hutsen eta  
falten gueriçatcen eta bernuçatcen; eta ut-  
ditutçu errecibitcen berceec bere hutsen eta  
taltceco edo gutitceco ekhartcen ditutçen  
arraçoiñac ez liteque bada iustuago çure

burua faltiar aihortcea, eta bertceac faltatic  
descargatcea?

Nahi baduça bertceec iasan çaitçaten,  
iasan çatçu çuc ere bertceac. Ikhufaçu hortic  
cein urrun çareu oraino eguiazco caritatetic,  
eta eguiazco humiltasunetic, ceinac ez baitu  
afarradutatic bere buruaren contra baicen.

Ez da gaitz baquezco icatea onequin eta  
mansoequin, natural da ecen baquea maitat-  
cea, eta gure sentimenduco diren presunen  
onhestea. Baiñan gracia handi bat, eta berthu-  
te sendo bat behar da, buru gaitz eta errebes-  
equin, desordenatuequin, makhurrequin,  
eta contrestatçaillequin baquean bicitceco.

Badite presunac bere buruequin, eta bert-  
ceequin baquea dutenac: badire bertce bat-  
çuc ez berequin ez bertceequin baqueric ez  
dutenac, bertceentçat nekharri eta nekha-  
gariago beretçat.

Bertce batçuc ez dire contentatcen bere  
buruequin baquean icateaz, ensaiatcen dire  
bertceei ere haten ematerat. Guciarequin  
ere gure baquea bicitce dolacabe huntan ga-  
reino, hobequi datça trebesien humilqui  
pairatcean, ecen ez atsecaberic gabe icatean.  
Cembatenaz baitaqui guizonac hobequi pai-  
tatcen, hambatenaz du baque guehiago. Pa-  
ciencia duena da bere buruaren garatçaille,  
munduaren nauñ, JESU-CHRISTOREN adif-  
quide, eta parabisuco primu.



## IV. CAPITULUA.

*Bihotceco garbitasunaz eta chedearen  
simpletasunaz.*

**G**ARBITASUNA eta simpletasuna bi ha-  
gal dire ceñec lurrar gorago altchut-  
cen baicaituzte. Simpletasunac behar du iñ-  
gure chedeetan, garbitasunac gure affec-  
neetan. Simpletasunac eramaten gaitu Jain-  
coaren ganat, garbitasunac erakhartcen du  
Jaincoa gure ganat.

Cer nahi den accione onetaco prunt iñ-  
nen çare, baldiñ libro baçare barrenean af-  
feccione defordenatuetaric. Ez baducu ber-  
ce chederic Jaincoaren gogaraco, eta lagun  
proximoaren probetchuco içatea baicen, go-  
çatucoco çare barreneco libettateaz.

Çure bihotça chuchena balitz, creatur-  
guciac çuretçat creatçailleaten contem-  
ceco mirailletçat litezqueç, eta liburu bat ce-  
ñetan ikhus baitciñetçaque bicitec sair-  
du baten eramateco erreguelac. Ecen est-  
creaturic haiñ chuperic, eta tcharric non et-  
baitarocu eracuchten Jaincoaren ontasuna.

2. Arima ona eta chahua baciñdu, ganc-  
guciac ikhus ciñetçaque goibelic gabe, et-  
errechqui adi ciñetçaque: ecen bihotz cha-  
huarentçat esta deus estalitic, idequiac dite-  
ceruac eta ifernuac.

Nolacoa baita guizona bere barrenean, halacoac dire haren iuiamenduac campoco gauten gainean.

Eguialco boscarioric baldin bada munduan, hura du bihotz onetaco guizonac. Eta balin bada atsecaberice edo ondioric, conciencia gaichtoentzat dire guciz halacoac.

Nola burdina herdoilldura guciac utciric goritcen baita suban, hala Jaincoari osoqui ematen çaion guizona eguiten da guizon berri bat uzcurdura guciac utciric.

Arima bat epheltcen hasten den pontutic ititcen da nekheric chumeenaz, eta campoco consolacioneen ondoan abiatcen da.

Baiñan noiz eta ere bere burua osoqui gaitcen hazten baita, eta Jaincoaren bideetan gogo onez ibiltcen, orduan etrech caulitcen da lehen gaitz eta dorphe citçaiõna.

## V. CAPITULUA.

*Gogo gucia eman behar dugula gure buruen esteustaçunean eta Jaincoaren handitasunean pensatcen.*

**E**STUGU behar gure baitan sobra fidatu, ceren eta maiz escaz baitugu gracia, eta spirituco arguia. Estugu gure baitan airaio chume bat baicen, ceina laster gaitcen baitugu gure antficabez, eta guehienean haiñ itsu gare non ez baitugu eçagutcen gure icfutara ere.

# 110 JESU-CHRISTOREN

Maiz gaizqui eguiten dugu, eta gaiztegi  
eguiña gure aitcequiez gaizquiago guetiqui  
cen.

Barçuetan uste dugu zeloac garabiltegi,  
eta palioneac baicarabiltegi.

Mehatchatcen ditugu bertceac falsa de  
meen gatic, eta gure buruei hutsic hanc  
nac ere barkhatcen diotçogute.

Biciqui sentitcen ditugu eta gure hitz  
berretcen bertceen ganic pairatcen ditugu  
nac, eta ez gare acordatcen ere cer bertce  
pairarasten dioguten.

Gure obrac çorrozqui eta chuchenqui pisa  
cen baguintu, ez guinduc lekhuric bert  
ceen hertsiqui iuiatceco eta condemnatce

2. Barreneco bicitceaz bici den guçor  
artha guçien aitiçnean darabilla bere ar  
ren artha, eta bere buruaren gainean atç  
dagoena guti mintço da bertceez.

Etçare feculan içanen debot eta barren  
ez baduçu ikhasten çure buruaren gain  
atçarric egoten, eta bertceen eguitce  
alde batera usten.

Çure gogoan ez bada Jaincoa eta ç  
burua baicen campoan ikhusten ditug  
gaucec guti mobituco çaituste.

Non çare çure buruaren bistan etç  
nean, eta çure baitan gogoa estuçunean  
Eta cer probetchu guelditcen çaitçu ç

IMITACIONEA. II. LIB. III

buruaren artha largaturic, campoan gogoa  
inilliz haiçatu çaitçunean?

Nahi baduçu barreneco baqueaz goçatu,  
eta Jaincoaren adisquide eguiazco içan,  
emoçu çure buruari contu, eta ahantfaçu  
bertce guciac.

3. Haguitz aitçiñatuco çare berthutean  
gauça iragancorren artha usten baduçu, bai-  
ñan hei lotcen baçaizcote haguitz guibela  
egonen çare.

Esteçaçula estima badela deus handiric,  
gotaric, agradagarriric, edo baliosic Jaincoa  
baicen, eta Jaincoa ganic heldu denic baicen.

Vanotçat eta ez deustçat iducatçu creatu-  
ren ganic heldu diren consolamendu guciac.

Jaincoa maite duen arima haren azpian  
ematen da eta altchatcen da dembora be-  
rean bertce gauça guciez gorago.

Jainco choillac bere içate neurri gabecoaz,  
eta fiñ gabecoaz eguiten du arimaren consola-  
cionea, eta bihotceco boscario eguiafcoa.

VI. CAPITULUA.

*Conciencia onaren baqueaz.*

**P**RESUMA prestuaren loria eguiten du ha- II. Cor.  
ren concienciarren lekhucotasunac. Du- I. 12.  
çun bihotça garbi, eta bethi içanen çare  
boscatioan.

Conciencia onac pairatcen du hañitz, eta

112 JESU-CHRISTOREN

bethi boz dago soffricarien erdian eta

Conciencia gaichtoa bethi da icialdun  
eta altaramenduan.

Sofegu esti batez goçatuco çare, çure bi-  
hotçac deusez acufatcen ez baçaitu.

Ez çaitecela deusez ere boz ungui egu-  
ñaz baitcen.

Bekhatoreac estu eguiazco boscarioric,  
ez barreneco soseguric, ceren Jaincoaren

Isai beraren errana baita : *Gaichtaguinte*  
48. 22. *estela baqueric.*

Erranen dute menturaz : *Descansuan gaitz*  
*esta gure gainera gaitic erorico, eta un-*  
*atrebi-ere leiteque guri gaitzqui eguitera.*  
Baiñan ez detçaçula fiñhets, ecen Jainco-  
ren colera betan alchatuco da hequien con-  
tra; ez estaruco ditu hequien obrac, eta la-  
quiequin banean suntcituco dire hequien go-  
goeta guciac.

2. Esta gaitz Jaincoa maite duen atin  
Rom. *baitentçat atsecabetan loriatcea, ecen ber-*  
5. 3. *da nihorc bere loria JESUSEN guruetan*  
Gal. *ematea.*

6. 14. Guiconic elkharti ematen eta hartu-  
dioten loria berehala iragaten da, eta loria  
hari bethi darraio tristecia.

Prestuen loria hequien bihotz barreneco  
dago, eta ez guiconen ahoetan.

Nola iustuen boscarioa Jaincoa gaitz  
hela

heldu baita, Jaincoa baitan da gucia, eta da eguian fundatua.

Loria eguiazcoa eta eternala billhatcen duena esta casu hari mundu huntacoaz, eta munduco loria arbuiatu behar bidean, billhatcen duenac eracuchten du ceruco loria eternalaz estuela acholaric.

Bihotceco baquea handia du haiñac, ceiñac ez baitu anfiaric ez munduco laudorioez ez astontuez.

3. Conciencia garbia errechqui da contentat eta sofeguan.

Hortaz guizonen laudorioec etçaituste sainduago eguiten, eta halaber etçaituste gaichtoagotcen iendeec çutaz erraten ditusten gaizguiec.

Hec gucien gatic çarena çare; eta guizonen erranec etçaituste eguiten Jaincoaren eçagutçan çarenaz bertce bat.

Ikhufaçu beraz cer çaren çure barrenan, eta contu guti eguiñen duçu cer iendeec dioten çutaz.

*Guizonec campoa dacufate, eta Jaincoac* i. Reg. 16. 7.  
*bihotça.* Guizonac ikhusten ditu accioneac,  
eta Jaincoac pisatcen chedeac eta intencio-  
neac.

Bethi ungui haritcea, eta bere hurua guti preçatcea, da arima humillaren seiñalea.

Creaturen ganicaco consolamendu gucien



## 114 JESU-CHRISTOREN

usteaç marcatcen du arima bat haguiz gabia, eta bere esparantça gucia Jaincoa baitan duena.

4. Guizonen estimuaren den gutiena erbillha estabillanac eracuchten du Jaincoari osoqui eman çaiola.

II. Cor. 10. 18. Ecen iondoni Pauloc dioen beçala: *Laudagarri eta estimagarri da ez bere butua laudatcen duena, bainan Jaincoac laudatcen duena.*

Guizon barrençoïaren estatu perfeta da, bere barrenean Jaincoari iartaiquitcea, eta campoco guticietarie eta affeccionetarie libro içatea.

---

## VII. CAPITULUA.

*Maitatu behar dela JESUS gauça gucien gainetic.*

**D**OHATSUA da ungui daquiena cer den JESUSEN maitatcea, eta JESUSEN gauçak bere butuaren arbutatcea.

Uteci behar ditutçu maite ditutçun gucien guciz maite haren gatic, ceren bakharria, eta gauça gucien gainetic nahi baitu içat maitatua.

Creaturen amudio enganiosa da, eta gambiacorra, bainan Jesufen amudioa leia eta iraupenezcoa.

Creaturari lotcen çaiolena erorico da haren

IMITACIONEA. II. LIB. IIS

quiñ, baiñan Jesufi iuntatcen çaiœna hura beçala egonen da fermu eternitatean.

Maita çaçû eta itcheçaçû çure adisquidetçat mundu guciac usten çaituenean utcico etçaituena, eta galtcetie debecatucõ çaituena.

Berdiñ nahi baduçû eta ez, noizbait utci beharco ditutçû creatura guciac.

2. Lot çaquizco beraz Jesufi, eta caude harequien bician eta heriotcean; eman çaitu adisquide leial haren escuetan ceñnac baitu podore çure laguntceco bertce guciac escasten çaitzquitçunean ere.

Orduan guciçco maite hanc bakharric nahi du içan maitatua, estu nahi bertcerequiñ partitu çure bihotça, berac nahi du gucia, eta nahi du han iarri erregue bere tronuan beçala.

Nahi baciñdu hustu çure bihotça creaturen affeccione gucieratic, ethor liteque Jesus gogotic çure baitan bere egoitçaren eguitera.

Berdiñ guçonon gatic eguiten ditutçun obrac, eta Jesufi khentcen diotçotçunac galduac dire guciac.

Etçaçula har çure habetçat sesca bat haiceac darabillana, ecen *haragui gucia belharraren pare da, eta haren loria gucia ihartcen da belharraren lorea beçala.* Isai. 40. 6.

3. Guçonon campoari baçauzco beira laster enganatucõ çate, eta hetan billharcen baduçû çure consolamendua, eta probetchua;

maiçago caufituco duçu çure arimaco caltea,  
eta çorigaitça.

Gauça gucietan Jesus billhatcen baduçu  
falta gabe edirenen duçu; eta çure burua  
billhatcen baduçu halaber caufituco duçu,  
baiñan çure bidegabetan.

Ecen guiçonac Jesus billhatcen estuenean  
bere buruari calte guehiago eguiten dio,  
mundu guciac eta bere etsaiic handienac  
eguiñ dioçocoten baiño.

## VIII. CAPITULUA.

*JESUSEN amudioa dela on gucien ethorquia.*

**J**ESUS bihotz batean denean han dire on gu-  
ciac, errech çaiçco gauça guciac; baiñan  
handic urrun denean, gauça guciac çaiçco  
gogor eta gaitz.

Jesus atima bati mintço etçaiçoenan de-  
sec estu consolatcen; baiñan Jesus mintçen  
denean hitz bat baicen ez erranic ere conso-  
lacionez bethercen da.

Maria Madalena laster altcharucen ni-  
garrez cagoen lek hntic; Marthac erran çioç-  
nean: *Hemen da Iauna, çure galdez dago.*

Joan.  
11. 28.

Dohatsu orena ceñetan Jesusec deitcen  
baicaitu nigartetarie bozcatiorat.

Ala çure bihotça agor baita, eta gogor  
Jesus gabe! Oi ceñ ethoa, eta vanoa çaren  
Jesusez campoan deus billhatcen baduçu!

Munduco tresfor gucien galtcea esta deus orduan eguiñ ciñeçaquen caltearen aldean.

2. Hortaz cer probetchu ekhar dieçaçunque mundu guciac ere Jesus gabe?

Jesus gabe bicitcea ifernua da, harequiñ bicitcea parabisua.

Jesus çurequiñ bada, eciñ nihorc calteric eguiñ dieçaçunque.

Jesus causitcen duenac causitcen du tresfor bat, edo hobequi, ontasun gucien gaineco ontasun bat.

Hura galtcen duenac galtcen du guehiago aberatstasun guciac baiño, eta mundu gucia baiño-ere.

Jesus gabe bicitcea azqueneco laceria, Jesussequin bicitcea aberatstasunic handiena.

Secreturic handiena da beraz Jesussequin bicitcen iaquitea, eta prudencia soberanoa norc bere bihotcean hura iduquitcea.

Çaren humill eta baqueriar, eta Jesus çurequin içanen da.

Çaren debot eta manso, eta Jesus çure baitan iduquico duçu.

Orduan ihesi egorrico duçu, eta segurqui galduco duçu, munduco gaucetara beheratcen baçare. Eta ihesi badoatçu, noren ganatgoanen çare? Galtcen baduçu, non causituco duçu adisquide leial bat?

Ez bada posible adisquide gabe bicitcea,

## 118 JESU-CHRISTOREN

JESUS ez denean çure adisquide içanen, ala çu triste eta larri egonen baitçare.

Echoqui beraz çure esparantça eta bozçarioa ematen duçu hartaz bertçetan.

Hobeago ciñduque mundu guciacz biguindua içan ecen ez gaitcez egon JESUSEQUI.

Den beraz JESUS çure adisquideen artean guciacz hautersia eta onhersia.

4 Maita çatçu bertce guciacz JESUSEN gatic, eta Jesus bere gatic.

Harc bakharric behar du içan bereciçai maitatua, hura bakharric hobeago, maitagarriago eta leialago baita bertce adisquide guciacz elkharrequin baino.

Maita çatçu haren baitan çure adisquideac, eta haren gatic çure etsaiac, eta eguçu othoitz batçuentçat eta bertceentçat, demoten gracia haren eçagutceco eta maitatceco.

Estuçu nahi behar bakharric maitatua ez laudatua içan: hori etçαιο çor Jaincoari haren, ceñiac ez baitu nihor bere pareric edo iduricoric.

Ez duçu nihoren bihotcean eta amudicor buruperic, eta ez dioçoçula eman halaber çurean nihori; Jesus choillaren amudicor behar ditu bethe bihotz guciacz.

5. Beguira çaçu çure arima garbi eta libre creaturen traba gucietaric.

Billhuci behar duçu gucietaric, eta bihotz

garbi eman behar dioçu Jaincoari, nahi badaçu harequiñ iuntatu, eta launa ceñ goçoa den gustatu.

Eguia da billhustafuneco estatu hortara ez care helduco, gracia ez badu çute bihotça behindic hehiñ atçartcen, eta guero thiratcen eta altchatcen; munduco lothura gucietatric libratutric Jainco choillarequiñ iuntaciteçentçat.

Ecen gracia borthisten gaituenean, gauça gucietaco gai eguiten gare; baiñan ulsten gaituenean, erortcen gare gabotafunerat eta flaqueciarat, eta gaudez paratuac pena eta gastigu fuerte guciëtarat.

Hargatic ez çaiçu bihotça erori behar, edo esparantçaz gabetu; baiñan baquezqui Jaincoaten borondateari behar gaizco sumetiru, eta guerthatcen çaiçquigun gaitz guciac JESU-CHRISTOREN loria gatic pairatu, ecen uda heldu da neguaren ondoan, eguna badarraio gabari, edo dembora ederra tempastari.

## IX. CAPITULUA.

*Barreneco agortafunez eta desgustuez.*

**E**STA gaitz guçonan consolacionean arbuiatcea Jaincoaten consolacioneac gustatcen ditugunean. Baiñan berthure haguitz handi bat behar da consolamendu barçuez, eta bertceez gabetua bicitceco, eta Jaincoaten



loria gatic gabetafun hura gogo onez pairatececo, norc bere burua deufetan ere ez billhatceco, eta bere merecimenduari ez baxtere behatceco.

Esta mirestecco boscario sentitcen baduça gracia çure ganat iausten denean Norc esta-duca bere burua dohatfu momentu çorionezco hartan?

Bere gogara dabilla gracia darabillana: eta ez da miracullu ez baçaitcu deus pifuridritcen, Jainco guciz podorosac sustengatcen eta guidatcen gaituenean.

2. Atseguin dugu bethiere caufitceaz cebait consolagarri; eta nekhez gure burua ukho eguiten diogute.

Iondoni Laurenti martyr handi hanc garairu çuen mundua bere Ipizpicu sainduac beçala, hemengo atseguinac eta charmac osticaturic, bai eta oraino patientqui pairaturic apartatua icatea Sixto Aita saindua haguiz samurqui maite çuena ganic.

Maneta hartan Jaincoarentçat çuen amudioaz garaitu çuen guçonarentçat çuen amudioa, eta consolacione humanoa uteritc seguitu çuen Jaincoaren nahia.

Hortic ikhasaçu behar duçula utci Jaincoa gatic çure adisquideric maiteena eta beharrena.

Ez bequiçu damu adisquide batec usten

çaituenean, orrhoit çaito noizbait berdiñ behar degula elkhar ganic sepatatu.

3. Gudu luce eta dorphe bat eguiñ behar dio bere buruari guizonac, bere burua osoqui garaituco badu, eta bere affeccione guciac Jaincoa ganat itçulico baditu.

Bere baitan sustengatcen dena errechqui iauten da munduco consolacionetarat.

Baiñan JESU - CHRISTO cinciñez maite duena, eta berthuteari arthosqui darraioena ez da beheititcen guizonen consolamenduetarat, eta ez abiatcen sensuen araberaco solaimenduen ondoan, aiticitic lotcen çaito debocionezco praticatic gaitcenei, eta nekheric gogorrenac iafaten ditu JESU-CHRISTOREN amorea gatic.

4. Hala Jaincoac egortcen darotçunean barreneco consolacioneric, har çaçu esquerrequiñ, eta pensa çaçu harc eguiten darotçun dohaiñ bat dela hura; eta ez çuc irabaciricaco sari bat.

Ez duçun orduan buruperic, ez boscario sobratic, aiticitic içan çaito humillago, çure gainean atçarriago, çure accione gucietan beldurriago; ecen oren dohatçu hura iraganen da eta tentacioneco dembora ethorrico da.

Barreneco estitasun hartaz gabetcen çarenean, ez bequiçu eror bihotça, baiñan humiltasun, eta pacienciatequiñ iduricaçu bihurt

daquiçun; ecen asqui botheretsu da Jaincoa çuri emateco fagore bera, eta oraiño abundantquiago.

Comportamendu hori ez da berria, er mirestecoa Jaincoaren bideac eçagutcen ditustenentçat; Profeta çaharrec eta Sainduric handienec frogatu dituste ecen bere baitan gambiantça horlacoac.

5. Hargatic Erregue Profetac graciazen Psalm. abundancian erraten ohi çuen: *Nic erroi 29. 7. dut neure abundancian, ez naiz secular mobiruco* edo aldaratuco. Orduan gracia haren haren ganic hastandu denean, berenez ceib 8. flacoa cen frogaturic, dio: *Itçuli duçu en ganic çure beguitarte, eta erori naiz aliar amenduan.*

Halere bada ez du galtcen bere espatantça, aiticitic khar guehiagorequiñ othoilles 9. du Jaincoa, eta diotço: *launa, ene oihua altchatuco dut çure ganat, eta eguiñen darrotçut ene othoica.* Era finean marcatcen du 11. ardietsi duela galderu duena, dionean: *launac entçun nau, eta urricat du natçain, ene Jaincoa eguiñ da ene laguntçaille.*

Baiñan adi çagun cer laguntça eguin dioen 12. dio: *launa, ene plainuac gambiaru ditutçat bozcariorat, eta inguratu nauçu alegranciaz.*

Sainduric handienei horla guerthatu baçait,

guc gacho, eta herbalet ez dugu esparantça galdu behar, batçutan khartsu, eta bertce-tan hotz edireten bagate, ceren Jaincoaren spiritua hurbiltcen eta urruntcen baita berac plazer duen beçala.

Hargatic diotço Jopet Jaincoari: *Goicetic* Job. 7.  
*gui, ona bisitatcen duçu eta berehala ondoan* 18.  
*frogatcen duçu haren ganic apartaturic.*

6. Ceren gainean beraz fida ahal naiteque eta certan eman ahal deçaquet neure esparantça baicen Jaincoaren gracion, eta haren misericordian?

Ecen nahiz aurkhi nadiñ presuna prestue-quiñ eta arima sainduequiñ, edo adisquide laialequiñ; nahiz iracut detçadan liburu sainduac eta Jaincozco gaueç mintço direnac, nahiz canta detçadan edo entçun detçadan cantatcen hymnoac, eta Eliçaco bertce can-tac; horietan gucietan laguntça eta descansu guri causitcen dut graciãz billhucia; eta neure miseriarat largatua balin banaiz.

Orduan etremedio hoberena da paciencia, eta gure buruen abandonamendua Jaincoa-ren nabirat.

7. Ez dut egundaiño causitu guiconic haiñ debotic eta khartsuric ceñez ez baitu frogatu bere burua graciãz gabetua, eta lehen çuen berotasunetic epheldua.

Ez da egundaiño içatu sainduric hartaraiño

arguituric, edo haiñ gora althaturic, ceñu ez baita lehenche edo gueroche içatu tentacioneez humiliatua.

Jaincoaren amorea gatic gudu handiric iñfan ez duenac ez du mereci contemplacione gora batetara altchatua içatea.

Ecen presenteco tentacionea da mata consolacioneac laster ethorri behar duela: hortaz consolacioneac etçaiñte ere berteei aguintcen, lekhat atsecabeez frogatua.

Apo. 7. *torioz içanen denari emanen diot iatera becitcearen arbolaco fruituric.*

8. Ecen gracia fuerte horiec ematen çaiñco guizonari sendoago içan dadintçat forficarien pairatceco, eta berriz nahi gabe egortcen çaiñco bere baitan altcha ez dadintçat gracia hequien gatic.

Hala çaude bethi prest gudu eguiterati ecen deabrua ez datça lo, haraguia ez hilla, escuiñ, eta ezquer baitutçu etçaiñ behiñ-ere pausatcen ez direnac.

## X. CAPITULUA.

*Jaincoaren graciencat behar den esquin eta eçagurçaz.*

**C**ERTACO çabiltça paufu billha nekhet cotz forthua çarenaz gueroftic; prepara çaiñte guehiago pacienciarat ecen ez confor

lacionerat, atsecaberat hobequi ecen ez bozcarioerat.

Nor da munduan presuna bozcario eta consolacione spitualac gogotic gusta ez detxaquena, bethi hetaz goça ahal baledi? Ecen goçoago dire consolacione hec haraguiaren placet, eta munduco atseguin guciac baino.

Ecen haraguiaren atseguinac edo dire vanoac, edo laidotsuac; bainan spituaren placetac ederrac dire eta garbiac, ceren berthutetac fortcen baitire, eta Jaincoac iturteen baititu arima garbietarat. Bainan eciñ nihor goça daiteque nahi beçambat Jaincozco consolacione hetaz, ceren tentacionearequin ditugun tregoac haguitz baitire laburrac.

1. Consolacione spitual hequinçat traba handiac dire gure burua baitan dugun fidancia sobraniozcoa eta gure arimaren libertate falsoa.

Jaincoac ungui eguiten darocu bere gratiaz consolatcen gaituenan, bainan guc ungui bura gambiatcen dugu gaizquita, gure esquetzen bidez gucia hati berati bihurtcen ez diogunean, eta horren gatic ez dire heldu gure ganat graciaren dohaiñ hec, ceren esquet gabeac baicare hequien emallearen alderat, eta ez baiditugu iganataciten bere aitharbururat aithor humill baten medioz.



Ecen gracia errecibituen eçagutçac ekhartcen ditu gure ganat gracia berriac : eta Jaincoac supherbioari khentcen diomat ematen dio humillari.

3. Ez dieçadaçula eman, ô ene Jainco, consolacioneric ene bekhatuen urriquiraz gobe naçaquenic, ez eta contemplacioneric o guilleriara altcha naçaquenic.

Ecen gora guciac ez dite saindu, esti dite guciac ez dite on, desiratcen den gucia ead garbi, eta guizonaten gogara den guciac da çure gogara.

Baiñan indaçu, launa, gracia bat humillago eta atçariago eguiñen nauena, eta nere buruari ukho eguitera ekhatrico nauena.

Jaincoac bere gracia batean eman ez berecean khenduz presuna bat arguitu duenera, eciñ atrebituco da siñheftera deus onic oiganic baduela ; baiñan aithortuco du hama gauça guciez dela pobrea eta billhucia.

Math. 21. 21. *Emotçu Jaincoari Jaincoarena dena, eçureçat, ez çaçula har çutereric baicen ; Eta nahi da, emotçu esquerrac Jaincoari hama ganic ditutçun graciaz, eta aithoraça ez çaçula çure ganic bekhatua baicen, eta haez duçula mereci hari çorçaioen pena baicen.*

Luc. 14. 10. *4. Eman çaitte berhi lekhiric beherenera, eta altchatuco çaituste gorenerat; lehenbicu herrunca azquenecoa hzutatcen duenarena.*

Saindu Jaincoaren beguietan handienac dire bere beguietan chumeenac; cembatenaz distiantago, hambatenaz humillago.

Ecen nola baitire ceruco eguiaz eta loriaz betheac, ez dire casu hari munduco ohore vanoez: Jaincoa baitan sincatuac eta borthitfinae ez ditu higitcen orguilleric; eta nola Jaincoari egortcen baitiotçate haren ganiciçatu ditusten on guciac, ez dute nahi batçuec berteen ganic loriatic, eta ez dute desiraten Jaincoa ganic heldu dena baicen.

Hec gauça guciën gainetic desiratcea duren da Jaincoa den laudatua bere baitan, eta bere sainduetan, eta hori da hequien accione guciën chedeac.

5. Duçun beraz eçagutça handi bat gratiatic chumeenez, eta merecituco ditutça handienac. Jaincoa ganic heldu çaitçun dohainic chumeena estima çaçü hañiz, eta guicõnei tchar iduricen çaiena den preciata çure beguietan.

Emaillearen handitafunac errendatcen baidu balioz dohainia, Jaincoaren dohainic eciñ çaireque tcharric edo chumeric; ecen gaciz handi denac eciñ deus chumeric eman deçaque.

Haren ganic heldu çaiçquigun gastiçuac, eta cigorradae ere on behar çaiçquigu, ecen deus ez çaicu guertharçen non ez duen harc çure salbamendua gatic permetitcen.

Beraz Jaincoaren gracia conferbatu nahi duenac elquer, eta eçagutça behar du haren ematen çañonean, eta paciencia khentoeçañonean, behar du eguiñ othoitz haren adiersteço, eta behar du içan humill, eta goardiator haren conferbatceço.

## XI. CAPITULUA.

*Gutic dutela maite JESU-CHRISTOREN, gurutcea.*

**J**ESUSEC baditu hañitz haren erteluma maite dutenac, baiñan guti harten gurutcea iafaten dutenac.

Hañitcec billhatcen dituste haren consolacioneac, gutic haren soffricariac.

Lagun hañitz du mahaiñean, baiñan ber kharric da baturean.

Guciec nahi dute içan haren boscarior tan partale, baiñan nihor gutic nahi du haren gatic pairatu.

Hañitz darraizco JESUSI oguia partiteco diotenean, baiñan guti pasioneco khalitcedan behar denean.

Hañitcec ohoratcen dituste haren biciteco miraculluac, baiñan gutic haren herior ceco laidoac.

Hañitcec maite dute Jesus nahi gaberi guerthatcen ez deiño, laudatcen dute eta benedicatcen, consolatcen ditueiño; baiñan

gordercen

gordetcen baçaiote, eta usten baditu dem-  
bora bateco, erortcen dire berehala mur-  
mutacionerat eta epheltrafunerat.

1. JESUS maite dutenec ez bere contenta-  
mendu propiala gatic, baiñan JESUS bera  
gatic, benedictcen dute soffricarietan haiñ  
angui nola boscarioetan.

Eta behiñ-ere consolacioneric eman ez ba-  
lioçate ere, ez litesque gueldi hargatic bere  
laudorioac, eta esquerrac hari bihurtcetic.

5. Oi ala indarsua baita JESUSEN amudioa  
garbia denean, eta amudio propioaz nahaf-  
tatua ez denean! Cer dire beraz Jaincoaren  
cerbitçuan estira funen billha bethi dabilçan-  
nac, baicen cerbitçari intrefatuac, eta sol-  
dateco sehiac?

Hañec bere buruac JESUS baiño guehiago  
dituste maite ceñnac bethi bere abantailen,  
eta aisien ondoan baitabilçan.

Bizquitartean nor causitcen da orai Jaincoa  
dohaiñic cerbitçatu nahi duenic?

4. Presuna spiritualen artean ere nekhez  
causitaco da bat gauça guciez billhucia denic.

Non causi daiteque presuna spirituz eguiaz-  
qui pobrea, eta creatura gucien amudiotic  
osoqui libtoa? *Munduaren basterrera iño* Prob.º  
*goanic behar da aurkhitu halaco bat.* 31. 10.

*Guiçonac bere ontasun guciac ematen ba-* Cant.  
*litu ere, ez da hori deus.* Penitencia gartatz 8. 7.

bat eguiñ baleça-ere deus guti da hori. Munduco iaquintafun guciac balitu-ere urrun da oraiño. Balu-ere berthute handi bat, eta debocione khattfu bat, escas du gauça bat laguitz beharra.

Ceiñ da hura? Gauça guciac utci ondoan, utz deçan bere burua; bere baitharic atheri dadiñ osoqui, eta ez deçan deus itchee bere amudio propiotic; eta oraiño gauça horiet eguiñ ondoan, eta eguitccotz daufcan guciac siñhets deçan ez duela deus eguiñ.

5. Guri preça deçan bertceei haren baitan handi iduritzen çaiena, eta cinciñez aithat deçan cerbitçari alfer bat dela; JESU-CHRISTO

Luc. berac eracuchten darocun beçala: *Manata*  
17. 10. *çaiçquitçuen guciac eguiñ ondoan, erraçat*  
*bethi, cerbitçari inutillac gare.*

Orduan daiteque eguiaz spirituzco pobrea,  
eta gauça guciçz billhucia: orduan etan  
Psalm. deçaque Profetarequiñ: *Pobrea naiz eta*  
24. 16. *abandonatua.*

Halere ez da nihor içanen aberatçagoric,  
puchantagoric, ez libroagoric halaco guciç-  
na baiño, ceiñac baitaqui gauça guciç-  
apartatcen, eta azqueneco herruncan beti  
buruaren ematen.

## XII. CAPITULUA.

*Gurutcea dela ceruco bidea.*

JESU-CHRISTOREN hitz hauc dorphe çai-  
 cote hañitcei: *Ukho eguiocçu çure buruari,* Math:  
*altcha çaçu gurutcea, eta iarrai qui çaquiz-* 19. 21.  
*quit.* Baiñan dorphe içanen da aho beretic  
 aditcea azqueneco hitz hauc: *Aparta çai-* Ibid.  
*tezte ene ganic madaricatuac,* eta çoazte 25. 41.  
*seculaco jurat.*

Orai gurutcezco hitz hec gogotic aditcen  
 ditustenac ez dire beldur içanen adi deçaten  
 Jaincoaren iuiamenduan condemnacionezco  
 arasta ikharagarri hura.

*Gurutcea aguertuco da ceruan, JESU-*  
*CHRISTO ethortcen denean gute iuiatcera.*  
 Orduan gurutcearen cerbitçari guciac, bere  
 bician Jesus gurutceficatuaren idurico eguiñ  
 diranac seguratuqui hurbillduco dire bere  
 iuiareen ganat.

1. Cergatic çare bada beldur gurutcearen  
 hartcerat, haren bidez goan behar denaz  
 gueroitic cerurat? Gurutcean caufituco duçu  
 çute salbamendua, çure bicitcea, eta çute  
 etçaien garaitceco behar den gucia.

Gurutcea da graciën canala, arimaren in-  
 darta, spirituaren boscarioa; gurutcean da  
 berthuteen khoroa, eta faindutafunaren per-  
 feccionea.



Ez dugu causituco arimaren salbatceric, ez bicitce eternalaren esparantçaric gututcean baicen.

Har çaqu beraz çure gututcea, eta çar-raizco JESUSI, eta goanen çare bicitce eternalerat.

Berac iafan du lehenic bere gututcea, eta hill da hartan çure gatic; çuc ere iafan çaçuntçat çurea, eta hartan hillcera de-deçaçuntçat.

Rom. *Ecen harequin hilltcean baçare, harequin*  
6. 8. *bicico çare*, eta haren penetan partale baçare, içanen duçu halaber haren lorian parte.

3. Gauça dago beraz gututcearen maitatcean, eta hartan hilltcean; ez da bertce bideric bicitce eternalerat, eta eguiazco baquerat, lekhat gututcearen eta mortificacionearen bidea.

Çoaz norat nahi, billha çaqu placer duçun beçambar; behatcen baduçu gorat, ez duçu causituco bide altchatuagoric, behatcen baduçu beherat, ez duçu causituco seguragoric gututce sainduaren bidea baino.

Disperfa çatçu eta arrima gauça guciat çure nahien, eta chedeen arabera; nahi baduçu eta ez, aurkhituco duçu bethi cerbait pairatceco; hala causituco duçu bethiere gututcea. Ecen edo içanen duçu gorputcean oin haçe, edo spirituan atsecabe.

4. Batean Jaincoac utcico çaitu, bertcean guiçonec perfecutatuco çaituste, eta guehiago dena, maiz çure buruarentçat ceroni nekhagatri içanen çare. Eta eciñ causituco duçu çure penen erremedioaric, edo arintafunic; hala beharco ditutçu guciac pairatu Jaincoac placer duen arteraiño. Ecen Jaincoac nahi du ikhas deçaçun pairatcen consolamendu gabe; osoqui haren azpian eman çaitcentçat, eta pairatuz humillago eguiñ çaitcentçat.

JESU-CHRISTOREN pasioneac ez du nihor hala uquitcen nola haren idurico soffricariac pairatu dituena. Alde gucietaric beraz bathuco çaitçu gurutcea, lekhu gucietan çure beira dago.

Notat nahi den ihes eguiñ deçaçun, eciñ ñçurico çaiçco; ceren norat nahi den çoacen, çurequin eramaten baitutçu çure burua, eta hala causituco baitutçu çure burua lekhu gucietan.

Çoacen goiti, çoacen beheiri, çoacen camporat, edo çaudecen barranean; alde gucietan aurkhituco duçu gurutcea, lekhu gucietan beharco duçu pacienciaz borthistu, nahi baduçu ardietsi bihorceco baquea, eta merçitu seculaco khoroa.

5. Gogotic ekhartcen baduçu çure gurutcea, harc-ere ekharrico çaitu, eta guidatuco

çaitu chede dohatſu hartara ceîna baira ne-  
khe gucien akhabantça, eta ceîna ez baira  
edireten bicitce hunetan.

Bainan gogoaren bortcha iaſaten baduçu  
carga piſuago eguiten duçu, eta pena gue-  
hiago çute buruari ematen dioçu, berdiñ bai  
eta ez bada pairatu behar duçunaz gueroſtic.

Gurutce bat iſten baduçu, cauſituco du-  
çu bertce bat menturaz piſuagoa.

6. Egundaiño nihor ecin itçuri çaiõ gu-  
rutceari, eta duçu iſte çu itçurico çaiçcola?  
Sainduetatic cein içatu da egundaiño gurut-  
ce, eta ondico gabe bicia iragan duenic?

Jesus gure nauſiac ez du berac içatu man-  
duan bici içan deiño oren bat cerbait pairatu  
gabe. Ecen dio berac: *Pairatu behar çuen*  
*Christac hilletatic bichtu behar çuen, eta*  
*ſoffricarien bidez behar çuen ſarthu bere le-*  
*rian* Nola bada billhatcen duçu ceruco bert-  
ce bideric, gurutcearen bide erreguezcoa  
baicen.

Luc.  
24. 46.

7. JESUSEN bicitce gucia bethiereco gu-  
rutcea, eta martyrioa içatu da, eta çu çabile-  
ça pauſuaren, eta bozcarioaren billha?

Eganatcen çare, berriz-ere diot, enga-  
natcen çare, mundu huntan billhatcen bi-  
duçu penaric, eta pairatceric baicen, ceren  
bicitce mortal hau laceriaz bethea baira, eta  
alde gucietatic aſfecabez, eta gurutcez in-  
guratua.

Eta cembatenaz arima bat aitciñarcen baita guehiago bicitce spiritualean, hambatenaz communi qui gurutce handiangoac ditu; ceren ceruarentçat duen amudioac miñquiago sentiarasten baitriotça bere desterruco penac.

8. Halere haiñ miñqui affligitua den arima ez da consolacione gabe, ecen frogatcen du cembatenaz baita haren gurutcea gogorrago eta pifuiago, hambatenaz dela haren abantçua, eta probetchu spirituala handiango.

Ecen nihorc amudioequiñ atsecabeac harteen dituenan, hequien dorphetafuna gambiatcen da Jaincoaren esparantça handi baterara, eta cembatenaz soffricari hec guehiago flacatcen baitute haraguia, hambatenaz graciaz borthisten du spiritua.

Eta batçuetan J E S U S gurutceficatuaren idurico içan nahian inspiratcen dio arima bati hambat amudio atsecabeentçat, non ez bailique nahi içan hetaz gabetua; ceren uste baitu hambatenaz içanen dela Jaincoaz maitatuago, cembatenaz pairatuco baitu haren amoreac gatic guehiago.

Eta ezdu hori eguiten guiçonaren berthuteac, baiñan bai Jaincoaren graciaç, ceñac haragui flacoan bici bagare-ere ematen baita; zocu hambat indar non maitarasten baitatocu, eta khar handirequiñ billharasten naturaleçac guehienic higuinàrasten darozquigun gauçac.

9. Ez da guizonaren pendura gurutcearen iafatea eta maitatzea, gorphutçaren gasti-gatzea, eta gathibu errendatzea, ohoreei ihes eguitea affrontuac boscariorerquin hart-  
cea, bere buruaren arbuiatzea, eta bertoez arbuiatua içan nahi içatea, calteac eta nahu-gabeac gogo onez pairatzea, eta mundu huntaco onen eta abantailen guticiaric ez içatea.

Çure burua ungui consideratcen badaçu, cañituco duçu horietarican deus eciñ dagui-queçula; baiñan laincoa baitan ematen badaçu çure esparantça harc emanen darotçu ceruco laguntça, eta hala mundua, hala haraguvia çure azpian içanen dire.

Fedeaz armatua eta gurutceaz seiñalatu baçare, deabruaren-ere etsai cruel hareen beldur etçare içanen.

10. Çaude beraz prest JESUSEN cerbitçari on eta leial bat beçala, bihotz handirequin iafatera gurutcea, ceñetan çure nauñi adoga-garriac nahi içatu baitu hill çure amorea gatic.

Deliberatu behar duçu bicitce dohacabe huntan çareño hañitz gaitz eta atsecabe fuerteren pairatcerat; ecen norat nahi çoac-en, eta non nahi gorde çaitecen, ez duçu cañituco halacoric baicen.

Horiche da çure çorthea; eta gaitz horien gucien contraco erremedioric ez duqueçu, guciac pacientqui iafatea baicen.

Edan çaqu beraz gogo onez JESUSEN khalitça, nahi baduçü içan haren adifquide, eta haren errefuman partale.

Consolacioneez denaz beçambatean utçatçu hec Jaincoaren borondatera, eguiñ deçan hetaz placer duena.

Baiñan çuc delibera çaqu atsecabeen hartcerat consolacioneac balire beçaiñ boscario handirequiñ. *Ecen mundu huntaco soffricariac (guciac pairatcen bacintu-ere), ez dire comparatceco aguintcen çaiçun loriarequiñ.* Rom. 8. 18.

11. Ardietsi duqueçunean estatu hura, ceinetan penac esti idurituco baitçaiçquitçu, eta atsecabeac goço JESU-CHRISTOREN amore gatic; orduanche iducaçu çure burua dotatçu, aurkhitu duqueçu munduan parabisua.

Baiñan soffricarien ihesi çabilçaiño, edo hec fasticurequiñ pairatcen ditutçuiño; dohacabe içanen çare, eta ihesi eguiñ nahi dioçun gaitça berthi iarraiquico çaitçu.

12. Eamaten baçare behar çaren beçala pairatceco, eta hiltceco estatuan, causituco çare berehala hobequi, eta ardietsico duçu bihorceco baquea.

Londoni Paulo beçala baciñe-ere alchatua hirargarren ceruraino, etcindue seguranc gatic ez duçula deus pairatuco. Ecen JESU-CHRISTO berac hambat fagoreen ondoan A. 9. erran du Apostolu hartaz: *Nic eracusico 16.*



diot cembat beharco duen pairatu ene icenaren ohoretan.

Çure eguitemo bakharra da beraz pairatcea, nahi baducu JESUS maitatu, eta çure bici gucian cerbitçatu.

13. Ochala bai baciñe JESUSEN iceneo cerbaiten pairatceco! Oi nolaco ohorea litquen çuretçat! Nolaco boscarioa Sainduentçat, eta exemplu ona çure laguentçat! Eocuguciec laudatçen dute paciencia, nihore gutic hartu nahi badu-ere.

Ez liteque bada iustu cembait pena çime har ciñeçan JESU-CHRISTO gatic, hantbat iendeec mundua gatic haguitez doçpheagoac hartcen ditustenaz gueroçtic?

14. Siñhetçaçu çure biciac behar da içañ heriotce continual bat, eta cembatenaz çure buruari hilltçen baitçaizco guehiçgo, hambatenaz guehiago hasten çarela Jaincoarentçat bicitcen.

Nihor ez da gai ceruco gaucen eçagurceco, ez bada iartcen atsecabeen soffritçen JES-CHRISTOREN amorea gatic.

Deufere ez da Jaincoaren gogarago denic, eta gure salbamenducotz hoberic, nola JESU-CHRISTO gatic gogo onez pairatcea.

Eta hautua ematen balitçaitcu, hobeque behar guntuzque hartu atsecabeac, eçen ez bozcarioac; çeren hotla iduri guehiago bat

quindue JESU-CHRISTOREQUIN, eta ha-  
ten sainduequin.

Eten gure merecimendua, eta aitcña-  
mendua ez dago hañitz consolacioneen, eta  
etitasunen icatean, baiñan hañitz altara-  
menduen eta penen iafatean.

15. Içan balitz soffricariac baiño deus  
hoberic, eta progotchosagoric guisonent-  
cat, JESUS-CHRISTOC eracutchico çarocun  
bere hitcez eta exempluz.

Bizquitartean bere discipuluac eta bere  
iarracun guciac ez ditu exhortatu pairatce-  
rat baicen, eta ez diote erran bertceric, le-  
khat: *Nihorc ethorri nahi badu ene ondo-* Math.  
*tic, ukho eguin bioça bere buruari, ekhar* 16. 24.  
*beça bere gurutcea, eta iarraiqui bequit.*

Hala gauça guciac ungui consideratu eta  
examinatu ondoan, huntanche çarratcen  
dire: *Hañitz atsecabetaric, eta hañitz* Act. 14.  
*soffricaritaric iragan behar dela ceruco er-* 21.  
*resuman sartceco. Halabiz.*





# JESU-CHRISTOREN IMITACIONEA.

HIRURGARREN LIBURUA.  
Barneco consolacioneaz.

## I. CAPITULUA.

*Nola behar den preparatu Jaincoaren  
aditcerat.*

A R I M A C.

Pfalm.  
34 9.

**DITUCO** *du Jainco Iaunac  
ene bihotçaren barrene an erranen  
darotana.*

Dohatsu arima, Jaincoa mintço  
çañonean aditcen duena, eta haren ganic  
consolacionezco hitçac hartcen dituena!

Dohatsu beharriac, Jaincozco hitcen

soiñua entçuten dutenac, eta munduco habarrotsentçat çarratuac direnac.

Berriz-ere diot dohatſu beharriac, campotic heldu çaioten boça aditu nahieſtutenac; baiñan bihotçari mintço çaiõn eguia entçuten dutenac.

Dohatſu beguiac campoco gauça gucientçat bethi çarratuac daudecenac, eta barrenecoei baicen idequitcen etçaiſtenac.

Dohatſu, bere barrenaren berri daquite-nac, eta egun oroz debocionez pratica ſainduz guerotic guerora guehiago ceruco ſecretuen eçagutcerat preparatcen direnac.

Dohatſu guiçona, munduco traba gucienturic libraturic Jainco choilla baitan gogoa duena.

Gaudecen erne, ô ene arima, eta hertsarçigun gure ſenſuen atheac aditceco cer erranen darocun gure Jainco launac, huna cer duen çure guciz maiteac.

JESUS-CHRISTOC.

1. Ni naiz çure ſalbamendua, çure ba- Pſalm. 34. 3.  
quea eta çure bicia; çauđe enequiñ, eta  
cauſtucoc duçu eguiazco ſoſegua.

Uſatçu gauça iragancorrac, eta iarraic çaquizcote bethi irauñ behar dutenei.

Cer dire demborac daramatçan gauçac,  
doidoia lilluramendu vanoac?

Eta certaco tutçu creaturac, creatçailleac  
aſten baçaitu?

Beraz gauça guciei ukho eguiocute lanaren gogaraco, eta haren cerbitçari leaican çaitcentçat, eta eguiazco dohatfufuna ardiets deçaçuntçat.

## II. CAPITULUA.

*Arimac Jaincoari galde eguitendio arimac mintça daquion bihotcerat.*

## ARIMAC.

I. Reg. 3. 9. **M**INTÇA çaitte, launa, ecen çure cerbitçariac adituco çaitu. Ni na çure cerbitçaria; indaçu arguta eçagut çadan cer manatcen darotaçun.

Pf. 118. 115. Susta çaçu ene bihotça, eta gai egui çure ahoco hitcen entçuteco, eta isur beñ hitz saindu hec ihintça beçala ene bihotcera.

Lehenago Israeldarrec erraten cioten Moiseri: *Mintça çaquizquigu çu cerorri, adituco çaitugu; baiñan ez bequigu Jaincoa mintça, hill ez gaitcentçat.*

Estarotçut nic hori galdéguiten, ó en Jaincoa! aiticic atrebitcen naiz humilitate nequiñ eta debocionerequiñ, çuri errater.

I. Reg. 3. 9. Samuel Profetac beçala: *Mintça çaitte, launa, ecen çure cerbitçariac entçuten çaitte.*

Ez bequit mintça Moise, ez bertee Profetac; baiñan çu mintça çaquizquit, ó en launa eta ene Jaincoa: çu ceñac inspirate eta arguitcen baititutçu Profetac; ecen çu

bakharic hec gabe perferqui argui naçaçu-  
que, eta hec çu gabe eciñ daguiquete deus.

1. Eguia da, hitçac adiaras detçaquete; bai-  
ñan eciñ eman deçaquete, spiritua eta gracia.

Ungui mintço dire; orduan çu gabe bi-  
hotça eciñ uqui deçaquete.

Hec ematen dute lettraren achala; baiñan  
çuc aguertcen duçu eta adiarasten sensua.

Hec predicatcen tuste misterioac; bai-  
ñan hequiñ eçagutça çuc ematen duçu.

Hec adiarasten darozquigute çure ma-  
nuac; baiñan eciñ compli detçaquegu çure  
laguntça gabe.

Hec iracasten darocute bidea; orduan çuc  
ematen han ibiltceco indarra.

Hec ematen tuste campoco arguiac; bai-  
ñan çuc arguitcen tutçu barnetic gure spiri-  
tuac eta bihotçac.

Hec campotic ihinstatcen dute arbola;  
orduan çuc erakhartcen diotçute fruituac.

Fiñean bere boçaren oihua adiarasten dute;  
baiñan çuc idequitcen bihotceco beharriac.

3. Ez bequit beraz niri Moise mintça;  
baiñan çu mintça çaquizquit, ene Jaincoa,  
ceiña baitçare eguia eternala.

Hill ez nadintçat, eta agor, eta fruitu  
gabe egon ez nadintçat; ecen hori guertha-  
tucocait campotic choillqui banaiz abifatua;  
eta ez barnetic uquitua eta sustatua.



Beldurrez çure iniamentuan condema  
nadiñ, ceren entçun dudan çure hitça, eta ez  
beguitatu; eçagutu, eta ez maitatu; sin-

I Reg. hetli, eta ez complitu. *Mintça çaite beran,*  
3. 9. *launa, ecen çure cerbitçariac aditcen çar-*  
Joan. *tu, eta çuc ditutçu bicitce eternalaren hit-*  
6. 69. *çac.*

Mintça çaquizquit ene arimaren consola-  
cionecotz; mintça çaquizquit ene biciaen  
onera gambiatcecotz: fiñean mintça çaquiz-  
quit çure icen sainduaren ohore loria, eta  
laudorio eternalcotz.

### III. CAPITULUA.

*Jaincoaren hitçac humiltaşunequin entçun  
behar direla, eta hañitceac estitustela  
hec asqui pisatcen.*

#### JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, adi çatçu ene hitçac, hira  
estitafunez bethericacoac, ceñec ichit-  
cen baitute infinituqui munduco çuhurra  
iaquintafun gucia.

Joan. *Ene hitçac spiritu eta bicitce dire, eta*  
6. 64. *estute sensu humanoaren arabera neurthua-*  
*içan behar.*

Etçaçula hetan billha complacencia van  
baç: baiñan entçun çatçu ichilltafun hañi-  
batean, eta har çatçu berotafun eta çolu  
hañitcequin.

2. *Dohatsua da çuc arguitcen duçuna*, Pl. 937  
 è ene Jaincoa, eta ceronec çure leguea ira- 12. 13.  
*khaften dioçuna bere atsecabezco egunetan*  
*descansuan emateco, eta mundu huntaco*  
*miserietario atheratceco.*

JESUS-CHRISTOC.

3. Nic arguitu ditut hastetic Proferac, eta  
 orai ere ni bethi mintço natçaiote guiçonei.  
 Baiñan guehienac gor dire, eta senti-  
 mendu gabe ene boçarentçat.

Jaincoa baiño gogoricago aditcen dute  
 mundua, eta hobequi behatcen diote bere ha-  
 taguiaren guticiei, ecen ez Jaincoaren nahiei.

Munduac aguintcen tu ontasun iragan-  
 corrac eta mezpreçagarriac, eta cerbitçatua  
 da beroqui; nic aguintcen ditut ontasun fo-  
 beranoqui handiac, eta bethi iraunen dute-  
 nac, eta guiçonac nagui dire eta hotz enetçat.

Norc hambat artharequiñ, eta kharrequiñ  
 obeditcen, eta cerbitçatcen nau ni, nola  
 mundua eta munducohandiac eguiten baitire?

*Gorri çaitte Sidon, dio itsasoac*, edo ho- Isal.  
 bequi ahalca çaitte arima guiristiñozcoa, dio 23. 4.  
 munduac; arraçoïña galdetcen baduçu,  
 huna non den.

Bide hañitz eguiten da beneficio chume  
 baten içatea gatic; eta urhats bat-ere doidoia  
 nihorc eguiñ nahi du bicitce eternala gatic.

Hañitz nekhez billhatcen da gauça tchar bat; ez deus gatic altchatcen dire hauci ahalcagarrac; airezco esparantça batec, edo aguintça vano batec gabac, eta egunac iraganataltendarozquigu nekhe etaborroquetan.

4. Baiñan oi gute laidoa, uzcur gare den nekheric chumeenaren hartcerat ontasun eternal baten gatic, golardo eciñ asqui etimatzco baten gatic, ohore soberano, eta loria neurri gabe baten gatic.

Ahalca çaitte beraz cerbitçari lacho, eta erréncuratiá ikhufleaz hambat iende bere caltetaco gaucentçat lehia guehiago dutenac, çuc çure salbamenducoençat baiño; eta ichurapenezco ontasunetan atseguin guehiago hartcen dutenac çuc eguiazcoetan baiño.

Bizquitartean maiz enganatuac guerthateen dire bere esparantçetan; baiñan ene aguintçac eciñ faltatuzcoac dire, eta ene baitan esparantça eman duena estut hucic egorri egundaino.

Emanen dut agundu dudana, erran dudana complitaco dut; baldin ene cerbitçari finetaino irauten badu ene amudioan.

Nic onac handitoqui saristatcen ditut: eto duan lehenago frogantça dorphetan eçartcen ditut.

5. Escribe çatçu ene hitçac çure bihotcean, eta maiz gogoan erabill çatçu, behartaco

çaitzquitçu tentacioneco demboran.

Ez baditutçu aditcen iracurtcean, adituco ditutçu nie visitatuco çaitudan demboran.

Bi maneraz visitatcen ohî ditut neure hautetfiac, tentacioneez, eta consolacioneez: eta egunoroz bi leccione fuerte ematen diotçater: bata utz deçatentçat bere escafac: bertcea berthuteac ardietz detçatentçat.

Leccione horiec hartu ondoan: arbuiatu ditueua, hequien gainean condenatuco da azquen egunean.

O T H O I T Ç A.

*Debocionearen gracia ardiastecotçat.*

6. Ene launa eta ene Jaincoa, çure baitan dire ene ontasun guciac, eta ni cer naiz aufartateco çuri mintçatcerat?

Ni naiz çure cerbitçarietan den mendtee-  
tia, eta on guciez gabetueua, esteufago lur-  
teco harra baiño, nerorrec daquidan, eta  
erran ahal deçaquedan baiño milletan doha-  
cabeagoa, eta mezpreçagattiagoa.

Guciarequiñ ere orhoit çaitte launa, ez  
naicela deus, estudala deus, eta eciñ deus  
daguquedala.

Çu çare bakharrie ona, iustua, eta sain-  
dua, çuc daquizquitçu guciac, çuc ematen  
tutçu guciac, çuc bethetcen tutçu guciac, le-  
khat bekhatorea, ceina usten baituçu çure  
ontasunez gabetua.

Pfalm. *Orrhoit çaitte çure misericordiez*, berthe  
24. 6. çaçu ene bihotça çure graciez çuc ceñnac ez  
baituçu nahi çure obrac içan direcen escafac.

7. Nola neure burua iasan deçaquet bi-  
citce dohacabe hunetan? çure graciaç, eta  
misericordiac ez banaute borthitsten.

Etçaçula itçul ene ganic çure bifaia, eta  
esteçaçula luça çure biñita, ez naçaçula gabe  
çure consolacioneez, ene arima çure aitciñean

Pfalm. *eguiñ estadintçatluragor, eta idor baten pare.*  
142. 6. *Iauna, iracatz dieçadaçu çure nahia*

9. *eguiten*, iracatz dieçadaçu çure aitciñean  
humilqui eta dignequi ibiltcen; ecen çu çare  
ene çuhurtcia çuc eçagutcen nauçu eguiar-  
qui naicen beçala, çuc eçagutu nauçu nintcen  
baiño lehenago, bai eta ere mundua creatu  
baiño lehenago.

## IV. CAPITULUA.

*Eguiaren eta humiltaşunaren arabera ibilli  
behar dela Jaincoaren aitciñean.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, çure bicia chuchen çaçu ene  
eguiaren arabera, eta bihotz simple,  
eta chuchen barequin bethi billha naçaçu.

Ene aitciñean eguiaren arabera dabillana  
gueriçatuco dut etsaiaren colpetaric, eta  
eguia harc berac beiratuco du gaichtaguiñen  
atacada eta enganamenduetaric.

# IMITACIONEA. III. LIB. 149

Eguiac libratcen baiçaitu, eguiazqui libro  
içanen çare, eta contu guti harico çare çure  
contraco etafia guciez.

## A R I M A C.

2. Eguia da, launa, eguiçu ene baitan dio-  
çun gucia, çure eguiac argui benaça, guida  
benaça, eta beguira fin dohatfu batetaraiño.

Libra beça ene bihotça amudio lohi, eta  
guticia defordenatu gucietaric, çurequiñ ibill  
nadintçat bihotceco libertate handi batean.

## J E S U S - C H R I S T O C.

3. Eguia bera naiz ni, eta nic iracatfico da-  
rotçut cein den bide chuchena, eta nola içan  
ahal çaitetzquen ene gogaraco.

Gogoan erabiltçaçu çure bekhatuac damu  
eta bihotz miñ handirequiñ, eta çure obra  
onec ez bieçaçute eman buruperic.

Hortaz bekhatore bat çare milla pasio-  
neez, eta guticia gaichtoz gathe batçuez be-  
çala herstua, eta trabatua.

Çure buruz ez deusera duçu çure penduta  
gucia; bethi erorca hari çare, berehala çare  
garaitua, den gauçaric chumeenac altaratcen  
çaitu ez deusec bihotça erorarasten darotçu.

Estuçu nondic preça çure burua aiticic  
çure baitan dire gauça guciec humiliatu be-  
har çaituste; ecen çure flaquecia handiago  
da cerorec eçagut ahal deçaqueçun baiño.

4. Ez deçaçula beraz deus preça eguiten  
duçun gaucetaric.



Etçaçula deus ithec handi, balioz, miragarri, gora, laudagarri, edo guticiagarri bethi iraun behar duena baicen.

Billha çaçu gauça gucién gainetic eguia foberanoa: mezpreça çaçu deus-ere baiño guehiago çure behetatafun ecin guehiagocoa.

Deus-ere ez dioçoçula hambat ihes eguin nola çure bicioei, ez bequiçu deus idun haiñ icigarti, eta condenagarri, nola çure bekhatuac, ceinac aborrimendu guehiago eman behar baitarotçute munduco gaitz guciéc baiño.

Hanitz presuna estabiltça ene aitoicéan simplequi eta chuchenqui; baiñan arroganciazo eta curiofastunezco spirituz nahi tuste iaquin éne secretu gordeac, eta çundatu éne misterioac bere buruen, eta bere salbamentuaren attha utciric.

Baiñan nola ni halacoen etsaia bapais, curiofastun eta arrogancia hanc etoratastenditu haiñac tentacione eta bokhatu handirata.

5. Çutaz denaz beçambatean çaren Jaincoaren iuiamenduen beldur, ikara beçatça guciç Podorosoaren colerac.

Etçaçula çunda launaren obren barrenfuna; baiñan bai çureen malecia eta gaichotafuna, conda çatçu cembat bekhatu eguin diturçun, eta cembat obra on utci eguin gabe.

Barçuec bere debocione gucia liburuetan

## IMITACIONEA. III. LIB. 151

darabillate, bertce batçuec imaginetan; edo campoco seiñale, edo itchurapenetan.

Batçuec bethi dute Jaincoa bere mihitan, eta hurren behiñ-ere bere bihotcetan.

Baiñan badire bertce batçuec ceiñen spiritua arguitua baita, eta bihotça eguiazqui chahutua ceiñec ez baitute bartceric gogoan eta chedean, ontasun eternalac baicen, ceiñec eciñ bertcez aditcen badituste munduco gauçac, eta gogoaren bortcha iarraiquitcen baitçaizco bere bici beharrari, haiñec sentitcen eta aditcen dute Jaincoaren spiritua bihotz barrenerat erraten diotena.

Spiritu harc eracuchten diote lurraren arbitatcen, ceruaren maitatcen, mundutic defamarratcen, eta gabaz eta egunaz ceruco dohatfutafuna defiratcen.

## V. CAPITULUA.

*Jaincoaren amudioaren effetu miragarriez.*

### ARIMAC.

**B**ENEDICATCEN çaitut, Aita ceruco, ene JESUS launaten Aita, ceren ni beçalaco bekharore dohacabeaz orrhoitu çaren.

Esquer darotçut, *ô misericordien aita*, II. Cor. 1. 3. eta consolacione *gucien Jaincoa*, ceren nahi nauçun noicic behiñ consolatu çure graciaez, haiñ guti mereci dudalaric.

Laudatcen çaitut eta lorificatcen bethi

JESU-CHRISTO çure seme baxhotcharequiñ,  
eta Spiritu Saindu consolatçaillearequiñ,  
ceiñec erreguiñatcen baitute çurequiñ men-  
datco mende gucietan.

O ene laun eta ene Jaincoa ene maitat-  
çaille saindua, ene ganat iauften çarenean  
boztuco da ene bihotz gucia.

Çu çare ene loria eta ene arimaren boz-  
cario gucia. Çu çare ene esparantça, eta  
ihes lekhua atfecabezco demboran.

2. Baiñan nola oraiño çure amudioan flaco  
baiñaiz, eta berthutez escas, çure laguntcen,  
indarren eta consolacioneen beharrean naiz.

Visita naçaçu beraz, ô ene Jaincoa, eta  
iracats dietçaquidatçu çure manu sainduac.

Libra naçaçu ene pasione gaichtoetario,  
eta fenda çaqu ene bihotça affeccione desor-  
denatu gucietario, ene barnea sendo, eta garbi  
dela, gai içan nadintçat çure maitatceco, in-  
dattsupairatceco etafermu fiñeraiño irauteco.

3. Eguiaz amudioa gauça handi, eta mi-  
ragatti bat da, harc arintcen du pisu dena,  
harc behiñ-ere altaratcen esten sosegu bate-  
quiñ iafaten tu bicitce huntaco mudantça  
differentac.

Pena gabe iafaten tu penac, nekhe gabe  
nekheac, eta estirat gambiatcen tu khirat-  
fic miñenac JESUSEN amudioa generosa da,  
hertchatcen gaitu gauçario handienetat,

eta lehiarasten berthuteric perferenetarat.

Amudioac goiti du iaidura, eta eciñ guel-  
di daiteque gauça beheretan.

Amudio faindu hanc libro nahi du, eta  
hastantcen da lurreco gaucen guticietaric,  
beldurrez haren barreneco arguia illhun da-  
diñ, eta beldurrez munduco onec traba de-  
çaten edo garai munduco gaitcec.

Esta deus-ere ceruan, ez lurrean estiagoric,  
eta borthitçagoric amudioa baiño, deus-ere  
altchatuagoric, edo hedatuagoric, nahica-  
razcoagoric, perfetagoric eta excelentagoric  
hura baiño; ceren amudioa Jaincoa ganic  
heldu baita, eta creatura guciez gorago alt-  
chatcen dela Jainco choilla baitan causitcen  
baitu bere sosegua.

4. Amudio duena bethi da boz lasterca,  
eta airetan dabilla den kheñuric chumeenean  
libroda, deusec estu trabatcen ez gaibelatcen.

Gauça guciac ematen tu Jaincoa gatic,  
ceiña baita harentçat gucia, eta haren baitan  
guciac causitcen tu, ceren pausatcen baita on-  
tasun soberano hartan, ceiña guciez gorago  
baita, eta ceiña ganic heldu baitire bertce  
guciac.

Dohaiñei baiño guehiago behatcen dio  
hequien emailleari, eta hura ontasun guciac  
baiño maiteago du bethiere.

Maiz amudioac estu eçagutcen neurritic,

eta bere kharrac badarama mugarri guciac urrunago.

Amudioac estu carga sentitcen, hura estu nekheac icitcen, lan garaiari-ere lotcen çaiu, estu alegatcen ahal escasa; ceren uste baitu gauça guciac badaquizquiela, eta cillhegi çaiçcola.

Hala amudioa duena gai da gucietaço; balacoac eguiten tu, eta obretan atheratcen milla gauça, ceñei ez bailitçaiote lothuço amudioric estuena.

5 Amudioa esta loharcaccen, loan-ere atçarria dago.

Esta unhatcen nekheetan, libro guelditcen da hersturetari, esta altaratcen icialduretari, khar bici, eta fuzco bat beçala altchatcen da cerurat traba guciac ichituric.

Maite duenac aditcen du boz ichill hura, fuzco has beherapen hec, plainu samur hec, ceinac arima batec egortcen baitiotça Jaincoari, erraten dioenean: O ene Jaincoa, ene amudio bakharra, gucia enea çare, eta ni çure naiz gucia.

6. Çabal çaçu ene bihotça guehiago maita çaitçantçat, gusta deçadantçat ene baitan cein on den çure maitatcea, eta igueri ihill nadintçat amudio faindu hartan, itfaso baretan beçala, edo hobequi han urth eta na hasta nadintçat.

Ochala posedi banintça osoqui amudio  
 hare, eta haren kharraz gorituric, eta gor-  
 phurceco sentimenduez gabeturic altcha ba-  
 nendi neure buruaz gorago çutequin bat  
 eguiteco.

Ene arimac, canta beça amudiozco canta,  
 irraic bequiçu eta aitetan ibill bedi çure on-  
 dotic, ó ene guciz onhetsia, çu laudatuaren  
 podorez flaca bedi, eta honda bedi bere bos-  
 curioaren estitafunean eta goçoan.

Maita çaitçadan neure burua baiño gue-  
 liago, esteçadan maita neure burua çure  
 amoreta gatic baicen, eta maita detçadan  
 çure baitan çu maite çaitusten guciac.

Hala manatcen du amudiozco legue hareç  
 ceina çure arguiaren arraio bat baita.

7. Amudioac estu luçamenduric, eguiatia  
 da, eltia, agradagarria, prudenta, pairacor-  
 ra, bihotzduna leiala, desintrefatua; ecen  
 nihore bere burua billhatcen duen pontutic  
 gaitcen du amudioa.

Amudioa gauça gucietan goardiacor da;  
 humilla da eta chuchena, esta lachoa, ez  
 gauça vanotarat emana, sobrea da, garbia,  
 ferma, pausatua, bere sensuac herriçqui  
 beguiratcen dituen.

Hare eguiten gaitu obedient gure aircin-  
 guidarien alderat, eta mezpreçagari gure  
 beguietan.



Zeloz eta eçagutçaz bethea da Jaincoaren alderat, hanc inspiratcen darocu esparantçu fermu bat agortasunic handienen artean, eçen amudio hura hastenda atfecabeen erdian-eta.

8. Hala gauça gucien pairatcerat, eta gauça gucietan bere maiteaten borondatearen complitcerat prest estagoenac estu merçeci haren adisquidearen icena.

Jaincoa maite duena gogotic lothu behar çaiote gauçaric gaitcenei, eta gogortenei, eta cein nahi den trebesia guertha dadin, estute behar apartatu bere amudiotic.

## VI. CAPITULUA.

*Nola amudioa estagoen atseguin spiritualetan; bainan bai gudutan leial icatean.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, ez nauçu asqui borthitsqui, eta asqui prudentqui oraino maitatcen.

## ARIMAC.

Nola bada, ene launa?

## JESUS-CHRISTOC.

Ceren den contrestaric chumenac utfararen baitarotçu hasi duçun gauça, eta sobra lehiarequin baitçabiltça consolacioneen billa.

Ni cinciñez maite nauena fermu dago terracioneen erdian, eta estute haina etsaiaren aguintceç enganatcen.

Eta maite banau ene ontasunez bethetcen.

dudanean, esnau gutiaco maite atsecabeez frogatcen dudanean.

2. Amudio arguituac estio behatcen hambat dohaiñaren balioari, nola emallearen amudioari.

Amudio haren eredura preçatcen tu emaitçac, ez hetaric heldu çaiou progotchuaren aribera: eta bere maitea baiño beherago ematen tu haren emaitça guciac.

Amudio generosac ene baitan ematen du bere boscarioa, eta ez ene ganic dituen onetan, eta on hec guciac baiño gorago ni altchatcen nau.

Halere estuçü uste behar galdu çarela ez baduçü batçuetan enetçat, edo ene saindentçat nahi cinduqueen beçambat berotasun sentitcen.

Noicic behiñ sentitcen duçun samurtasun esti hura ene gracia çute baitan denaren effectu bat da, eta orai danic parabifuco boscarioen dastatce fuerte bat; baiñan etçaitecela hartan sobra pausa; ecen gustu horiec heldu ditte, eta badoaz laster nic nahi dudan beçala.

Baiñan berthute eguiazco, eta metecimendu handi baten seiñalea da, gure bihotceco guticia gaichtoei contra eguitea, eta deabruac eman nahi darozquigun enganioen arbuiatcea.

3. Etçaitecela beraz altara çure spiriturat

heldu diren imagina vanoec, et nahider  
guiferacoac ahal ditecen.

Çaude fermu çure deliberacione onetan,  
eta çure chedea chuchen idecaçu Jaincoaten  
alderat.

Çure burua sentitecen duçuncan betan co-  
ruraino altchatua, eta handic berehala eroti-  
cen baçare çure spirituco flaquencia, eta ima-  
ginacione vanotara, estuçu hargatic ulste be-  
hat lillutimenduzco, eta enganozco eta-  
tuan çarela.

Ecen estire horiec çure nahitic heldu, ai-  
citic gogoaren bortcha pairatcen dituten;  
bada gaitcesten tutçuino, eta contra eguiten  
diotçureino merecimenducotz ditutçu, eta  
ez çure galtceco.

4. Orrhoit çaitte çure etsai çaharrac ber-  
ahal guciac eguiten dituela çure guticia onen  
debecatceco eta obra on guciataric çu gubel-  
latceco: hala nola baitire sainduen ohorat-  
cea, ene pasionea maiz gogoan erabiltcea, çure  
bekhatuez urriquirequin orrhoitcea, çure bi-  
hotçaren goardian egotea, eta berthutean ai-  
cinatceco doliberacionean fermuqui irautea.

Eraintcentu çure spirituan gogoeta gaitce-  
toac çuri descustu, eta higuinça emateco,  
eta çu othoitcectic, eta liburu sainduen ira-  
curtcectic guibelatceco.

Higuindu choill çure bekhatuez eguiten

doçun aithor humilla; eta (ahal balegui)  
guibela cintçaque alde batera communione  
janduric.

Esteçaçula fiñhetz, eta estuçun hartaz an-  
faric, maiz artea hedatcen badarosquitçu-ere.

Egocatçu haren ganat heldu çaiçquitçun  
gogoeta gaichtoac, eta erroçu.

Hoa spiritu liçuna; ahaleaadi dohacabea.

Haguitz behar haiz lohia horlaco hasque-  
nac ene gogorat ekhartceco.

Apartaaquit enganari gaichtoa; estuc ene  
gañean deus irabacico. Esnauc JESUSEC ut-  
cico, ene alde gudu eguiñen dic, eta laido-  
requiñ gueldituco aiz.

Nahiagotiat sofritu suplicioric handienac,  
eta heriotcea-ere ecen-ez hire nahi gaich-  
toez erori.

*Ago ichillic, ez aquidala mintça gue-* Marc.  
*liango, ecen ez haut hemendic harat adituco* 4. 39.  
*ter nahi erranic ere.*

*Launa da ene arguia, eta ene salbamen-* Psalm.  
*dua noren beldur naiteque.* 26. 1.

*Et saiezco oste bat ene contra altcha bale-* Ibid. 3.  
*di-ere, ez lite ici ene bihotça.*

*Jaincoa da ene habea, eta ene salbatçail-* Psalm.  
*lea.* 18. 16.

5. Gudu eguiçu soldadu fecho batec be-  
çala, eta noicic behiñ flaqueciaz erortcen  
baçare, altcha çaite lehen baiño indar gue-

hiagorequiñ, seguraturic gracia sendoago batez lagunduço çarela, guciz beguira çarela complacencia vanotic, eta orguilleriatic.

Handic hañitz presuna erortcen dire er-ganiorat, eta hurren eciñ sendatuzco itzura-  
sun batetarat.

Halaco suphetbioen, eta bere baitan erho-  
qui fidatcen direnen eroricoa balia bequicu  
humillago, eta goardiarorrago içateco.

## VII. CAPITULU A.

*Arimaco agortasunean beguiratu behar  
dela humiltasuna, eta baquea.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, esta deus çuretçat hobeago-  
ric, eta seguragoric, nola devocioneer-  
ren gracia gordetcea; haren gatic burupen-  
ez içateca; hartaz guti mintçatcea, çure bo-  
ruaren mezpteçatcea, eta gracia haren bere-  
ren beldur içateca, sinhetiric mercei gabo-  
duçula.

Estuçu sobra fidatu behar bihotceco senten-  
mendu samur horietan, hañ laster contra-  
rat gambia daitequenaz guerostic.

Gracia hura duçuño orrhoit çaita ceñ  
urricalceco çaren hura estuçunean.

Bicitce spiritualeco aicciñamendua estaçi  
bihotceco consolacioneen içatean; baitan  
notc bere buruari ukho eguinic, humilçen  
equien

equien gabetasuna pairatcean, çure othoit-  
 cac, eta bertce debocionezco praticac usten  
 ez ditutçula.

Aitcitic çure ahal gucia eguiten duçula  
 berthutean lachatu gabe çure bihotceco  
 agortasun, eta nahastura gueien gatic.

1. Hanitci erortcen çaie bihotça eta escaf-  
 ten paciencia den trabaric chumeena aur-  
 khitcen duten beçain sarri.

*Baiñan guiçonaren bidea estago bethi* Jerem.  
10. 23.  
*guiçonaren ahalean.* Jainco choillac bere  
 gracia eta consolacioneac ematen diotçate  
 placer dutenei, eta placer duen demboran,  
 eta neurrian.

Bertce batçue goardia escafez galdu dire  
 bere debocionean: ceren ahala baiño gue-  
 hiago eguiñ nahi içan baitute, bere flacota-  
 sunari behatu gabe, eta guehiago siñhetçi  
 baitute bere bihotceco zelloa, eta kharra,  
 ecen-ez bere arraçoiñaren arguia.

Eta ceren Jaincoac galdeguiten cioten bai-  
 ño guehiago eguiñ nahi içatu duten, galdu  
 dute laster gracia.

Hegaldatu nahi çuten ceruetan gora, eta  
 erori dire pobreciarat, eta mezpreciorat;  
 hamilduric, eta pobreturic ikhas deçatent-  
 çat ez abiarcen fidosqui airetan gora bai-  
 ñan bere esparantça, eta indarra ene hega-  
 len itçalean ematen.



Iaunaren bidean sartu berriac, eta oraino ungui ikhasi gabeac errebelatuco dire falta gabe, eta tulumbiorat erorico, presuna çuhurren, eta iaquinsunen arguiz ez badira guidatcen.

3. Hañec bere buruac guehiago sinhesten baituste presuna ungui ikhasiac era arguituac baiño, hequien salbamendua hirriscu handitan dabilla, baldin ez badiote ukho eguiten bere sentimendu propioari.

Gutitan guerthatcen da bere buruac çuhur daduzcatenac bertceez guidatcea.

Hobeago da argui guri, eta humilitate hañitz icatea, ecen ez çuhurciazco tresoguciac bere buruaren complacencia vano batequin.

Hobeago da gutia, ecen- ez orguillera eman deçaqueen hañitça.

Prudenciaric ez icatea da bere bihotça bezcarioari osoqui ematea, orrhoitu gabe bete leheneco gabeaz, eta ahanciric Jaincoaren beldurtasuna, ceñac bethi goardian baitaduzca, icatu dugun gracia gal esteçagun.

Baiñan berthute guti icatea da halaber penac, eta nahi gabeac ditugun dembotan bihotça galtcea erimendurat erortcea, eta errentasunean behar den esparantça ez icatea.

4. Baque demboran bere burua sobra seguratua daducana lacho, eta beldurti icateoda guerla demboran.

Bethi humill baciñe eta chume çure be-  
güetan, eta baciñaqui çure bihotceco mobi-  
menduen bridatcen eta chuchentcen, etcintef-  
que haiñ laster eror tentacioneen hirriscutarat.

Graciaz goçatcen çarenean on da pensat-  
cea, nola içanen çaren hura estuçunean: goa-  
ten çaitçunean orthoit çaitte berriz-ere bihur  
daitequela argui saindu hura, ceña khendu  
baitarotçut dembora batecorz çure hobe-  
goa gatic, eta ene loria gatic.

5. Frogantça fuerte hori hobeago duçu  
maiz, ecen ez ene graciac, eta fagoreac  
bethi çure gogora bacintu.

Ecen merecimendua estatça ceruco visio-  
neen eta consolacioneen içatean; esdatça ha-  
laber Scriptura sainduaren unguï aditcean,  
ez eta cargu goretarat altchatua içatean; bai-  
ñan eguiazco humiltasunean fincatua içatean,  
Jaincoaren amudioz, eta haren loriaren zeloz  
bethea içatean, nori bere burua ez dens esti-  
matcean; fiñean nahiago içatean bertceez  
içan mezpreçatua, ecen ez ohoratua.

VIII. CAPITULUA.

*Nola behar dugun gure burua ez estatu  
Jaincoaren aitcinean.*

ARIMAC.

**M**INTÇATUCO othe natçaiõ ene Iau- Genes.  
nari, ni hautsa eta herrautsa baicen 18. 27.  
ez naicena?

Cerbait guehiago naicela uste badut, altchaturco çare ene orguilleriaren contra, eta ene hobenec eguiñen dute ene contra lekhucotafunbat ceinari eciñ deusic ihardetfico bairiot.

Baiñan ene burua mezpreçatcen badut, eceztatcen banaiz, eta fatna vano guciel ihes eguiñic ene herrautferat bihurtcen banaiz; orduan çure gracia alde içanen dut eta çure graciae ene bihotcean distiatuco du.

Eta ene esteustafunaren tulumbioac irauguituco diru berthicotz ene amudio, eta estimu propioaren iñhar guciac.

Estatu hartan eracuchten darotaçu cer naicent, eta cer billhacatu naicen. *Ceren eta ez*  
 Psalm. *bainaiz eguiazqui deus, eta hori ez naquien.*  
 72. 22.

Neure ganat usten nauçunean ez naiz flaqueciatic baicen; baiñan çure beguitarte ene ganat itçultcen duçun beçaiñ sarti bethetcen naiz indarrez, eta bozcarioz!

Oi gauça miragarria horla beran altchatcen binauçu, eta haiñ samurqui besarcatcen, ni ceina ene pisutafun propioac ez deafera bainarama!

2. Horra cer eguiten duen çure amudioac, nic mercei gabe hasten da ontafunez ene bethetcen; laguntcen nau ene beharretan, beiratcen nau hirriscuric handienetan, eta atheratcen nau milla gaitz fuerteen artetic.

Ene burua galdu dut sobera maitatuz;

IMITACIONEA. III. LIB. 165

eta çu bakharra billhaturic ; eta maitaturic  
caufitu çaitut , baita halaber neure burua ,  
eta çure amudioa baliatu çait ene esteusta-  
funean barrenago sartceco.

Hala , ô JESUS , guciz mansoa eguiten da-  
rotaçu ez solamente nic mereci baiño gracia  
guehiago ; baiñan oraiño çure ganic iguri-  
quitcen , eta galdetcerat atrebi naitequen  
baiño guehiago.

3. Çaren bethiere benedicatua , ô ene  
Jaincoa ! Ceren gracia gucientçat indigne  
naicelatic , halere çure generostafun , eta on-  
tasun infinitua ez baita guelditcen niri ungui  
eguitetic , hala nola hañitz bertce esquer  
gabei , eta çuretçat higuintçatic baicen ez  
dutenei.

Iauna , osoqui çure ganat itçularaz gaitçat-  
cu içan gaitecentçat esquer emaille , humill ,  
Jaincotiar ; ecen çu çare gure salbamendua ,  
gure indarra , eta berthutea.

IX. CAPITULUA.

*Nola Jaincoa baita gucien fiña , eta azquen  
chedea , hari behaturic eguin behar di-  
rela gauça guciac.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea , dohatsu içan nahi baduçu ,  
nic behar dut içan çure chede azquena ,  
eta soberanoa ; chede horrec çahurucoco ditu

çure bihotceco affeccionear, ceñac maice-  
gui cere baitharat, eta creaturetarat baitça-  
ramatçate.

Ecen cerbaitetan çure burua billhatcen  
baduçu erorico çare berehala flaquociarat,  
eta agortafunerat.

Niri behar darotaçu beraz gauça gucieta  
behatu gauça gucieta chede principalari beça-  
la; ecen nic gauça gucieta eman darozquitçut.

Ontafun gucieta iducataçu ontafun sobera-  
notic ethorriac beçala, eta ene ganat bere  
ethorquiri guisa bihurtu beharrac beçala.

2. Ene ganic ithurburu bici batetic beça-  
la, chumeec eta handieç, pobreeç eta abe-  
ratsec hartcen tuste graciaren urac, eta gra-  
cia bat bertce gracia baten saria da ni bihot-  
onez cerbitçatcen nautenentçat.

Baiñan norc-ere nitaz campoco ontafun  
batean eman nahico baitu bere loria eta arle-  
guina, estu içanen behin-ere bozcario ungu-  
tincaturic, ez sosegu eguiazcoric bere bihot-  
cean; aiticic, haren trabac eta hersturac ber-  
tetuco dire guerotic guerorat guehiago.

Ez beraz eman çute contuan, edo ber-  
cerenean unguiric edo berthutetic, baiñan  
gauça gucieta bihurt Jaincoari, ceina gabe  
guiconac ez baitu deus.

Nic eman darozquitçut gucieta, eta ni  
nahi dut gucieta poledi detçatçun; baiñan

halaber nahi dut hertsiqui bihur dietçaquidat-  
çun, çor çaisquidan esquerrac.

3. Horra eguia bat, vana loria guciac  
suntitu behar dituena.

Jaincoaren gracia eta eguiazco amudioa  
çure bihotcean sartcen badire, esta han guc-  
hiago içanen ez inbidiaric, ez tristeciaric,  
ez amudio propioric.

Ecen Jaincoaren amudioac garaitcen tu  
gauça guciac, eta berretcen arimaren indarrac.

Eguiazqui çuhurra baçare emanen duçu  
ene baitan çure bozcario, eta esparantça gu-  
cia, ceren ez baita nihor onic Jainco choilla  
baiten, ceinac behar baitu içan gauça guci-  
en gainetic laudatua, eta gucietan benedicatua.

## X. CAPITULUA.

*Cein on den Jaincoaren maitatcea, eta  
munduaren mezpreçatcea.*

### ARIMAC.

**E**Z naiz ichillic egonen, Ianna, atrebi-  
taco natçαιο berriz - ere mintçatcerat  
ene Jaincoari, ene laberi, ene Erregueari,  
ceina baitago ceruric gorenean.

*Oi ala çuc ontasun, eta goçotasun han- Psalm:  
dia gorde baituçu çure beldur direnentçat, 30. 20.  
ene Jaincoa!*

Baiñan cembatenaz çare estiago, eta go-  
çoago çu maitatcen çaitustnentçat, eta bere



bihotz guciez cerbitzatcen çaitustenençat.

Eguiaz nihor esta gai explicatceco çu çu-  
re maitatçaillei contemplacionean ematen  
diotçotçuten atseguinac.

Nintcen baiño lehenago eman darozqui-  
datçu çu amudioaren seiñale handiac, ce-  
ren esteufetic athera bainauçu ni eguiteco,  
eta formatceco : gueto çu ganic hastandu  
naicenean ene errebelamendutic erakharri  
nauçu çu cerbitzatceco ; eta cembat higuin-  
garría banaiz - ere manatu darotaçu maita  
çaitçadala.

2. O amudiozco ithurburu eternala! cer  
erranen dut çutaz? Nola çu ahantz çaitça-  
quet, nitaz orrhoitu çarenaz gueroftic gal-  
dua nindabillhanean?

Ni çu cerbitçaria bethe nauçu miseri-  
cordiaz, graciaz, eta samurtasunez, ez so-  
lamente merecitu baiño guchiago ; bainan  
oraiño esparantça guciez gorago.

Hambat ontasunen orde cer bihurtuco da-  
rotçut, ene Jaincoa?

Ecen esta guciei eguiten dioçuten dohain  
munduari ukho eguita, eta guciac uterit  
religioneco bicitcean fartcea.

Gauça handia da bada nic çu cerbitzatcet,  
creatura guciac hortara obligatu direnaz gu-  
roftic?

Ez, esta handia; aiticritic handi eta maita

gari dena da çuc ni cembat guti gaia, eta doñacabea banaiz-ere hartcen bainauçu çure cerbitçaritçat, eta ematen bainauçu çure adisquideen nombrean.

3. Nic dudan gucia çurea da, nic çu cerbitçatcea-ere çuc niri eguiten darotaçun dohaiñ bat da.

Baiñan cer eguiten darotçut? Hobequi erian diteque çuc ni cerbitçatcen nauçula, ecen ez nic çu.

Hotra non cerua eta lutra creatu tutçun guiçonaren cerbitçucotz, complitcen tuste arthosqui çuc gure progotçucotz eman diotçotçuten manuac.

Eta hori gauça gutia balitz eguiñ ditutçu aingueruac guiçonan çaiñ, eta deffendatçaille içateco.

Baiñan fagore horiec guciac ichitcen dituen da cerorri beheratu baitçare guiçonaren cerbitçatceraiño, eta aguindu baitioçu emanen çaiçcola çure lorian.

4. Millaca ontafunen orde cer bihurtuco darotçut?

Ochala ene bicico egunetan cerbitça ahal bacintçat!

Helaz, egun batez bederen dignequi cerbitça bacintçat!

Ecen çuc ditutçu mereci cerbitçu guciac ohore eta loria guciac.

Çu çare ene nauñi eguiazcoa, eta ni çure cerbitçaria, cerbitçatu behar çaitut ene indar guciez, eta laudatu behiñ-ere unhatu gabe. Hori nahi dut, hori da ene guticia, complicaçu othoi ene ahal escafa.

5. Ohoreric eta loriaric handiena balintu çure cerbitcatcea da, eta çure amorea gata gauça guciac arbuiatcea.

Ecen çure graciaz betheco tutçu çure cerbitçuan bihotz onez ematen diren guciac.

Çure gatic munduco atseguin vanoac al-ten ditustenec içanen tuste Spiritu sainduaren consolacione goçoac; eta munduco arthac utciric çure loria gatic bicitce hertsiari lotcen çaiçconac bihotcecolibertateaz goçatuco dire-

6. Oi gathibutasun esti eta maitagarria, ceñac ardiesten baitio arimari libertatea, eta saindutasuna!

O Religioneco bicitce saindua, ceñac egiten baitu guçona aingueruen berdiñ, Jaincoarentçat maitagarri, eta guiristiño gacientçat ohoragarri!

O esclabotasun eciñ asqui desira, eta billha daitequena haren bidez irabasten dugunaz guerostic ontasun guciën gaineco ontasuna, eta bethi iraunen duen bozcarioa!

XI. CAPITULUA.

Guticia onac ere behar ditugula bridatu ;  
spirituaren azpian eman haraguia , eta  
spiritua Jaincoaren azpian.

JESUS-CHRISTOC.

ENE Semea , nahi darozquitcut iracatsi  
E hañitz gauça oraiño ungui estaquizquit-  
quinac.

ARIMAC.

Cer bada, ene Jaincoa?

JESUS-CHRISTOC.

Çure borondatea eman behar baituçu  
enearen azpian ; ez baituçu çure burua mai-  
tatu behar , ez billhatu bertceric ene nahia-  
ren complitea baicen.

Maiz çure guticiec borthitsqui çarabil-  
çate ; orduan ikhufaçu ungui , eta guticia he-  
quien chedea ene loria den , ala çure aisia.

Ene gatic hari baçare , cer nahi den ene  
ordenuz guertha dadiñ content içanen çare ;  
bainan çure chedetan estaliqui fattcen bada  
çure buruaren amudioa , gauça horrec naha-  
fico çaitu eta altaratuco.

1. Etçaitecela beraz sobra fida ni consul-  
tatu gabe hartu tutçun deliberacionetan bel-  
durrez urriqui daquiçun , eta higuin deçaçun  
leben on cirçaitçuna.

Ecen estire berehala complitu behar gure  
bihotceco guticia on dirutitenac , eta hala-

ber etçaiote bere berehala ihes eguiñ behar gaichto diruritenei.

On da maiz desira onen ere bridatcea bel-  
durez lehia sobrac bartaia deçan gure spin-  
tua, edo zelo gaizqui neurthu batez bert-  
ceei scandala eman dioçoguten, edo fiñean  
bertceren contrestac altara gaitçan.

3. Maiz behar da bortchaca hari, eta bor-  
thitiqui contra eguiñ behar çaiç sensuen gu-  
ticieï; eta beiratu gabe cer nahi duen, edo  
cer ez haraguiac, artha behar da choillqui  
spiritua haren nausi eguiteaz.

Hari behar dugu haren garaitcen eta cen-  
çatcen gauça gucietara prest içan dadiñ ar-  
raño, gutiz contenta dadiñ arterraño, eta  
den errencuratic chumeena nahi gabeetan  
itçur estaquion arterraño.

## XII. CAPITULUA.

*Pairacor içan behar dela gaitçetan, eta  
arbuiaçu behar direla atseguinac.*

## ARIMAC.

**E**NE launa eta ene Jaincoa, ikhusten  
dut pacienciaren behar handian naicela:  
ecen bicitçe hau bethea da hañitz atsecabez.

Cer nahi den eguiñ deçadan baquean bi-  
citceco, eciñ naiteque gudu eta pena gabe.

## JESUS-CHRISTOC.

2. Eguia da, ene semea; baiñan estut nahi

billha deçaçun baque bat tentacione, eta  
codico gabecoa.

Aireitic nahi dut çure baquea eman deça-  
çun çute indarra, eta paciencia frogatcen  
duten atfecabetan.

Erraten badarotaçu ecin hambat paira de-  
çaqueçula, nola bada pairatuco duçu purga-  
torioco sua?

Bi gaitcetarie, bethi chumeena hautatu  
behar da.

Hala nahi duçu ez erori seculaco suplicio-  
tatat? lasan çatçu patientqui oraico gaitçac  
Jaincoaren amorea gatic.

Uste duçu munduco presunec estutela  
deas soffritcen?

Estuçu hori causituco, munduco dohat-  
tueneran ere.

3. Erranen duçu baitustela hec hanitz at-  
seguin, bere nahiaren eguiten hari direla,  
nola bere penac arintcen çaizcorela.

4. Baiñan emagun hala dela, eta gauça  
guciac bere gogara distustela, horiec guciec  
cembat irauen dute?

Munduco handi hec guciac iraganen dire  
labea beçala, hequien atseguinen orrhoitça-  
penic ere guelditcen estela.

Era mundu huntan bici direiño-ere estire  
atseguin hetaz goçatcen khirats, beldur eta  
desgustu gabe. Eta maiz cerc-ete eguin baitu



hequien bozcarioric handiena hanc causaten  
ere du hequien doloreric miñena.

Eta iustu da ene nahiaren contra atsegu-  
ñac billhatu ditustenez, ez detçaten dala  
laido eta behacun gabe.

Oi ala atseguñ hec guciac laburtac bai-  
tite, falsoac, desordenatuac, eta abala-  
gatriac !

Baiñan guñonec estute hori ilchilla-  
munduac itfutu, eta horditu dituenecan, ai-  
citic iduri bestia adimendu gabecoac be-  
arima ematen dute heriotceco hirrifecuan me-  
men batez itagaten den atseguña gatic.

Ecclef. 18. 30. *Cu beraz, ene semea, etçabiltçala çare  
pafioneen ondoric, ukho eguiñçute çure go-  
ricia desordenatuei.*

Pfalm. 36. 4. *Emaçu Iauna baitan çure bozcarioric,  
eta çure bihotceco galdeac eta desirac cor-  
plituco darozquitçu.*

5. Nahi baduçu bethequi goçatu eguiñac  
bozcarioez eta consolacioneez, mundua me-  
preçaturic, eta atseguñei ukho eguiñac me-  
khituco duçu ene benediccioneen eta favo-  
reen gaindidura.

Cembatenaz guehiago hastanduco baita-  
re munduco consolacioneetatic, hambate-  
naz aurrhituco duçu descanfu guehiago Jai-  
cozco consolacionetan.

Eguia da, estuçu hartarat ardietsico pen-  
gabe, nekhe eta gudu gabe.

Çure hastura gaichtoac traba eguiñen da-  
roçu; baiñan hobeago batez garaituco duçu.

Haraguaia altchatuco da çure contra; bai-  
ñan çure spirituarien kharrac hecico du.

Fiñean fugue çaharrac armatuco ditu çure  
contra bere malecia eta indar guciac; bai-  
ñan orhoirçac ihesi egorrigo du, eta guero  
cembait lan on eta progotchofec çarratuco  
diote çure bihotceco athea.

## XIII. CAPITULUA.

*Obedienciaz.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**Na Semea, obedienciatic aldaratcen de-  
na hastantcen da graciatic; eta bere  
gusa bici nahi duena gabetcen da baltsan  
eguiten den unguiaz.

Bere aircinguidariac, gogotic, eta bihorz  
onez obeditecen estituenac eracuchten du ef-  
tuela haraguaia ungui hecia; baiñan muthiria,  
eta maiz spirituarien contra altchatcen dena.

Ikhasaçu beraz berehala obeditecen çure  
guidarici, baldiñ nahi baduçu çure hara-  
guiac obedi çaitçan.

Campoco etsaia laster da garaitu barneco  
guerla irauñ guitu denean.

Estuçu çure arimaren etsai handiagoric eta  
gaichtoagoric ceroni baiño, baldiñ çure spi-  
rituarequiñ baquean ez baçate.

Behar duçu çure burua cincinez mezpreçatu, baduçü çure haraguia, eta odola oloqui nahi garaitu.

Herabe duçu berçeren borondateari ofoqui arrimatçera, çeren sobra maite baituco oraiño çure burua.

2. Çer da miresteço çuc Jaincoa gatic obeditçea guiçon bati, etçarenaz gueroftic herauts, eta ez deus baicen? Ni eguin maiz bada çure gatic guiçonen obedient, naicelatic guciz gora, eta guciz podorofoa.

Gucietaco humillen eta azquen eguin naiz, ene humiltasuna balia daquiçuntçat çure orguilleriaren garaitçeco.

Herrautsa ikhafaçu beraz obeditçen; lerra, humilia çaitte; ongarria, utfaçu çure burua olticatçerat.

Ikhafaçu çure nahi guciei ukho eguiten, eta obediencia gucietarat arrimatçen.

3. Aferra çaitte fainduqui çure buruaren contra, eta etçaçula utz orguilleria çure baitan bicitçerat.

Eguiçu çure burua haiñ chume, emiça haiñ behera non batbedera baitabilque çure gainean caricaco, basaren gainean beçala.

Guiçon vanoç certaz errencura çaitteçque Bekhatoroz hambat maneraz liçundua, nola atrebitçen çare mintçatçerat, çuri eguiten çaiçquitçun hirriez? Hambatetan çure creatçaillea

creatçaillea offensatu, eta ifernua mereçitu  
daçun ondoan.

Bizquitartean ene misericordiac barkhatu  
darotçu ceren çure arima preciatu içatu baita  
ene beguietan.

Eta ene amudioaren seiñale horiec eman  
darozquitçut ene ganic içatu tutçun ontasun-  
nez bethiere eçagutça içan deçaçuntçat, eta  
çutazco mezprecio guciac manfoqui paira  
deçaçuntçat.

XIV. CAPITULUA.

*Jaincoaren iuiamenduetan pensatuz behar  
dugula beguiratu obra onen vana-loriatic.*

ARIMAC.

**I**AUNA, çure iuiamenduen ihurtçuria adic-  
cen dudanean, beldurrac, eta ikharac  
iharrosten tu ene heçurrac, eta ene arima  
trancitcen du icialdurac.

Harritua guelditcen naiz, eta nahasia  
ikhustean ceruac-ete *estirela garbi çure be-* Job:  
*guietan.* 15. 15

*Baldin çausitu baduçu corrupcionea ain-* Ibid.  
*gueruetan-ere, eta ez badioçute barkhatu,* 4. 18.  
helaz! cer içanen da nitaz?

*Içar distiant hec erori dire cerutic,* eta Apoc:  
*herraufsa baicen ez naicenac cer burupe du-* 18. 18.  
*quet.*

Hañitz presuna ceinen obrec laudagarrac

baitciduriten erori dite, eciñ erran beçain behera, eta aingueruen oguiaz hasten cire-nec eguiñ date bere atseguina urdeen bazca liçunaz.

2. Esta beraz saindutasunic, çuc urruntcen baduçu çure escua gure ganic.

Esta çuhurtciaric, çure arguiaz ez bada guidatua.

Esta indarric çure laguntça gabe.

Esta garbitasunic segurean, çure gracia gabe.

Eta fiñean guisonen ernetasun gucia esta deus baliatcen çure artha gabe.

Çu gure ganic hastantcen çatenean erortcen gare, eta galtcen gare; çu bihurtcen çaitquigunean altchatcen gare, bichten gare.

Cordocan gare bethi; choillqui çuc bor-thitsten gaitutçu; bethi gare ephel çuc berrotcen gaitutçu.

3. Oi ala nic arraçoiñ baitut neure buruaren mezpreçatceco! Ala nic haguirtz behar baitut humiliatu, eta guti preçatu eon baitan on diruriena!

Certaraño behar dut eceztatu çure iurimenduen tulumbiotan barna sartcen naicenean, ceñec iracasten baitaroter ez deufere heldu naicela, eta ez deus baicen ez naicela.

O pisutasun neurri gabecoa, carga eciñ iafanezcoa! O itsaso ondo eta baster gabo-

eta ceñetan causticen bainaiz hondatua, eta ceñetan nondic nahi mira nadiñ ez baitut causticen esteustafunic baicen neure baitan.

4. Non gordeco da beraz ene baitan, orguilleriaren erroa, eta ene berthute aphuraz dudan burupea?

Ene vana-loria gucia galtcen da, eta hondatcen çure iuiamenduen tulumbiobarrenean.

5. Çet da guçona çure aitciñean? *Lur- Ifaï. 45. 9<sup>a</sup>*  
*rezco iarroa atrebituco da bada alchatcera bere moldatçaillearen contra.* Laudorio vanoec nola haunt ahal deçaquete bihotz bat Jaincoaren aitciñean humiliatua, eta beheçitua?

Munduco laucengu guciec eciñ altcha deçaquete bihotz bat eguia berac aspiratu duena, ez eta aldara laudorio guciez Jaincoa baitan bere esparantça fincatu duena.

Ecen lausagari hec estire deus; suntçituco dire bere hitcen soinuarequin; *baiñan Psalm: 116. 2<sup>a</sup>*  
*eguia badago eternitate gucian.*

## XV. CAPITULUA.

*Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic baicen.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, huna aldi gucian itchequi behar duçun solasa. Iauna, hauche eguiñ bedi baldiñ çure nahiaren arabera bada. Iauna,

Mij



gauça hau çure loriacotz balin bada guertha bedi çure içen sainduaren ohoretan.

Iauna, ikhusten baduçu nic nahi dudana on dela ene arimacotz, eta progotchoz ene salbamenducotz arren eguidaçu balia nadiñ çure ohoretan.

Baiñan eçagutcen baduçu caltiar nuquela khen dieçadaçu othoi guticia hura.

Ecen estire Spiritu saindua ganic heldu guticia guciac, ez eta on eta probetchos diruritenac-ere.

Gaitz-ere da chuchenqui iaquitea ea gure desirac heldu diren spiritu ona ganic, ala gaichtoa ganic, ala estiren heldu gure spiritu propialetic.

Hañitz prefuna azquenerat enganatuac guertharu dire, ceñec baitciduriten baltean spiritu onaz guidatuac cirela.

2. Hala beraz gogorat heldu çaiçquigun gaucetaric eztugu behar deus desiratu edo galdetu humiltasunequiñ, eta Jaincoaten beldurtasunequiñ baicen: eta bere gainqui ceduan behar dugu utci guciac Jaincoaren nahirat, eta erran behar diogu errespetu handirequiñ.

Iauna, çuc daquiçu cer den hobe; eguiñ bedi hau edo hori çure nahi sainduaren arabera.

Indaçu placer duçuna, placer duçun neran, eta placer duçun demboran.

IMITACIONEA. III. LIB. 181

Eguiçu nitaz behar dela daquiçuna, çuc nahien duçuna, eta çure loriarentçat hobeten dena.

Eman naçaçu nahi duçun lekhuari, eta gauça gucietan compli bedi ene baitan çure borondatea.

Çure escuan naiz, iira naçaçu, eta erabil placet duçun beçala.

Bai, launa, huna non naicen çure cerbitçaria prest gauça gucietarat, ecen estat enetçat bici nahi; baiñan bai çuretçat; ochala eguiñ baneça dignequi eta perfetqui!

O T H O I T Ç A.

3. O Jesus, gucz ona eta mantsoa, eguiçu arren çure gracia bethi *enequiñ içan dadiñ*, *enequiñ travailla dadiñ*, eta fineraño bethi *enequiñ egon dadiñ*. Sap. 9: 10.

Deliraraz dieçadaçu bethi guchienic çure gogara dena çure borondatea den bethi enea; enea iarraic bequio bethiere çureari, eta enea bethi iunta bedi çurearequiñ.

Nahi içatea, eta ez nahi içatea dire osoqui çure baitan, eta ene baitan halaco façoñez non ez baituquet ahalic nahi içateco çuc nahi estuçuna, edo ez nahi içateco çuc nahi estuçuna.

4. Arren eguiçu naicen hilla munduco gauça guçientçat, eta dudan lakhet munduaz ahantzia, eta arbuiatua içatea çure amoreç gatic.

Eguiçu arren çure baitan causi deçadan  
neure sosegua, eta ene bihotçac gauça guci-  
tan baiño hobequi çure baitan causi deçan  
bere baquea ata bozcarioa.

Çu çare eguiazqui bihotceco baquea ; çu  
bakharric çare gure arimaco sosegua.

Çutaz campoan esta penaric eta khecha-  
dururic baicen.

*Pfalm.* Beraz ene loa eta pausua hartuco dat  
4. 9. baque soberano hartan, ceina baitçare çu  
ceroni, ô ene Jaincoa, ene ontasun gucia  
handia eta eternala. Halabiz.

## XVI. CAPITULUA.

*Jainco choilla baitan billhatu behar dugula  
gure consolacionea eta sosegua.*

### A R I M A C.

**E**NE Jaincoa, estitut hemen iguri-  
quitcen ; bainan eternitatean ene del-  
cansucorç desira edo pensa ahal detçaquedan  
gauça guciac.

Munduco consolacione guciac neronec  
banitu-ere, eta lurreco atseguin guciac goça  
banendi-ere, segur da ez litesquela hec gu-  
ciac dembora lucetaco.

Beraz, ô ene arima, eciñ causi deçaquedan  
bozcario oso, eta perfetic çure Jaincoa bai-  
tan baicen, ceina baita pobreen consolacione  
çallea, eta humillen habea.

### IMITACIONEA. III. LIB. 183

Iduricaçu aphur bat , ene arima , iduricaçu  
compli daitecen Jaincoaren aguintçac , eta on-  
tasun gucien bethetafuna içanen duçu ceruan.

Jaincoaren ordenuen contra oraingo on-  
tasunac desiratcen baitutçu ontasun eternalac  
galdaco tutçu.

Munduco ontasunez balia çaite eta ceru-  
coac desira çatçu.

Ontasun iragançorrec etçaitçaquere oso-  
qui contenta , ceren ez baitçare eguiña hetaz  
goçatceco.

1. Munduco ontasun guciac bacintu - ere  
etcintezque hargatic dohatfu , ecen Jainco  
gança gucien creatçaillea baitan darça çure  
eguiazco çoriona.

Bai , Jainco choillac eguiten du gure do-  
hatfutafuna , ez munduaren maitatçailleec  
preçatcen duten beçalacoa ; baiñan JESU-  
CHRISTOREN , cerbitçari leialec iguriquitcen  
duten beçalacoa , eta arima garbiec , eta be-  
te gogo eta desira guciac ceruan ditustenec  
noicic behiñ mundu huntan berean gustatcen  
duten beçalacoa.

Mundu huntaco consolacioneac falsoac  
dire , eta laburrac.

Etta atseguin eguiazcoric , eta iraupene-  
coric Jaincoac bihotçaren barranean sentia-  
tallen darocuna baicen.

Guiçon Jaincotiarrac berequin darabilla

lekhu guciatarat. JESU-CHRISTO bere confortatçaillea, eta erraten dio aldi gucian: launa, lagun çaquizquit dembora, eta lekhu guciatan.

Den ene consolacionea guçonen consolacioneric ez nahi içatea.

Eta çure consolacionea faltatcen baçaitere, çure borondatea, eta çure frogantçac balia daquizquit.

Pfalm. *Ecen çure colerac estu bethi irauenen, eta*  
102. 9. *çure dichiduac estire eternalac içanen.*

## XVII. CAPITULUA.

*Gure buruazco artha guciac eman behar dugula Jaincoa baitan.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, utz naçaçu çure alderat nahi dudanaren eguiterat, nic badaquit ceden on çuretçat.

Çuc guçon guisa gaucez iuiatcen duct, eta çure gogoetac, hala nola çure guticiac humanoac dire. ARIMAC.

2. Horiec guciac eguiac dire, ô ene Jaincoa, çuc artha guebiago duçu nitaz nerotrec ahal duquedan baiño.

Çure gainean bere artha guciez pausatcen estena hirtiscu handitan dabilla.

Iauna, baldin ene borondatea bethi çure baitan fermu badago, eguiçu nitaz placer duguçuna.

Ecen nitaz eguiten duçun gucia eciñ dite-  
que ona baicen.

Nahi duçu içan nadiñ illumbean? çaren  
benedicatua. Nahi duçu içan nadiñ arguiian?  
çaren halaber benedicatua.

Placer nauçu consolatu? çaren laudatua.  
Placer nauçu affligitu, çaren orobat laudatua.

JESUS-CHRISTOC.

3. Ene semea, estatu hortan behar duçu  
eman çure burua, nahi baduçu enequiñ ibilli.

Haiñ ungui egon behar duçu atsecabeei  
paratua nola bozcarioei.

Haiñ gogotic içan behar duçu pobre nola  
aberats.

ARIMAC.

4. Iauna, çure amorea gatic bihotz onez  
parratuco tut çuc egorrigo darosquidatçun  
sofricari guciac.

Çure escuric orobat nahi dur harthu ona,  
eta gaitça, estia, eta khiratça; bozcarioa,  
eta tristecia, eta orobat bethi esquerrac bi-  
hurruc darozquitçut cer nahi den guertha  
çaquidan.

Beira naçaçu solamente bekharutic, eta  
estur heriotcearen ez ifernuaren beldurric  
içanen.

Baldiñ ez banauçu bethicotz khentcen çu-  
re ganic; ez banauçu urratcen bicitcearen.  
liburutic deusec eciñ calteric eguiñen darot.



## XVIII. CAPITULUA.

*Pacientqui behar dugula sofritu mundaco  
lacieriac JESUS-CHRISTOC. beçala.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, çure salbamendua gatic ce-  
rutic iautsi naiz, eta cargatu naiz çure  
miseriez, ez baitez bada hala beharrez; bai-  
ñan çure ganaco amudio phuruz, ikhas de-  
çaçuntçat pairatcen, eta bihotz onez mundu  
huntaco atsecabeen iafaten.

Ecen forthu nintcen pontutic gurutcean  
hill naicen oreneraiño ez naiz içatu dolore  
gabe.

Bici içatu naiz gauça gucien beharrear,  
aditu ditut maiz ene contraco iroi, eta es-  
rencura iniustuac, estiqui pairatu ditut de-  
sohoreac, eta laidoac.

Ene ungui eguinac esquer gaitceç pagu-  
tuac içatu dire.

Ene miracuilluac blasfemioz, eta ene doc-  
trina afruntuz eta mehatchus.

## A R I M A C.

2. Iauna, çure bicitcean haiñ pacient iça-  
tu çarenez gueroftic, eta pontu hortan guci  
çure aitaren ordenuac complitu tutçunax  
gueroftic; iustu da nic ceiña bainaiz bektu-  
tore dohacabe bat pacientqui iafan detçadan  
atsecabeac, eta çuc nahi duçun beçambat

demboraz garraia detçadan ene salbamendu-  
cotz bicitce flaco, eta galcor hunen carga  
pifua.

Ecen bicitce hau pifua eta penagarti dela-  
tic çute graciae eguiten da mercedun, eta  
çute saindu gucien exemplua efitzen tu;  
eta ohoragarti etrendateen mundu huntaco  
sofricariac.

Consolacione guehiago-ere dugu orai le-  
gue çaharrean baino, ceinetan ceruco athea  
hertzia baicen, eta haraco bidea gutiago eça-  
gutua noiz eta ere haiñ gutic baitçuten ar-  
tha bide haren billharceco.

Orduan iustu cirenac-ere eciñ sar citez-  
quen ceruco erresuman, çeren hango athea  
eciñ ideo baitçitequen çute passioneco dolo-  
teez, eta çute horiotcearen mercedimenduz  
baicen.

3. Cer esquet eta eçagutça estaroçut be-  
raz çor niri, eta fidel guciei eguiñ darocuçun  
graciaz çute erresuman sartceco haiñ bide  
çucena, eta segura eracutchi darocuçunaz  
gueroz.

Ecen çute bicitcea gure bidea da, eta pa-  
cienciaren medioz goaz çute ganat, ceina  
baitçate gure khoroa, eta golardoa.

Çu çeroni ez baciñe abiatu gure aitci-  
ñean, çue ez baciñarocu eracutchi bide hu-  
ta not sartuco cen sofricarien bidean.

Cembat lagozaque guibelat, eta haguira  
urtun çure exemplu ederrac ez balituste be-  
guien aitciñean.

Eta hambat miracuillu, eta instruccioneen  
ondoan ephel, eta nagui bagare; cer lite-  
que bada argui distiant haren laguntça ez ba-  
guindu çuri iarraiquitceco.

## XIX. CAPITULUA.

*Nola behar dugun pairatu afruntuac  
eta mezprecioac.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, cer duçu errateco? utçaçi  
errencurac beiratu ondoan ene palionea-  
ri, eta sainduen sofricariei.

Heb.  
12. 4.

*Estuçu oraiño odolaren isurteeraiño sofritu.*

Çure pena guciac deus guciac dire hanitz  
bertcen aldean, ceinçec pairatu baitituzte hain  
tentacione borthitçac hain atsecabe gogor-  
rac, hain frogantça hufuac eta luceac.

Çure gogoan erabillçatçu hequiñ sofricari  
handiac, eta çure chumeac errechquiago  
pairatuco tutçu.

Eta chumeac iduriteen ez baçaizquitçu  
ikhufaçu ea estituen çure pairu escafac han-  
ditcen.

Baiñan nahiz diren handiac, edo chu-  
meac etsaia çaitte hequien estiqui pairatcerat.

1. Cembatenaz baitçare sofritcerat emi-

IMITACIONEA. III. LIB. 189

ingo, hambatenaz duçu çuhurtcia eta merecimendu guehiago; eta gaitçac ariñago idurituco çairquitçu deliberacione fermuez, eta ufantça faindu batez borthitstua baçare.

Esterraçula eciñ paita deçaquet hau, edo hori hunelacoren ganic; esta hori gauça bat sofritu behar dudana; calte handi bat eguiñ datot; egundaiño orrhoitu ez naicen gaucez itoi eguiten darot.

Bertce baten ganic sofru neçaque gogotic; bada gauçaric asqui estiqui paita neçaquenic.

Solas horiec arraçoiñ gabecoac dire, eta horla mintço denac estu consideratcen, ez pacienciaren merecimendua ez hura kho-roatu behar duen Jaincoa; baiñan bai choill-qui nolacoa den eguiñ çaiõ offensa, eta nor den offensatçaillea.

; Nahi duena ganic, eta nahi duen beçambatean baicen sofritu nahi estuenac estu eguiazco paciencia.

Eguiazco pacienciac estu behatcen noren ganic heldu çaiõ, ala heldu çaiõ goragocoa ganic, ala berdiñecoa ganic, ala beheragocoa ganic, ala prestua ganic, ala gaichocoa ganic.

Baiñan nor nahi denec offensa deçan, ceiñ nahi den demboraz, edo cer nahi den mazeraz guertha daquion artsecabe hura hartcen du berthiere esquet onez Jaincoaren escutic eta uste du abantail handi bat dela harentçat;

ceren eta Jaincoa gatic pairateen den gaitic chumeena ez baita merecimendu gabe.

4. Çaude beraz bethi gudurat prest nahi baduçu içan victorios. Pacientiaren khoroa eciñ duqueçu gudu gabe; ez baduçu nahi pairatu, eztuçu nahi khoroatu.

Khoroa arditeli nahi baduçu, eguiçu gudu borhitsuqui, paira çaçü patientqui.

Nekhearen saria da sosegua, eta guduren golardoia victoria.

## A R I M A C.

5. Ene Jaincoa, çure graciaz errech dieçdaçu ene baitan naturaleçac eciñ daitequeena.

Badaquiçu ez naicela gai hañitz sofriteco, eta den gaitic chumeenac bihotça erorasten darotala.

Ene Jaincoa, eguidaçü othoi gracia desira, eta maita detçadan çure ohoretan ene frogatceco egottcen darozquidatçun sofrigariguciac; ecen abantail handi bat da eneçat çure amoreta gatic pairatcea, eta persecuta tua içatea.

## XX. CAPITULUA.

*Eçagutu behar dugula gure flauecia propioac, eta mundu huntaco miseriac.*

## A R I M A C.

Psalms.

31. 5.

**A**ITHORTUCO dut ene buruaren contra ene iniustafuna, bai, ene Jaincoa aithortuco darotçut ene flacotafuna.

IMITACIONEA. III. LIB. 195

Maiz den gauçatic chumeenac egozten nau, eta tristatcen. Maiz deliberatcen dut borthitz içanen naicela; baiñan tentacionea heldu da bai, erortcen naiz nahasmendurat.

Batçuetan esteusqueria batec etchatcen nau tentacione handitarat.

Eta noiz-ere uste baitut segurean naicela, çeren estudan hirrisçua aitciñean ikhusten betan causitcen dut neure burua den haiceric chumeenaz etchatua.

2. Urrical bequiçu beraz, launa, ene beheratafuna, ene flacotafuna, çutaz ungui eçagutua.

Nauçun urricari, eta atheta naçaçu *basa-* Psalm.  
*tic han sarthua ez nagoen, eciñ nihoiz il-* 68. 15.  
*hizco maneran.*

Horrec bada doloratcen nau, eta ahalcatcen çure aitciñean, ikhusteaz ceñ erorcor naicen, eta ceñ indar guti dudan ene pasio-  
 neen garaitceco.

Eta ez osoqui consentitu arren, halere bethiereco gudu horrec penatcen nau haguitz, eta choill unhatcen naiz ene bici gucia barneco guerla hortan iragateaz.

Eta oraiño ene flaquecia guehiago eçagutaraften darotana da gogoeta lohi, eta ahalçagartiac ertechquiago ene ariman sartcen bastire handic ilkhitcen diren baiño.

3. O Israelgo, Jainco podoroso, guirif-



tiñoen arimac hañ samurqui maite diturco-  
na, ikhnsaçu çure cerbitçariaren penac, eta  
nekheac, eta estioçoçula falta çure laguntça  
bere behar gucietan.

Ceruco indarraz borthitz naçaçu, beldur-  
rez nauñ daquidan guiçon çaharra, haragui  
dohacabe hau, ceñña oraiño ez baita spici-  
tuaz ungui garaitua, eta ceññaren contra  
bethiereco guduac baitugu.

Helaz! cer da bicitce dohacabe hau! At-  
fecabez, eta laceriaz gucia cargatua, arthez,  
eta erfaiez alde gucietaric inguratua.

Tentacione bat iragan deneco berttea bel-  
du da, eta lehenbico guduac oraiño diran-  
la hañitz bertce aguertcen dire betan ulte-  
caberic.

4. Eta nola maita ahal deçaqueguque bi-  
citse bat hambat behacunez bethea, hambat  
atfecabeei, eta miseriei paratua.

Nola ere deith ahal daiteque bicitce,  
hambat içurri, eta heriotceren ithurburu  
poçoatua.

Gustiarequiñ - ere maite dute hañitce,  
eta bicitce huntan bere atseguñac billac-  
cen dituste, hañitz iende errecuratcen dire  
mundua gueçurtia, eta vanoa dela, halere  
nekhez usten dute, ceren gure passioneac gu-  
re arimetan sobra baitire nauñ.

Hala badire munduan gauça batçuc hura  
maitaraltea

maitarasten darocutenac, eta badire bertce batcuc higuin arasten darocutenac.

Alde batetic *haraguiaren guticiec*, be- Joan?  
*guetaco atseguinec bicitceco orguilleric* 1. 26.  
 maitarasten darocute mundua, bertce aldetic  
 nekheec penec, eta miseriec (ceinac baitire  
 bekhatuaren gastigu iustuac) higuin arasten  
 darocute.

5. Baiñan helaz! munduaren amudioa  
 garaitcen da hañitcen arimetan, eta mun-  
 guarequin iofiac direnec billhatcen tuste be-  
 toqui fensuen atseguinac.

Ceren hañec ez baitute egundaino ikhufi  
 berthurearen edertafuna, ez guztatu Jain-  
 cozco goçotafunac eta atseguinac.

Baiñan mundua cincinez arbuiatcen du-  
 tenec, eta Jainco choillarentçat erreguela  
 lauduen azpian bici nahi dutenec eçagutcen  
 tuste ungui Jaincoac mundua usten dutenei  
 aguintcen diotçaten goçoac, eta descantsuac,  
 eta ikusten clarqui, certaraino mundanoac  
 enganatcen diren berac, eta certaraino, bert-  
 ceac enganatcen ditusten.

## XXI. CAPITULUA.

*Jainco choilla baitan causitu behar dugula  
 gure sofegua.*

### ARIMAC.

**O**ENE arima, gauça gucietan, eta gau-  
 ça gucien gainetic pausa çaitte çure

launa baitan, eon hura da saindu gucien  
solegu eternala.

O Jesus, guciz esti eta maitagarria, egui-  
daçu gracia çure baitan baque, eta solegu  
guehiago causi deçadan creatura gucietan  
baino, ofasunaren, eta edertasunaren abar-  
tailletan baino; ohorean, eta lorian baino;  
podorean eta cargutan baino; arguieran, eta  
iaquintasunetan baino; aberastafunetan,  
eta ancean baino; bozcario, eta atseguita-  
tan baino; fama onean, eta laudorietan bai-  
no; estitasun, eta consolacione gucietan  
baino; munduco esparantça, eta aguitaça  
gucietan baino; guc ahal dituzquegun me-  
recimendu, eta nahi saindu gucietan baino.

Eguidaçu gracia, ene Jaincoa, guehiago  
preça çaitçadan çu cerorri çure ganic etreca-  
bi ahal detçaquedan dohaiñ, eta favore gu-  
ciac baino; ene arimac çure ganic içan ahal  
detçaquen plarer, eta bozcario guciac baino;  
fiñean eguidaçu favore guehiago estima de-  
çadan çure baithaco pausu saindua; ecen-er  
ainguetuac, arkhanieluac; eta spiritu dohat-  
fuen armadac; ecen-ez ontasun agueri di-  
renac, eta estirenac; eta hitz batez çutai  
bertce guciac; ô ene Jaincoa.

2. Ecen, launa, çu cerorri çare ona, eta gu-  
ciz ona gauça gucien gainetic; çu cerorri çare  
guciz gora, eta guciz poderoso; çu cerorri

çate çuretçat eta bertce gucientçat asco çarena deufen, edo nihoren beharrie ez duçuna.

Çu cerorrec ematen tutçu eguiazco consolacioneac, eta goçoac.

Çu cerorri çate edertasuna bera, ontasun eta amudio bera; çu çate maiesta, eta loria bera; çu çate ithurburu bakharra, ceinçetan baitire, içatu eta içanen baitire bertan ontasun guciac bere perfeccioneric handiçanean.

Hala çutaz bertce ematen darozquidatçun guciac chume çaizquit, eta estire asco enetçat, çure buruaz ematen darozquidatçun eçagutçac eta arguiac, eta çure loriaz eguiten darozquidatçun aguintceç ez naute contentatcen, ez baçaitut cerorri ikhusten, eta ez banaiz çure baitan deçansatcen.

Hortaz non ene bihorçac causi deçaque eguiazco soseguric, eta contentamendu oso-ric, ez bada creatura guciac baiño, eta do-  
hain guciac baiño gorago altchatcen çure-quin bat eguiteco.

3. Ene arimaren espos maitea, Jesus amudio garbiaren ithurburua, munda guciaren laun eta iabea, *norc libratuco nau, eta norc Psalm: emanen darozquit hegalac çure ganaraino 14. 7. hegaldarceco, eta çure baitan pausatceco.*

Helaz! noiz ethorrico da momento dohat-  
çu hura ceinçetan bertce lan guciac utciric ez

baitur iñanen bertce eguitecoric lekhat ikhustea eta gustatcea cein estia eta goçoa çaren, ô ene launa eta ene Jaincoa.

Noiz iñanen naiz haiñ barna farthua çure baitan, haiñ sustatua çure amudioz non ez baitur neure burua sentituco, eta çu bakhar-ric gustatuco baitçaitur sensuez gotagoco manera batean, ceina ez baitute gucie eçagutcen!

Orai bici naiz plainuen, eta hasberapenen erdian, eta ene bicitce, dohacabea doloretz iafaten dut.

Ecen miseriazco haren huncetan guerthat- cen dire milla gaitz, ceinec ene spiritua al- taratcen, nahasten, eta illhuncen baitute, eta ene bihotça trabatcen dute, barraiatcen, thi- ratcen, cargatcen, halaco manieraz non eciñ baitoaque çure ganaraino, eta eciñ goça bai- titeque çure arraiciez, ceinec eguiten baitu- te dohatfuen bethiereco bozcarioa ceruan.

Ene Jaincoa, uqui beçaitçate ene has behe- rapenec, eta nic lurraren gainean pairatcen tudan hambat gaitz differentec.

Heb. 4. O JESUS, *loria eternalaren distiadura*,  
 2. 3. *arima desterratuaren consolamendua!* ene  
 ahoa mutu da çure aitcinean; baiñan ene bi-  
 hotça mintço çaitçu ene ichilafunaz.

Noiz arteraino ene launac beranduco da  
 ene ganat ethorri gabe?

Bethor ene ganat ene pobrecian ene con-  
solatcerat.

Heda bieçat escua, eta athera benaçã ene  
lacia gucien artetic.

Çato, launa, çu gabe estenaz gueroz bicit-  
cean bozcariozco ez egunic, ez orenic, eta  
çu çarenaz gueroz ene neurrimendua, eta  
habea.

Hagorandua naiz, mundu huntan presun-  
degui beltz batean beçala gaircez cargatua,  
burdiñez hertstua, çure presenciaren arguiac  
consola naçaqueen arteraiño, eta çure be-  
guitarte artaiac libertatean eman naçan arte-  
raiño.

5. Bertceec galde beçate çure orde, eta  
billha beçate nahi badute, nic eciñ deusbertce-  
tic maita deçaquet, esta, eta esta içanen ene  
gogaracoric çu baicen, ô ene Jaincoa, ene es-  
parantça, eta dohatfurasun eternala.

Ez, eznaiz ichilduco; eznaiz behiñ-ere  
gueldituco othoitz eguitetic; çure gracia  
bihur dieçadaçun arteraiño, eta barrenean  
ene bihotçari mintça çaquizcon arteraiño.

JESUS-CHRISTOC.

6. Huna non naicen bada, ene semea, hel-  
da naiz çure ganat, ceren deithu bainauçu.

Çure beguietaco nigarrec, çure arimaco  
dehitec, çure bihotceco humilltasunac, eta  
arriquiac iaufaraci naute cerutic, eta eta-  
harri çure ganat.



198 JESU-CHRISTOREN  
ARIMAC.

Eguia da, launa, deithu çaitut çutaz goçat-  
cea desiratu dut, eta deliberatu dut gauça  
guciei ukho eguiterat choillqui çurequin  
iuntatcea gatic.

7. Baiñan çuc lehenbiciric hertcharu nauçu  
çure billhatcerat. Çaten beraz benedicatua,  
ene Jaincoa, ceren çure cerbitçarietçat  
hambat ontasun içatu duçun çure misericor-  
dia infinituaren arabera.

Cer erran deçaque beraz guehiago gabi-  
bu pobre batec çure aitciñean humiliatcea  
baicen, behin ere bere bekhatuen, eta be-  
heratasunaren orrhoitçapena galdu gabe.

Ecen çeruan, eta lurrean eguin rucçun  
gauça miragarti gucietan esta çure pacenç.

Genes. Çure obra guciac perçetac dire; çure iura  
1. 31. menduac çucentasunez betheac; eta crea-  
Psalm. tura guciac çure providencia guciç çuhur-  
18. 10. raz governatuac dire.

Sap. Çaten beraz laudatua, eta lorificatua,  
14. 3. Jesus, aita eternalaten çuhurtia.

Ene mihia, ene arimac, eta creatura  
guciec elkharrequin lauda, eta benedica be-  
çaitçate eternitate gucian,



## XXII. CAPITULUA.

*Orrhoitu behar dugula bethi, Jaincoa ganic içatu ditugun unguiez.*

## ARIMAC.

**I**AUNA, idec dioçoçu ene bihořça çure <sup>1. Mac.</sup>  
legue sainduari, eta iracats dieçadaçu <sup>1. 4.</sup>  
çure manamenduen bidean ibiltcen.

Eguidaçu, orhoi, gracia eçagut deçadan çure borondate saindua, eta errespetu, eta atencione handirequiñ gogoan erabill deçadan çure ganic içatu ditudan ontasun generalac eta particularrac; hetaz orrhoituric bihurtietçaquitçudantçat çor darozquitçudan esquerrac.

Eguia da eta aithortcen dut, ez naicela gai çure favoretic chumeenaz-ere behar beçala çuri esquerren bihurtceco.

Infinituqui urrun naiz çuc eguiñ darozquidatçun unguien mereciticetic, eta aufartatcen naicenean çure Jaincozco maieftateraino beguien altchatcerat haren distiadurac erotarasten nau Illuramendurat eta flaqueçarat.

1. Arimaco eta gorputceco abantail guciac barnean eta campoan ditugun dohaiñac, nahiz naturazcoac, nahiz graciazcoac, guciac dite çure ganic ditugun unguiac, ceinec eçagut arasten baitute çure manificencia; misericordia eta ontasuna.

Batçuec guehiago date, bertceec gutiago, baiñan guciac çureac dire; eta nihorc ecin duque den chumeena-ere çure ganic baiçen.

Guehiago errecibitu duenac estu hargatic burupe guehiago behar, guehiago mereci balu beçala, estu behar altcharu bertceac baiño gorago, eta ez arbuiatu gutiago daena; ecen gucietaco handiena eta hoberena da bere ganic deus estuela uste duena, hamillen dena, eta çuri esquerren bihurtceco arthosena.

Eguiazqui norc-ere baitaroca bere burua mezpreçagarrientçat, eta dohaiñen errecibitceco gutienic gaitçat, haina eguiten da gai handienen errecibitceco.

3. Dohaiñ gutiago errecibitu duenac estu behar tristatu, eta etçαιο behar guehiago errecibitu duenari bekhaiztu.

Hobequi behar du miretci, eta laudatu çure ontasun infinitua, ceñac hain liberalqui dohaiñic eta gogotic, isurtcen baititu bere ontasunac gure gainerat; presunen handitasunari, edo chumetasunari behatu gabe.

Gauça gucietan çu behar çare laudatu, ene Jaincoa; ecen gauça guciac çure ganic heldu dire.

Çuc daquiçu cer behar çaiion batbederari, eta certaco behar çaiion eman batari gutiago, eta bertceari guehiago, eztagocu gui

diferencia horren eguitea, baiñan bai çuti,  
lauria, ceñnac marcatu baituçu guiçon ba-  
khotcharen mercecimenduen neurria.

Hargatic, ene Jaincoa, favore handi ba-  
tentçat dagoçat ez icatea dohaiñ distiantic  
guiçonon laudorioac, eta ohoreac ene ganat  
erakhar deçaquenic.

Eta norc-ere bere burua pobre, eta billhuz  
baitacusa estu hargatic behar tristatu, eta do-  
loratu, aiticic boztu behar du; ceren eta  
çuc, ô ene Jaincoa, humillenac, eta mun-  
duaren arabera mezpreçagarrinenac hautatu  
baititutçu çure cerbitçaritçat, eta maiterçat.

Lekhucò dire çure Apostoluac, ceñnac  
egaiñ *baititutçu mundu gucico Prince.*

Pfalm.

Bici icatu dire munduan errencura gabe. 44. 17.

Haiñ ciren humillac, haiñ malecia,  
eta enganio gabeac: non hequien bozcario  
gucia baitcen *afrunturic handiennen çure ga-* Act 3.  
*ric pairatcea,* eta çet munduac higuintcen 41.  
baitu, eta hura gogo onez besarcatcea.

§. Hargatic çu maite çaituenac, eta çure  
ungui eguiñez behar den eçagutça duenac  
bere atseguiñic handiena behar du içan çure  
borondatearen eguitea, eta desiratcea compli  
daitecen haren baitan çure ordenu eternalac.

Hori behar da içan haren bozcario gucia,  
eta nahi behar du haiñ gogotic içan chumee-  
na, nola bertce barec nahi bailuque içan

handiena ; haiñ content behar du ičan azque-  
neco herrunca hortaz , nola bertce batec le-  
henbicoaz.

Fiñean hambat bozcario behar du ičan  
beheratua mezpreçatua , eta fama gabe iça-  
teaz nola bertcec bailuquete ohoreen , eta  
loriaren erdian içateaz.

Guciac baiño guehiago estimatu behar  
duguna da çure loriaren maitatcea , eta har-  
tan bozcario , eta consolacione guehiago be-  
har dugu causitu çure ganic errecibitu ditu-  
gun , eta errecibituco ditugun ontasun ga-  
cietan baiño.

## XXIII. CAPITULUA.

*Lau abisu probetchos bihotceco baquearen  
içateco.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea , orai iracatsi nahi darotçur  
baquearen bidea , eta eguiazco liberta-  
tearena.

ARIMAC.

2. Eguidaçu gracia hori , launa , atsegui-  
ñequiñ adituco çaitur.

JESUS-CHRISTOC.

3. Ene semea , eman çaitte çure natia  
baiño hobequi bertceenaren eguitera ,

Hauta çaçü hobequi gutia , ecen ez ha-  
ñitça.

IMITACIONEA. III. LIB. 203

Billha çaqu bethiere azqueneco lekhuá,  
eta eman çaitte bertceac baiño beherago.

Defira çaqu eta othoitz eguiçu çure bai-  
tan eguiñ dadiñ Jaincoaren borondatea.

Horra nolaco behar duen guiçonac ba-  
quean eta sofeguan fartceco.

A R I M A C.

4. Ianna, solas labur horrec perfeccione  
handi bat çarratcen du.

Hitz baiño sensu guehiago da hor eta  
manu baiño fruitu guehiago.

Erreguela horiec leialqui beira ahal be-  
netça, ez nintequ erechqui eror altaramen-  
durat.

Hortaz eçagutçen dut baquea, eta sofe-  
gua galdu dudan gucian; çori gaitz hura  
guerthatu çaitala; ceren maxima faindu ho-  
rietarie hastandu naicen.

Baiñan çuc, ene Jaincoa, ceñac gauça  
guciac eguiñ ahal baiteçaquetçu, berrez diet-  
çadatçu çure graciaç, çure manuac compli-  
detçadantçat, eta eguiñ detçadantçat ene  
salbamendua.

*Gogoeta gaichtoen contraco Othoitça.*

5. Ene Ianna eta ene Jaincoa, etçaitte- Psaln,  
etela urrun ene ganic; çaro, othoi, ene la- 70. 12.  
guntcerat; ecan hañitz gogoeta gaichto alt-  
çhatu dite ene contra, eta icialdura handiec  
altaratcen dure ene arima.



Hambat etsaien artetic nola iraganen naiz  
 çaurthu gabe, eta nola nic hec garaituco ditut?

6. launa, çuc erran darocuçu çure Profe-  
 Isai. taren ahoz: *Ni çure airciñean ibillico naiz,*  
 2. 45. *eta munduco podorosen orguillera beheta-*  
*co dut. Presondeguitaco atheac idequico di-*  
*tut, eta aguertuco ditut gauçaric gordeenac.*

7. Beraz, launa, compli çaqu agiundu  
 darocuçuna, *eta ni nahasten nauten gogoeta*  
*gaichto guciac suntsi bitez çure airciñean.*

Ene esparantça eta consolacione bakharra  
 ene atsecabe gucietan da çure ganat ibet  
 eguitea, çure baitan fidancia osoaren ema-  
 tea, çure deitcea eta othoitstea, çure ga-  
 nicaco consolacioneac pacienciarequin igu-  
 riquitcea.

*Jaincoaren arguien galdetceo Othoitça.*

8. JESUS, guciz ona eta maitagarria, argui  
 naçaqu, othoi, barreneco arguiaren arraiocaz,  
 eta khen çaqu ene arimatic illhumbe guciac.

Esteçaquela utz ene spiritua errebelatcerat,  
 eta hezatçu ene tentacione muthiriac.

Eguiçu gudu ene alde, egoratçu ihesii be-  
 ftia cruel hec, pasione gaichto hec, ceiñac  
 Psalm. gure galtceco lausengatcen baicaituste, çure  
 121. 7. *bothereac baquea eman dietçadantçat,* eta  
 ene arima garbituric eguiñ dadintçat templu  
 faindu bat, ceiñetan contu gabe adituco bai-  
 tire çure laudoriozco cantac.

Mana dioçoçure haiceei eta tempestei, Marc.  
 erroçu itsafoari pausa adi, eta haiceari 4. 39.  
 gueldi adi, eta berehala eguinen da calma  
 handi bat ene ariman.

9. Egoratçu çure arguia, eta çure eguia Psa m.  
 lurraren gainean distia detçatentçat: ecen 42. 3.  
 ni naiz lur hura illhun eta agor dagoena,  
 çur argui deçaqueçun arteraino.

Çure graciaç isuratçu ene gainerat, ce-  
 tucio ihintz hartaz busti çaçu ene arima,  
 egoratçu debocione samur baten uriac lur-  
 raren ihinstatceco, eta hari erakhartceco  
 fruitu onac, eta excelentac.

Altcha çaçu ene arima bere bekhatuen  
 carga pisuaz çapatua, ene desirac itcheçatçu  
 çetucio gaucei lothuac, dohatsutafun sobe-  
 ranoaren goçotafuna dastatu ondoan ahalca  
 nadintçat lurrerat gogoaren hedatceaz.

O thira naçaçu, ene Jaincoa, eta osoqui  
 apata naçaçu creaturen iragaitçazco conso-  
 lamendu gucietaric; ecen esta creaturaric  
 ene bihotça osoqui sosegu, eta descantsa  
 deçaquenic.

Bar eguiñ naçaçu çurequiñ bethicotz çure  
 amudioaren lokharti eciñ urratuzcoaz; ecen  
 çu çare bakharra çure maitarçailleentçat  
 alco çatena, eta çu gabe alfer dire bertce  
 gaciac.

## XXIV. CAPITULUA.

*Estugula behar curiositasumic bertceren bert-  
rien iaquiteco.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, etçaren curios, eta esteçaquila  
traba çure spiritua behar gabeco arhet.

Joan. *Hunelaco edo halaco eguitecotan cer duat-  
21. 21. çu çuri? Çhoillqui iarraie çaquizquit niri.*

Batac duen hunelaco, edo halaco umore;  
bertceac eguiñ deçan hau, erran deçan hon  
edo hura, çuc cer achola behar duçu?

Ez duçu çuc bertceentçat ihardetico;  
bainan çure buruaz contu eman beharce-  
çu: cergatic beraz horla khechatcen çare,  
çuri estoazquitçun eguitecoez.

Nic eçagutcen tut guicoñ guciac, itchab-  
ten tut iguzqui azpian iragaten diren guciac,  
badaquit batbedera cer den, cer darabilla  
gogoan, cer nahi duen, cer cbedez hari dan-

Niri behar çauzquit utci artha horiec: çu  
çaude foseguan, eta utzarçu khechosac khe-  
cha ditecela nahi duten beçambat.

Cer-ere eguiñen baitu edo erranen guico-  
nac, bere contuco içanen du; ni eciñ enga-  
natuco nau.

2. Etçabiltçala fama handi bat ardiorfi be-  
harrez hañitz adisquide eguiñ nahiz, edo  
handien estimua merecitu beharrez.

Horiec guciac estire spirituaren barrat-  
ceco, eta bihotça illhumbeez bethetceco  
baicen.

Adiaraz nieçaçuque gogotic ene hitça,  
eta aguer secretu gordeac; beguira baciñau-  
dez noiz heldu naicen çure ganat, eta ide-  
quitcen baciñarot çure bihotceco athea.

Çaren beraz goardiacor, atçarria othoit-  
tetan, eta humill gauça gucietan.

XXV. CAPITULUA.

*Certan dagoen bihotceco baquea, eta  
aitcin amendu spirituala.*

JESUS-CHISTOC.

**E**NE Semea, erran diotet ene discipuluei:  
*Usten darotçuet ene baquea, ematen da- 14. 27.  
rotçuet ene baquea, eta estarotçuet ematen Joan,  
munduac ematen duen beçala.*

Guciec nahi dute baquea: orduan guciec  
elbituste billhateen baque eguiazcoaten at-  
diesteco bideac.

Ene baquea bihotcez humill, eta esti di-  
tentçat da.

Causiruco duçu baquea, baldin paciencia  
handia baduçu.

Baldin aditcen banauçu, eta ene manuac  
beitatcen baitutçu sofegu handi batez goça-  
tucco çare. **ARIMAC.**

2. Cer beraz eguiñen dut, Iazuna?

3. Goardia hertsi bat iducaçu erraten, eta eguiten tutçun gauça gucien gainean.

Estuçun bertce chederic ene gogara eguitea baicen, eta nitaz campoan ez deçaçula deuterere ez hillha, ez desira.

Esteçaçula temerarioqui iuia bertceen erranez, eta eguñez, eta esteçaçula traba çare burua çure eguiteco estirenez. Manu hortan gutitan içanen çare altaratu, edo çure altaramenduac guti irauen du.

Ecen bihotça bethi soseguan içatea, eta gorphutcean, edo spirituan penaric ez sentitcea, hori eciñ daiteque bicitce huntan, eta aukhituco da solamente eternitateco paufuan.

Ez duçun beraz uste baque eguiazcoa ediren duçula, ceren ez duçun gaitic paitacen; edo osoqui ona çarela, ceren ez duçun etsaic; edo gucia perfeta çarela, ceren gauça guciac çure gogara doazquitçun.

Etçaçula halaber iduc çure burua bertce handitacotçat, eta Jaincoaz bereçiqui maitatutçat, devocione, eta samurtasun haniz çure bairan sentitcen duçunean.

Esta seiñale horietan eçagutcen bertcearean maitatçaille eguiazcoa, eta estago hortan gure aitciñamendu spirituala, eta perfeccionea.

4. Certan bada, launa?

JESUS-CHRISTOC.

5. Perfeccionea dago çure burua Jaincoari çare bihotz guciáz sacrificatcean, eta çure ahantailac niholere ez billhatcen, ez gauça çametaz, ez handitan, ez demboran, ez eternitatean. Halaco maneraz bai non bifaia behi content duçula çure esquertac bihurtu-co baitiotçotçu Jaincoari, haiñ ungui çorigaitcetaz, nola çori onean, guciac çuretçat orobat iduquiric.

Baldiñ baduçu indarric, eta bihotçic asco, barreneco consolacioneac galdu ondoan gaitz handiagoen-ere pairatcera preparatceco; baldiñ ez baduçu çure burua iustificatcen, allegaturic merecitu gabe gaitçu gogor hec pairatcen tutçula, aiticic ene probidencia, eta saindutaçuna adoratcen baditutçu guertzarren çairquitçun gaitz guciétan. Orduan ibillico çare baquearen bidean, eta esparantça ahal duqueçu *berriz-ere içanen duçula ene* Job: 33. 26.  
*ihusteco bozçarioa.*

Baiñan çure buruaren mezprecio oso baterat hel ahal baçaitte goçatuco çare baquezco abundanciaric handienaz; bederen munda huntaco destertuan ahal daitequen beçambar.



## XXVI. CAPITULUA.

*Spirituco libertatea ardiesten dela, iracunt-  
cez baiño hobequi othoitcez.*

## A R I M A C.

**E**ÇAGUTCEN dut, Iauna, guiçon perfer  
bati daocala, ceruco gaucetarie spiritua  
ez apartatcea, mundu huntaco arthen erdiu  
artha gabe içatea, ez tontotafunezco indife-  
rencia batez: baiñan arima libro, eta crea-  
turetaric lechatuaren privilegio bereci batez.

2. Othoitsten çaitut, ô ene Iauna, begui-  
ra naçaçun mundu huntaco artha sobretarie,  
beldurrez hetan traba nadiñ, gorphutceco  
beharretarie, beldurrez hequien complitcen  
hari naicela, atseguiñac atçaman neçan; fi-  
ñean ene salbamenduco traba gucietarie bel-  
durrez trebesiez unhatu eta flacatu ondoan  
eror nadiñ.

Estarotçut galdeguiten solamente beita  
naçaçu mundanoec lehia handirequiñ bill-  
hatcen ditusten gaucetarie; baiñan oraiño  
libra naçaçun miseria hetarie ceñac baitire  
guiçon gucien pena, eta malediccionen co-  
munac, ceñec ene arima pisatcen baitute,  
eta debeatcen nahi luquen beçambar liber-  
tatearequiñ spirituaren bidean ibiltçetic.

3. O ene Jaincoa, atseguiñ eguiazcoen  
ithurburua, gambia dietçadarçu behaçuneca-

rat haraguiaren gueçurrezco consolacione guciac ; ceñec ontasun eternalen amudiotic gubelatcen baicaituste , eta bere ganat thiraten presenteco atseguin iragancor baten itchurapen enganiosez.

Haraguiac eta odolac , ene Jaincoa , ez naçaten garai , munduac eta haren loria falsoac ez naçaten lillura , deabruac , eta haren malecia guciac ez naçaten engana.

Indaçu indarra gudu eguiteco , paciencia pairatceco , eta constancia fineraño irauteco

Munduco consolamendu vanoac gambia çaçu çure spirituaren gançudura guciz estirat , eta haraguiaren amudioa çure icen sainduaren amudiorat.

4. Oi ala iatea , edatea , eta bertce gorputçaren beharrac carga baitçaizco çu maite çaituen arima bati !

Egñidaçu gracia , ene Jaincoa , gure flaqueciaren erremedio horiez balia nadin fortequi , eta ez atseguina gatic , edo sobraniaz.

Ecen hec osoqui utz deçaquegu ceren naturaleça hagoan itchequi behar baitugu , bainan çure legue sainduac debecatcen darocu heratic behar baino guehiago hartcea , edo heran sensuen billhatcea , ceren bertcela haragua alcha bailiteque spirituaren contra.

Çute escu botheretsuac , ene Jaincoa , gñida benaça , eta goarda sobrania gucietic.

## XXVII. CAPITULUA.

Gure buruentzat dugun amudioac guibelatzen gaituela ontasun soberanoaren amudiotic.

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, eman behar duçu gucia, gucia gatic, eman behar çairquit gucia; nahi banauçu ičan osoqui.

Iaquin çaçü deusec-ere eciñ hambat calte eguiñ dieçaquela nola çure buruarentzat duçun amudioac.

Cembatenaz bairuçu amudio propio guethiago, hambatenaz çare creaturequiñ ioliago.

Çure amudioa simplea, garbia eta chuchena balinbada, etçare munduco gauçen gathibu içanen.

Etçaçula desira içatea cillhegui etçaitçana; eta etçaçula ičan deus-ere traba çaitçaquenic, edo spirituco libertateaz gabe çaitçaquenic.

Miresteco da nola estuçun bihotçaren barnetic usten ene ganat çure burua, çuc desira edo ičan ahal detçaquetçun guciequiñ.

2. Cergatic tristecia vanoetz ahitcen çare, eta nekhatcen artha sobraniazcoez?

Çatchazco fermuqui ene borondateari, eta deusec eciñ calteric eguiñen datoccu.

Lotcen baçaizco gauça bati baiño hobequi

bertce bati; lekhu bat hautatcen baduçu, eta usten bertce bat çure aisia gatic, eta çure contentamendu propiala gatic; erçare bebiñ-ere içanen grina eta khechagune gabe; ceren causituco baitutçu gauça gucietan escasac, eta contrestac lekhu gucietan.

3. Esta beraz heldu bihotceco baquea munduco gaucen içatetic, ez eta hec nombre handian içatetic-ere, baiñan hec arbuiatetic, eta bihotcez usteric.

Era gauça hori erran behar da ez solamente aberastafunez, baiñan oraiño ohoreen, etalaudor ioen guticiaz-ere, ecen iragaten da mundua, eta munduarequiñ gauça horiec guciac.

Lekhuaren faindutasuna guti baliatcenda spirituaren kharra escas denean, eta campotic billhatcen dugun baqueac guti irauendu; ez balin badu bere cimendua bihotceco baquean.

Erran nahi da ez baçate enequiñ borthitzqui lothua, alda beçaitzque; baiñan hobe ecin çaitzque.

Ecen lehenbico aldian causituco tutçu çure ganic hastandu nahi içan ditutçun gaitz guciac, eta menturaz, guehiago-ere.

O T H O I T Ç A.

*Bihotceco garbitasuna Jaincoari galdetceco.*

A R I M A C.

4. Ene Jaincoa borthitz naçaçu Spirituz fainduaren graciaz.

Borthitz çacu ene baitan guiçon barrenecoa.

Libra çacu ene bihotça munduco artha, eta grña gucietaric.

Etçaçula utz ene bihotça thira deçan bere ganat cer nahi den gauça tchar, edo baliofen guticiac.

Eguidaçu gracia munduco gauça guciei beha dioçotedan gauça iragancorrei beçala, eta orrhoit nadiñ neroni-ere hequiequiv baitan

Ecclef. laster iraganen naicela ; *ceren ez baita igua-*

2. 11. *quiaren azpian deus iraupenecoric ; eta guciac baitire vanitate, eta spirituço atsecabe.*

Oi ala dohatfu baita gaucei manera hortan behatcen diotena !

5. Indaçu, launa, Jaincozco çuhurtcia hori ; ikhas detçadantçat çu gauça guciën gainetic billhatcen, causitcen, gustatcen, eta maitatcen. Eta gauça guciez iuatcen bere baitan direnaren arabera, eta çure providenciac eman dioten herruncaren arabera.

Indaçu behar den prudencia lausenguen ene ganic urruntceco, eta contrestea manloqui iafateco.

Ecen çuhurtcia handi bat da guiçonon hitz vanoën mezpreçatcea, eta Syrena perillofen canta estiei eta lausengu çarmagariiei beharria tapatcea.

Manera hortan ibillico gate seguramça requiñ Jaincoaren bideetan.

## XXVIII. CAPITULUA.

*Eslugula ičan behar mihi gaichtoen beldur.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, paira çaqu asaratu gabe çure  
contra nihorc gogoan iragaten badu,  
edo erraten cerbait.

Ecen cembait estimu guti çutaz iendeec  
eguiten badute-ere; cerortec oraiño gutiago  
behar duçu çure butua preçatu, eta uste be-  
har duçu estela flaqueciatic çurearen pareric.

Barrancoia eta spirituala baçare contu guti  
eguiten duçu haiceac daramatçan hitcez.

Prudencia handi bat da, guertharçen çaiç-  
quigan gaitçetan, eta nahi gabeetan ichillie  
egotea, ene ganat bihotcez itçultcea, eta  
güçonen iuiamenduez ez altaratcea.

2. Çure baquearen içateac edo ez içateac  
ez du egon behar güçonen erranquçunetan;  
ecen nahiz iendeac çutaz mintça direcen un-  
gu edo gaizqui; etçare hargatic çarenetic  
bertce bat.

Non da çure uste baque eguiatzcoa, eta  
eguiatzco lotia? Ez othe dago ene baitan?

Bai segur; eta norc ere ez baitu güçonen  
gogaraco içateco guticiatic, ez eta güço-  
nen desgogaraco içateco beldurric, haina go-  
çaraco da baque handi batez.

Eta contrata, bihotçeço khechagune, eta



216 JESU-CHRISTOREN

spirituco barraiadura guciac fortcen dire  
amudio defordenatutic, eta guçonentçat  
dugun beldurtasun vanotíc.

XXIX. CAPITULUA.

*Othoistu, eta laudatu behar dela Jaincoa  
atsecabetan.*

ARIMAC.

**I**AUNA, çuc nahi içatu duçu tentacione  
ledo atsecabe hau guertha cequidan, den  
çure icena benedicatua eternitate gucian.

Nola eciñ itçur bainaquioque, çure ganat  
behar dur ihes eguiñ; çuc lagun naçaçunt-  
çat haten iasaten, eta ene progotchucotz  
guertharaz deçaçuntçat.

Iauna, altaratua naiz gucia ene bihotçic  
eciñ causi deçaque sofeguric, passione hunc  
banarabilla, eta tormentatcen nau.

Joan: *Cer erranen darotçut, ó ene Aita guci  
12. 27. onhetfia? Orat ni naicen hersturan.*

Hau da guduco orena, khecha çaite ene  
laguntcerat.

Baiñan dembora hau ethorri da ene ganat,  
çu guehiago lorifica çaitcentçat, ni libratutic  
hambatetaraiño humiliatu nauçun ondora.

Iauna, beraz othoi heda dieçadaçu elçua,  
eta athera naçaçu hirtiscutic.

Ecen naicen beçalaco gachoa, cerdaiçuet  
eta norat noaque çu gabe?

Iauna, indaçu aldi huntan-ere paciencia.  
Lagun naçaçu, ene Jaincoa, eta cembat  
herstua banaiz-ere ez naiz beldur içanen.

2. Baiñan arte hortan cer erran ahal die-  
çaçquet lekhat? *Iauna, çure borondatea* Marc.  
*compli dadillala.* 16. 391

Ungui meredituac ditut iafaten tudan penac.  
Paratu behar ditut Jaincoac nahi duela  
pocienciarequiñ iafan detçadan, tempesta  
iragan, eta calma bihur daitequen arteraiño.

Çure escu guciz botheretsuac athera na-  
çaque tentacione huntaric, edo eman deça-  
que atsecabe hau, ni erortcetic guibelatceco  
lehenetan asco aldiz eguiñ nauçun beçala,  
b misericordiazco Jaincoa.

Ecen cembatenaz baitçait niri gaitçago,  
hambatenaz da ene librantça errechago,  
Jainco guciz goraren escuarentçat.

XXX. CAPITULUA.

*Nola bekar dugun Jaincoaren laguntça*  
*galdetu, esparantçarequiñ gracia*  
*bihurtuco çaicula.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, ni naiz Iauna atsecabetan Nahum  
*arimac borthitsten ditudana. Çato ene* 1. 7.  
ganar penatua çarenean.

Badaquiçu cergatic estutçun laster içaten  
ceruco consolacioneac? Hoti heldu da ceren

nekhezegui galdeguiten baititutçu oracionean.

Ecen othoitz khartsa batez baliatu baiño lehen, campoco consolacioneen ondoan abiatcen çare, eta emplegatcen tutçu guizonen erremedio vanoac.

Hargatic hec guciac guti baliatcen çaitçu, quitçu, eçagut deçaqueçun arteraiño, Ni  
 16. 7. *naicela bakharra ene baitan esparantça datenac*, hirtiscutic athera detçaquedana, eta nitaz campoan estela asco den lagunçatic, on den conseilluric, probetchos den erremedioric.

Baiñan orai tempesta guelditu denaz gueroftic, eta gure spiritua sofegatuago denaz gueroftic har çatçu çure lehenagoco indarrac ene misericordien arguiac dirabeino.

Ecen hurbill naiz çure ganic ez choillqui gança guciac leheneco estatuan eçartceco i  
 Jerem.  
 32. 17. *Bada enetçat deus gaitcic?* ala içanan naiz erraten duena, eta eguiten estuena beçalacoa?

Non da çure fedea? Çau de fermu, eta iraun çaçu unguian.

Çaren pairucor eta indartsu; bere demboran ethorrigo da consolacionea.

Math.  
 8. 7. *Çau de ene beira, iguric naçaçu: ethorrigo naiz segur, eta sendatuco çaitut.*

Tentacione iragancor batec penatcen çaitu; icialdura vano batec altaratcen çaitu.

Cer probetchu duçu çure buruaren khechatcea eta nahaltea, ethorquiçuneco gauça segur estirenen gatic? Hori da çure gaitcen bertetcea, eta çure buruari tristeciaren gainerat ematea. *Egun baxhotçac asco du bere pena.*

Math.  
6. 34.

Gauça vano eta alfer bat da, ethorquiçuneco gauçez, eta nihoiz menturaz guerthatuco estirenez tristatcea edo boztea.

3. Guixonen arintafunaren marca bat da bere burua halaco gogoeta vano ez enganatcerat ustea; eta arima flaco baten seiñalea da, haiñ errechqui gure etsaiac zogoratcen darocuna siñhestea.

Ecen hari orobat çaio baliatcea gueçurraz edo eguiaz, baldiñ helcen bada gure enganatcerat.

Estu acholaric ala eroraraz gaitçan oraingo gucen amudioaz, ala guero coen beldurraz.

*Etçaitecela beraz altara; ez bedi içi çure bihotça.*

Joan.  
14. 1.

*Siñhesaçu ene baitan,* eta emaçu çure esparançça ene misericordian.

Nõiz ere uste baituçu urrun naicela çure gatic, orduan maiz çure hurbillean naiz.

Eta uste daçunean guciac çuretçat galdu direla; orduan duçu maiz merecitçecotz paradaric hoberena.

Gauçac çure nahien contra direnean, estire hargatic bethi çute bidegabetan.

Estuçü çure buruaz iuiatu behar barrenan duçun khechagunearen arabera, eta nondic nahi den ethor daquiçun atsecabea etçaitçu bihotça eroti behar, handic ilkhiteco elparantça guciac galdu bacintu beçala.

4. Cerbait damu noicic behin egortcen darotçudan arren, edo cerbait consolacionez gabecen çaitudan arren, estuçü uste behar bethicotz utcia; ecen bide hortaz ardiesten da ceruco errefuma.

Duda gabe hobeago da çuretçat, eta ni cerbitçatcen nauten gucientçat atsecabeaz, frogatuac içan çaitetzen, ecen-ez gauça guciac çuen gogara doacen.

Eçagutçen tut çure gogoetarie gordeenac, eta badaquit on dela çure salbamenducott utz çaitçadan noicic behin agortasunean; beldutrez çure nahira gauçac içateac erorataz çaitçan orguilliarat, eta çure burua lausenga deçaçun sinhetçiric etçarena baçatela.

Eman dudana khen deçaquet, eta bihurtze placer dudanean.

5. Ematen badut, enea ematen dut; erematen badut, estut çurea hartcen; ceren eneaç baitite ontasun, eta dohaiñ perfet guciac.

Beraz cerbait pena edo atsecabe egortcen darotçudanean, ez bequiçu hargatic erot

IMITACIONEA. III. LIB. 221

bihotça: ecen çure gaitçac ariñ detçaquet berehala, eta gambia detçaquet bozcariorat çure nahi gabeac.

Eta horla eguiten dudanean, ez naiz har-gatic gutiago iustu, eta estut laudorio gu-tiago mereci.

6. Çuhurra baçare, eta gauceti eguiaren arbera behatcen badioçute, estuçu behar atsecabeetan hambat tristatu; aiticic boztu, eta niri esquerrac bihurtu.

Çure bozcario bakharra behar liteque, *no çuri mundu huntan guphidetci gabe at- Job. 6. 10. secabeac egortçea.*

Noizbait erran diotet ene discipulu guciz onbetçiei: *Aitac ni maitatu nauen, beçala Joan: 15. 9. çaitustec maite.*

Bizquitartean estitut egorri mundurat han-go atseguinez goçatcerat, baiñan gudu han-dion pairatcerat; ez ohoratuac, baiñan mez-pecatuac içaterat; ez paufuan egoterat, baiñan pacienciaren bidez fruitu hañitcen ekhartcerat.

Ene semea, orthoit çaitte bethi horiez.

XXXI. CAPITULUA.

*Creatura guciac arbuiatu behar ditugula, nahi badugu creatçaillea cuusitu.*

ARIMAC.

I AUNA, hañitz graciën beharra dut oraño, ardietsico badut estatu hura, ceñetan



creatura batec - ere ez bainau trabatoco.

Ecen cerbaitec itchequitcen darotaino,  
eciñ çure ganat libroqui hegaldan naiteque.

Hala nahi çuen altchatu Profetac cioenean:

Pfalm.  
54. 7.

*Norc emanen darozquit hegaldac uso bari  
beçala, hegaldan nadintçat, airean man,  
eta aurkhi deçadan pausa lekhu bat.*

Math.  
6. 11.

Cer da baquezcoagoric begui simplea  
baino? eta libroagoric mundu huntan deus  
desiratcen estuena baino.

Altchatu behar da beraz gauça creatu gu-  
ciez gorago, utci osoqui norc bere burua,  
eta goratasun hartan eçagutu çu çatela gau-  
ça gucien creatçaillea, eta çure obra guci-  
tan estela çure pareric.

Orduan arima ez bada osoqui lurreco gau-  
cetic lechatua, eta nihoiz-ere gai içanen  
ceruco gaucetan gogoa fintatceco.

Hargatic dire bakharrac comtemplacione-  
cotz gai diren presunac, ceren gutiac baitire  
ontasun irancotretaric osoqui apartatcen ai-  
renac.

2. Hottacotz behar da gracia handi bai  
arima altcha deçaquena bere buruaz gorago.

Eta guioña ez bada ematen spirituaren  
goratasun hortan, eta creatura gucièz bill-  
huciric, ez bada Jaincoarequiñ osoqui iur-  
tatcen, ez dire deus condatu behar haren iur-  
quiñ, eta içan guciac.

### IMITACIONEA. III. LIB. 223

Notc-ere uste baitu badela deus, handiric ontasun soberanoaz, neutri gabeaz, eta erretalaz campoan, haña apha egonen da, eta berrestan ibillico da luçaro.

Jainco ez den gucia esta deus, eta ez deus behar da estimatu.

Diferencia handia da guiçon prestu Jaincoac arguitcen duen baten çuhurtciaren, eta theologo batec liburutaric atheratcen duen aquintafunaren artean.

Cerutic heldu diren arguiac, eta graçiac gure bihotcetarac ifurtcen dituenac haguictez dire baliofagoac, ecen ez guiçonaren spiritucac bere nekhez, eta estudioz ardiesten dituenac.

3. Hañitcec nahi luquete altchatu ceruco gauen contemplacionerat: orduan estute eguiñ nahi hañ ontasun handiaren ardiesteco behar dena.

Gu estatu dohatfu hartaric guehienic guibelatcen gaituena da, ceren gauça campoçoei, eta sensuen gogaracoçoei lotcen baicacizcote, eta ceren artha guti baitugu gure buruaren mortificatceco.

Estaquit cer den, edo cer spirituc garahitçan, edo cer nahi dugun guc spiritualtçat palatu nahi dugunac.

Nekhe, eta artha hañitz hartcen dugu ontasun esteuz, eta iragancorrentçat, eta estugu

hurten behin - ere pensatcen nola chuchen ahal deçaquegun gure barrera, eta itheac bilduac gure sensuac.

4. Helaz ! ez gare haiñ laster gure barrenan sartcen, non ez garen berehala ilkhitzen, eta estitugu behin-ere behar beçaiñ hertsiqui gure obrac pisatcen.

Estugu ikhusten cein behera dabilteçan gure guticiac, eta estugu nigarric eguiten ikhultetaz ez garela liçuntafunic baicen.

Genes. 9. 12. Jaincoac egorri çuen uholde handia lur-  
rerat, ceren haragui guciac lohitu baitçuen bere bidea.

Hala gure bihotceco affectioneac gaichatatuac direnean, eta gure arima bere indartoz gabetua edireten denean, baitezpada gure campoco accioneec-ere sentitu behar dute barreneco flaquecia, eta corrupcione hura.

Ecen bicitce onaren fruitua bihotz garbitic sortcen da.

5. Galdetcen da maiz cer nihorc eguiten duen : baiñan guti contutan hartcen da cer chedez hari den.

Galdeguiten da guion batez, ea balentia den, aberatza, edo ungui eguiña den, ea ungui escribatcen, edo cantatcen duen, ea bere officioan fechoa den.

Orduan ea spirituzcoa, pobrea den, ea paitucorta, mansoa, barrencoia den. Nihor esta mintço.

Naturaleça.

Naturaleça, eta gracia haguitz dire different, hanc estio behatcen campoari baicen, hau berriz barrenera dago beira.

Naturaleça inaiç enganatcen da, gracia ez enganatceco Jaincoa baitan ematen du bere eçparantça.

XXXII. CAPITULUA.

*Barbederac ukho eguiñ behar dioela bere buruari, eta bere guticiei.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, çure buruari alde baterat ukho eguiten ez badioçu, libertate oso bat eciñ ardiestico duçu.

Badire barçuec bere escuco içan nahi dutenac, bere buruen maitatçailleac, guticiofac, curiosac, horrat, hunat: bethi dabilçanac, bere aisiac billhatcen ditustenac, eta ez JESU-CHRISTOREN, gogaraco gauçac; bethi gogoeta berritan dabilçanac, eta deseinu iraupenezcoric behiñ-ere hartcen estutenac; eta hec guciac gathibu dire, eta amarratuac daduzcate haraguiac, eta debruac.

Ecen Jaincoa ganic heldu estena deseguiten da, eta erortcen da laster esdeusetarat.

Orrhoit çaitc bethi hitz labor, eta perfectione gucia çartatcen duen huntaz.

*Urçaqu guciac, eta causituco tutçu guciac.*

Ukho eguiocute çure passionei, eta editenen duçu eguiazco sosegua.

Eguia hori erabill açu maiz çure gogoan,  
eta obratcen baduçu, gauça guciac iaquiñen  
rufquetçu.

## A R I M A C.

1. launa, esta hori egun bareco lana eta ez  
haut dosteta, hitz labor horiec çarratcen du-  
te religioneco perfeccione gucia.

## J E S U S - C H R I S T O C.

Ene semea, estuçu guibela goan behar,  
eta bihotça galdu behar perfeccioneco bidea  
eracuchten çaitçuncan, aiticitic altchatu be-  
har duçu çure arima estatu gora hartarat, ezo  
bederen enfaiatu çure desirez, harat igaterat.

Ochala hartan baciñe, eta ethorri baciñe  
çure buruaren ez guehiago maitatceraiño;  
baiñan onesteraraiño solamente ene boron-  
date saildua, ceña marcatcen baitçaitçu çu-  
re aicindarien ordenuez.

Oi ala orduan ene gogaraco baitcintezque!  
eta çure bicia baquez, eta bozcarioz berhes  
bailiteque.

Hañitz gauzez behar duçu oraiño bilibue;  
ceñac ez baditutçu osoqui ene gatic ustu  
nahi ez baitutçu secular ardietsico galdetcen  
duçuna.

Apoc. 3. 18. *Beraz abisu ematen darotçut aber asteroz  
eros deçaçun ene ganic urre suan gori hura,  
ceña aguindu baitut, erran nahi da ceruco  
çuhurtcia mundu gucia oiñen azpian oflicat-  
cen duena.*

Haren içateco arbuia çaçu lurreco çuhurt-  
cia gucia, eta urfaçu çure buruaren amudio,  
eta estimu guciac.

3. Badiruri hitz horiez ertchatcen çaitu-  
dala gauçaric baliosenen despendioz, tchar-  
renen, eta mezpreçagarienen erosterat.

Ecen ceruco çuhurtcia hura bere burua-  
rentçat estimuric estuena iduriz chumea da  
laguitz, mezpreçagattia, eta hurren ahanz-  
mendurat eroria, eta cembaitec hitcez oho-  
tatcen badute-ere accionneez contra eguiten  
diote.

Hura da bizquitartean perla preciatua,  
ceiña hañitcentçat estalia baita eta haren ba-  
lhoa gutiz eçagutua.

## XXXIII. CAPITULUA.

*Guiçonaren bihotceco arĩntasuna eçin pausa  
daitequela Jaincoa baitan baicen.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, etçaitecela sobra fida oraico  
çure disposicionean, ecen bertce con-  
tracorac laster muda daireque.

Munda huntan bici çareĩño nahi estuçu-  
laric-ere bethi gambiacor içanen çare.

Hala batean aleguera içanen çare, eta  
bertcean triste, batean baquean eta bert-  
cean altaramenduan, egun Jaincotiar, eta  
devocionean bero bihar ephel, eta devo-  
cione gabe.



Orái fecho guero nagui, batean ferios, eta goardiacor, eta bertcean arin, eta gostidia gabeco.

Bainan çuhurra fermu dago mudantça horien gucien erdian.

Nola gauça spiritualez arguitua baita ez-tu conturic eguiten bere baitan cer sentitcen duen, eta ez cein partetatic heldu den inconstanciaren haicea.

Haren gogo gucia da gnerotic guerora guehiago hurbiltcea marcatua duen chederat, ceina ez baitu behin-ere bichtatic galtcen.

Manera hortan dago bethi bar, eta bethi fermu ceren haren chede chuchen, eta garbia guerthacari differenten erdian bethi baita ene cerbitçatcea, eta ene gogara eguiten.

2. Cembatenaz gure chedea, ceina baita gure arimaco beguia, garbiago eta chuchenaigo baita, hambatenaz gabiltça seguratuquiago hirriscu differenten artean.

Bainan intencione garbi hura lohiten da hañitcen baitan, ceren laster bichta arthiquitcen baitute aitciñera heldu çaizcoten sensuen gogaraco gaucen gainerat.

Gaitz da haguitz causitcea bihotz bar ofoqui libroa, eta amudio propioaren notha gucietatic garbia.

Hala Juduac lehenago ethorri ciren Bethaniarat, Martharen, eta Mariaren etcherat

IMITACIONEA. III. LIB. 229

ez choillqui JESUSEN gatic; baiñan hobequi Lazaro bichtua ikhustea gatic.

Behar da beraz garbitu intencionearen beguia chuchena, eta simplea ičan dadintzat, eta moian gucien arteric bethi-ere chedea ene ganat heda deçaçuntzat.

XXXIV. CAPITULUA.

*Ceiñ goço den Jaincoa maite dutenentzat.*

ARIMAC.

**H**UNA, ene Jaincoa, eta ene gucia, cer guehiago nahi dut, cer çorion desira deçaquet handiagoric?

Jaincoa da, ene gucia, ô hitz esti eta goço!

Orduan hitz eternala maite duenarentzat, eta ez mundua, eta munduco ontasunac maite dituenarentzat.

Ene Jaincoa da, ene gucia! Asqui erratea da amudioa duenarentzat.

Adircen tu errechqui hitz horiec, eta esta unhatcen horien maiz ahoan içateaz.

Çure airciñean gauça guciac on eta gustos dire, khiratsdun, eta unhagarri, çu estalia çarenean.

Çuc ematen dioçu bihotçari bere sosegua, eta bethetcen duçu baquez eta bozcarioz.

Çuc gauça guciez ungui iuiarasten datocuçu, eta laudarasten gauça gucietan çure maiestatea.

Deusec-ere çu gabe eçin luçaro atseguin daique, deus-ere esta goço, eta gustoz çure graciac, eta çure çuhurtciaren gatçac ez badio gustu ona ematen.

2. Çu gustatcen çaituenac gustatcen tu çure baitan gauça guciac; eta çu goço causitcen etçaituenarentçat khiratfa dute gauça guciec.

Munduco çuhurrec estute goço causitcen çure çuhurtcia, estute gusturic haraguiarentçat baicen; bizquitartean cer han causitcen dute? Vanitatea, eta herioa.

Contrarat eguiazco çuhurtac dire mundua mezpreçaturic, eta haragui mortificaturic, çuri daraizquitçunac; ceren iragaten baitire gueçurretic eguiarat, eta haraguitic spirituarat.

Hei çaie goço Jaincoa, hec ematen diote Jaincoari creaturetan causitcen den on guciaren ohorea, eta burupea.

Hequien gustu sin eta delicatuac eçagurcendu cer diferencia den creatçaillearen, eta creaturen artean; eternitatearen, eta demboraren artean, argui creatua estenaren eta argui hartaric heldu diren arraioen artean.

3. O argui eternaia, argui creatu guciez gorago infinituqui altchatua; arthicatcu ceru goratic çure chismichtac, eta çure kharrai sarbedi ene bihotceco chocolu, eta goradaira gucietan.

Garbi çaqu, alegueta çaqu, argui çaqu,  
bitch çaqu ene arima; baten pucbantça gu-  
ciac çuri hertsiqui iunra daquizquitçuntçat.

Oi, noiz ethortico da oren dohatfu,  
oren hambat desiratu hura, ceinetan çure  
presenciaz fasiatuco bainauçu, eta çu *içanen*  
*baitçaitut guciem orde?*

Pagore hura eguiten estantaçuiño, estut  
içanen eguiazco bozcarioric.

Baiñan, helaz! guiçon çaharra bici da  
oraiño ene baitan, esta oraiño gucia gurut-  
ceficatu, esta osoqui hill oraiño.

Enferratcen çaiõ muthiriqui spirituari,  
bichten ditu guerlac eta guduac gure barre-  
nean, eta estu usten arima baquean erregui-  
ñatcerat.

4. Baiñan çu, ene Jaincoa, *itsasoaren* Psalm:  
*furia nauis çarena, eta haren uhiñ asar-* 88. 10.  
*reac calmatcen dituçuna, altcha çaitte eta* Psalm.  
*lagun çaquizquit.* 43. 23.

*Sunsi çatçu niri guerla eguiteñ darotate-* 67. 31.  
*nae: porroçca çatçu çure besõ guciç bothe-* Judith.  
*retsuaz.* 9. 11.

*Eratutch çatçu çure obra miraculluz-* Ecclef.  
*nae, çure botherea ohora eta lorifica da-* 36. 6, 7.  
*distçat; ecen çu çate ene ihes lekhuva, eta*  
*ene esparantça bakharra, ô ene Jaincoa.*

## XXXV. CAPITULUA.

*Nihor estela tentacionetario segurantçan mundu huntan bici deiño.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, mundu huntan çare iño et çare nihoiz-ere segurantçan içanen; baiñan bethi arma spiritualen beharta içanen duçu.

Etçaietz alde gucietaric inguratua çate, coiñec ematen baitarotçute gudu escuiñ, eta esquer.

Baldiñ ez badioçute paratcen hequien colpe guciei pacienciaren erredola, etçare hanitz egonen cembait çauti hartu gabe.

Çute bihotça ez baduçu ene baitan finciten, ene gatic gauça gucien pairatceco borndate fermu batequiñ, hambar gudu botthitz eciñ iasanen tutçu, eta eciñ ardietsico duçu dohatfuen khoroa.

Iragan behar tutçu beraz lurriscu hec guciac, bihotz handirequiñ, eta indarça garaitu traba hec guciac.

Apoc. 7. 17. *Ecen victoriosentçat dago mana, bihotz gabeentçat laceria handia.*

2. Mundu huntaco baquearen ondoan baça-biltça, nola ardietsico duçu sosegu eternala?

Etçaudecela pausuaren ustean, baiñan egon çaute soffricarien beira.

IMITACIONEA. III. LIB. 233

Billha çaqu baque eguiazcoa, ez lurrean, baiñan bai ceruan; ez guizonen eta creaturen artean, baiñan Jainco choilla baitan.

Mundnco gaitz guciac iasan behar tutçu, tekheac, doloreac, tentacioneac, persecu-  
cioneac, beharrac, errasunac, afruntuac,  
erran gaichtoac, hiroiac, humiliacioneac,  
ahalqueriac, mehatchuac, meziprecioac;  
guciac behar tutçu pairatu Jaincoaren amo-  
toa gatic.

Horiez aitiñatcen gare berthutean, ho-  
riez frogatcen gare, horiez eguiten da ce-  
ruan errecibituco dugun khoroa preciatua.

Ecenaguindu dutgolardobethi itaunen duen  
bat nekhe laburrentçat, eta loria fiñ gabeco  
bat berehala iragaten den ahalquerientçat.

3. Uste duçu bethi nahiaren arabera iça-  
nen tutçula consolacione spiritualac?

Ene sainduac estate bethi halacoac içatu,  
egorri diotet pena penaren gainean, tenta-  
cionea tentacionearen gainean.

Baiñan gaitz horiec guciac pairatu tuste  
paciencia handi batequin, iasan tuste gudu  
horiec fermutasun miragarri batequin bere  
esperantça gucia ematen çutela, ez bere  
baitan, baiñan Jaincoa baitan; baitçaquiten  
*dicite huntaco soffricariac estirela deus lo-*  
*ria haren aldean, ceina içanen baita he-*  
*quen pogua eternitate gucian.*

Rom.  
8. 18.



Nahi cindueque eman nieçaçun berahala hambat sainduec haiñ nekhe, eta nigarten ondoan içatu dutena?

Çaude ene laguntçaren beira, estaçun impacienciatic, çaren fermu eta animotsu, fida çaitte ene baitan, egon çaitte fincattu berthutean, eta hirrisca çatçu çure anima eta gorphutça, ene ohoretan.

Nic emanen darotçut compliqui golardoz  
 Psalm. eta içanen naiz bethi çurequin çure asseco-  
 90. 15. betan.

## XXXVI. CAPITULUA.

*Mezpreçatu behar ditugula guiçonen iuiamendu vanoac.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, emaçu segurantçarequin ene escuetan çure bihorça, eta estuçun beldurric guiçonen iuiamenduentçat, çure concienciatic deusez acufatcen etçaitueiño.

Çorion bat da horla pairatcea, eta heri etçaiio gaitz, eta penagarri idurituco bilhotz humillari, eta bere baitan baiño Jaincoa baitan fidatcenago denari.

Guiçon guehienac sobra mintço dire, eta sñheste guti eman behar çaiie hequien litçuntçiqueriei.

Bertce alde eciñ guciac contenta deçça-  
 queguque.

Ecen londoni Pauloc bere ahal guciac eguiñ  
 draelatic Jaincozco chedez gucién gogaraco  
 icatecotz, eta hartacotz *gucia gucientzat* I. Cor.  
*eguiñ delaric*, halere eracutchi du *estela* 9. 19.  
*centu hari guizonen iuiamenduez condena-* 4. 3.  
*tua icateaz.*

1. Bere ahal guciac eguiñ ditu arimen one-  
 cotz eta salbatmenducotz, eta halere eciñ egotu  
 dabertceez iuiatua, eta mespreçatua içan gabe.

Gauça guciac utci cituen Jaincoa ganat,  
 ceñac guciac eçagutcen baititu, eta etcen  
 baldatu bere pacienciaz eta humiltasunaz  
 baicen guizonen erranquiçun, eta suspicha  
 falsoen contra.

Era noicic behiñ ihardetsi badiote bert-  
 ceen gaichtaqueriei, hori eguiñ du beldur-  
 rez haren ichiltasuna behastopa harri balia  
 cadiñ flacoentçat.

3. Çaren beçalacoric cergatic çare beldur  
 guizonhilcor batentçat? Egun bada, bihar esta.

Çaren Jaincoaren beldur, eta etçare gui-  
 zonen beldur içanen.

Cer bidegabe eguiñ dieçaçunque guizon  
 batec bere solasez, eta hitz gaichtoez? Bere  
 buruari calte guehiago eguiten dio çuri bai-  
 ño; ecen nor nahi den eciñ itçurico çαιο  
 Jaincoaren iuiamenduari.

Duçun beraz iuie iustu hura bethi beguien  
 aiciniçan, etçaitceclabalia errencurez eta ihar-

duquitceez iendeen erafia gaichtoen contra.

Baldiñ orai garaitu badiruriçu, bertceco gaichtaqueriaz, eta estalia baçate merecitu ez ditutçun laidoz eta ahalqueriaz, beira çaitte çure merecimendua gutitçetic, eta çure khoroa mendratçetic çure pairu escafer.

Itçul çatçu çure beguiac ene ganat, ceinac baitut ahala ceru goratic çure libratceco lai-

Rom. do eta afruntu gucietaric, eta *batbederat*  
1. 6. *bihurtceco bere obren arabera.*

## XXXVII. CAPITULUA.

*Uci behar dugula osoqui gure burua Jaincoaren nahirat, bihotceco libertatearen içateco.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, utsaçu çure burea, eta editrenen nauçu.

Ez duçun cerenez, ez hauturic, ez iabetafunic, eta hañitz irabacico duçu.

Ecen ene borondaterat usten baduçu çate burua bethicotz, bethi gracia berriac emanen darozquitçur.

A R I M A C.

2. Iauna, cembat aldiz behar dut manera hortan utci neure burua?

JESUS-CHRISTOC.

3. Dembora guciez, lekha gucietan, gauça chumetan handitan beçala, ez dut deusere beresten, eta nahi çaitut gauça guciez buhucia causitu.

Bertcela nola çaitetzeque enea, eta ni çu-  
rea: ez baçare campoan, eta barnean osoqui  
lustua nahi propio gucietaric.

Cembatenaz hori eguiñen baituçu laster-  
ago, hambatenaz hobequi causituco çare;  
eta cembatenaz osoquiago, eta ciñezago ut-  
tico baituçu çure burua; hambatenaz gue-  
tiago meredituco duçu ene amudioa, eta  
ene graciac.

4. Hañitz niri ematen çaizquit, baiñan  
ez osoqui eta ene providencian estire ham-  
bat fidatcen, non ez baitute berec-ere cer-  
bat artha bere buruez itchequitcen.

Batçuec ematen çaizquit osoqui; baiñan  
guero tentacionez hertstuac ditenean hartcen  
ente eman dutena, eta hala estire garabic  
berthutean aitciñatcen.

Batçuec eta bertceec estire behiñ-ere ar-  
berfico bihotz garbien libertatea, eta ene  
adifquidetasunaren fagore estiac.

Ecen eciñ daiteque enequiñ goçamenezco  
amudioric, eta batafun misticoric preluna  
ez bada lehenago ene ganat osoqui usten,  
eta ez badarot egun oroz bere içate gucia sa-  
cificatcen.

5. Erran darotçut maiz, eta bertiz-ere er-  
neen darotçut: ukho eguiçoçu çure buruari,  
eman çaquizquit osoqui, eta çure arima go-  
çatuco da barreneco baque handi batez.

Emaçu gucia , gucia içatea gatic , etçaçula deus delira , etçaçula galde iadanic eman duçuna.

Çaude enequifi phuruqui , eta fetmuqui lothua , eta ni içanen nauçu.

Orduan içanen da çure bihotça eguiarçai libro , eta illhumbe gucietaric campoan.

Çure eguiñ gucien , çure othoitcen , çure desiren chedea behar da içan iabetasun guciez billhuciric. JESUS-CHRISTO billhuciar iarraiquitcea : eta çure buruari hillic enetçat eternitate gucian bicitcea.

Orduan goanen dire çure ganic beldurtasun humanoac , eta hillen dire çure bihotçean amudio defordenatu guciac.

## XXXVIII. CAPITULUA.

*Nola behar dugun campoco gaucetan conportatu , eta Jaincoa ganat ihesi eguiñ hirriscutan.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea , lekhu , occasione , eta lan gucietan duçun artha handi bat libro iteatz çure barranean , eta çure campoaten nauti.

Gauça guciac diren çure azpico , eta çu eabaten ere ; içan çaitetçat çure accioeren nauti , eta ez esclabo.

Manera hortan gathibutasun gucietaric libratuic ; Israeldar eguiazco bat beçala

iraganen çate Jaincoaren umeen condicio-  
nerat, eta libertaterat.

Ceiñac altchatcen baitire dembora hun-  
taco gauzez gorago, ontasun eternaletan go-  
ga fincatceco.

Ceiñec esquerreco beguiaz behatcen  
baitiote ontasun irangorrei, eta escuiñaz  
cerucoei.

Ceiñac haiñ guti creaturen esclabo iart-  
cen baitire, non contrarat hec arrimatcen  
baituste creaturac Jaincoaren cerbitçuan,  
betac creaturetan eman duen ordenuaren ara-  
bera, ceiñetan ez baita deus makhurric; bai-  
ñan gauça guciac eguiñac baitire creatçail-  
leaten ohoreco.

1. Baldiñ fermu baçau de munduco guer-  
tiacari gucietan; ez baduçu iuiatcen ikhuf-  
ten, edo aditcen ditutçun gauzez campoco  
idurien arabera, eta haraguizeco beguiz.

Aircitic occasione gucietan sartcen baçara  
Moise beçala tabernaclea barna, Jaincoari  
conseillu galdetcerat, maiz adituco ditutçu  
haren errepusta divinoac, eta handic ilkhico  
çate hañitz gauça oraiñgoez, eta guetocoez  
argitua.

Ezen Moise beñhi tabernaclerat cioan ar-  
gai, eta conseillu billha gauça gaitz, eta du-  
cacoetan; othoitcerat eguiten çuen bete-  
ñesa guizonen maleciac hiritiscutan ematen  
çuenen.



Çuc-ere maneta berean sarthu behar duçu çure bihotceco tabernaclean, Jaincoari mintquiago bere laguntça galdeguiteco.

Ecen iracurteen dugu escriptura saindon Josue, eta Israelgo umeac Gabaondarier Josue. enganatuac içatu cirela; *ceren ez baitçuten*  
 9. 14. *artha içatu gauça guciac baino lehen Jaincoari conseillu galdetceco, ceren errechequigui siñhetçi baitçitusten hequien hitz estrar, eta urricalmendu falso batez uquitcerat utçi baitçitusten bere buruac.*

## XXXIX. CAPITULUA.

*Jaincoari utçi behar diogula gur eguitecoen artha, eta haren ganic iguriqui gauça guciac.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NB Semea, utlatçu ene gainean çure eguitecoen artha, nic burutan atheratuco ditut cein bere demboran.

Çaude ene ordenuaren beira, eta progochu içanen duçu.

A R I M A C.

2. lana, gogoric usten ditut çure ganic ene eguiteco guciac, ecen ikhusten dut berdiñ ene arthec deus guri daiquerela.

Ochala ez banu guñatic guetoco gancet, eta osoqui çure nahitat arrimatcen bainuz.

JESU

3. Ene semea, guïçona badabilla, eta  
 khaechatcen da haçuitz defiratcen duenaren  
 içateco, eta ardietsi duen beçaiñ sarri hi-  
 guanteen çaiõ, eta hattaz bertcela iuiatcen  
 du, ceren guïçonaren guticiac gambiacorrac  
 baitire, eta errechqui iragaten baitire gauça  
 bateric bertcerat.

Esta beraz berthute chumea gançaric chu-  
 meenetan norc-ere buruari ukho eguitea.

4. Guïçonaren aiteçinamendu eguiazcoa  
 bicitce spiritualean datça bere buruari ukho  
 eguitean; hartarat ardietsi duena goçarcen  
 da libertateaz, eta foseguaz.

Guciarequin - ere debruac ungui gucien  
 etsaiac ezcaitu behiñ-ere usten tentacione  
 gabe; gabaz, eta egunaz hedatcen tu sareac,  
 betan atçamateco bere buruen guardian ez  
 duudecenac.

Hargatic erran diotet ene Apostulaci: çau- Math.  
 dere atçarriric, eta eguiçue othoitz tenta- 16. 41.  
 cionean sar etçaitestentçat.

## XL. CAPITULUA.

Guïçonac estuela berenez onic, eta eciñ  
 duçuela deusez-ere buruperic.

### ARIMAC.

**L**AUNA, cer da guïçona çu hartaz orhoit- Psalms  
 ceco, edo cer da guïçonaren semea çuc 8. 1.  
 hura çure bisitaz ohoratceco? Q

Nondic merecitu ditu çue fiari eguiter  
diotçotçun gracia guciac.

Usten baninduçu-ere, ô ene Jainco, çer  
çucen nuque errencuratceco?

Eta çer causi deçaquet errareco ez bada-  
rotaçu ematen galdetçen darotçudana.

Eciñ neutre buruaz deus pensa, eta erran  
deçaquet eguiagoric hauche baiño, launa,  
ez naicela deus, ez daiquedala deus ene çu-  
nic estudala deus onic; ez naicela flaquoa-  
ric baicen, eta bethiere neutre iaidura gucia  
esteufera dudala.

Halaco maneraz bai non ez banauçu cam-  
potic laguntçen, eta barnetic botthisten,  
lachatçen bainaiz berchala, eta erortçen  
epheltaşunerat.

Pfalm. 2. *Bañan çu, launa, bethi orabat çate*  
101. 27. eternitate gucian, bethi on, iustu, saindu.

Gauça guciac ordenatçen, eta arrimattçen  
ditutçula ontasunequin, iustutasunequin,  
çuhurtçiarequin, eta saindutasunequin.

Bañan ni ceina aitçina bainoa guehiago  
bainoa guibela berthutearen bidean eznaço  
dembora lucez estatu batean, çeren çam-  
biatçen bainaiz demboraten arabera.

Halere laster altchatçen naiz plazer du-  
çunean hedatu çure escua ene laguntceco.

Ecen çu çerori nihoren laguntçarie çabe  
asco çare ene laguntceco, era ene botthitçeco

IMITACIONEA. III. LIB. 243

halaco façoinez non ez bainaiz haiñ gambiacor içanen, baiñan ene bihotça ofoqui çure ganat itçulico baita, eta çure baitan baicen ez baitu billhatuco bere fosegua.

3. Baldiñ banaqui munduco consolacionen usten, nahiz devocionean aitciña goateco, nahiz çure baitan caufitceco guiçonen artean etciñtuzquedan laguntçac, eta folegi-menduac.

Orduan arraçoinequin uste behar uuque betheco nintequela çure graziaz, eta ceruticaco dohaiñez, eta consolamenduez.

4. Esquer darotçut, ô one Jaincoa, ene ganat heldu diren ontasun guciac çure ganic heldu ditenez gueroftic.

Ecen ez deus naiz, eta vanitate hutz çure aitciñean gucia naiz gambiacorra, herbala, eta flacoa.

Certaz duquet beraz ene baitan burupe, eta cergatic nahi dut içan preçatua bertceez?

Ene esteuftafuna gatic? Hori liteque azqueneco vanitatez.

Eguiaz vana-loria içurri perillos bat da, eta lilluramendu handi bat eguiazco loriaz gabercen, eta çure graziaz billhuzten gaituenaz gueroftic.

Ecen nihor bere buruaz content denean çure defogara eguiten da, eta guiçonen laudorioen ondoan dabillanean galtcen tur eguiazco berthuteac.

5. Arimaren eguiazco loria, eta bozcario  
 sailndua da çure baitan bere atfeguiña ematea,  
 eta ez bere baitan çure handitasunaz boztea,  
 eta ez bere berthuteaz, eta creaturetan çure  
 gogaraco diren gauça guciez çuri ohote  
 ematea.

Hala beraz, launa, guiçonec lauda be-  
 çaitçate çu, eta ahantz ni; glorifica betçate  
 çure obrac, eta ez eneac; laudorio guciac  
 diren çuretçat, eta nic ez deçadan enetçat  
 gueldi batere.

Çu çate ene loria, eta ene bihotceco boz-  
 carioa.

Estut nahi loriaric, eta bozcarioric hartu  
 çure baitan baicen, ene bici gucian, ecen  
 nitaz denaz beçambatean estut deus loria,  
 eta burupe eman dieçaquedanac ene flaque-  
 ciac, eta ez deustafuna baicen.

Joan, 5. 44. 6. Judeec eta mundanoec *billha beçate  
 elkharrri ematen dioten loria; nic behintçat  
 estut nahi billhatu Jaincoa ganac heldu de-  
 na baicen.*

Ecen mundu huntaco loria, ohore, eta  
 handitasun guciac estire vanitateric, eta eho-  
 queariaric baicen çure eternitateco loriaren  
 aldean.

O ene Jaincoa, ceïña baitçate ene mise-  
 ricordia, eta ene eguia; Trinitate dohatfua!  
 çuri choillqui çor çaitçateçu laudoriac,

ohoreac, berthuteac, eta loria mende gucie-  
taco mendetan.

XLI. CAPITULUA.

*Mundu huntaco ohoreac mezpreçatu behar  
ditugula.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, etçaitecela trista ikhusteaz  
bertceac ohorerarat altchatuac, eta çu  
arbuiatua, eta beheratua.

Altcha çaçu çure bihotça ene ganat ceru-  
rat, eta estuçu içanen damuric guiçonez lur-  
rean mezpreçatua içateaz.

ARIMAC.

2. launa, haiñ irsuac bagare non vanita-  
teac errechqui enganatcen baicaitu.

Neure buruari ungui behatcen badiot,  
eçagutuco dut egundaino nihorc estarotala  
bide gaberic eguiñ, eta hala estudala arra-  
çoinic çutaz errencuratceco.

Ecen creatura guciec çucen dute ene con-  
tra altchatceco, hambateraino egun oroz  
offensatcen çaitudanaz guerostic.

Hala desohorea, eta arbuioa haiñ iustu-  
qui daoçquit niri, nola çuri laudorioa, oho-  
rea, eta loria.

Eta ez banago gogotic creatura guciez  
mezpreçatua, utcia eta esteustçat iduquia  
içaterat, eciñ duçuet ene barreanean baqueric,



246 JESU-CHRISTOREN  
eta fermutafunic, ez çure graciaten ar-  
guiric, ez çurequiñ batafun oforic.

---

XLII. CAPITULUA.

*Bicitce huntaco baquea estugula guisonn  
baitan eçarri behar.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, çure baquea ematen badu-  
çu cein nahi den presunaten baitan, ce-  
ren den çure gogaracoa, eta ceren lakhet  
çaitçun harequiñ bicitcea, bethi içanen çare  
khechos, eta trabatua.

Baiñan lotcen baçaizquit niri ceina bai-  
naiz eguia eterñala, eta nihoiz-ere gambiat-  
cen ez naicela, etçare tristatuco çure adif-  
quidea hiltcen çaitçunean, edo bettce ma-  
neraz usten çaituenean.

Nic behar dut içan çure adifquideentçat du-  
çun amudioaren cimendua, eta ene gatic  
behar tutçu maitatu berthutetsu iduricen  
çaizquitçun guciac, eta mundu huntan mai-  
teen ditutçunac.

Ni gabe esta adifquiderafun eguiazcoric, ez  
iraupenecoric, eta bi presunen arteco amu-  
dioa esta garbia, baldiñ ni ez banaiz hec el-  
kharrequiñ lotcen tuen corapilloa.

Halaco maneraz behar duçu içan hilla mai-  
te tutçun presunen affeccioneari, non çure  
baitan dagoen beçambatean nahi behar

baituçu ičan guiconen compaiñiaric gabe.

Cembatenaz guiconena lurreco consolacione gucietaric urruntcen baira, hambatenaz hurbiltcen da Jaincoa ganat.

Eta hambatenaz gorago altchatcen da Jaincoa ganat, cembatenaz beherago iausten baira bere esteustafunerat, eta bere beguie-tan aguertcen mezpreçagarriago.

2. Cerbait on bere baitharic duela uste duenac debecatcen du bere burupeaz Jaincoaren gracia bere ganat iausteric, ceren spiritu sainduaren gracia bethi bihorz humilla billhatcen baitu.

Bacinaqui çure buruaren osoqui eceztatcen, eta creaturen alderaco amudio gucietaric billhusten, ikhus ninçaqueçu çure ganat iausten ene graciën abundaciatequin.

Orduan creaturei beha iartcen çaiçcote-nean galtcen duçu bichtatic creatçaillea.

Ikhaçaçu gauça gucietan çure buruaren garaitcen Jaincoaren amoreagatic, eta altchatuco çare baratche baratche Jaincozco gaitcen eçagutçarat.

Gauça bat chumea ičan arren Jaincoaren ordenuaren contra mairatcen baduçu liçuntcen du çure bihotça, eta hastantcen çaitu on-tasun soberanoa ganic.

## XLIII. CAPITULUA.

*Ceiñ vanoa den munduco iaquintasuna.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, esteçaçula utz çure burua charmatcerat guiçonon solas edertez: *1 Cor. Ecen Jaincoaren erresuma estago hitcetan; 4. 10. baiñan bai Jaincozco berthutean eta indarrean.*

Çaude erne ene hitcen aditceco, hec berrotcen dute bihotça, hec arguitcen spiritua, ariman urtiqumendua bichten, eta consolacione fuerte guciac ematen.

Esteçaçula behiñ-ere ene hitça iracur, çuhurrago, eta iaquinsunago guiçonon artean aguertceco.

Ikhasaçu çure pasioneen hesteco antcea; hura guehiago baliatuco çaitçu gauçaric gaitcenen eçagutça baiño.

2. Iracuraçu nahi duçun beçambat: ičan çaitte nahi beçaiñ çuhur, eta iaquinsun; be-thiere ethorri behar da principiorat; nic iracasten diotedala guiçonei iaquintasun gucia.

*Pfalm. Nic ematen diotedala haurrei, eta sum- 93. 10. plei argui, eta intelligencia guehiago gui- Pf. 118. çon guciac elkharrequiñ eman ahal deça- 99. & queten baiño. 130.*

Ni mintço natçaiona laster ičanen dela iaquinsun, eta haguitz ainñtciñatuco dela çuhurtcian.

IMITACIONEA. III. LIB. 249

Corigaitz hañitz gauça çurios ikhasten  
haz direnentçat , eta ene ungui cerbitçatceco  
maldearen ikhasteaz artharic estutenentçat.

Ecen ethorrico da egun bat , ceñetan  
JESUS-CHRISTO , doctoren doctoraç eta ain-  
guen nauñac , examinatuco baititu barbe-  
deraten estudioac , erran nahi dut miratuco  
behotçac , eta conciencia.

Orduan *miratuco du Jerusalem flanbeu* Soph:  
*arguiz , illhumbean gordeac daudecen gau-* 1. 12.  
*çac aguertuco dire , eta ahalqueriac mutu-* I. Cor.  
*tuco ditu hitz ederretaco mihiac.* 4. 5.

3. Nic momento batez alchatcen dut  
çpitu humilla , eta gaiago eguiten dut eguia  
eternalaren atraçoiñamenduan aditceco , ha-  
mar urthez escoletan estudiatu dutenac baiño.

Nic irakhasten dut hitcezco habarrofic  
gabe , opinione differenten nahasmenduric  
gabe , iaquintafunac ematen duen hantura-  
ric , eta buruperic gabe , iharduquirceen gu-  
ducariic gabe.

Nic iracasten dut lurreco gaucen arbuiat-  
cen , oraico ontafun iragancorren usten eter-  
nitatecoen billhatcen , eta gustatcen ; oho-  
reei ihez eguiten , laidoen pairatcen , Jainco  
choilla baitan esparantça ematen , hura bai-  
oen ez desiratcen ; eta hura maitatcen gauça  
guciac baiño guehiago.

4. Presuna barçuec ni bere bihotz guciac

250 JESU-CHRISTOREN  
maitatuz ikhasi tuste ene ganic Jaincozco  
gauça handiac, eta hetaz mintçatu dire mi-  
ragarriqui.

Hañec çuhurtcia guehiago ardietsi dute  
gauça guciei ukho eguiñic, gauça ederrac  
eta gorac estudiaturic ikhasico çuten baiño.

Batçuei gauça ardurazcoac erraten diot-  
çatet bertceei iracasten diotçatet goragoac;  
batçuei aguertcen natçaiote irçalen, eta li-  
guren azpian, eta bertce batçuei ene miste-  
rioac argui handian eracuchten diotçatet.

Liburuec gauça bera erraten diote guciei;  
baiñan estiruste guciac orobat arguitcen, co-  
ren ni bartenean bainaiz eguiaren iracatçail-  
lea, bihotçaren çundatçaillea, eta nic bat-  
bederari partitcen baitiotçat arguiac mereti  
duela iniatcen dudan beçala.

---

#### XLIV. CAPITULUA.

*Estugula behar campoco gaucez spiritua  
trabatu.*

#### JESUS-CHRISTOO.

**E**NE Semea, on da hañitz gaucen gaiñean  
Letçaitecen içan iaquinfun, eta çute burua  
Gal. iduc çaçun munduari hiltçat, eta mundua  
6. 14. çuri hill eta gurutcesficaturçat.

Gor içan-ere behar duçu hañitz solascen-  
çat, eta erne haguitz baquoa eman ahal di-  
çaququeten gaucentçat.

IMITACIONEA. III. LIB. 251

flabeago da beguiac çute gogataco estiren  
puçetatic apattatcea, eta batbederari nahi  
çatnaren eguiterat ustea; ecen-ez contref-  
teran, eta iharduquitcetari sartcea.

Jaincoarequiñ ungui lothua baçaude, eta  
buen iuiamenduari behatcen badioçu achola  
gui içanen duçu guiçonon iuiamenduan ga-  
tutua içateaz.

A R I M A C.

1. Helaz! ene Jaincoa, certatat billhaca-  
tuac gare? Auhendatcen dugu calte temporal  
bat, intres chume batec nekharasten gaitu,  
eta bagarabiltça lasterca; eta galtcen dugu  
gure arima, hurren nola estequigula antzia  
gabe, eta hain calte icigarriaz uquituac  
içan gabe.

Artha handi dugu progotchu gabeco, edo  
guitaco gaucentçat, eta antsicabequi largat-  
cen tugu baitezpada behar ditugunac, ceren  
gure pendurac campotat baicaramatça, eta  
betan gogotic baicaudez, ez bagate serioz-  
qui sartcen gure barnetan.

XLV. CAPITULUA.

*Estela edocein sinhetzi behar, eta guti  
behar dela mintçatu.*

A R I M A C.

[AUNA] lagun çaquizquit ene atsecabean, Psalm.  
ecen guiçonaren lagunça esta deuseraco. 59. 12.



Oi, cembatetan guerthatu çait leialtasu-  
nic ez causitcea guchien ustenuen lekhuari  
eta cembatetan causitu dut gutienic ustenuen  
presunetan?

Alferric ematen dugu beraz gure esparantça guïçonen baitan, iustuen salbamen-  
dua esta causitcen çure baitan baicen, ô ene  
Jaincoa!

Çaren benedicatua, ô ene launa, guer-  
thatcen ç aizquigun gauça gucietan.

Flacoac gare eta gambiacorrac; enganat-  
cen gare, eta mudatcen aldi gucietan.

2. Nor dago bere buruaren gainean haiñ  
erne, eta haiñ atçarria non ez baita noicic  
behiñ erortcen ustecabeco falterarat, eta spi-  
rituco penetarat?

Baiñan çure baitan bere esparantça ema-  
ren duena, eta bihorz simple, eta chuchen  
batequiñ çu billhatcen çaituena, esta haiñ  
errechqui hetarat erotico.

Eta atsecabeterat erortcen bada, hetaz al-  
de gucietaric inguratua balitz-ere, laster he-  
taric atheraco duçu eta consolaruco, ceren  
ez baititutçu asten behiñ - ere çure baitan  
fineraiño esparantça dutenac.

Bakharrac dire haguitz adisquide leialac,  
bere adisquideen hertstura, eta çorigaitz  
gucien gatic gambiatcen estirenac.

Çu bakharric çare, ô ene Jaincoa, adif-

guciz leiala, eta esta çure adisquideta-  
tanaren eta leialtasunaren pareric.

3. Oi, ala virgina saindu batec çuhurqui  
erian baitçuen tormentaric handienac ikhus-  
tan: *Ene arima fincatua da eta fermuqui* Sancta  
*amendatua JESUS-CHRISTO baitan!* Agacac.

Hala baninz ni-ere guizonen beldurrac ez  
irreçaque haiñ errechqui altara, eta enetça-  
pehaiñ miñqui senti mihi gaichtoen colpeac.

Nor da gaitz guciac aitciñetic ikhus ahal  
detçaquena, edo heldu çazquigun çotigaitz  
gucies itçur ahal daquioquetena?

Eta aitciñetic ikhusiric heldu çazquigu-  
tao-ere haiñ miñ baçaizquigu, ceñ dorpheac  
eta bada ustecaberit çaurtcen gaitusten col-  
peac?

Ene dohacabea! cergatic ez ditut gaitz ho-  
niec gucién contra segurantçaric handienac  
gaurtcen? eta cergatic fidatcen naiz guizonen  
bitzetan?

Helaz! guizonac gare, eta guizon flacoac  
bitztec ainguerutçat bagaduzcate-ere.

Nor beraz siñhetfico dut baicen çu, ô ene  
lancoa, ceña baitçare eguia, eta ceinac eciñ  
bitz engana baitçaquegu, ez çu-ere nihorc?

*Guizon guciac gueçurtiac dire*, flacoac, Psalm.  
gumbiacorrac, eta erorcorrac bere gainqui 115. 2.  
bitzetan: hala estire errechqui siñhetfi behar,  
bitz bat hequien hitzec eguia baditurite-ere.

4. Ala çuc, launa, çuhurqui abifatu bai<sup>a</sup>

Math. caitutçu: *Ez gaitecela fida guiçonetan;*

10. 17. *guiçonaren etsaiac haren ethecoac direla;*

36. *Ibid. eta nihorc erraten badarotçu Hemen da,*

14. 23. *edo han da Christo, estugula behar siñhetli.*

Hori frogatu dut ene gaituz: ochala frogantça hanc eguiñ banindu goardiacorrigo, eta çuhurrigo ethorquiçunecotz.

Profuna batec gomendatcen darot secreta bat; itchetaçu gorderic, diotsa, nic erraten darotçudana, eta nic gauça hura sectetu datchecat, eta estalitçat daducadala; bera eciñ daoque ichillic, eta erraten do nic erran deçadan nahi estuena: badoa ene ganic, eta dembora berean bere buruari, eta niri hitça faltatcen darocu.

Othoi, ene Jaincoa, beira naçaçu iende hitcuntei, eta ariñetarie; ez nadin eror hequen escuetarat, ez nadin içan hequen idurico.

Emaçti ene ahoan hitz eguiazcoac, eta ciñezcoac; urrun çaçtu ene ganic mihi engarria; eeen estut behar ene baitan onetli bertceen baitan gaitcesten dudana.

5. Oi nolaco baquea eta abantaila den bertceez ez mintçarcea; erraten diren goçiac ez siñhesta, hec bertceei ez condarcea, gutiri bere barrena aguertcea, gure bihoçco lekhuco, eta iuicari boçala çuni bertli

IMITACIONEA. III. LIB. 255

behatcea, guñonen haicezco solafen arabera  
 ez iratcea, eta nahi içatea gauça guciac ira-  
 gan ditecen gure barnean, eta campoan, çu-  
 te botondate sailduaren arabera.

Ala on baita, gracia segurean beiratceco,  
 liles eguitea guñonen beguieran distiatcen  
 duren gauça guciei; ez desiratcea mundua-  
 ten estimua, eta admiracionea gure ganat  
 etakhar deçaqueten gauçaric, eta artha han-  
 direquin billhatcea gure escafac guti, eta  
 gure berthuteac berrez detçaqueten guciac!

Ecen berthute distianteguiac, eta sobra  
 peçatuac hañitz galdu ditu.

Era contrarat progotchos içatu da bethi,  
 achillrañan handi batean gracia gordetcea bi-  
 cote huntan, ceñetan bethi tentacioneez,  
 eta etsaiez inguratuac baicare.

**XLVI. CAPITULUA.**

*Jancoa baitan eman behar dugala gure fi-  
 dançia mihi gaichtoz çaurtuac garenean.*

**JESUS-CHRISTOC.**

**E**Ne Semea, çauðe fermu, eta etnaçu ene  
 baitan çure esparantça; ecen cer dite  
 guñonen solafac? baicen hutz airean galteen  
 çitenac; eta harriac hausten estustenac.

Figua bada çutaz erraten dena; libra çai-  
 te lehen bai lehen escas hartaric.

Ez baduçu çure burua faltiar çausitcen-paira

çaçu gogo onez, erran gaichto hura Jaincoaten amoreta gatic.

Etçare gai tormenta handien iafateco; ez duçu bada bederen cembait hirtz gogor paratu behar?

Cergatic haiñ gauça chumeac miñ eguiten darotçu bihotcean? Ceren oraiño hataguizcoa baitçare, eta behar baiño guehiago guçonei beharçen baitioçure.

Arbuiatua içateco beldurrez, estuçu hiroic aditu nahi çure eççafen gainean, eta çahiltça çure buruaren edertatceco aitçequia billha.

2. Baiñan sar çaitte barnago çure buruaren etçagutçan, eta ikhulico duçu mundua oraiño çure bihotcean bici dela, eta guçonen gogara eguiñ nabizco guticia vanoac çure baitan badirauela.

Ecen çure falten gatic beheatua, eta mezpreçatua içateco duçun beldutrac eracuchten du agueriqui etçarela eguiazco holla, ez eguiazqui munduaren çar hilla, eta estela halaber mundua hilla, eta gurua ceficatua çuretçat.

Galat.

6. 14.

Baiñan adi çaçü ene hitça, eta guçonen solaz guciez etçare contu harico.

Guçonen gaichtaqueriac asma ahal deçaqueen guciac çure contra erosten baitçere, cer bidegabe cinducque? Uzten bacintu

erran

erran hec guciac antzia gabe aireco fixa  
beçala, gai othe litezque çure burutic ille  
baten atheratceco-ere?

3. Presuna bat estenean bere barrenean  
sarthua; bihotça camporat barraiatua due-  
nean, eta Jaincoa beguien aitciñean estue-  
nean hitz moco bat asco da haren çaurtceco,  
eta mintqui offensatceco.

Baiñan ene baitan bere esparantça ema-  
ten duenean, bere iuiamendu propioan tri-  
catu gabe; guiçonen iuiamenduentçat esta  
beldur içanen.

Ecen ni naiz iuiea, eta bihotcen barrenac  
eçagutçen ditudana; nic badaquit cer mane-  
tiz gauçac iragaten diren; badaquit norc  
eguiñ duen offensa, eta nori eguiten çaiou.

Nic permetituric eguiñ da hunelaco gauça,  
edo erran halaco hitz; eta hori guerthatu da  
*arguitarat atheratceco hañitcen bihotçetan* Luc:  
*gardiac çaudecen gogoetac.* 2. 354

Innocenta eta faltaduna nic iuiatuco ditut  
mandu guciaren aitciñean: baiñan nahi içatu  
ditut bata eta bertcea lehenago frogatu iuia-  
mendu gorde batez.

4. Guiçonen lekhucotasuna maiz enganiosa  
da; baiñan ene iuiamendua eguiazcoa da,  
sarmua, eta deusec eciñ gambiatuco du.

Maiz gordea da, eta nihor gutic eçagut-  
coa ditu haren secretuac.



Eta ez bothi iustua iduritu arren presona çuhurtçiaz gaberuei, hargatic chuchena da, eta eciñ nihor engana deçaque.

Niri uitei beharçait beraz gauça gucién iuiamendua, norc bere burua iñhetli gabe.

Prov. 11. 21. *Ecen iustua esta altaramendua at erorico, cer nahi den gaitz guertha daquion Jaincoac permetituric.*

Damu guti içanen du iende batçuec haren contra gaizqui eta iniustuqui minçatcen badire, eta halaber bozcario guti bertee batçuec haren alde iarriric iustuqui defendatcen badute.

Ceren baitaqui *nic çundatcen ditudala bihotcen, eta erraiñen barrenac*, estudala iuiatcen campoco idurien arabera, eta maiz guiçonon beguietan on era laudagari dena, gaichto dela eta criminel ehe iuiamenduan.

## A R I M A C.

5. Ene launa eta ene Jaincoa, ceñña baitçare iuie iustu, borthitz eta pairacorra, ceññac eçagutcen baituça guiçonon flaquecia eta gaichtotasuna; çaren, othoi, ene indatta, eta ene habe bakharra.

Esta asco ni neure beguietan hobenduri ez içatea; çureec ikhusten date ene baitan nic eciñ eçagur deçaquedana, eta mehatçatu nauten aldi gucietan behar içatu dut humiliatu, eta hiroi guciac estiqui hartu.

IMITACIONEA. III. LIB. 259

Barkha dietçaquidatçu, ene Jaincoa, bert-  
cela comportatuz eguin ditudan hutsac, eta  
eguidaçu gracia ethorquiçunean humillago  
eta pairacorrageo içateco.

Hobeago dut othoitztu çure misericordia  
guciz handia, ene barkhamenduaren ardie-  
stecco, ecen-ez fidatu ene baitan dela uste du-  
dan iustutasunean: ecen ene conciencia cho-  
toluac eta gordairac estitut eçagutcen.

*Ecen deusetan - ere faltiar neure burua I. Cor.*  
*causitcen estudalaric, halare ecin neure bu- 4. 4.*  
*rua iustifica deçaguet; ceren eta çure mise-*  
*ricordia gabe, guçon batere ez baita iustu Psalm.*  
*edirenen çure aitcinean. 142. 2.*

XLVII. CAPITULUA.

*Munduco pena guciac gogotic behar direla*  
*pairatu bicitce eternalaren ardiestecco.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, etçaitecela unha ene amorea  
gatic hartu ditutçun lan gaitz, eta pe-  
bagarritan: ez bequiçu bihotça eror atseca-  
betan; baiñan ene aguintçac borthitz beçait-  
ça, eta consola cer nahi den guertha dadin.

Asqui podorosa naiz neurri gabeco sari  
bat hequien orde çuri emateco.

Etçare hemen dembora lucez nekhatuco,  
eta etçare bethi nahi gabetan içanen.

Iguricaçu aphut bat, eta laster ikhusico

duçu çure gaitz gucien akhabantça.

Ethorrico da momento bat ceñetan çure pena eta altaramendu guciac fiñatuco baitire.

Demborarequiñ iragaten direnac ariñac dire bethi, eta laburrac.

2. Eguiçu bethi eguiñ behar duçuna; hari çaute leialqui lanean ene mahastian, eta neroni içanen naiz çure golardo.

Escriba çaçü, iracur, canta psalmic; maita çaçü penitencia, ichiltasuna, othoitça, eta paira çarçu animosqui guerthatcen çaiçquitçun atsecabe, eta contresta guciac.

Bicitce eternalac mereciten ditu guda horiec guciac, eta handiangoac-ere.

Egun batez ethorrico da baquea, eta egun hura estaqui nihorc launac baicen; esta hura içanen oraicoa beçalaco eguna, ceñaren odoan gaba baita; baiñan içanen da egun eternal bat claritate fiñ gabeco bat, baque fermu bat, eta sofegu seguratu bat.

Rom. Estuçü orduan erranen: *norc libratuco nau*  
7. 24. *heriotceçco gorphutz huntaric?* eta etçare  
Psalm. guehiago oihuz egonen. *Helaz! ene destier-*  
119. 5. *tuaren lucea!*

Ecen heriotcea deseguiñen da, eta eceçtatuco, çure dohatfutafuna eciñ altaratuçcoa içanen da, eta goçatuco çare grñatic gabe ceruco bozcario guciez, Jaincoaren compaiñiaz, eta loriaren edertasunez.

3. Oi! ikhusten bacintu ceruan ene sain-  
duen khoroa eternalac, eta nolacoa den orai  
haiñen loria ceñei munduac lehenago mez-  
preiorequin behatcen baitcioten, bicitcea-  
ere merecitu ez balute beçala! Duda gabe  
humilia cintezque lurreraino, eta nahiago  
cintuque guizon guciei obeditu, ecen ez ba-  
ti-ere manatu.

Nahiago cintuzque Jaincoa gatic atseca-  
beac pairatu, ecen-ez bicitce huntaco egu-  
nac atseguinetan iragan; eta abantail handi-  
cintuque estima cinteçaque guizonen aitcinean  
esteustcat iduquia icatea.

4. Oi! eguia hauç gusta baciñerça, eta çu-  
re bihotçaren barreneraino sat balitez, nola  
atrebi cintezque çure gaitz gucietan erren-  
cira chume baten-ere eguiterat?

Cer da haiñ gaitz handiric, gogoric pai-  
ratu behar estenic bicitce dohatfu, eta eter-  
nal baten ardiesteco?

Esta gauça guria Jaincoaren errefumaren  
pateca, edo irabastea.

Altcha çatçu beraz çure beguiac cerurat;  
hau ikhus naçaçu ene saindu guciez ingura-  
tu: hec gudu handiac icatu tuste munduan:  
haiñen orai bozcarioan dire, consolacio-  
nean, baquean, eta egonen dire enequin  
eternitate gucian, ene aitaren errefuman.

## XLVIII. CAPITULUA.

*Ceruco dohat sutasunaz, eta mundu huntaco miseriez.*

## A R I M A G.

**O**I, Jerusalem, cerucoaren egoitza go-  
ço, eta dohat sua! O eternitateco egun  
distiosa, gabac illhuncen estuena, baiñan  
egua soberanoac bethi arguitcen duena!

Egun çori onezcoa, ceinnetan gustatcen  
baita bethiereco bozcarioa, segurantzca oloa,  
eta estitasun eciñ altararuzcoa!

Ochala ethorria balitz egun hura, eta  
oraingo egun hauc guciac akhabatuac balite!

Orai danic egun harc arguitcen du sain-  
duentzat bere distiadura gucian: baiñan ur-  
rondic haguitz, eta hañitz itçalen arteic  
bere arraioac arthiquitcen diru lurreco bi-  
deanteen gainerat.

2. Ceruan daudecenec gustarcen dute at-  
seguinequin egun dohat su hura; Evaten  
ume desterratuac frogatcen dute bihotz mi-  
nequin cembat khirarsez bertheac diren her-  
mengo egun dohacabeac.

Ecen dembora huntaco egunac laburtac  
dire, gaichtoac, atsecabez, eta behaçunen  
bertheac.

Hemen guiçona bekhatuac licantcen  
dute, pasionec amarratcen dute, beldurtac

alcaratcen du, arthec khechatcen dute, curioſtaſunac barraiatcen du, vanitateac trabatcen du, enganioac iſultcen du, nekheac ahitcen du, tentacioneac penatcen dute, arſequiñec ſtatcen, eta gabeac tormentatcen.

3. Oi! noiz ethorrigo da gaitz hauc gucien ſiña? Noiz libratuco naiz bicioen gathibutaſun dohacabetic?

Noiz ez naiz çutaz baicen orrhoituco, ô ene Jaincoa? Noiz oſoqui çure baitan boztuco naiz?

Noiz gorphutceco eta ſpirituco traba guciataric ilkhiriç manera guciez libro içanen naiz?

Noiz goçatuco naiz baque fermu eta nahasmendu gabeco hartaz, baque ſeguratu, barneco eta campoco baque deusec eciñ alaratuco hartaz?

O JESUS ona eta maitagarria! noiz içanen naiz eſtatu hartan, ceñetan nic çu bekhoſ bekho ikhuſico baitçaitut, ceñetan çure errefumaco loria contemplatuco baitut? Noiz içanen çaitut çu gauça guciñ orde?

Noiz içanen naiz çurequiñ errefuma hartan, *ceina preparatu baituçu maite çaituſtenentçat eternitate guciitico?*

Helaz! utciã naiz hemen deſterratu dohacabe bat beçala eſſaien lurrean, ceñetan berhiereco guetlac baitire, eta laceria eciñ guehiagocoac.



4. Iauna, consola naçaçu ene desterruan, goça çatçu ene atsecabeac; ecen ene bihotçac estu çuretçat baicen hasbeherapenic.

Munduac ene gaitcen arintceco eman nahi darozquidan consolamendu guciac nekbagarri eta penagarri dire enetçat.

Ene guticia miña daçurequiñ hertsiqui lothua içatea, eta eciñ hartarat hel naiteque.

Ene desitrec altchatcen naute ceruco gacetarat, baiñan ene pasioneen cargac pisatcen nau, eta lurteco gaucet lurrerat thiratcen naute.

Spirituac eman nahi nau gauça guciez gorago, baiñan haraguiac nahi badut, eta ez beheratcen nau.

Eta hala ni dohacabea ene buruaren contra guduan hari naiz; *ene buruaren etsai naiz*, eta contresta neure buruarentçat carga eciñ iafanezco bat, ene spirituac goiti, eta haraguiac beheiti naramanaz gueroftic.

5. Oi, cer bihotz miñ estut pairatcen, noiz eta ere othoitcean nagoenean, eta ceruco gaucetan gogoa dudanean, haraguiac milla fantasma, eta lilluramendu gogoratcen baitarozquit!

Pfalm. O *ene Jaincoa!* etçaitecela, othoi, *hos-*  
70. 12. *tan ene ganic; etçaitecela çure cerbitçaria*  
26. 9. *ganic itçul çure coleran.*

Arthicatçu çure ihurtçuriac eta çure chif.

michtac, eta sunrñi çatçu lilluramendu hec.  
Etcha çatçu çure fletchac, eta egoratçu ihesi  
toe etsaiac bere artificio guciequiñ.

Biribilla çatçu çure ganat ene sensu gu-  
ciac; ahantzaraz dietçaquidatçu munduco  
gauçac; eguidaçu gracia hei ukho eguiteco,  
eta bicioen fantasma vanoac arbuiatceco.

O eguia eternala! hel çaquizquit esteça-  
çala sofri vanitateac eguiñ dieçadan daiñ uric.

O ceruco estirafuna! çato ene ganat, eta  
khen çatçu ene bihotçetic lohitasun guciac.

Çure misericordia infinituac barkha biet-  
çakit othoitcean nagoenean çure ganic ene  
gogoa hastantcen duten errebelamendu guciac.

Aithortcen dut ardura dudala bertceran  
gogoa, eta maiz gutiago naicela ene gor-  
phutça den lekhuari; ecen-ez ene gogoeta  
airatuec naramaten lekhuari.

Eta eguiatzqui ene gogoa den lekhuari naiz,  
eta da ene gogoa nic maite dudana den le-  
khuari.

Eta naturalqui atseguin eguiten darocun  
gauçac edo usantça çure gogoraco eguiten  
daena laster heldu çaicu spiriturat.

6. Hori ceronec erran darocuçu clarqui,  
ô eguia eternala! çure bihotça den lekhuari  
da çure tresora.

Cerua maite badut, ceruco gauçac atse-  
guinequiñ gogoan erabillico ditut: mundua

Math.  
6. 21.

maite badut, munduco onez boztuco naiz, eta tristatuco munduco gaitzez.

Haraguia maite badut, haraguiari daozcan gauçac ethorrigo çaiquit gogorat: spiritua maite badut, spirituaaren arabera gauçetan hartzen dut atseguin.

Finçean gogotic mintço naiz maite ditudan gauçez, eta halacoez mintçatzen bertceaz gogotic aditzen ditut, eta bihurtzen naiz etcherat halaco gauçen orrhoitçapenez eta imaginez burua betheric.

Baiñan dohatzu da, ene Jaincoa, çure gatic creatura guçiac bere bihotçetic hastantzen dituen, bere naturaleçari bortça eguiten dioena, eta haraguiaren guticiac spirituaaren kharras hersten eta mortificatzen dituen.

Manera hortan bere conciencia sosegua emanic othoitz garbia offrenda dieçaquintçat; lurreco gauçac campoan eta barnean bere ganic hastandutic, gai çausi dadintçat ainguetuen baltsan egoteco.

### XLIX. CAPITULUA.

*Dohatsutafunaren guticiaz, eta bertce munduco golardoez.*

JESU-CHRISTOC.

**E**NE Semea, sentitcen duçunean ematen dudala çure baitan berotasun saindu bat eternitateco çorionarentçat, desiratzen duç-

nean çure gorphutceco presondeguitic ilkhitea ene arguiaren contemplatceco; orduan cabal çaçü çure bihotça, eta har çaçü spiracione hori çure arimaren hedadura guciaz.

Esquerrac bihur diotçotçu Jaincoaren misericordiarri, ceña haiñ estiqui heldu baita çure ganat, ceñac haiñ samurqui atçarteen baitçaitu, ceñac haiñ sendoqui sustengatcen baitçaitu, beldutrez çure pisutafun propioac eroraraz çaitçan lurreco gaucen amudiorat.

Esta hori heldu çure gogoetetic, eta ez çure ahaletetic, baiñan ene graciaren favoritic, eta ene misericordiazco boguitattetic, berthutean airciña çaitecen, humiltaşunean borhitz çaitecentçat, ethorrico çaitçaitçun çadatarat prepara çaitecentçat; çure bihotz guciaz niti lot çaitçaitçantçat, eta çure borondare guciaz cerhitça naçaçuntçat.

2. Ene semea, sua bichten da errechqui; baiñan khe gabe esta kharra alchatcen.

Hala badire presuna batçuc cerucotz desira heroac ditustepac; orduan estire osoqui garbi affeccione humanoen cikhiñetic.

Handic heldu da combat khar handirequin ceruco ontaşunac galdetcen badarozquidate-ete, ez baitituzte phuruqui ene loçia choilla gatic galdetcen.

Halacoac dire maiz çure guticiac, eta bargatic dire hambat grinez nahastatuac.

Ecen intres eta amudio propioz nothatur dena, eciñ daiteque ez chahua, ez perfeta.

3. Galde dieçadaçu beraz, ez çure nahia-  
ren eta aisiaren arabera dena, baiñan ene lo-  
riari daocana eta eue gogara dena; ecen gau-  
cez ungui iuiatcen baduçu, behar duçu ene  
ordenuac çure guticia baiño guehiago preça-  
tu, eta çure nahia utciric, enea complitu.

Eçagutcen ditut çure nahiac, eta maiz  
entçuten ditut çure hasbeherapenac.

Nahi cindunque orai danic goçatu Jaincoa-  
ren umeen libertateaz eta loriaz: atseguine-  
quiñ darabillaçu gogoan etche eternal hura,  
eta herri bozcarioz bethe hura.

Bainan esta oraiño çure orena ethorri:  
iguriqui behar duçu cembait dembotaz, eta  
dembora hura guerlaren, nekheaten eta  
frogantcen dembora da.

Nahi duçu içan bethea ontasun sobera-  
noaz; baiñan eciñ duqueçu orai.

Ni naiz ontasun gucien gaineco ontasun  
hura: çau de ene beira, dio launac, Jain-  
coaren errefuma ethor dadiñ artheraiño.

4. Afco atsecabe behar duçu lurraren gai-  
ñean pairatu, eta hañitz frogantcetaric iragan.

Consolacioneac-ere içanen tutçu barçue-  
tan: orduan estuçu içanen bozcario perfeta.

Josue. 1. 6. *Estuçun beraz beldurric, eta prepara çai-  
te animorequiñ eguiterat, eta pairateerat*

naturaleça guehienic contrestatcen duten  
gauça guciac.

Guiçon berriaz bestitu behar duçu, eta be- Eph:  
har duçu bertce guiçon batetarai gambiatu. 4. 24

Maiz eguiñ behar duçu nahi estuçuna, eta  
tci behar duçu nahi duçuna.

Bertceac helduco dire bere chede gucie-  
tan, eta çu ez batetan-ere.

Hac diotena adituco da, eta çuc dioçuna  
zbuñatuco.

Bertceen othoitçac entçunen dire; çureez  
esta khafuric eguiñen.

5. Bertceac laudatuco dire, eta çu ahantcico.  
Bertceei emanen çaliste carguac; eta çu et-  
çare deufetaco gai iduquico.

Orduan naturaleçac pairatuco du, eta han-  
dia daiqueçu horlacoac ichillic, eta erren-  
tura gabe pairatcen baitutçu.

Manera hortan frogatcen da Jaincoaren  
tetbitçari leiala, ikhusteco nola daquien  
gauça gucietan bere buruari ukho eguiten,  
eta bere pasioneen garaitcen.

Nihoiz-ere estuçu beharrago çure buruari  
halla içatea, nola gutien nahi cinduquen gau-  
ça ikhufi edo pairatu behar duçunean; eta  
gaciz manatcen darozquitçutenean gauça  
barçuc arraçoiñic, eta progotçuric gabeco  
adurritcen çairquitçunac.

Eta nola buruçagui baten azpian baitçare,



eta eciñ contra eguiñ baitioçoquecu haren podoreati, garratz iduritzen çaitçu çure nahi propioac utciric haren ordenuen complitea.

6. Baiñan, ene semea, considera çacu nolacoa içanen den nekhe hauquien fruitua, cein guti irauenen duten, eta cein sari handia darraioten; eta etçaituste tristatuco, aiticic borthitstuco dute çure paciencia.

Ecen çure nahiei ceren cerbait bortha hemen eguiñ dioçuten çure nahi guciac complituco dire cetuan.

Han cauituco duçu placer duçun gucia, eta desira ahal deçaqueçun gucia.

Han ontasun guciën iabe içanen çare hauquien galtceco beldurric gabe.

Han çure borondatea eneerequiñ bat içanen da, eta estu bertceric deusere nitaz lekhora desiratuco.

Han nihore estarotçu contratic eguiñen, nihore esta çutaz errencuratuco, nihore estitu çure chedeac debecatuco, ez trabatuco; baiñan nola ontasun guciac aiticinean içanen baititutçu çure desira guciac compliteac içanen dire, eta betheco dute çure bihotçaren hedadura gucia.

Orduan emanen darotçut loria sin gabeco bat pairatu duçun afruitu baten orde; bezario guciën bilduma cem bait nigarren orde, eta ceren eman çaren bethi azqueneco herruncan,

latico çare bethicotz ceruco lorian.

Han agüerico da nolacoa den obedienciaren fruitua, çet bozcario darraion penitenciari, eta cein handia den humiltasunaren balioa.

7. Orai beraz humilia çaite, eman çaite gacien azpian, eta etçaitecela contu hari noten ganic heldu den çuri eman çaitçun manua.

Duçun artha solamente gogo onez hartceco, eta pontualqui complitceco çure ganic galdetcen dutena; nahiz den galdetçaillea çure aitcindaria, nahiz den çure azpicoa edo çure quidea.

Batac billha beça hau, bertceac hori; haitac eman beça beta loria gauça batean, eta hare bertcean; içan beitez laudatuac ehun mila pefunez.

Çuc etçaçula eman çure bozcarioa, edo oherea horlaco gaucetan; baiñan çure mezapreçatcean, eta ene loriaren billhatcean, eta ene loriaren complitcean.

Çuc içan behar duçun guticia bakharra da *Jaincoa içan dadin bethiere loriaficatua* Philip:  
nahiz çure biciaz, nahiz çure herietceaz. I. 10.

L. CAPITULUA.

*Nola arima affligituac eman behar duen Jaincoaren escuetan bere burua.*

ARIMAC.

**E**NE Iauna, eta ene Jaincoa, aita guciz faindua, çaren benedicatua orai, eta

mende gucietan, ceren çuc nahi içatu duçun gucia eguiñ baita, eta çuc eguiten duçun gucia bethi ona baita.

Çure cerbitçaria boz dedi ez bere baitan, edo bertce not nahi - denen baitan, baiñan choillqui çure baitan; çu çarenaz gueroz ene eguiazco bozcarioa, bai, ene Jaincoa, çu çare ene eçparantça, ene khoroa, ene contentamendua, eta ene loria.

1 Cor. 4. 7. *Eta eguiazquia, launa, cer du çure cerbitçariac çure ganic içatu duena baiten, eta halere oraño merrecitu gabe?*

Gauça guciac çureac dire, çuc eguiñ dituçu, eta çuc eman dituçu.

Pfalm. 87. 16. *Ni pobrea naiz, eta nekhatua ene gaste-tasuneco demboraric, eue arima doloratcen da, eta batçuetan nigarretaraño: altiratcen da maiz ene passioneez garaitua içateco beldurrez.*

2. Çure baqueaten bozcarioa nahi dut, çuc çure umeei ematen dioçuten baquea galdeguiten dut, eta khartsuqui desiratcen dut çure consolacioneen arguia ceña baita uno hequien bazca.

Baque hura ematen badarotaçu, eta isurtcen baduçu bozcario faindu hura çure cerbitçariaren arimarat, allegriazco cantez betheco da gucia, eta zelorequin harico da çure audatcen.

Baiñan hattantcen beçare haren ganic,  
 maiz eguiten çaren beçala *ecũ ibillico da* Pfalm.  
*lasterca çure manamenduen bidean* : bel- 118.32.  
 heanac aldi gucian flacatuco çaizco, eta ha-  
 ren escuec estute indarric içanen bere bul-  
 harren iotceco baicen, ikhusiric erori dela  
 lehen çuen estatu dohatlutic : *Noiz eta ere* Job: 7  
*çure arguiac haren buruaren gainean dis-* 29. 3.  
*tiatcen baitçuen, eta gueriçatcen baitcin-* Pfalm.  
*duen tentacione muthirien contra çure he-* 16. 8.  
*galen itçalaz.*

3. Aita iustu, saindu, eta bethi laudat-  
 cecoa, ethorri da çure cerbitçariaren frogat-  
 cecco orena.

Aita guciz maitagarria, iustu da çure cer-  
 bitçariac oren huntan cerbait paita deçan  
 çure amoreaa gatic.

Aita bethi adoragarria, huna non den or-  
 daa ceinetan çuc eternitate gucitic ikhusi  
 daçun beçala çure cerbitçariac campotic ga-  
 raitua behar baitu içan aphur batecotz çure-  
 quin bethi bicitcecotz bicitce barreneco  
 batez.

Den beraz arbuiatua, den humiliatua,  
 den guiçonon beguietan erotia, eta garaitua,  
 sotricariz cargetua, ahiduraz flacatua, çu-  
 requin batean argui berri baten alban bitz  
 dadintçat, eta finean dohacsuen çorionaz ce-  
 nuan goça dadintçat.

Aita guciz saindua , çuc horla manatu duçu , çuc horla nahi içatu duçu , eta çure ordenuen arabera guerthatu da gauça.

4. Eçen çuc çure maiteei eguiten dioçuten gracia da, hei indarra ematea gauça gucien go go onez pairatceco, çure amoreaa gatic, eta hei atfecabeac egortceaz, plazer duçun aldi guciez, eta plazer duçun prefuna gucien bidez.

Eçen lurrean esta deus guerthatcen çure providenciaren ordenuz, eta conseilluz baiden : deus esta eguiten bere ethorquia çure borondate soberanoan estuenic.

Pfalm. 118. 71. *On içatu da enetçat, launa humikatu binauçu, iaquin detçadantçat, bide hortaz iustu eguiten diruçula guçonac, eta ene bihotçetic supherbiazco goratçapen guciac, eta burupe vano guciac khen detçadantçat.*

Pfalm. 68. 8. *Progotchos da enetçat ceren ene bisais ahalqueriaz estalia içatu baita. Ene consolacioneac billha detçadantçat hobequi çure baitan, ecen-ez guçonon baitan.*

Hortic ikhasi-ere dut çure iuiamendu gordeen beldur içaten : ikhuliric gastiçatcen duçula gaichtaguiña beçala iustua-ere; baiñan berhi iustugui, eta çucenqui.

3. Esquer darotçut, ene Jaincoa, ceren esta-rozquidatçun guphidetsi çure gastiçatçen; aittiçic; ceren çure colpeez porroçatu binauçu,

niri dolorea dolorearen gainean egorritic,  
eta barneco penei gorputceco sofricariac-  
ere iuntaturic.

Esta deus-ere ceruan ez lurrean ni consola  
naçaquenic baicen çu, ô ene launa, eta  
ene Jaincoa, arimen miricu cerutic ethorria,  
*ceinac çaurtcen baigaituçu, eta sendatcen*  
*eramaten thombaraino, eta handic bihurt-*  
*asten.*

I Reg.

2. 6.

Tob.

13. 2.

*Hedatu duçu çure besoa ene gainerat, eta*  
*çure cigorrada instruccionetçat baliatuco*  
*çait.*

Pfalm.

17. 36.

6. Huna non naicen çure escuetan, aita  
guciz maitagarria; humiliatcen naiz, eta  
ematen dut neure burua bihotz onez çure  
gastiguen azpian.

laçar çaçu ene bizcarraren gainean, be-  
hera çaçu ene buru supherbioa; chuchen çaçu  
ene borondate makhurra çutearen arabera.

Eguin naçaçu çure discipulu humill, eta  
Jaincotiar, hala nola baitaquiçu eguiten pla-  
cer duçuncan, çu obedi çaitçadantçat den  
kheinuric chumeenean.

Neure burua, eta nic ditudan guciac ema-  
ten ditut çure gastigusco chigorraren azpian;  
habeago dut mundu huntan gastigatu bert-  
cean baiño.

Çuc eçagutcen ditutçu gauça guciac, ge-  
neralean, eta particularrean, eta esta gure



conciencia barranean deus estaliric çuretçat.

Ethorquiçuneco gauçac çure eçagutçan dire, ethor ditecen baiño lehenago; eta nihorc estarotçu iracatfi behar, cer lurrean iragaten den.

Çuc badaquiçu cer dudan on berthutean aitciña goateco, eta cein progotchos diren atsecabeac bicioen herdoilldura khentceco.

Eguiçu nitaz placer duçun gucia, eta esteçaçula arbuia ene arima bere bekhatuen gatic, ceinac nihorc baiño hobequi çuc eçagutcen baituçu.

7. Indaçu gracia, ez deçadan ik has, iaquin behar dudana baicen, ez deçadan maitatu behar dena baicen, ez deçadan lauda çure gogara denic baicen, ez deçadan preça çuripreciatu çaitçunic baicen, eta ez deçadan arbuia çure delgogara denic baicen.

Isai. *campoco itchura penen arabera, eta ez nadiñ mintça iendeen ganic aditcen ditudan hitz arinen arabera; baiñan iuia deçadan gauça agueri direnez, eta spiritualez chuchenqui, eta eguiaren arabera, eta gauçagucien gainetic billha deçadan çure borondate sailduaren complitcea.*

8. Guiçonac enganatcen dire maiz bere sensuen arabera iuiaturic.

Munduaren maitatçailleac enganatcen

dire halaber gauça agueri direnac eta iragan-  
contrac baicen ez maitaturic.

Guiçon bat hobeagotcen othe da, ceren  
den handiagotçat iduquia?

Ez segur, eta guiçon bat bertce batez lau-  
datua, esta bertceric, baicen enganari bat  
enganatua bertce enganari batez: supherbio  
bat bertce supherbio batez, itsu bat bertce  
itsu batez, eri bat bertce eri batez: eta lau-  
dorio vano horiec baliatce dire hobequi  
ohoratceco baino desohoratceco, eta con-  
funditceco.

Ecen S. Franfes humillac erran duen be-  
çala guiçona hambat da bere baitan cembat  
baita çure beguietan, ô ene Jaincoa.

LI. CAPITULUA.

*Gauça humilletan hari hehar dela, han-  
diagoric ecin eguin ditequenari, guciz  
agortasuneco demboran.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, ecin bethi iraun deçaque-  
ça çure berotasunean, eta bethi ecin  
gaudezque comtemplacioneco gradu gora ba-  
tean; ecen naturaleça haiñ da gaichtua, eta  
fiacatua, non baitez bada behar baituçu iautsi  
beheragorat, eta behar baituçu ikhasi bort-  
çaz bederen bicitce huntaco lacerien iafaten.

Içanen dituçu bethi hañitz khirats, eta

barneco pena paitatceco gorphurtz hilcor batean bici çareño.

Behar duçu beraz haraguiari çareño maiz auhendatu haraguiaren carga pisua, ceñac guibelarcen baitçaitu bicitce spiritualari çure burua osoqui ematetic, eta Jaincozco gaurcen contemplatetic.

2. Orduan eguiñ deçaqueçun hobetena da çure unhaduraren arintcea campoco cert bait obra humillez ene baitan çure esparantça ematea, eta ene beguira egotea; çure agortasuna, eta çure desterrua pacienciarequiñ iasatea; çure ganat bihurt nadiñ artetaño çure consolatcerat, eta çure pena guciataric libratcerat.

Ecen ahantzaracico darozquitçut çure nekhe guciac, eta goçaracico çaitut batteneco baqueaz.

Idequico darotçut ene Escrituren atseguiñezco baratcea, çure bihotça bozcanoac  
 Pf. 118. çabalduco du, eta *abiatuco çare lasterca ene manamenduen bidean.*

Rom. 8. 18. Orduan eçagutuco duçu *bicitce huntaco soffricariac estirela deus, bertcecotz çuretçat dagoen loriaren aldean.*



## LII. CAPITULUA.

*Batbederat uste behar duela gastiguac hobea  
qui dituela mereci consolacioneac baiño.*

## A R I M A C.

**I**AUNA, estut mereci ethor çaitecen eno  
consolatcerat. Iustuqui tratatcen nauçu  
miserian, eta atfecabean usten nauçuneani.  
Ecen it safoan ur den beçambat nigat egui-  
ten banu-ere, eznetçaque mereci çure con-  
solacioneac.

Ecen haiñ handizqui, hambat aldiz, eta  
hambat maneras offensatu caitudan ondoan,  
estut iguriqui behar gastiuric eta punicio-  
neric baiten.

Hala gauça guciac ungui pisatu ondoan,  
estut mereci den consolacioneric chumeena.

Baiñan çuc; Jainco guciz ona, çure obrac  
deseguiñ nahi estitutçuna, eta çure graciazco Rom.  
9. 23.  
*resorac misericordiazco iarrotan eracutchi*  
*nahi ditutçuna*, ematen diotçotçu çure cer-  
bitçariari merebitu gabe Jaincozco consola-  
cioneac, guizonen consolacioneac ez beça-  
lacoac.

Ecen çure consolacioneac munduco sola-  
sen consolacionetarie haguitz dire diferentac.

2. Cer eguiñ dat, launa, çuc niri ceruco  
consolamenduric emateco?

Holaz! ez dat caupicen deus onic ene

bicitce gucian, estut-deus ikhulten ene baitan, baicen bethierece pëndura bat biciorat, eta naguitafun handi bat ene escafen usterat.

Eguia da gança hori, eta eciñ ukha deçaquet, bertcela erraten banu ene contra alcha cintezque, eta nihor ez ene alde.

Cer beraz merecitu dut ene bekhatuez baicen ifernua, eta eternitateco sua.

Aithortcen dut cinciñez, ene Jaincoa, mereci dudala manera guciez trufatua, eta arbuiatua içarea, eta eznaicela gai çure cetbitçarien artean condatua içateco.

Hera berequiñ eguiten du aithor hori, halere erranen dut eguia ene buruaren contra; ene bekhatuez accusatuco naiz çure ganic errechquiago misericordiaren eta batkhamenduaren ardiesteco.

3. Cer erranen dut ene bekhatuen orrhoitçapenac ematen darotan ahalqueriac eta nahasmenduan.

Eciñ ahoa idec deçaquet baicen errateco hitz hauc bekhatu eguiñ dut, launa, bekhatu eguiñ dut; urricar naquiçu, eta barkha dieçadaçu.

Job. 10  
20. 21. *Utz naçaçu aphur bat ene atsecabean,  
auhen eta nigar eguiterat, iausts nadiñ  
çaiño lehenago illhumbezco lur hartarat,  
ceiña baita herioaren egoitça.*

Eta cer galdeguiten duçu bekhatore ciz-

minel eta dohacabea ganic, baicen ičan de-  
 çan bihotça humiliatua, eta bere bekha-  
 tuen urriquiaz erdiratua.

Eguiazco urriquiac eta bihotçeco humi-  
 lacioneac for-arasten du barkhamenduaren  
 esparantça; hare fofegatcen du conciencia al-  
 taratua cobrarasten gracia galdua, libratcen  
 guizon Jaincoaren coleratic, eta iuntatcen  
 mofa faindu batez arima penitenta bere Jau-  
 narequin.

4. Bekhatore baten urriquimendu humilla  
 çure-gogaraco sacrificio bat da, ceinaren ur-  
 tina hobeago baitçaitçu insensu, eta bertce  
 usain on guciena baiño.

Urriqui hura compara daiteque *usain on* Luc.  
*preciatu harequin, cein isuria icatu bait-* 7. 38.  
*cen çure oin sacratuen gainerat: ecen estu-* Psalm.  
*çu egundain orbuiatu bihotz eguiazqui,* 50. 19.  
*urriquitu, eta humiliatu bat.*

Urriquimendu hura da ihes lekhua gure  
 inimaco etsaien contra.

Hare eramaten du bertceran hartu dirugun  
 nocha, lohidura, eta khutsu gaichto guciac.

LIII. CAPITULUA.

*Manduco ontasunequin iosiac direnei estiot-*  
*çotela Jaincoac ematen bere gracia.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**N Semea, deus esta hain baliosic, no-  
 la ene gracia, estu nahi ičan bertce



gaucequiñ belfatua, ez nahastatua munduco  
consolacioneequiñ.

Nahi baduçu beraz hura eman dieçaçudan,  
hastan çatçu çure ganic traba guciac.

Billha çaçü erretiramendua, lakhet be-  
quiçu bakharric çure buruarequiñ egoten.

Ihes eguiocute solas alferrei, iarraic çä-  
quizco othoitçari, duçun artha çure concien-  
cia garbi iduquitceaz, eta çure bihotça betli  
çure bekhatuen urriquiaz çaurtua içateaz.

Munduari ez balitz beçala behatu behar  
dioçu, eta lothu behar çaiçco Jaincoari hert-  
siquiago lurreco gauça guciei baiño.

Ecen eciñ duqueçu gogoa ene baitan fin-  
catua, munduco atsegiñ iragancorren on-  
doan çabiltçala.

Hastandu behar duçu çure eçagunetario,  
eta maitetario, eta iduqui behar duçu çure  
arima munduco consolacione guciez gabetua.

Hartaracotz londoni Petri Apostoluac  
othoisten ditu hertsiqui guiristiño guciac, bi-  
ci ditecen lurtaren *gainçan lehortar*, eta  
I. Petr  
2 II, *bideante beçala*.

Oi, nolaco segurantçarequiñ hiltcen den  
guçona deusi - ere mundu huntan amudioz  
estatchacona!

Orduan arima eri eta flacoa eciñ daoque  
gauça gucietaric horla hastandua, eta lurreco  
gaucequiñ iosia denac estaqui cer den guçon

barrancoi, eta spiritualaren libertatea.

Bada nahi badu ičan spiritual, behar diote ikho eguiñ, atceei beçala hurcoei-ere, eta bere buruaren beldur ičan behar du nihorene baino guehiago.

Çure burua osoqui garai ahal badeçaçu etrechiquiago guero bertceac eguiñen turçu.

Victoriaric handiena norc bere burua garaitcea da. Norc-ere bere burua heci baitu halaco maneraz non haren sensuec arraçoïñari obeditecen baitiote, eta haren arraçoïñac gauça gucietan ene borondateari, hura da bere buruaren garaitçaille, eta munduaren nauñi.

3. Nahi baduçu perfeccione gora hura ardietsi, lothu behar çaizco lan hari çure indar guciez, hari behar duçu çuhaitça erotic picaccen, athera behar duçu çure bihotcetic çure buruarentçat, çure aisientçat, eta ceïñ nahi den munduco ontasunentçat duçun amudio desordenatua.

Norc-ere bere amudio propioa garaitu baitu, haiñac eguiñ du hurren gucia, ecen ebaqui du bicio gucien erroha.

Eta victoria haren fruitua da baque bar densec-ere ecïñ altara deçaquena.

Baiñan nola gutiac baitise bere buruei biltcera enfaiatcen direnac: hala guehienac bere passioneen gathibu guelditcen dire, halaco maneraz bai non spirituac ecïñ garai baitreçaque haraguia.

Bada enequin libertate osoan ibiltceco he-  
ci behar dite guticia desordenatuac, eta ez  
lothu creatura batiere pasionez, edo amudio  
propioz.

## LIV. CAPITULUA.

*Graciaren, eta naturaleçaren mobimendu  
diferentez.*

## JESUS-CHRISTOC.

**E**NE semea, artha handirequin hari çaitte  
çute baitan beresten naturaleçaren, eta  
graciaren mobimenduac, ecen haguitz dite  
gaitçac eçagutcen, eta presunatic arguitue-  
nec-ere nekhes ikhasten dute hequien artean  
diferenciaren eguiten.

Guciac unguari darraizco: guciac cerbait  
ontafun dute bere hitcen, eta obren chedet-  
çat; baiñan unguaren itchurac hañitz enga-  
natcen ditu.

2. Naturaleça fineciosa da, guizon guehie-  
nac irabasten ditu, eta bere ganatcen, enga-  
natcen, eta bere saretarat erorasten, eta estu  
bertce chederic bere buruaren contentatcea  
baicen.

Contrarat gracia estu nihor enganatcen,  
simplea da, eta artificio gucién etlaia: haf-  
tantcen da gaizquiaren iduri guciataric, ga-  
ciac eguiten ditu phuruqui Jaincoa gatic, cei-  
ña baita haren egujazco fosegua, eta haren  
chede bakharra.

IMITACIONEA. III. LIB. 285

3. Natutaleçac estu hill nahi, estu nahi içan apatua, ez garaitua, nekhez obeditecen du, eta gaitci çaiio azpico içatea.

Baiñan graciac darabillan arimac artha laoca bere buruaren mortificatceaz, eta atleguinien guticiei contra eguiteaz, nahi du gatai deçaten, hertz deçaten, libertateaz gabe deçaten, erreguela hertsien azpian eman deçaten.

Urrun da nausitasuna billhatcetic edo deiracetic; aiticitic bethi nahi du içan Jaincoaren manuco, eta egon haren azpian, eta bethi prest dago bere burua Jaincoaren amonagatic guiçon gucien azpian ematerat.

I. Petr. 2. 13.

4. Naturaleça bere intrefac darabilla, huta bere abantailen ondoan dabilla.

Graciac berriz estio beiratcen bere aisiari, eta probetchuari; baiñan bai bertceren onari.

5. Naturaleçac nahi du içan ohoratua, eta trespetatua.

Graciac estu nahi ohore, eta loriatic Jaincoarentçat baicen.

6. Naturaleça ahalqueriaren, eta mezpreçioaren beldur da.

Graciac pairatcen ditu afruntuac bozcario-  
requin JESU-CHRISTOREN amoreagatic.

Act 5. 41.

7. Naturaleçac maite du pausua, eta gorputçaren aisia.

Gracia eciñ daoque alferric, eta gogotic lanati lotcen çaiio.

8. Naturaleça gauça ederren, eta curiosen ondoan dabilla, higuin ditu gauça tcharrac, lodiac, eta larçac.

Graciac billhatcen tu gauça lanoac, eta guti baliofac, harroac, eta gogorrac eslitu arbuiatcen; gogotic iauften tu tresna çahar, eta ihetceac.

9. Naturaleça lurreco gauceti darraiole, bozten da irabaciaz, tristatcen calteaz, alfaratcen; eta sumintcen hitz offensagarri batez.

Gracia lotcen çaiç ceruco ontasunei haiti borthitsequi non munduco calteec ez baitute altaratcen, ez uquitcen bide gabeec, ez alfaratcen offensac; ceren bere tresora, eta bozcarioa eman baitu ceruan deusic galtcen esten lekhuac.

10. Naturaleça abariciofa da, eta hirritlez bethea gogoticago dago ematerat baiño hartcerat, bereac ditu maite, eta iabetu nahi du gauça guciez.

Gracia liberala da, hanc estu nahi iabetafunic, balsan nahi ditu gauçac; gutiz contentatcen da, eta *atseguinago çaiç hartceç baiño ematea.*

11. Naturaleçac ematen darocu amudio munduarentçat, eta creaturentçat billharasten daroz quigu gorputçaren nahicarac; eta erabiltcen gaitu vanitateen ondoan; galarasten darocu dembora solas, eta goan ethorri alferretan.

Graciac ematen da Jaincoaren amudioa, eta berthuteena; hanc ukho eguiten diote creaturei, ihes munduari, higuin ditu haraguiaren guticia lohiac; usten ditu pasaieta outillac, eta ahalque da iende artean aguert-  
 eaz-ere.

12. Naturaleçari on çaiço campoco consolaçioneen içatea, eta sensuen atseguinez goçatcea.

Graciac gure consolacionea billharasten harocu Jaincoa baitan, eta ontasun soberanoan, gure atseguin gucia.

13. Naturaleça bethi hari da bere progotçu, edo aisia gatic, estu deus eguiten do-  
 lañic, baiñan haiñ bertce, edo guehiago içatea gatic, eta bederen fagorez, eta lau-  
 dorioz pagatua içatea gatic, eta hañitz balia-  
 taten-ere du eguiten, edo ematen duena.

Baiñan graciac estu billhatcen deus iragan-  
 corric, estu nahi bertce irabaciric edo fari-  
 ric Jaincoa bera baicen, eta lurreco ontasu-  
 necaric estu nahi ceruco ontasunen atdiesteco  
 behar de baicen.

14. Naturaleça bozten da ahaide, eta adif-  
 quide hañitcen içateaz, loriarcen da bere  
 sortce distiantaz, eta casta nobleaz, handiei  
 gorthe eguiten diote, lausengatcen ditu abe-  
 rtafac, eta bere idutacoei eguiten diote bes-  
 ta eta beguitarte.



Graciac maite ditu bere etsaiac, eta adifquide hañitz içateac estio buruperic ematen, esta supherbiatcen bere fortceaz, estu preçatcen bere aitciñecoen noblecia, berthuteac ez badio preçarasten.

Pobreei guehiago behatcen diote aberatsei baiño, estitu handiac lausengatcen, baiñan innocent doloratua urricaltcen çαιο. Presuna simpleac, eta eguiatic ditu maite, eta ez dobleac, eta artificiosac.

I. Cor. 12. 31. Presuna prestuac hertchatcen ditu, *gueric guerorat perfeccionean aitciña goaterat*, eta JESU-CHRISTOREN berthuteac obretan emanic haren idurico eguiterat.

15. Naturaleça laster errencuratcen da penaz, eta gabeaz.

Graciac constantqui pairatcen du pobreciac.

16. Naturaleça beretçat hari da, iharduquitcen badu, gudu eguiten badu, beretçat eguiten du.

Graciac gauça guciac bihurtcen diotça Jaincoari, ceña ganic heldu baitire; estu uste baduela deus onic, estu deusez-ere buruperic, estu iharduquitcen, eta estaoca bere burua bertceac baiño arguituago; baiñan bete adimendua, eta argui guciac ematen ditu Jaincoaren çuhurtciaren, eta haren iuiamenduen azpian.

17. Naturaleçac iaquiñ nahi tu gauça gotdeac,

deac, eta secretuac : aditu berriac ilkhi cam-  
porat, eta dastatu gauça gucietaric. Nahi du  
içan eçagutua, eta cerbait eguiñ bederen lau-  
dorioac, eta estimua erakhar dioçaquetenic.

Gracia esta contu hari berriez, eta curios-  
tasun vanoiez; ecen horietan estu ikhusten  
gure corrupcione çaharraren marcaric baicen,  
eta bertce alde eguia errateco esta deus ber-  
tutic, hala nola ez baita deus iraupenezcoric  
lurraren gainean.

Harc iracasten du sensuen guticien bertf-  
ten, vanaloriari, eta gure buruaz dugun con-  
tentamenduari ihes eguiten gure baitan lau-  
dagarri, eta miragarri direnac humiltasunaz  
gotdetcen, gauça gucietan, eta iaquintasu-  
naren argui gucietan arimaren progotchua,  
eta Jaincoaren loria billhatcen.

Estu nahi içan laudatua, baiñan Jaincoa  
nahi du lauda dadiñ bere dohaiñ gucietan,  
ceren harc bere liberalitate phuruz ematen  
baititu gauça guciac.

18. Gracia hura naturaz goragoco argui  
bat da, Jaincoaren dohaiñ bereci bat.

Hura da ungui mintçarceco hautetsien  
marca, eta ciguillua, eta salbamendu eter-  
nalaren bahia. Harc arima altchatcen du lur-  
reco gaucen amudiotic ceruco gaucen amu-  
diorat, eta lehen gucia haraguizco cena gu-  
cia spiritual eguiten da.

Hala cembatenaz naturaleça heciago, eta çapatuago baita, hambatenaz gracia ifurtcen da bethequiago arimarat, eta guizon barrencoia egunetic eguneta Jaincozco ifuri hufuez perfeccionean aiteñatcen da, eta hurbiltcen Jaincoarequiñ behar duen idurirat.

## LV. CAPITULUA.

*Naturaleçaren corrupcioneaz, graciaren beharraz, eta harc arimetan eguiten dituen effectuez.*

## ARIMAG.

**E**NE Ianna, eta ene Jaincoa, çure imaginarat, eta idurirat creatu nauçuna, madaçu bada çure gracia hura ceñtaren handitafuna, eta beharra haiñ ungui eracutchi baitarotaçu; garai deçadantçat ene naturaleça gaichtoa, ceñnac bechiere bekhaturat, eta heriotcerat bainarama.

Rom. 7. 23. *Ecen sentitcen dut ene haraguian bekhatuaren leguea, spirituaeren legueari contra eguiten dioena ceñnac gathibu itchequitcen bainau, eta maiz eraguiten baitarozquit sensuen nahicarac.*

Hala eciñ garai deçaquet ene passioneen indarra çure gracia, ez bada ethortcen ene bihotcerat, ene laguntcerat eta borthititerat.

2. Çure graciaren, eta gracia handiaren beharra dut hezteco naturaleça bat, *hasse hastetic gaitcerat ekharria.*

IMITACIONEA. III. LIB. 291

Ecen naturaleça hura lehenbico guionaren bekhatuaz gaichtatua, eta poçoatua icatuda, eta bekhatu haren pena iautsi da Adamen ume gucietarat.

Halaco inanez bai non naturaleça ona, eta escas gabea celaric çuc creatu cinduenean, orai haren icena ematen baitçαιο bicioari, eta flaqueciari; ceren eta naturaleça hanc graziaz ez bada lagundua lurrerat, eta bekhaturat baicaramatça.

Hanc orai duen indar aphutrac su inar bat diruri hautfaz estalia, eta su inar hura arraçoin naturala da illhumbeez estalia, ceinaren artetic eguiten baita oraino unguiaren, eta gaizquiaren, eguiaren, eta gueçurraren artean berezcoa, eta diferencia; estuelaric arten ahala ungui çaionaren eguiteco, gabetua delaric eguiaren eçagutça osoaz, eta haren desirac estirelaric iustuac, eta innocentac.

3. Hargatic, ene Jaincoa, çure leguean Rom. 7. 22.  
 lakhetcen çait, eta maitatcen dut barreneco  
 guionaren arabera, baitaquit, ona dela, Ibid. 12.  
 iustua, eta saindua dela, condenatcen dituela gaizqui guciac, eta iracasten darocula bekhatuaren higuintcen.

Bainan haraguiac bekhatuaren leguearen Ibid. 25.  
 aspian ematen nau; eta sensuen guticiac hobeçaiago eguiten ditut arraçoinarenac baino.

Handic heldu da, causitcen baitut ene Ibid. 18.

*baitan unguiaren eguiteco nahia, eta ez baitut causitcen haren compluiceco ahala.*

Deliberacione onac hartcen ditur; baiñan nola ene flacotasunean escasten baitçait ha-goan egoteco behar dudan gracia den tra-baric chumeena edireten dudanean flacatcen naiz, eta bihotça erortcen çait.

Hala eçagutcen dut perfeccionearen bidea, eta badaquit cer behar dudan eguiñ haren ardiesteco; baiñan ene corrupcionearen carga pisuac çapaturic eciñ harat hel naiteque.

4. Oi, ene Jaincoa, ala çute gracia ren behar bainaiz unguiaren hasteco hartan aicciñatceco, eta haren osoqui akhabatceco!

Pfalm. 4. 13. Ecen hura gabe eciñ deus dadiquet; *baiñan gauça guci en eguiteco gai naiz hartaz borihitstua naicenean.*

O gracia ceruco dohaiñ eguiazcoa; ceina gabe ez baita merecimendu propioric, eta ceina gabe naturaleçaren dohaiñ guciac ez baitire deus!

Hura gabe guiçonaren iaquintafuna, eta antcea, aberastafuna eta edertafuna, indar-raren, eta bihotçaren handitafuna, spiritua, eta hitz ederrac, estire deus çute beguieran, ô ene Jaincoa.

Ecen naturaleçaren abantail horiec ematen çaizcote onei beçala gaichtoei-ere, gracia eta Jaincoaren amudioa da hautetsien dohaiñ be-recia, hartaz merecicen dute bicitce eternala)

Hain gauça handia da gracia, non profeci-  
 azco spiritua, miracuilluen obratceco do-  
 haiña, eta contemplacioneric gorenare ez  
 baitire hura gabe preçatceco.

Fedea bera, esparantça, eta bertce ber-  
 thuteac eciñ daitezque çure gogaraco, ô ene  
 Jaincoa, gracia, eta caritatea gabe.

5. O gracia dohatfua, ceñac spirituz po-  
 bre direnac berthutez aberatz eguiten baitu-  
 tutçu, eta ceruco dohaiñez betheac direnac  
 humill baitaduzcatçu!

Iauts çaitte ene arimarat, çato ene ganat,  
 eta goicetic bethe naçaçu çure consolacio-  
 neez, beldureez nekheac, eta agortafunac  
 flacaturic erorataz naçaten.

Othoisten çaitut, ene Jaincoa, bethi cau-  
 sataz naçaçu çure gracion çure aicñean.

Ecen *asco dut çure gracia*, naturaleçac  
 desiratcen dituen bertce gauça gucietaric iça-  
 ten ez banu-ere.

2 Cor.  
12. 9.

Cer nahi den tentacione, edo atsecabe guer-  
 tha daquidan ez *naiz deusen-ere beldur iça-  
 nen çure gracia enequien deiño.*

Harc borthitsten nau, guidatcen, eta la-  
 gantcen nau.

Ene etsai guciec baiño indat guehiago du,  
 eta argui guehiago munduco çuhur guciec  
 baiño.

6. Harc iracastçu du eguia, harc chuchentç



cen bicitcea, hanc arguitcen bihotça, arintcen penac eta arfecabeac, khentcen tristecia eta beldurra, hazten debocionea, eta ifurasthen penitenciazco nigar sainduac.

Cer naiz ni hura gabe, egut ihar bat sucoz baicen on estena?

Orat.  
Dom.  
16.

*Beraz, ene Jaincoa, çure graciaz preparanaçaçu aiticinetic, eta gracia hura lagun bequit behti, eta atçarria iduc benaça conctiño obra onen eguiterat. JESU-CHRISTO çure seme launaren merecimenduac gatic. Halabiz.*

## LVI. CAPITULUA.

*Gure buruari ukho eguiñ behar diogula, eta iasan gurutcea JESUS-CHRISTOC beçala.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, cembatenaz guehiago hinguinduco bairaçü çure burua, hambatenaz hertsiquiago enequiñ lothuco çate.

Eta nola campoco deusez desiratceac eguiten baitu barroneco baquea; hala gure buruei ukho eguiteac eguiten da Jaincoarequiñ gure batasana.

Nahi dut ikhas deçaçun gauça guciac ene nahirat usthen contrestatic; eta erranquicunic batere gabe.

Joan.  
14. 6.

*Niri iarraic çaquizquit, ni naiz bidea, eguia, eta bicitcea; bideric gabe nihor*

IMITACIONEA. III. LIB. 299

eciñ dabilque, *eguiā* gabe esta eçagutça se-  
guriç, *bicitcea* gabe esta nihor bici.

Ni naiz çuc hartu behar duçun *bidea*; çuc  
siñhetçi behar duçun *eguiā*, çuc desiratu, eta  
iguriçui behar duçun *bicitcea*.

Ni naiz *bide* segura, *eguiā* eciñ engana-  
tuzcoa, *bicitce* siñ gabecoa.

Ni naiz *bide* chuchenena, *eguiā* lehena,  
*bicitce* eguiazcoa, dohatçua, eternala.

Ene bidean baçaude, eçagutuco duçu  
*eguiā*; *eguiac salbatuco çaitu*, eta bici ara-  
tico çaitu eternitate gucian.

Joan?  
8. 321

2. *Bicitcea ardietsi nahi baduçu, beguira*  
*çatçu ene manamenduac.*

Math?  
19. 17.

Nahi baduçu *eguiā* eçagutu, siñhetçaçu  
ene baitan.

*Perfet içan nahi baduçu, sal çatçu ditut-*  
*çun guciac.*

Ibid. 11.

*Ene discipulu içan nahi baduçu, ukho*  
*eguiuçu çure buruari.*

Luc.  
9. 23.

*Bicitce* dohatçua irabaci nahi baduçu, mez-  
preça çaçü oraico *bicitce* hau.

Nahi baduçu cerurat altchatu, behera  
çaitç, eta humilia lutrean.

Ene erreguetafunean partale nahi baduçu,  
iasan çaçü enequiñ gurutcea.

Ecen gurutcearen maitatçailleç baicen  
estute cañituco dohatçutafunaren, eta eguiaz-  
co arguiaren *bidea*.

3. Ene Iauna eta ene Jaincoa, çure bicitcea haiñ nekharua, eta munduaz arbuiatua içatu denaz guerostic, eguidaçu gracia çure imitatceco, eta munduaren meziprecioaten desiratceco.

Luc. 6. 40. *Ecen cerbitçaria esta handiago bere Iau-  
nabaiño, ez eta discipulua bere nauñabaiño.*

Ufaçaçu beraz çure cerbitçaria çu beçala bicitcen, ecen hortan dago ene salbamentua, eta saildutasun eguiazcoa.

Çure bicitceaz mintço estiren liburuec, edo solasec esnaute consolaten, esnaute osoqui contentaten.

## J E S U S - C H R I S T O C.

4. Ene semea, daquiçunaz guerostic, eta iracurri duçunaz guerostic nic cer eguiñ, eta

Joan. 13. 17. *iracurri dudana, doharñu içanen çare hec obre-  
tan ematen baditutçu.*

Joan. 14. 21. *Norc ere baitaquizqui, eta beguiratcen  
baititu ene manamenduac, harc ni maitat-*

Apoc. 3. 21. *cen nau, eta nic-ere hura maitatuco dut;  
eta hura iararacico dut ene aitaren tronuan.*

## A R I M A C.

5. JESUS ene Iauna, eguiñ bedi çuc erran eta agundu duçun beçala, eta othoi gai errenda naçaçu gracia haren ardietstecco.

Hartu dut gurutcea çure escutic, iasanen dut gurutce hartu dudana, eta garraiatuco

dat heriotceraiño çuc manatu darotaçun be-  
çala.

Fraide faindu baten bicitcea gurutcea da ;  
baiñan gurutce hura ceruco bidea da.

Sarthu naiz bide hartan , etçait cillhegui  
guibelat bihurtcea , are gutiago bide haren  
ustea.

6. Ea beraz anaiac , goacen elkharrequiñ  
Jesus gurequiñ içanen dugu.

JESUSEN amorea gatic hartu dugu gurut-  
cea : haren amorea gatic iasan çagun fiñe-  
taiño.

Hura içanen da gure laguntçaille , guidari ,  
aitcindari.

Horra gure etreguea non doan gure aitci-  
ñean , hanc gure alde nahi du guducatu.

Jarraic iaquizcon bihotz handirequiñ , es-  
tugun etsaien beldurric.

*Hill gaitecen behar bada guerla hortan ,* <sup>1 Marc.</sup>  
*eta gure laidotan etçagula erranaraz gai* <sup>9. 10.</sup>  
*içatu garela gurutcearen banderaren usteco.*

## LVII. CAPITULUA.

*Etçaicula bihotça erori behar gure  
escasen gatic.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea , nahiago çaitut ikhusi ku-  
mill , eta pacient atsecabetan ; ecen ez  
debocionez , eta consolacione spiritualez

bethea gauçac çure gogara daozquitçunean.

Cergatic horla khecha-cen çare çure contra eguiñ edo erran den gauça chume batez?

Handiagoa balitz-ere etcindunque hargatic altaratu behar.

Utsatçu guiçonon solas vano horiec, esta gauça berri bat halacoen aditcea, esta lehen aldia horla çure contra mintçatu direna; ez eta azquena-ere hañitz bici baçare.

Bihotz hañitz duçu deus pairatcecoric estuçunean, bertceci conseillu onac ematen diotçotçute, eta çure hitz onez borthistten diturçu; baiñan ustecabeco cerbait gaitz guerthatcen çaitçunean, berehala escasten çaitçu conseillua, eta indarra.

Eçagut çaçü beraz çure flacotasun eciñ guehiagocoa; frogatcen duçu maiz den gauçatic chumeenetan. Halere iaquiñ çaçü pena horiec, eta horlacoac cerutic egortcen çaitçula çure salbamenducotz.

2. Khen çatçu lehen bai lehen pena hec çure bihotcetic; eta eciñ baçaozque hec sentitu gabe, bederen etçaitccela khecha, eta hequien gatic ez bequiçu bihotça eror.

Paira çaçü bederen pacienciarequiñ eciñ eguiñ badaieçaqueçu bozcariorequiñ.

Pena baduçu çure contra mintçatcen aditceaz, eta orduan colera bichten bada çure bihotcean, facega çaçü berehala, eta ez beda

etheria çure ahotic hitz behar gabecoric, eta  
 Jacoac scandala detçaquenic.

Calma biburtuco da laster graciarequiñ  
 batean, eta gracia harc fosegatuco du çure  
 bihotceco altaramendua, eta errefumiñ gu-  
 cia goçatuco.

Bici naiz oraiño, dio Jainco Jaunac, be-  
 thi prest çure laguntcerat, eta çuri egundaiño  
 baiño consolacione guehiagoren ematerat,  
 baldiñ çure esparantça gucia ene baitan ema-  
 nic orhoitsten hanauçu khar handirequiñ.

3. Çaren fermu, eta prepara çaute egun-  
 daiño baiño guehiago pairatcerat.

Ez deçaçula etsi guertharcen baçare atse-  
 cabeez maiçago penatua, edo borhitisquiago  
 tentatua.

Alabaiñan guiçon çate, eta ez Jainco:  
 baduçu gorphutz bat, eta etçare spiritu  
 hutz aingueruac beçala.

Nola ciñagozque bethi berthutezco, eta  
 indarrezco estatu berean, hala egotu estire-  
 naz guerostic ez aingueruac cetuan, ez eta  
 guiçona parabisu lurrecoan.

Nic plainuz dandecenac consolatcen ditut,  
 eta arheratcen bere penetaric, nic Jaincotasu-  
 neraiño altchatcen ditut bere flacotasuna  
 eçagutcen dutenac.

A R I M A E.

4. Ene Jauna, den bethi-erç benedicatua



Pfalm. çure hitça ; goçoago da ene bihoçarentçat  
18. 11. *estiric hoberena ene ahoarentçat baiño.*

Cer eguiñ neçaque hambat atsecabe , eta hersturen erdian , çuc ez baninduçu borthitsten çure hitz sainduez ?

Baiñan cer antisia dut nic cer nahi den pairaturic-ere , ardiesten badut salbamenduco porturat ?

Iauna , indaçu fiñ on bat , eta mundu huntaric bertcerat iragate dohatfu bat.

Ene Jaincoa , orrhoit çaitte nitaz , eta guida naçaçu bideric chuchenenaz çure erresumarat. Halabiz.

### LVIII. CAPITULUA.

*Ez ditugula çundatu behar Jaincoaren iuamenduac , eta gutaz gorago diren gauçac. Cer maneraz behar ditugun ohoratu sainduac.*

#### JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea , beguira çaitte sartcetic gauça goreguitan , eta çundatcetic Jaincoaren iuamendu gordeac.

Ea cergatic Jaincoac bat usten duen , eta bertce bati gracia handiac eguiten diotçon , cergatic dembat humiliatua , eta bertce bat altchatua.

Gauça horiec ichitcen dituste guiçonen argui guciac , eta hequien spiritu eta arra-

coñamendu guciac estire gai Jaincoaren  
iuiamenduen eçagutceco.

Hala beraz deabruac horlaco gogoetac  
egortcen darozquitçunean, edo guiçon cu-  
tosfec horlaco galde fuerteric eguiten daroz-  
quitçutenean; ihardetz dioçoçute Profeta-  
ren hitz hautaz: *Iustuac çare, launa, eta çure*  
*iuiamenduac çucenac dire.*

Psalms.  
118.

Edo bertce hautaz: *Iaunaren iuiamenduac*  
*eguiaczcoac dire, eta berenez dire iustuac.*

137.  
Psalms.  
18. 101

Guiçonec icialdura behar dute ene iuia-  
menduentçat, eta ez dute hari behar hequien  
mandatcen, ecen guiçonaren adimendua esta  
gai hequien eçagutçan sartceco.

2. Etçaitecela halaber iar iharduquitcen  
sainduen merecimenduez, hea bara saindua-  
go den bertcea baiño, nor den handiago edo  
gorago ceruco errefuman.

Horlaco gaucec bichten tuste maiz behar  
gabeco escatimac, hasten supherbiotasuna,  
eta vana-loria, eta batbedera vanitate gor-  
de barez bere sainduaren bertceac baiño go-  
rago haltatcen hari dela, eguiten dire ban-  
deriçac, eta hetan sartcen herrac eta inbidiac.

Iharduquitce horiec estire behiñ-ere on  
eta probetchos guiçonentçat, eta bethi dire  
higuin garrri sainduentçat, *ceren ez bainaiz*  
*escatimetaco Jaincoa, bainan bai baqnez-*  
*coa, eta baque hura eslago norc bere burua*

I. Cor.  
14. 33.

burua eguiazqui haltatcean: aiticic norc bere burua eguiazqui humiliatcean.

3. Batçuec debocione guehiago dute saindu batentçat bertce batentçat baiño; orduan affeccione hori maiçago da humanoa, eta naturala ecen-ez naturaz goragocoa, eta Jaincozcoa.

Saindu guciac nic eguiñ ditut, nic eman diotet gracia, nic loriaz saristatu ditut.

Nic eçagutcen tut bakhotcharen mereci-  
 Pfalm. menduac, *Nic eman diotçatet ene estitasu-*  
 20. 4. *naren eta ontasunaren marçac*, hec enetçat  
 deus eguiñ baiño lehen.

Nic eçagutu ditut mende guciac baiño lehenago nerrotteç maitatu, eta predestinatu ditudanac, esnaute hec ni lehenic hautatu,

Joan. *Nic hec hautatu ditut, eta bereci munduic.*  
 15. 16. Nic deithu ditut ene graciaz, ene ganat thiratu ditut ene misericordiaz, nic munduco tentacione diferentean artean guidatu ditut.

Nic bethe ditut ene consolacione sainduetz, nic eman diotet onean itaupena, eta perseverancia, nic fiñean khoroatu dut hequien paciencia.

4. Nic guciac eçagutcen ditut, guciac lehenbivicoric azqueneraiño, eta maitatcen amudio infiniru batez.

Nic behar dut beraz içan laudatua gauça gucietan, eta gauça guciën gainetic, nic

behar dut ičan ohoratua ene sailduetan; ecen  
 nic predestinatu ditur, eta altchatu haiñ lo-  
 ria handirat, merecimendu propiotie aitci-  
 netic ičan gabe.

*Hargatican norc-ere mezpreçatcen baitu  
 chumeena*, haiñac estu ohoratcen haudiena,  
*ecen nic eguiñ ditut handia*, eta *chumea*.

Eta norc-ere offensatcen baitu saildu he-  
 tatic bat, haiñac ni offensatcen nau eta ce-  
 man diren bertce guciac.

Ecen guciac caritateaz iuntatuac, eta bat  
 eguiñac dire.

Estute guciac gogo bat, borondate bat,  
 eta amudio bat baicen.

5. Baiñan guciac miragarri dena da, mai-  
 teago bainaute ni bere buruac, eta bere me-  
 recimendu guciac baiño.

Ecen bere buruaz gorago altchaturic, be-  
 re amudio propiotie ilkhiric maitatcen nau-  
 te ni soberanoqui, eta bere indar guciez,  
 eta hartan caulitcen dute bere pausua, eta  
 dohatfutafuna.

Deusec eciñ guibela detçaque ene mai-  
 tatceric, eta eciñ iantz ditezque ni baiño  
 deus beheragoren maitatcerat, ceren nola  
 baitire eguia eternalaz betheac, secular  
 iraunguituco esten amudioaren suaz erretcen  
 hari baitire.

Hala beraz guizon haraguzco luttera

bihorça penditua dutenac, eta bere atseguiñac baicen maitatcen estaquitenac ez bitez atrebi sainduen dohatfutafunaz mintzatcerat.

Berretcen, edo gutitcen duçe hequien loria bere nahiaren arabera, eta ez eguia eternalac ematen duenaren arabera.

6. Hetic hañitcen baitan bada ignorancia, guciz hañnen baitan, ceña argui escafez ez baitaquite cer den amudio phuru, eta spiritual batez nihoren maitatcea.

Nihoren maitatcean amudio naturalac, eta adisquidetafun humanoac darabiltça; eta uste dute lurreco gauzez beçala dela ceruco ez-ere.

Baiñan diferencia haguitz handia da, presuna imperfetec uste dutenaren, eta presuna cerutic arguituec eçagutcen dutenaren artean.

7. Beguira çaitte beraz, ene semea, mintzatcetic gauça goreguiez eta çure iaquiña ichitcen dutenez.

Baiñan çure eguiñ ahal guciac eguitçu ceruco errefuman lekhu baten içateco, azque-na behar balitz-ere.

Hortaz nihorc baleaqui-ere nor den handiago, edo senduago ceruan, certaco luque eçagutça hura? baldiñ ez bada hortaz baliatcen bere buruaren ene aitciñean humiliatceco, eta ene guehiago ohoratceco, eta laudatceco.

Nihor pensatcen dagoenean ceñ handiac diren

diren haten bekhatuac, cein chumeac haren  
berthuteac, cein urrun den sainduen per-  
feccionetic, hobequiago eta Jaincoaren  
gogarago eguiten du, sainduac elkharre-  
quin comparatcen, eta hequien handitasu-  
naz, edo chumetasunaz iharduquitcen hari  
denac baiño.

Haguitzez hobeago da sainduac ohorat-  
cea, eta othoitztea, eta hequien laguntça  
humiltasunequin, eta nigarrequin galdertea,  
ecen-ez hequien secretu gordeen curiostasun  
alfer batez miratcen, eta çundatzen haritcea.

8. Hec osoqui content dire guiconc ba-  
laquite contentatcen, eta solas, eta ihardu-  
quitce vano horiec bere ganic hastantcen.

Estute loriaric tiratcen bere merecimen-  
tu propiotaric, estute hartcen deus onic du-  
tela bere ganic, guciez niri eguiten darotate  
ohore; hortaz nic guciac eman diorçatet he-  
quientçat icatu dudari amudio soberanoaz.

Hain betheac dire Jaincozco amudioaz,  
eta ceruco atseguinez, non ecin baituque  
deus escafic hequien loriac, eta dohatsuta-  
sunac.

Cembatenaz baitire sainduac lorian go-  
rago altcharuac, hambatenaz dire bere bai-  
tan humillago, eta arraçoin hartaz dire ene  
ganic guehiago hurbilduac, eta enequin  
bertsiquiago iuntatuac.



Apoc. 4. 10. Hargatic da errana Scriptura sainduan: *Ematen dirustela bere khoroac Jaincoaren oinetan, ahuspez iartcen direla bildotcharen aircinean, eta adoratcen dutela mendetaco mendetan bici dena.*

Math. 23. 1. 9. *Hanitcet galdetcen dute, nor den handiena ceruco erresuman, eta ez baitaquite hea berac gai icanen diren condatuac icateco chumeenen artean.*

Gauça handi bat da chumeen-ere ceruan icatea, ceinetan guciac handiac baitire; guciac deithuac direnaz guerostic Jaincoaren umeac, eta eguiazqui guciac hala direnaz guerostic.

Isai. 60. 22. *Ecen chumeac altchatuco dire millen artean, bicico dire millaca mendez, eta be-*  
65. 20. *khatoreac bicitceric luceenaren ondoan hillen dire seculacoz.*

Math. 18. 1. *Apostoluec galderu çuten egun batez nor icanen cen handiena ceruco erresuman, eta*  
18. 3. *aditu çuten erreputa hau: Ez baçaitte conbertitcen, eta eguiten haurren idurico, et-*  
23. 4. *çaitte sarthuco ceruco erresuman. Nor-ere beraz humiliatuco baita haurto bat beçala, hura icanen da handiena ceruco erresuman.*

10. *Corigaitz chumeequin batean humiliatu nahi estutenentçat; ecen nola baita ce-*

Luc. 14. 11. *tuco athea behera ecin han sarthuco dire.*

12. *Corigaitz halaber aberatsentçat çeinez*

baitituste mundu huntan bere atseguinac,  
 eta nahicarak: ecen pobreak ceruan sartcen  
 direnean hec egonen dire campoan oihuz eta  
 nigarrez.

Humillac bozçaitetz: bozçaitetze po- Math:  
 breac; ecen çuena da ceruco errefuma; baldiñ 5. 3.  
 Jaincoaren bidean chuchen ibiltcen baçaitc.

LIX. CAPITULUA.

Jainco choilla baitan behar dugula eman  
 çure esparantça gucia.

ARIMAC.

**I**AUNA, noren baitan eman behar dut ene  
 fidantcia hemen naiceino? eta noren ga-  
 nic iguric ahal deçaquet consolamendutic  
 mundu huntan?

Estut deus uste çure ganic baicen, ô ene  
 Jaincoa, ceinaren misericordia infinitua  
 baita.

Non ungui icatu naiz çu gabe, edo non  
 gaizqui caufitu naiz çutequin?

Nahiago dut gauça guciën escafean bici  
 çure amorea gatic, ecen ez aberastafunen  
 erdian çu gabe.

Nahiago nuque lurreco desterrua baldiñ  
 çu han baciñe enequin, ecen-ez ceruco er-  
 refuma çu han ez baciñe.

Ecen çu çaren lekhuân da cerua, eta he-  
 riotcea, eta ifernua çu etçaren lekhuân.

Çu çare ene guticia gucien chedea, çure ganat egon behar dut bethi plainuz, oihuz, eta hazbeherapenez.

Fiñean ene beharretan eciñ bertce nihori fida naquioque çuri baicen, ô ene Jaincoa, eta nihor estago çu beçaiñ prest ene laguntcerat.

Çu çare ene esparantça, ene habea, ene consolatçaillea, eta ene adisquide gucz leiala.

Philip. 2. *Guciac bere progotchuaren ondian dabilçça.* Çuc estuçü billhatcen ene salbamendua baicen, eta gauça guciac ene progotchucotz baliarasten tutçu.

Tentacione, eta atsecabeen hirtiscuan çuc ni maiz utci arren, guciac ene progotchutan eguiten ditutçu, ecen usatu ohi duçu çure maiteen milla manieraz frogatcen.

Hargatic etçairut gutiago maitatu, eta laudatu behar atsecabe, eta frogantça horietan naicenean, ceruco consolacionetic handienenez bethetcen nauçunean baiño.

3. Hargatic, ene launa, eta ene Jancoa; çure baitan ematen dut neure esparantça gucia, çure ganat eguiten dut ene ihesa, çure oiñ sacratuetan ematen tut neure penac, eta atsecabe guciac, ceren ez baitut causticentaz lekhora deus flacoric, eta gambiaccoric baicen.

Ez ene adisquiden nombreak, ez ene beiratçailleen indarrac eciñ lagunduco nau; çuhurrunc-ere eciñ emanen dautet conseillu probetçhosic; eciñ caustuco dut consolacioneric, guiçon iaquiñsunen liburutan, ez laguntçaric aberastafunetan, ez segurantçaric lekhu baretan-ere ceroni ez baçare adisquidea, ene laguntçaillea, habea, ene sustengarçaillea, iracatçaillea, ene arguitçaillea, ene aberasteco tresora, eta ene segu-rean emateco ihes lekhu.

4. Iduriz gure baquecotz, eta çorionecotz diren gauçac estire deus çu gabe, eta estire baliatcen garabic gure dohatsutafuncotz.

Çure baitan da beraz ontasun gucien gaindidura, bicitcearen goçoa, çuhurtçiazco tumbioa; eta çure cerbitçaric çure baitan duten esparantçac eguiten du hequien consolacionea, eta indarra.

Çure ganat daduzcat ene beguiac altçhatuac, ô ene Jaincoa, çure baitan da ene esparantça çure ganic iguriquitcen tut guciac; ô misericordien aita.

Benedica naçaçu, sanctifica naçaçu ene baitarat isuratçu çure ceruco benediccionea. eguiçu ene arimaz templu saindu bat, eta çure loriaren tronna, eta ez bedi causi templu hartan deus-ere çure Jaincozco maieçatea ofensa deçaquenic.

Psalm. 68. 17. *Beguira dieçadaçu, ene Jaincoa, çure ontasun, eta misericordia infinituaren arabera.*

Entçun çaqu çure cerbitçari gachoa, gauça gucien escafean dena, desterratua, eta hastandua bere herri dohatfuc, eta ehortcia herioaren itçalean.

Defenda çaqu ene arima, eta garbi iduçaqu bicitce huntaco hirtiscuen, eta corrupcionearen erdian; eta çure graciaz guida çaqu seculaco loriarat baquearen bidetic.

*Hirurgarren Liburuaren akhabantça.*





# JESU-CHRISTOREN IMITACIONEA.

LAUGARREN LIBURUA.  
Aldareco sacramendu adoragarriaz:

*Amudiozco deiha mahain saindurat.*

## JESUS-CHRISTOC.



*ATOZTE ene ganat, penatuac Math: 11. 282  
eta carginuac çareten guciac,  
eta nic arinduco darozquitçuet  
çuen penac, eta nekheac.*

*Nic aguintcen dudan oguia ene haragüia Joan: 6. 52:  
da, manduari bicitçea emanen çioena.*

*Harçaque, eta iay çaque; hau da ene 26. 26:  
gorphuçça, çeiña tradituco baita eta larga-  
tuc heriotçerat çuentçat, eguiççe hau ene 1. Cor:  
11. 24:  
orçhoitçapenetan.*



Joan. Ene haraguia iaten duena, eta ene odola  
6. 65. edaten duena ene baitan dago, eta ni haren  
baitan.

Ibid. Nic erraten darozquitçuedan hitçac  
64. spiritu, eta bicitce dire.

## I. CAPITULUA.

*Cembat errespeturequiñ behar den errecibitu  
sacramendu saindua.*

## ARIMAC.

**O** JESUS, eguia eternala ! hitz horiec gu-  
ciac çureac dire, eta çure ganic ilkhiaç,  
ez içan arren guciac dembora berean erra-  
nac, ez lekhu berean esribatuac.

Eta ceren diren çureac, eta eguiazcoac,  
hartu behar ditut eçagutçarequiñ, eta fede-  
requiñ.

Çureac dire hitz horiec, ceren çuc erra-  
nac baitire, eta halaber eneac dire, ceren  
enetçat, eta ene salbamenducorç erran bai-  
titutçu.

Gogotic hartcen ditut çure ahotic lekhora,  
ene bihotcean barnago far ditecentçat.

Ene bihotça animatua sentitcen dut hitz  
samur esti, eta amultsu horiez; baiñan ene  
bekhatuec icitcen naute, eta ene conciencia-  
ren lohitafunac hastantcen nau misterio han-  
di hortaric.

Çure gombidatce estiçac thiratcen nau;

baiñan ene bekhatuen nombreak, eta pifustafunac guibelatcen nau.

2. Manatcen darotaçu fidanciarequiñ çure ganat hurbill nadillala, baldiñ nahi badut çure primeçan parteric, ian deçadala Jaincozco ogui hura nahi badut bethi bici eta ardietsi loria eternala.

*Çatozte ene ganat, dioçu, penez eta nekhez Math: cargatuac çareten guciac, eta nic çuen penetariç arinduco çaituztet.* 11, 28.

O hitz maitagarria, eta bekhatore barentçat guciz consolagarria, çuc, ene Iauna eta ene Jaincoa, gombida deçaçun creatura pobte bat, gauça guciez gabe bat, laceriaz berthe bat, çure gorphutz guciz sainduaren comunionerat!

Baiñan, ene Iauna, nor naiz ni atrebitceco çure ganat hurbiltcerat?

*Ceruen hedadura çabalac eciñ itcheç çaitçaque, eta dioçu, çatozte guciac ene ganat.* 3. Reg. 8. 27.

3. Nondic heldu da caritate sobtaniazco hori, eta gombidatce guciz samur hori?

Nondic duquet aufartcia çure ganat ethortceco ni, ceĩnac ez baitut ene baitan sentitcen deus onic, cerbait burupe, edo segutantça eman ahal dieçaquedanic?

Nola atrebituco naiz çu ene bihotcean errecibitcerat, hambat bekhatu çure beguie-tan eguiñ dudan ondoan?

Aingueruac eta archangeluac ikharan dau-  
dez çure aitciñean, iustuac, eta sainduac  
beldur dire çuretçat, eta dioçu halere çar-  
rozte guciac ene ganat.

Cerorrec ez bacindu erraten, Ianna, notc  
siñhetz leçaque? nor hurbiltcerat aufarta  
liteque, ceronec ez bacindu manatcen?

4. Noe, haiñ guçon iustua, ehun urthez  
haritu cen arkha baten eguiten, ceiñetan be-  
rac iende gutirequiñ behar baitçuen salbatu.

Nola bada ni prepara ahal naiteque oren  
batez munduaren creatçaillea etrecibitcerat  
hari çor çaiou errespetuarequiñ?

Moise çure cerbitçari handia, eta çure  
adisquide bereciac eguiñ çuen arkha bat eciñ  
bustelduzco çurez, eta estali çuen uteric  
phuruenaz, han barna emateco leguearen bi  
thaulac; eta nic creatura bustel, eta corrom-  
pituac içaren dut aufartcia haiñ ettechqui er-  
recibitceco legue emaille sobetanoa, eta  
bicitcearen nausi eta autora?

Salomon, Israelgo etregue gucién çuhurte-  
nac, çazpi urthe eman cituen çure ohoretan  
templu guciç magnifico baten eguiten, çort-  
ci eguez eguiñ çuen haren dedicacioneco  
besta, millaca sacrificioac ofrendatu cituen,  
eta alienciaco arkha trompeta soinuz, eta  
pobluaren bozcariozco oihuen erdian, eta  
man çuen harentçat preparatua cen lek hurat.

IMITACIONEA. IV. LIB. 315

Eta ni gacho eta dohacabea, nola atrebituco  
naiz çu ene baitan errecibitcerat, ni ceñac  
oren erdi batez eciñ gogoa othoitcean iduc  
baiteçaquet?

Era ochala behiñ bederen oren erdi bat  
behar den beçala eman banu!

5. O ene Jaincoa, cer estute sainda hec  
eguiñ çuri atseguin eguiteco!

Helaz! ala nic eguiten dudana deus gutia  
baita, eta ala nic dembora guti ematen bai-  
tut comunione saindurat preparatcen!

Gutitan caufitcen naiz ene baitan beribil-  
latua, eta sarthua; gutiagotan gogoaren  
barraiadura gucietaric libratua.

Arraçoiñ liteque bada çure Maiestate ado-  
ragarriaren aitciñean, efneçan içan gogoeta  
sainduric baicen, eta urrun litecen ene bi-  
hoteetic creatura guciac.

Ceren nic errecibitu behar dudana ez baita  
solamente aingueru bat, baiñan aingueruen  
nausia eta Jaincoa.

6. Hortaz diferencia handia da alienciaco  
arkharen alde batetic, eta bertetic çure  
gorphutz guciç garbiaren artean, arkha har-  
tan barna ciren gaucen, eta çure graciaren  
artean.

Legue çaharreco sacrificio guciac-ere fi-  
gura batçuc ciren, eta etciren comparatceco  
çure gorphutzatequiñ, ceña baita victima

eguiazcoa sacrificio çaharren figurac bether-  
cen dituena.

7. Cergatic bada eznaiz khartsuago çure  
presencia adoragarrian ?

Cergatic eznaiz preparatcen artha guehia-  
gorequiñ çure gorphutzpreciatuaren erre-  
cibitcerat ? Patriarca eta Profeta çahar hec,  
Erregue eta Prince hec populu guciarequiñ,  
hambar zelo eta amudio eracutchi dutenaz  
gueroz çuri çor çaitçun Jaincozco ohorea-  
ten emateco ?

2 Reg.  
6. 14.

8. David Erregue Jaincotiar hura, *dant-  
çatu cen bere indar guciez* arkharen aitci-  
ñean, Jaincoac haren aitei eguin ciotçaten  
unguien orrhoitçapenetan.

Eraguiñ cituen hañitz musicaco instru-  
ment fuerte, psalmuac cantaraci cituen boz-  
cariorequiñ, cantatu cituen berac-ere harpa  
soiñuz Spiritu fainduaren graciaz betheric.

Iracatçi cioten Israeldarrei bete bihotz gu-  
ciaz Jaincoaren laudatcen, eta boz batez ha-  
ren egun oroz benedicatcen eta lorificatcen.

Bada Testament çaharreco arkha hambat  
debocionerequiñ ohoratcen bacen, eta ham-  
bat artharequiñ Jaincoa laudatcen bacen ha-  
ren aitciñean muga fuerte batçuez ; cembat  
errespetu eta debocione guiristiñoec eta nic  
estugu behar içan gure aldaretaco Sacramen-  
du adoragarriaren aitciñean, eta JESU-CHRISTO-

TOREN gorputz preciatua etrecibitcen dugunean?

9. Badabiltça iendeac hañitz lekhu fueretarat sainduen erlequien ikhusterat eta ohoratcerat, espanturequiñ aditcen tuste hequien berthute eta obra handiac: miretiric dacufate hequien ohoretan eguiñ diren elicen edertasuna eta magnificencia, errespaturequiñ musu ematen diote hequien heçurrei arrez eta ciricuz estaliei.

Baiñan, ene Jaincoa, çu ceroni çare gure hurbillean, eta aitciñean gure aldareen gaiñean.

Çu, ene launa, ceña baitçare saindu-taco saindua guiçonen creatçaillea eta ainguernen nauña.

Horlaco erromeriac maiz curioftafunez eguiten dire cerbait gauça berri ikhustea gatic; hortaz nihor guti hetaric prestuago bihurtcen da, guciz goan ethorri horiec arintafunez eguiten direnean, bicitcearen gambiatceaz conturic eguiñ gabe.

Baiñan eguiazqui çare eta errealqui aldatreco Sacramenduan, eta çare han osoqui, ô Jesus divinoa, han çare; eta norc han dignequi etrecibitcen baitçaitu, haiña santificatcen da eta bethetcen graziez.

Ez gaitu arintafunac, ez curioftafunac, ez sensuen atseguinac çure ganat erakhartzen, baiña fede bici batec, esparantça



## 318 JESU-CHRISTOREN

fermu batec, eta caritate phuru eta eguiazco batec.

10. O Jainco, ikhusten etçarena, eta mundua creatu duçuna, ala çure comportamendua miragarria baita gure alderat! ala çure estitasuna, eta çure famuttasuna handia aguertcen baita çure hautesien alderat, hei çure gorputça sacramendu huntan iaterat ematen dioçutenean!

Gauça horrec ichitcen tu guiçonen adimenduc, horrec guehienic fidelen arimac çure ganat thiratcen tu; horrec amudioz sustatcen ditu çure cerbitçarien bihotçac.

Ecen çure cerbitçari eguiazcoei, eta bere bici gucia bere arimen garbitcen daramatonei sacramendu adoragarri hortaric debocionezco khar handi bat heldu çaie, eta bethi berri den amudio bat berthutearentzat.

11. O misterio handi hunen gracia miragarria! baiñan gordea guiriltiño eguiazcoec baicen sentitcen estutena, eta sinhets gorrec, eta bekhatuaren gathibuec eciñ errecibi deçaquetena!

Sacramendu hunec ifurtcen du gure baitarat Spiritu sainduaren gracia; bihurtcen diotça gure arimari galdu cituen indarrac; eta cobratcen dio bere edertasuna bekhatuaren irsutasunac khendu cioena.

Eta gracia hura haiñ handia bada batçuetan

IMITACIONEA. IV. LIB. 319

non arimatic gorphutz flaco huntarat iraganic ofasuna, eta indarrac-ere ematen baitiorça.

12. Baiñan aubendatceco dena da ceren garen haiñ ephel, haiñ antsicabe, eta dugun haiñ debocione guti JESUS - CHRISTOREN errecibitceco, ceñna baita hautetsien esparantça bakharra; eta ceñnac eguiten baitu bequien mercecimendu gucia.

JESUSEC santificatcen gaitu, eta harc erosi gaitu, JESUS da gure consolatçaillea deserttu huntan, eta sailduen dohatfutafuna bertce bicitcean.

Baiñan lastimagarti da ceren hañitz iendes haiñ guti eçagutcen duten sacramendu hunen handitafuna, eta excelencia, ceñnac eguiten baitu ceruaren bozcarioa, eta munduaren salbamendua.

O guiconen bihotçaren gogortafun estrañioa! ô irfutafun handia haiñ dohaiñ baliofa haiñ guti preçatcea, eta ceren egun oroz errecibitcen dugun anficabetafunerat erortcea!

13. Ecen sacramendu handi hori ez balitz ematen, eta errecibitcen lekhu batean baicen, eta ez balitz mundu gucian aphez bat baicen consecratceco podorea luquenic; cer debocionezco kharrequiñ eslioazque iendeac lekhu hartarat, eta Jaincoaren aphez haren-ganat misterio sailduen celebratcen ikhusterat?

Orai hañitz aphaecet hañitz lekhuman JESU-

CHRISTORÉN sacrificioa ofrendatcen dutean, cergatic ez progotcha fagore hortaz? Ecen Jaincoac manera hortan bere gracia eta amudioa hobequi eracuchten darocu; ceren munduaren parte gucietarat bere gorphutz sacratuaren comunionea hedatu duenean, eman baitiote guizon guciei haren errecibitceco errechtasun guehiago.

O JESUS, artçaiñ eternala! esquer darocçut ceren pobreac, laceriatuac, eta gure heritic desterratuac garelaric, halere çure gorphutz eta odol preciatuaz hasten baicaituçu, eta sacramendu handi horren errecibitcerat gombidatcen çure ahoco hitcez erraten daro-

Math. cuçula: çatozte ene ganat, penatuac eta  
11. 18. cargatuac çaretén guciac, eta nic arinduso  
darozquitçuet çuen penac eta nekheac.

## II. CAPITULUA.

*Jaincoac sacramendu huntan guizonari  
miragarriqui eracuchten dioela bere  
ontasuna eta amudioa.*

### ARIMAC.

**E**NE Jaincoa, ene esparantça gucia çure ontasun, eta misericordia infinituan emanic, heldu naiz çure ganat eria bere misericua ganat beçala, gose eta egarri dena biciaren ithurrirat beçala, pobreac ceruco Erreguea ganat beçala, cerbitçaria bere

nausia

IMITACIONEA. IV. LIB. 321

nausia ganat beçala, creatura bere cteat-  
çaillea ganat beçala, atsecabez berthea bere  
consolatçaille podorofoa ganat beçala.

Baiñan nola merccitu dut çu ethor çaiten  
ene ganat? Nor naiz ni çuc niri çure  
buruaren emateco?

Nola bekhatore bat atrebitcen da çure  
aitciñean aguertcerat? eta çu, launa, nola  
beheitcen çare bekhatore baten ganat  
ethortceraiño?

Çuc eçagutcen duçu ungui çure cerbirça-  
ria, eta badaquiçu estuela bere baitan deus  
onic çure bisita mercci deçaquenic.

Aithortcen dut ene esteustafuna, eçagut-  
cendut çure ontafuna, laudatcen dut çure  
misericordia, eta esquer darotçut çure amu-  
dio eciñ guehiagocoa gatic.

Ecen ontafunez bethercen banauçu, hori  
eguiten duçu çure bihotceco penduraz, eta  
ez ene baitan den merccimendu baten-ere  
gatic niri çure ontafuna hobequi eçagunara-  
stecco, çure amudioa ene bihotcean handiago  
emateco, eta ni humiltafunean guehiago  
fincatceco.

Beraz horla nahi duçunaz gueroz errecci-  
bitcen ditut bozcariorequiñ çure fagoreac:  
ochala ene indignitateac ez baliote trabaric  
ematen!

2. O JESUS, guciz ona, guciz estia!

cembat errespetu, eçagutça eta laudorio  
 estaroquitçute guionec çor çure gorputz  
 sacratuaz eguiten dioçuten dohaiña gatic?

Esta gucienic munduan sacramendu hunen  
 excelencia berehiteez eçagutaraz deçaquenic.

Baiñan nolacoac iñanen dire ene gogoeta  
 communione sainduan ene launa ganat hur-  
 biltcen naicenean, ceñarentçat eciñ baitu-  
 quet errespetic asqui, eta ceñna nahi bai-  
 nuque halere dignequi errecibitu?

Cer gogoeta ahalduet hobegoric, eta  
 ene salbamenducotz progotchofogoric çure  
 aitciñean neure barua ahalic beherena humi-  
 liatcea baiño, eta çure ontasun infinituqui  
 nitaz gorago altchatua laudatcea eta adorat-  
 cea baiño?

Laudatcen çaitut, ene Jaincoa, eta ez  
 naiz nihoiz-ere guelditute çure laudatceric.

Arbuiatcen dut neure esteustafuna, eman-  
 ten naiz çure manu gucien azpian, eta iauf-  
 ten naiz ene beheratafunaren tulumbioraiño.

3. Çu çare saindutaco saindua, eta ni  
 bekhatore gucietaric dohiacabeena.

Iausten çare ene ganaraiño, eta ni eznaiz  
 gai ene beguien çure ganat altchatceco.

Heldu çare ene ganat, enequiñ nahi duçu  
 egon, deiteen nauçu çure banquet sacratu-

Pfalm. rat, eman nahi darotaçu ceruco ianaria aia-  
 77. 25. *gueruen oguia*, ceina ez baita bertceric,

çu ceroni baicen : *Cerutic iautfiricaco ogui bici hura, ceñac ematen baitio munduari bicitcea.*

Joan:  
6. 51:

4. Horra nola eracuchten duçun certaraiño maitatcen, eta ohoratcen gaitutçun.

Cer esquer, cer laudorio estarotçugu çor haiñ fagore handiarentçat?

Oi ala çure chedeac gure salbamenducotz onac eta progotçhosac icatu baitciren sacramendu hau ordenatu cinduenean!

Oi ceñ goçoa den, eta gustosa banquet huta, ceñetan çure burua ianaritçat ematen baitarocuçu! Oi ala çure obrac miragarriac baitire! Iauna, ala çure botherea handia baita, eta infinitua; çure eguia eciñ explicatuzcoa!

*Mintçatu çare, eta gauça guciac eguiñ dire, eta guciac eguiñ dire çute hitçaren arabera.*

Genes.  
1. 3.  
Psalm.  
148. 5,

5. Gauça miragarria, eta fedearen arguiac gabe fiñhetz ez daitequena, çu, iauna, eguiazco Jainco eta eguiazco guiçona, estalia çare ogui pichca baten, eta arno chotta baten idurien azpian; han çare gucia oforic, eta errecibitcen çaituenac iaten çaitu behiñ-ere consumitu gabe!

Çu çare munda universoaren nauñi, eta iabea, deusen-ere beharic estuçuna, eta halere eguiñ duçu sacramendu hori gure baitan egotea gatic.



Ene arima, eta gorphutça iducatçu garbi-  
ric, bihotz chahu, eta bozcarioz bethe bate-  
quin maiz parte har deçadantçat çure miste-  
rio sailduetan, eta errecibi deçadantçat ene  
arimaren salbamenducotz sacramendu ado-  
ragarri hori, ceina ordenatu baituçu bere  
gainqui çure loriacotz, eta çure ganic içatu  
ditugun ontasunez gu bethi-ere orrhoitatas-  
teco.

6. Boz çaitte ene arima, eta esquerrac  
emorçu Jaincoari haiñ dohaiñ baliosaz, eta  
nigarresco haren huntan utci darocun haiñ  
consolacione bereciatz.

Ecen misterio hau celebratcen, eta JESUSEN  
gorphutça errecibitcen duçun aldi gucian  
çure erresquetamenduco obra handia erre-  
berritcen duçu, eta çure salbatçaillearen me-  
recimendu gucietan partale eguiten çare.

JESU-CHRISTOREN caritatea esta behin-  
ere gutitcen, eta haren merecimenduen tre-  
sora esta ahitcen.

Hala behar duçu bethi-ere disposatu barre-  
neco erreberrimendu handi batez gracia har-  
tatat, eta consideratu misterio handi hura er-  
respetu, eta amudio bethi berri den batequin.

Bai, Meçaco sacrificioa nahiz ofrenda  
deçaçun nahiz entçun deçaçun, haiñ handi,  
haiñ berri, haiñ miragarri, iduritu behar  
çaitçu nola egun hartan berean Jaincoaren

femea virginaten fabel garbian, guicon eguiren balitz, edo gurutcean itçaturic gure salbamendua gatic pairatcen balu pasionea, eta heriotcea.

III. CAPITULUA.

*Probetchos dela maiz communiatcea:*

A R I M A C.

**H**UNA non heldu naicen, launa, çure dohaiñaz progotchatcea gatic, eta çurequiñ boztea gatic *pobreari preparatu dioçun atseguinezco banquet hortan.*

Pfalm:  
67. 11.

Çure baitan caufitcen ditur nic desira ahal detçaquedan, eta desiratu behar ditudan gauça guciac.

Çu çare ene salbamendua, ene erresquemendua, çu çare ene esparantça, eta ene indarra, çu çare ene ohorea, eta loria.

*Isuraçu beraz egun bozcarioa çure cerbitçariaren bihotcerat, ô Jesus adoragarria; ecen çure ganat altchatua dut ene arima.*

Pfalm:  
85. 34

Orai nic guehienic desiratcen dudana da çu ene baitan errecibitcera behar den debocione, eta errespetu guciarequiñ; çu ene baitan sararastea, zakeo beçala ni ere benedica naçaçuntçat, eta eman naçaçuntçat Abrahamen umeen nombrean.

Ene arimac borthitzqui desiratcen du çure gorphutçaten errecibitcea, ene bihotceco

guticiaric handiena da çurequiñ bat eguitea.

2. Eman çaquizquit, eta content naiz, ecen çutaz lekhora esta eguiazco consolacioneric.

Eciñ naiteque çu gabe; eciñ bici naiteque çutaz bisitatua içan gabe.

Hargatic behar dut maiz hurbildu çure gatat, eta errecibitu behar çaitut ene gaitcen erremediotaçat, beldurrez bidean flaca nadiñ, ceruco ianari hortaz gabetua banaiz.

Pobluei predicatcen ciñoten demboran, eta hequien eritasun diferentac sendatcen Math. tintuenean, erran cinduen egun batez: *Esti-  
15. 32. tut iende hauc egortz nahi bere etchetarat, iatera eman gabe, beldurrez flacaturic gueldi ditecen.*

Hori bera eguiçu ene alderat, Jauna, çure burua eman duçunaz gueroftic sacramentu hortan, çure cerbitçari leialen consolamenducorç.

Ecen çu çare arimaren ianari gustosa, eta çu dignequi errecibitcen çaituenac içanen du primeçatçat, eta fatitçat loria eternala.

Nola ni maiz erortcen bainaiz, eta behatu hañitz eguiten baitut; nola laster laçatcen bainaiz, eta errechqui flacatcen, maiz behar dut baliatu othoitçaz, eta maiz hurbildu confessionerat eta comunione faindurat.

Horla behar dut erreberritu, garbitu eta

berotu, beldurtez communionetic sobra ur-  
runtcen banaiz, ahantz detçadan ene deli-  
beracione onae.

3. Ecen guizonaren sensuac, gogoetac Genes.  
8 21;  
eta defrac haren gastetafunetic ekharriac  
dire gaitcerat, eta haren gaichtotafuna ber-  
retuco da bethi, cerbait Jaincozco lagunt-  
çac ez badu sendateen.

Eta communione sainduac gaizquitic gui-  
belatcen gaitu, eta unguian borthicsten.

Orai beraz maiz haiñ lacho, eta haiñ  
ephel banaiz communiatcen, edo meça ce-  
lebratcen dudalaric; cer liteque bada erre-  
medio hura hartoen ez banu, eta ez banu  
billhatcen laguntça handi hura?

Hala gai eznaicen arten egun guciez mis-  
terio sainduen celebratceco, artha içanen  
dut demboratic demborarat bederen com-  
munione sainduaren errecibitceco, eta haiñ  
gracia handian parte hartceco.

Ecen arima leial batec çure ganic utrun-  
dua deino, eta gorphutz *hilcor huntan des-* 2 Cor.  
5. 6.  
*terratus dagoeino*, ahal duquen consola-  
cioneric handiena da çutaz orrhoitcea, eta  
bere nauñi guciz maitea debocione khartsu  
batequin maiz errecibitcea.

4. O amudiozco miracuillua! O behera-  
mendu eciñ guehiagocoa! Çu, ene launa  
eta ene Jaincoa, spirita guciei içatea, eta

bicia eman dioçutena; çu iautz çaitecen arima  
 pobre baterat, eta çure Jaincotafuna eta gui-  
 çontafuna emplega detçatçun haren gabearen  
 bethecten, haren beharren complitcen!

Ala çorionezcoa baita arima, dohatfua  
 bihotça, bere Iauna eta bere Jaincoa erre-  
 cibitceco gai duena, eta hura errecibitcean  
 bozcario faindu batez bethecten dena!

Oi cein handia den haren ganat heldu den  
 Iauna! Cein maitagarria den hanc errecibit-  
 cen duen arrotça, eta cein charmagarria ha-  
 ren compania! Cein leiala haren bisitatcerat  
 heldu den adisquidea! Cein ederra hare-  
 quin iuntatu nahi duen esposa! Cein han-  
 dia eta maitatcea mereci duena, lurraren  
 gainean maita, eta desira daitezquen guciac  
 infinituqui ichitcen ditceenaz gueroftic!

O JESUS mansoa eta ene guciz maitea!  
 cerua eta lurra bere edertasun guciarequin  
 ichil beitez, behera beitez, çure aicnean;  
 ecen deus badute laudagarriric, deus eder-  
 ric, guciac heldu çaitze çure ontasunetic eta  
 manificenciatic; eta hequien edertasunac estu  
 deus çure icenaren loriarequin compara di-  
 tequenic, ceinac distiatcen baitu, çure çu-  
 hurtcia infinituac eguin tuen obra gucietan.



## IV. CAPITULUA.

*Communione sainduaren abantailac.*

ARIMAC.

**O** ENE launa eta ene Jaincoa, ifuraçu çure gracia ene arimat: *emadaçu parte çure* Psalms. benedictione estietan, eguiñ naçaçu gai çu <sup>10. 4.</sup> *dignequi errecibitceco sacramendu handi hortan, atçar naçaçu ene lokhuma pisutic, thira çaçu ene bihorça çure ganat, bisita çaçu ene arima, eta bisita hartaz saindu çaçu* <sup>105. 4.</sup> *spirituz gusta deçadan ceruco estitalun hura, ceñaren bethetasuna çarratua baita sacramendu hortan bere ithurburuan beçala.*

Argui çatçu ene beguiac misterio handi hori comtempla deçadantçat, borthitz çaçu ene fedea fermuqui siñhetz deçadantçat.

Ecen misterio hori çure obra da Jaincoac ordenatua, eta ez guiçonec asmatua.

Hala guiçona esta gai haren comprenitceco, eta ungui eçagutceco, ceren ichitcen baititu ainguetuen eçagutçatic eta arguiric bicienac.

Nola bada nic çundatuco dut, eta eçagutuco haiñ secretu barrena, nic ceña ez bainaz lurric, eta herrautfic baicen corrupcioneric, eta bekhatuic baicen?

2. Heldu naiz çure ganat, ô ene Jaincoa; bihortz simple batequiñ, fede fermu batequiñ,



esperantça, eta errespeturoquin, çure obeditea gatic, eta ceren manatcen darotaçun.

Sinhesten dut eguiazqui, eta errealki present çarela sacramendu huntan Jainco beçala, eta guizon beçala.

Nahi duçu, ene Jaincoa, errecibi çaitçadan, eta çurequin amudioz herrisiqui iunta nadiñ.

Beraz çure ontasuna orhoisten dut eta galdeguiten darotçuthortacotz graciabat, ceina baita ene arima urth dadiñ amudioz eta famurtasunez isur dadiñ gucia çurerçat, eta esteçadan guehiago çutaz canpoanbilha consolacioneric.

Ecen sacramendu guciz handi hau arimaco, eta gorphutceco salbamendua da, eta eritasun spirital gucien erremedio soberanoa.

Horrec gure bicioac sendatcen tu, gure pasioneac bridatcen, gure tentacioneac garaitcen, edo bederen flacatcen, haren bidez isurtcen dire gracia handiac gure arimetarat, berretcen da doidoia hasten den berthutea, fincatcen da fedea, borthitsten esperantça, sustatcen, eta hedatcen caritatea.

3. Ecen çuc eman dioçute, eta orai-ere maiz ematen diotçotçute sacramendu handi hortan hañitz gracia çure maiteci, eta behar beçala errecibitcen çaituztenei.

Hortaz, ene Jaincoa, çu eçagutcen çaitut ene arimaron salbatçailletçat, flaquecia humanoen sendatçailletçat, eta barneco consolacione gucien emailletçat.

Ecen hañitz consolacione ematen dioçure bere atfecabe differenten erdian, altchatcen dioçure bihotça eroria dutenei, ematen dioçure çure laguntçaren esparantça handi bat, eta gracia berriez bichten tutçu, eta berotcen,

Halaco façoñez bai non comuniatu baiño lehen khechos, ephel, eta antficabe cirenac, causitcen baitire onerac gambiatuac, eta hobequi disposatuac ceruco ianari huta hartu ondoan.

Manera hortan comportatcen çare çure hautetçien alderat, ô ene Jaincoa, bere flaquecia frogaturic, eta eçagaturic hobequi aithor deçatentçat çure ganic dutela bere bertute gucia.

Hortaz bere ganic hotçac dire gogorrac, eta debocionezco sentimenda gabeac, baitian çuc eguiten tutçu, bero, khartsu Jaincotiar.

Ecen nor doaque humillqui estirasunea ithurrirat, handic estiago bihurtu gabe?

Nor dagoque berotu gabe su handi baten aldean?

Çu çare, ene Jaincoa, ithurri ahitcen estena, çu çare sua bethi biehtua dagoena, eta behiñere iraungitcen estena.

4. Beraz eciñ asqui hurbill banaiteque ithurrirat ene egarriaten osoqui hiltceco ceruco ur hequien canalerat, hurbillduco dut

ahoa handic cembait hortaren hartceco, eta moian hortaz ene agortasuna heçatceco, eta ene egartsua aphur bat bederen frescatceco.

Eta eciñ banaiteque gucia cerucoa, eta amudioz sustatua cherubiñac, eta serafiñac beçala, guciarequiñ esaiatuco naiz eguiazco debocionearen ardiesterat, eta ahalaz ene bihotça preparatuco dut humiltasunequiñ aingueruen oguiaren errecibitcerat, ceruco su haren cembait iñhar bederen ene baitan sentitceco.

Compli çaçu çure ontasunaz, eta çure graciaz ene baitan escas den gucia, JESUS dibinoa, ene salbatçaille guciz ona, eta manfoa, ceñac erran baitarocuçu: *çatozte ene ganat, penatuac eta cargatuac çareten guciac, eta nic arinduco darozquitçuet çuen penac eta nekheac.*

Math.  
xi. 18.

5. Ikhusaçu, launa, nekhatcen naicela, eta ene bekhoquia icertcen dela, bihotz miñez herstua naicela bekhatuez cargatua, tentacioneez khechatua, ene pasioneez trabatua eta penatua, eta estela nihor-ere çu baicen ni lagun naçaquenic, libra naçaquenic, salba naçaquenic.

Çure escuetan beraz ematen naiz osoqui eta ematen dut dudan gucia, beira naçaçuntçat bicitce itagancor huntan, eta bicitce eternalerat guida naçaçuntçat.

Har naçaçu beraz çure artharen azpian

çure icen sainduaren ohoretan, eman nahi içatu darotaçunaz gueroftic çure gorphutz saindua ianaritçat, eta odol preclatua edaritçat.

*Ene Jaincoa eta ene salbatçaillea, eguidacu gracia cembatenaz maiçago hurbilduco bainaiz sacramendu handi hortarat, hambatenaz ene baitan berret ditecen guehiago çure alderat amudiozco eta debociouezco sentimenduac.*

Eliçar.  
ochoit.

V. CAPITULUA.

*Aldareco sacramendu sainduaren excellenziaz, eta apheztafunari daocan garbitafunaz.*

JESUS-CHRISTOC.

**B**ACINDU-ete aingueruen garbitafuna, eta londoni launi-Bariftaren saindatafuna, halere, etcintezquegai, eta digne sacramendu handi horren offtendarceco, edo erreçibitceco.

Ecen cer nahi den merecimendu duquen guiconac estu behiñ-ere asqui ene gorphutzaren consecratceco, eta aingueruen oguia betac iateco, edo bertceei partitceco.

Misterio handia! dignitate ikharagarria! ceinac ematen baitiote aphecei podore bat aingueruei eman etçaiotena.

Ecen choillqui aphez Eliçaz legitimoqui ordenatuei eman çate podorea misterio sain-

du hunen celebratceco, eta ene gorphutçaren consecratceco.

Eguia da apheçac sacramendu huntan Jaincoaren ministre, eta instrumen dire, haren icenean hari dire, haren hitcez baliatcen dire, eta harc manatcen diotena eguiten dute; baiñan sacramendu haren eguille nausia, eta buruçagüia Jaincoa bera da.

Harc obratcen du estaliqui, ceren baitu podore nahi duen guciaren eguiteco, eta gauça guciac prest baitandez haren obeditcerat.

2. Beraz sacramendu handi huntan hobequi behar dugu sinherfi Jainco bothere gucia duena ecen-ez gure sensuac, eta gaucen campoco iduri penac.

Hala errespeturequiñ, eta ikhararequiñ behar duçu bethi-ere hurbildu misterio handi hottarat.

*Ikhusaçu cer çaren, eta cer ministerio, edo cargu eman çaitçun Ipizpicuac çure gainean escuac pausatü dituenen.*

Eguin çare aphez, eta sacratu çare misterio handi horren celebratceco.

Duçun beraz artha behar denean Jaincoari sacrificioaren ofrendatceco leialtasun, eta debocione handi batequiñ; eta bicitceco bethi-ere çutaz erratecoric içanen esten maneran.

Aphez eguin çarenen etçaiçquitçu obligationeac gutitu, aiticic hartu ditutçu eguin-

bide berriac obligacione berriac sainduqui bicitceco, eta perfeccione handiago baten ardiestececo.

Apheçac berthute guciez berreguindua behar du içan, eta eman behar diote guciei bicitce onaren exemplua.

Berecia behar du içan poblutic, eta estu bici behar guçon comunec beçala; bici behar du aingueruac çeruan, eta presuna perfetac lurrean bici diren beçala.

3. Aphez batec iaunzcura sacratuez bestitua denean JESU-CHRISTOREN lekhua daota, bere othoitça humilqui Jaincoari offrendatceco, beretçac, eta populu guciarentçat.

Bere casolaren gainean marcatua darabilla nahiz aitciñean, nahiz guibelean salbarçaillearen gurutcea, bethi etreberritceco haten pasionearen orrhoitçapena.

Ekhartcen du aitciñean JESU-CHRISTOREN exempluac behiñ-ere bichtatic ez galtceco, eta hei zelorequiñ iarraiquitceco.

Ekhartcen du guibelean bertceen ganic heldu çaizcon gaitçac estiqui, eta pacienqui isateco.

Aitciñean dakharque bere bekharuez nigar eguiñ deçantçat; eta guibelean bertceen hobenac-ere auhenda detçantçat eta iaquiñ detçantçat ararteco beçala dela Jaincoaten, eta bekhatoreen artean.



Hargatic bethi behar diotça ofrendatu bere othoitçac, eta sacrificioac Jaincoari ardiets deçaqueen arteraiño hequientçat galdetcen duen gracia, eta misericordia.

Fiñean apheçac sacrificioa celebratcen duen an ohoratcen du Jainçoa, bozten aingueruac, poblu guiristiñoari ematen sentimendu onac, laguntcen ditu biciac, ematen hil-lac foseguan, eta bere burua ontasun betan gucietan partale eguiten du.

## VI. CAPITULUA.

*Communionetic urruntcen denac bicitceari ihes eguiten dioela, eta indignequi hurbiltcen denac heriotcea ematen dioela bere buruari.*

## A R I M A C.

**I**AUNA, behatcen diodanean aldebatetic çute goratasunari, eta bertcetic ene beheratasunari, ikharatcen naiz, eta confunditcen ene baitan.

Ecen ez banaiz çute ganat hurbiltcen bicitcetic urruntcen naiz, eta indignequi hurbiltcen banaiz heriotcerat noa.

Cer eguiñen dut beraz, ò ene Jaincoa, ene habea, ene laguntçaillea, duda, eta pena gucietan ene arguitçaillea?

2. Itacats daçu bide chuchena, eta indaçu molde labur bat communionearen sailduqui eguiteco.

Ecen

Ecen abantail handi bat da enetçat iaquirrea cer maneraz behar dudan ene bihotça preparatu progotchosqui sacramendu horren errecibitceco, edo sacrificio handi horren ofrendatceco çor darotçudan, errespetu, eta debotionerequiñ.

## VII. CAPITULUA.

*Norc bere burua examinatu behar duela mahaiñ saindurat hurbildu baino lehen, eta hartu bere escafen usteco deliberacione fermu bat.*

## JESUS-CHRISTOC.

**A**PHEÇAC, dignequi misterio sainduen celebratceco eta errecibitceco, behar duen lehenbico artha da, hetarat hurbiltcea humiltsun eguiazco batequiñ, errespetu handi batequiñ, fede oso batequiñ, eta Jaincoaren ohoratceco chede phuru, eta chuchen batequiñ.

Examina çaçu beraz ungui çure conciencia, eta ahal guçiaz garbi çaçu contricione, eta confesione humill baten bidez; halaco maneraz non ez bailaiteque çure baitan gueldi notharic, çu haiñ ontasun handitic hastan abal çaitçaquenic.

Duçun urriqui miñ bat generalean çure belhatu guciez; bainan duçun damu bereci bat egun oroz eguiten ditutçun hutsez.

Eta demboraric asco baduçu, confesa diotçotçu Jaincoati çure bihotçaren barrenan çure pasioneec çure baitan causatcen ditusten miseria guciac.

2. Duçun damu handi bat çure burua ikhustez oraiño sensuen plazererarat haiñ emana, eta munduarequiñ haiñ iosia, haiñ guti mortificatua, eta guticia defordenatuez haiñ bethea.

Haiñ guardia gabea çure sensuen gainean, imaginacione banoez haiñ nahasia.

Haiñ errecha çure baitharic ilkhiterat, eta campoco gaucetan barraiatcerat, haiñ antficabea çure barnearentçat.

Haiñ ekharria hirri eguiterat, eta dostatcerat, haiñ gogorra urriquiarentçat, eta nigarrarentçat.

Haiñ laster gorphutceco aisiac, eta atseguinac billhatcen dituena; haiñ nekhes penitenciaren garrafastunac hartcen dituena.

Haiñ curios berrien aditceco, eta gança edetren ikhusteco; haiñ etsai humiliacione gucientçat.

Haiñ gofea ontasunen biltceco; emateaz doanean haiñ beiratua; haiñ hertsia hequiñ itchequitceco.

Haiñ guti beiratua mintçatcean, ichillic egoten haiñ guti usatua.

Haiñ guti erreguelatua bicitcean, haiñ imperfeta manera gucietan.

IMITACIONEA. IV. LIB. 339

Haiñ emaña ian edanerat, haiñ gorra Jaincoaren hitçaren aditcerat.

Paufnaren haiñ maitatçaillea, haiñ lanaren etfaia.

Haiñ etçarria elkheen aditceco; haiñ lotia khorosan cantatceco.

Haiñ khechatua fiñcatceco, haiñ gogobarraiatua orhoitceco.

Haiñ antficabea Eliçaco oficiotan, haiñ ephela meçan, haiñ agorra comunionean.

Haiñ errecha çure baitharic ilkhitceco, haiñ gaitça çure barnerat bihurtceco.

Haiñ lasterra afarratceco, haiñ errecha bertceen ofenfateco.

Haiñ ariña çure iuiamendutan, haiñ dorphea çure mehatchutan.

Haiñ lorios, eta aleguera gauçac ungui doazquitçunean, flaco, eta bihotz eroña çure nahi gabetan.

Haiñ franco, eta generos deliberacione hartcean, haiñ lacho, eta agor hequien complitcean.

3. Escas horiec, eta horlaco bertceac Jaincoaren aitciñean auhendatu, eta confesatu ondoan, eta çure flacotasunaz behar den dolorea concebitu ondoan, har çaçu deliberacione fermu bat çure bicitcearen chuchentceco, eta ethorquiçunerat berthutean aitciña goateco.

Eguiçu guero çure bihotçaz aldare bat, eta han ofrenda çaquizquit osoqui bethiereco sacrificio, edo holocostatçat: utfatçu ene escueterat çure gorphutça, eta çure arima ene cerbitcatceco borondate fermu batequiñ.

Manera hortan eguiñen çare gai Jaincozco misterioen celebratceco, eta ene gorphutçaren sacramendua çure arimaren probetchu handitan errecibitceco.

4, Ecen esta ofrendaric Jaincoarentçat digneagoric, eta nahicarazcoagoric, ez eta satisfaccioneric gure bekhatuen urratceco hobegoric, eta probetchosagoric, nola note bere burua phuruqui, eta osoqui ofrendatcea JESU-CHRISTOREN gorphutçarequiñ batean meçaco sacrificioan, eta comunione faindnan.

Guiçonac eguiten badu bere eguiñ ahala, eta bere bekhatuez eguiazco urtiquimendu bat harturic heldu baçait barkhamendu gab detcerat: *Iuramentu eguiten dut neure buruaz, dio Jainco Iannac, estudala nahi bekhatorearen heriotcea, nahiago dudala conberti dadiñ, eta bici dadiñ; eta conbertitcen bada ahantcico ditudala osoqui haren bekhatuac, eta generalqui guciac barkhatuco diotçadala.*

Ezec.  
18. 22.



## VIII. CAPITULUA.

*JESUS - CHRISTORI osoqui eman behar gaizcola, hanc bere burua guretçat eman duen beçala.*

## JESUS - CHRISTOC.

**N**OLA nic ene nahiz ofrendatu baitiot neure burua ene aitari çure bekharuentçat gurutcean, escuac hedaturic eta gorphutça billhuciric; eta ez baita deus ene baitan guelditu guiçonac Jaincoarequiñ baquetceco, eta erreconciliatceco sacrificatu estudanic.

Hala egun guciez meça entçutean behar çauquit ofrendatu osoqui ofrenda garbi, eta saildu bat beçala çure amudio guciatz, çate indar guciez, eta çure bihotceco hedadura guciatz.

Cer nahi dut guehiago çure ganic, baicen çaren gucia niri eman çaquizquidan?

Çuc çure burua eman gabe ematen daitotaçun gucia, estur deus estimatcen, ecen ez nabilla çure gaucen, eta emaitcen billha; jainan çure.

2. Ecen nola çuc gauça guciac-ere ez baitintuzque asquo ni gabe; hala niri-ere etçait çuterice deus on çu gabe.

Ofrenda çaquizquit beraz, eta eman çaquizquit osoqui, eta errecibiruco dut atseguinequiñ çure ofrenda.



### 342 JESU-CHRISTOREN

Nic ofrendatu diot osoqui neure burua ene aitari çurerçat; çure ianaritçat eguiñ dut ene gorphutça, eta ene odola: ni gucia çurerçat, eta çu gucia enetçat icateco.

Baiñan çuc çure burutic guelditcen baduçu. cerbait eman gabe, balinbaduçu oraiño çurerçat cembait amarradura, eta ez baduçu çure burua osoqui, eta gogotic ene nahitat largatcen, çure ofrenda ez liteque osoa, ez perçeta gure arteco batafuna.

Nahi baduçu beraz ardietsi eguiazco libertatea eta gracia, behar duçu gauça guciac, baiño lehenago çure burua gogo onez ofrendatu, eta Jaincoz ganat alde baterat largatu.

Ecen guciac badire presuna arguituac, eguiazco spiritualac, eta bere passioneen nauñi direnac, hori heldu da ceten guriac baitite bere buruei osoqui ukho eguiten daquitenac.

*Luc. 14. 33. Bethi eguia içanen da nic erran dudana, Norc ez baitiote ukho eguiten dituen guciaci eciañ daiteque ene discipulu.*

Beraz nahi baduçu içan ene discipulu, eguidu sacrificio bat çure buruaz, eta çure afecçione guciez.



IX. CAPITULUA.

*Çure buruac, eta çure guciac behar diot-  
çagula Joincoari ofrendatu, eta othoitz  
eguiñ behar dela gucientçat.*

ARIMAC.

**E**NE Jaincoa, ceruan eta lurtean diren  
gauça guciac çureac dire.

Eta estu deus bertceric nahi baicen çuri  
neure buruaren ematea, eta eternitate gu-  
cian çure içatea.

Egun betaz, ene launa, ofrendatcen nat-  
çaitçu bihotz chuchen, eta simple batequiñ  
çure gathibu beçala çure bethi obeditceco,  
era laudoriozco sacrificio bat bethi çuri ofren-  
datceco.

Har çaqu neure buruaz eguiten darotçudan  
ofrenda, çure gorphutz sacratuaren sacri-  
ficioarequiñ batean, ceñña egun ofrendatcen  
baitarotçut ene eta poblu guciaren salba-  
menducotz aingueru fainduen aitciñean,  
ceñnac aldarearen inguruan baitire agueri ez  
badire-ere.

2. launa, ematen ditut çure misericor-  
diazco aldarearen gainean çure ofensatcen  
hasi nintcen egunetic orai arteraiño aingue-  
rten, eta çure aitciñean eguiñ ditudan hoben,  
eta bekharu guciac, çure amudioaren suac  
etre, eta suntsi detçantçat.

Urra çatçu ene bicioan nothac, garbi çatçu ene conciencia bekhatu gucietatic.

Bihur daçu ene hobenez galdu dudan gracia, indaçu ene hutsen barkhamendu osoa, misericordia eguiten darotaçula, eta ematen baquezco musua, erreconciliacionearen seinalea.

3. Cer eguiñ deçaquet ene bekhatuen deseguiteco, baicen hec auhendarcea, eta confesatcea, eta misericordia çuri galdeguitea?

Othoisten çaitut, ene Jaincoa, duçun bada nitaz misericordia, huna non naicen çure oiñetan, othoi entçun çatçu ene plainua.

Damuric handiena dut neure bekhatuez; estut nahi guehiago hetarat bihurtu.

Auhendatcen ditut, eta auhendatuco bici naiceño, prest naiz penitencia, eta satisfacione ene ahal guciac eguiterat.

Barkha dietçaquidarçu ene falta guciac, ene Jaincoa, barkha dietçaquidarçu, çure icen sainduaren ohoretan.

Salba çatçu ene arima çure odol preciatuaz erosi duçuna.

Largatcen dut neure burua çure misericordiarat, naicen gucia çure escuetan ematen naiz.

Çure ontasunaren arabera trata naçaçu, eta ez ene maleciaren, eta gaichtaqueriaren arabera.

IMITACIONEA. IV. LIB. 345

4. Ofrendatcen darotçut halaber ene baitan den unguia, haguitz aphurra, eta imperfeta içan arren; çue garbi, eta escas gucietaric libra deçaçuntçat. Errecibi çacu arren, ene Jaincoa, eta emoçu behar duen mercedimendua, çure beguietan edet, eta nahicara7co içan dadintçat, eta emoçu bere azqueneco perfeccionea, fiñ doharfû bateterat guida naçaçu, ez naicen arren cerbitçari alfer inutill, eta creatura esteuz bat baicen.

5. Ofrendatcen darozquitçut halaber anima onen guticia fainduac, ene ahaideen beharrac, ene adifquideenac, ahainenac, arrebenac, maiteenac, eta çure amorea gatic, niri, edo bertceci ungui eguiñ darocuten gucienac.

Othoitsten çaitut halaber hañentçat ceñec ene othoitçac galderu baitituste beretçat, edo bere iendeentçat, nahiz diren biciac, edo hillac.

Guciez ardietz deçatontçat çure graciaren laguntça çureconfolacioneen estitafuna, herifcutan çure sustengua; eta librantça bere gaitz gucietaric; manera hortan bere pena gucietaric ilkhiric bere esquerrac bozcarioequiñ bihur dietçaquitçutentçat.

6. Ofrendatcen darozquitçut halaber ene othoitçac, eta erreconciliacionezco sacrificio hau bereciqui niri çerbait ofensa,

damu, afruitu bide gabe, edo pena eguiñ darotanentzat.

Fiñean orhoitz berac eguiten darozquitzut cerbait damu, altaramendu, gaitz, edo scandala eman diotedan gucientzat, nahiz hitzez, edo obraz, nahiz ustecabez, edo maleciaz.

launa, khen çaqu gute bihotcetic suspitçac, despitac, herrac, afarradurac, escatimac, eta cerc-ere caritatea çaurt, eta guiristiñoen arteco amudioa guti baiteçaque, eta hura gucia.

Barkha dioçoçute, launa, barkha dioçoçute misericordia galdetçen darotçutenei, emoçute çure gracia, haren beharra dutenei, eta eguiñ gaitçatçu gai gracia hartaz goçatceco mundu huntan; eta bicitce eternalaz bertcean. Bizhala.

## X. CAPITULUA.

*Communione saindutiç estela arraçoit gutiz guibelatu behar.*

### JESUS-CHRISTOC.

**M**Aiz hurbill du behar duçu gracien, eta misericordien estitasun, eta garbitasun gucien ithurbururat, senda çaitcentçat çure biciorariç, eta passione desordenaturariç; eta borthitçago içan çaitcentçat, eta erneago deabruaren tentacioneen, eta enganio-gaichtoen contra.

## IMITACIONEA. IV. LIB. 347

Ecen nola baitaqui etfaiac cein probetchu, eta laguntça handiac caufitcen diren communione sainduan, bere eguin ahal guciac eguiten tu presuna Jaincotiarrac handic guibelatceco, eta urruntceco.

2. Handic heldu da cembaitec comuniaterat preparatcean baitituste tentacioneric borthitcenac.

Maliciazco spiritu hura, ceina caufitcen baita Jaincoaren umeen artean-ere lopen libutuaren errana den beçala, heldu da hequien nahasterat bere finecia ardurazcoez, hequien altaraterat beldurtasun vanoiez, duda, eta scrupula arraçoin gabecoez hequien debocionea hosteco, eta fedea gutitceco, aguian guibelatuco direla alde baterat communione-eric, edo comuniatercen badute bederen eguinen dutela ephelqui, eta anticabequi.

Baiñan esta conturic eguin behar haren artificioez, eta hanc egortcen dituen gogocrez, cembat icigatriac, eta ahalca gatriac badire-ere, behar da garaitu bere arma propioez, eta egorri behar çaizco berari bere inspiracione lohiac.

Arbuiatu behar da dohacabe hura, eta burlatu behar da haren ahal guciez: cer nahi den atacada eguin dieçaçun, cer nahi den nahasmendu altcha deçan çure baitan, estuçu hargatic hastandu bebat communione saindatic.



3. Maiz halaber debocionearen içateco lehia handiac, eta ungui confesatu nahizco khechagune sobraniazcoac penatcen du spiritua, eta tratatcen communione saindua.

Segui çaçu beraz çuhurren conseillua, khen çatçu çure ganic khechaguneac, eta scrupuluac, ecen hec apartatcen dute Jaincoaren gracia, eta agortcen debocionea.

Esteçaçula comunione saindua utz cembait altaramendu atin, edo spirituco pena chume gatic; baiñan çoaz berehala confesatcerat, eta barkha dioçoçute bertceei bihotz onez çuri eguin darozquitçuten ofensac.

Ceronec nihor ofensatu baduçu humilqui barkhamendu esca çaquizco, eta Jaincoac barkharuco darozquitçu çure bekharuac.

4. Cer progotchu duçu confesionearen horla luçatceaz, eta communionearen guibelatceaz?

Lehia çaite çure arimaren purgatcerat penitenciaz; arthicaçu lehen bai lehen poçoña camporat, har çaçu contra poçoña, guehigo irabacico duçu horla, ecen-oz luçamendutan ibilliz.

Egun arraçoin batec guibelatcen baçaitu communiatcetic, bihar benturaz handiago bat forthuco çaitçu: manera hortan hañitz cinaudezque communiatu gabe, eta luçamendu horien ondoan causi cintezque benturaz

gutiago gai sacramenduaren errecibitceco.

Khen çatçu ahalic lasterrena beldurkhunde, eta gogo urritasun horiec, ecen esta deusetacotz on khechagunetan egotea, egunac altaramendutan iragatea; eta sacramendutatic urruntcea, egun oroz guertha ditezquen traba chumeen gatic.

Aircitic caltiar da haguitz communionearen hambat guibelatcea, ecen luçamendu horiec epheltcen dute, pisatcen, eta lohartcen gure arima.

Helaz! badire presuna lacho, eta antficabe batçuc, ceinèn atseguina baita bakhan confesatcea, eta ceinèc gogotic guibelatcen baitute communione saindua, bere buruen haiñ goardia bertsiar egoterat obligatuac ez icateco.

5. Oi ala Jaincoaren amudio, eta debocione guti baitute haiñ errechqui communione saindutic guibelatcen direnec!

Oi ala dohatfua baita, eta Jaincoaren gogaracoa haiñ ungui bici dena, eta bere conciencia haiñ garbi daducana, non gai bailiteque egun guciez-ere communiatceco cillhegui balitçαιο, eta eguiñ ahal baleça beguietan hartua içan gabe.

Baldiñ norbait hastantcen bada noicic behiñ mahaiñ saindutic errespetuz, humilltasunez, edo bertce cembait arraçoiñ onez, laudatceco da.

Baiñan epheltafunerat erottcen bada, behar du bere debocionea bichtu, eta bere ahalac eguiñ, eta Jaincoac borondate ona maite duenac eguiñen du gaiñeracoa.

6. Cembait arraçoiñ iustuc communiatcectic guibelarcen badu, eta halere balinbadu eguiazco desira, eta chedea communiatceco, esta gabetua iñanen communione onaren fruituez, eta progotchuez.

Ecen arima onec egun guciez, eta oren guciez-ere trabaric batere gabe communia deçaquete spiritualqui, eta progotchurequiñ.

Ordean badire dembora batçuc, eta egun bereci batçuc, ceñetan behar baitute sacramentalqui-ere communiatu amudio, eta errespetu handirequiñ, ene loria hobequi billhatcen dutela, ecenez bere consolacione propria.

Ecen salbatçaillearen incarnationea, eta pasionea debocionerequiñ gogoan darabilhagun gucian, eta harequiñ bat eguiterat esaiatcen garen gucian spiritualqui communiatcen dugu, eta haren gorphutça errecibitcen beguiec ikhusten estuten manera batean.

7. Baiñan besta gatic choillqui, edo usantça gatic communiatcerat hurbiltcen dena, gutitan iñanen da gai ungui communiatceco.

Dohatsu bere burua Jaincoari offrendatcen dioena holocauztazco sacrificio bat

beçala meça erraten edo communiatcen duen  
aldi gucian !

Meça erratean etçaitecela içan ez lucegui  
ez laburregui, beguita çaçu neurri arraçoi-  
ñezco bat ; eta segui çaçu çurequiñ bici di-  
renen ufantça ona, eta laudatcecoa.

Etçaitecela içan bertceentçat nekharri,  
edo penagari, çabiltça bide comunaz, se-  
gui çaçu çure aitciñecoec eman darotçuten  
exemplua, eta hobequi beha dioçoçu bert-  
ceren progortchuari, ecen-ez çure guticiari,  
eta debocione propialari.

## XI. CAPITULU A.

*Arimac JESU-CHRISTOREN gorputça-  
ren, eta Escritura sainduaren  
behar handia duela.*

### ARIMAC.

**O** JESUS, guciz ona eta mantsoa ! nolaco  
atseguina duen arima Jaincotiarrac ia-  
ten hari denean çure mahaiñean, ceinetan  
ez baitçαιο ematen bertce ianariric çu ceroni  
baicen, ceina baitçare hanc maitatcen duen  
gucia, haren guticien chede baxhatra, eta  
ontafun gucietan den maitagarriena ?

Oi ala goço bailitçaiquet ene bihotça ni-  
garretan urtcea çure aitciñean ifurtceco, eta  
çure oiñen bustitceco, Madalena dohatçuac  
beçala !

Baiñan non caufituco dut debocione famur hura, eta norc eguiñen tu ene beguiez nigarrezco ithurriac?

Eguiaz çure aitciñean naicenean çure aingueruez gucia inguratua ene bihotçac fustatu behar luque, eta bozcarioz urthu nigarretan.

Ecen oguiaren, eta mahatz arnoaren idurien azpian estalia içan arren halere badaquit eguiazqui çarela sacramenduan.

2. Ene beguiac ez litezque gai çuri behatececo aguertcen baciñe çure argui ptopialean, eta çure Jaincozco distiaduran; eta mundu gucia eciñ laoque ez deufetarar billhacatu gabe çure loriaren, eta maiestarearen aitciñean.

Beraz ene flacotasuna gatic estaltcen çare, eta gueriçatcen sacramendu hortan.

Halere badut eguiazqui, eta adoratcen dut lurraren gaiñean aingueruec ceruan adoratcen dutena, baiñan nic fedez ikhuston dut, eta hec agueriqui, eta belo gabe.

Halere contentatu behar dut fedez, eta argui haren lagantçarequiñ ibilli behar dut, *eternitateco egun handia aguer dadin arteraiño, ceñac sunsituco baitu itçalac, eta arguituco figura guciac.*

I. Cor. 13. 10. *Estatu perfet hura erhor daitequenean, etçate guegiago baliatuco sacramenduz, cecren dohatfuec ceruco lorian ez baitute horlaco erremedioen beharic.*

Goçatcen

Goçatcen dire fiñ gabeco bozcario batez Jaincoaren aitciñean ; ikhusten dute bekhoz bekho ; han argui chumeago batetic iraganic Jaincotasunaren arguizco tulumbiorat gustatcen dute verbo eternala , ez hartu duen haraguiaren arabera ; baiñan mende guciac baiño lehenago cen beçala , eta eternitate gucian içanen den beçala.

3. Gauça miragarrri hauc gogoan iragaten tudanean , consolacione spiritualac ere unhagarrri çaiçquit , ecen ene Jaincoa bere lorian agueriqui ikhusten estudaiño , ez deus çaiçquit munduan aditcen , eta ikhusten tudan gauça guciac.

Çuc badaquiçu , ene Jaincoa , deus estela çai ene contentatceco , eta consolatceco çu baicen , hortaz estut-ere deus bertceric desiratcen çu eternitate gucian contemplatcea baicen.

Orduan ene guticia eciñ compli deçaqueç gorphutz hilcor huntan naiceiño ; hala iarrri behar naiz pairatcerat , eta çure nahi sainduaren azpian eman behar dut neure burua ene guticia guciequiñ.

Ecen çure sainduac ceruco errefuman bozcarioz betheric çurequiñ daudecenac mundu huntan cirenean fede , eta esparantça handirequiñ iduriquitcen çuten egun doharfu hura , cainetan behar baitcintuen hec hartu çure loriarat.



Hec siñhetsi dutena siñhesten dut nic-ere; hec çuten esparantça bera dut; eta segurantça humill batequiñ uste dut helduco naicela çure graciarequiñ batean hec iadanic ardietsi duten çorionerat.

Bizquitarrean fedearen arguiz ibilli behar dut hemen bici naiceño sainduen exempluez borthitsturic.

Içanen dut ene consolacione, eta ene arguitceco liburu sainduac-ere, eta gucien gainecoa içanen dut çure gorphutz guciz factatua, erremediatçat ene flaqueticetan, eta ihez lekhitçat ene atsecabetan.

4. Ecen ikhusten dut bi gauça baitezpada ditudala behar mundu huntan, eta hec gabe eciñ garraia deçaquedala bicitce dohocabe hau.

Ene gorphutceco presondegui huntan naiceño bi gauen beharra dut, ianariaren, eta arguiaren.

Hartaracotz nahi içatu nauçu ene hacotafunean hagoan iduqui çure gorphutz factatuz ceñña baliatcen baitçaiio ianaritçat ene arimari; eta gorphutçari, *eta bertce alde çure Jaincozco hitçaz eguiñ duçu flambeu bat ene arguitceco neure bide gucietan.*

Pfalm.  
118.  
105.

Bi gauça horiec gabe eciñ bici naiteque, ecen Jaincoaren hitça da ene arimaren arguia, eta çure gorphutçaren sacramendua da bicitcearen oguia.

IMITACIONEA. IV. LIB. 355

Erran daiteque oraiño bi gauça horiec ditrela bi mahaiñ beçala, ceñnac eman baititutuçu çure Eliçan, bata alde batean, eta bertcea bertcean.

Bata da aldare sacratuaren mahaiña, ceñnaren gaincan baita aingueruen oguia çure gorphutz preciatua.

Bertcea da Jaincoaren leguearen mahaiña, ceñnac çarratcen baititu erligioneco eguiatic fainduenac, ceñnac iracasten baitu fede chuchena, eta ceñnac sarrarasten baicaitu beloaz barnago faindutaco faindua den lekhurat.

O JESUS, argui eternalaren arraiio faindua, ditutçun esquerrac, ceren eman darocuçu çure legue fainduaren mahaiña, ceñna preparatu baitarocuçu çure Profetez, Apostoluez, eta Eliçaco bertce doctorez.

5. Bethiereco esquerrac darozquitçut, ô guiconen creatçaillea eta erresquetatçaillea, ceñnac munduari eracuchteco harentçat duçun amudioa, preparatu baitarocuçu banquet handi bat, ceñnetan ematen baitarocuçu iaterat, ez bazcoco bildotcha, ceñna baitcen figura bat, baiñan çure gorphutça bera, çure odolarequiñ.

Banquet sacratu hartan bethetcen tutçu bozcarioz çure cerbitçari leialac, *eta hor-ditcen tutçu fainduqui hei edanaraciric salbamenduco khalitcean, ceñnetan baitire*

*ceruco atseguin guciac*, han safiatcen dire gurequiñ aingueru sainduac; baiñan manera estiago, eta dohatuago batez.

6. Oi ala Aphecen dignitatea handia baita, eta ohoragarria, hec choillqui datenaz gueroftic podore maieftatezco Jaincoaren gorphutça consecratceco, hitz sainduen bertutez, bere ezbaiñez haren laudatceco, bere escuetan haren itchequitceco, bere ahortan haren errecibitceco, eta ianaritçat fidelei partitceco!

Oi ala haiñ maiz garbitafun gucien Jaincoa errecibitcen dutenec escuac garbi behar baitituste, ahoa chahu, bihotça notha gabe!

Ala aphez batec bildotch nota gabearen haragui errecibitcen ufatuac gordian egon behar baitu beldurrez itçur daquion hitcio onest, saindu, probetchos estenic.

7. Haren beguiec JESU-CHRISTOREN gorphutz adoragarria egun guciez ikhusten dutenec modest, simple, eta garbi behar dute.

Haren escuec chahuac behar dute içan, eta bethi-ere cerurat altchatuac ceruaren, eta lurraren creatçaillea haiñ maiz uquitcen dutenaz gueroz.

Aphecei guciz erraten çaitze leguean es-  
*Levit. cribatuac diren hitz hauc, çareten saindu*  
*39: 2. ceren saindu bainaiz ni, ceina bainai: ren*  
*launa eta Jaincoa.*

IMITACIONEA. IV. LIB. 357

8. O Jainco boheretsua, lagun gaitzatçu çure graziaz gu ceñac apheztafunaz ohoratu baicitutçu, gure caracterari daocan garbitafunarequiñ, eta debocionearequiñ cerbitça çaitçaguntçat.

Eta eciñ bici bagaitzque behar beçan bat innocencia, eta sainduta funequiñ, igutçu nigarrac gure bekhatuen cinciñez aubendatceco; eta eguiguçu gracia cerbitça çaitçagun guerorat fermutasun, berotasun, eta humiltasun guehiagorequiñ.

XII. CAPITULUA.

*Artha handirequiñ behar dugula preparatu comunione saindurat.*

JESUS-CHRISTOC.

**N**I naiz garbitafunaren maitatçaillea; eta arimen saindutçaillea.

Bihotz garbi baten billha nabillha, hartaz eguiteco ene pausa lekhua.

*Prepara dieçadaçu sala bandi bat, un-* Marc.  
*gui mublatusa, han ianen dut ene dicipulue-* 14. 15.  
*quiñ bazcoco bildotcha.* Luc.  
22. 114

Nahi baduçu ethor nadiñ çure ganat, eta çarequiñ egon nadiñ, *garbi çaitte lemami* I. Cor.  
*çaharretic*, eta chahu çaçu çure bihotceco 3. 7.  
egoitça, kheñ çatçu handic munduaren khut-  
su guciac, eta bicioen habarrotsac, *egon çaitte* Psalm.  
*çure bakhartafunean carraioa hegastegnian* 101. 2.

Isaï.  
38. 15.

*hakharric dagoen beçala, eta erabill çatçu çure spirituan bihorz miñequiñ çure bicico errebelamendu guciac.*

Ecen adisquide samur batec bethi-ere lekhuric hoberena, eta edertena aphaintcendu bere maitearentçat, ceten hortan eracuchten baitu ceñ maite duen haren ganat heldu dena.

2. Iaquiñ behar duçu halere cer nahi den eguiñ çaçun eciñ asqui ungui prepara çaitzquela ene errecibitcerat; ez eta deus bertceric gogoan içan gabe urthe batez çure arthaguciac hortan ematen baicintu-ere.

Graciaz eta misericordiaz usten çaitut ene mahaiñerat, guiçon aberatz batec bere mahaiñerat, gombidatcen balu beçala pobre escaille bat, ceñac eciñ bete eçagurça eracutch bailioçaque bere miseriaren aithorrez, eta bere esquer choillez baicen.

Eguiçu çure baitan dagoen gucia, eta eguiçu arthosqui, ez ufantçaz, edo eciñ bertceez.

Errecibi çaçu errespetu handi batequiñ, eta beldurtasun amudiozco batequiñ çure, Jaunaren eta Jaincoaren gorphutça, ceñac maite baitçaitu, eta nahi baitu çure ganat ethorri.

Nic deitcen çaitut ene mahaiñerat, nic nahi dut ethor çaitecen, nic complituco duç

çuc escaz duçuna , çu çato , eta errecibi na-  
çaçu.

3. Debocionezco sentimendu famurrac  
ematen darozquitçudanean esquerrac emot-  
çu Jaincoari , ceinac eguiten baitarotçu gra-  
cia bat, eta misericordia bat mereci estuçuna.

Contrarat çure burua sentitcen baduçu  
agortafunean, eguiçu othoitz, plainu, ni-  
gar, io çaçu athea, etçaitecela unha, irau-  
çaçu gracia salbagarri haren papur bat, edo  
ihintz bat mereci deçaqueçun arteraiño.

Çuc ene beharra duçu , nic estut çure be-  
harric.

Çu etçare ene ganat heldu ene santificat-  
ceco , baiñan ni heldu naiz çure ganat çure  
hobetceco , eta saildutceco.

Ene ganat heldu çare saildutcerat , ene-  
quin bat eguinic gracia berrien errecibitce-  
rat, eta guerotic guerorat perfetago eguiterat.

Etçaçula har antficabequi ; haiñ gracia han-  
dia, çure bihotça arthosqui prepara çaçu,  
han sararasteco çure maitea.

4. Orduan esta asco gure debocionearen  
bichtea, eta gure arimen preparatcea com-  
muniatu baiño lehen ; communiatu ondoan-  
ere artha behar duçu debocionezco senti-  
mendu hetan irauteco.

Ecen sacramenduan errecibitu dugun gra-  
ciaren ez galtceco hambat artha behar da nola



haren errecibitcerat preparatceco; eta artha hura bera moian bat da gracia bertien ar-dietsteco.

Contrarat bere Jaincoa errecibitu ondoan campoco consolacionetarat barraiatcen denac galtcen du disposicionea, eta gaitasuna haren errecibitceco.

Ebac orduan solas alferrac, çoaz aparterat, goça çaite paufuan çure Jaincoaz.

Ecen eguiazqui çurequiñ duçu, eta mundu guciac-ere eciñ idec dietçaqueçu.

Niri eman behar çaizquit çaren gucia, ene baitan behar duçu bici, çure baitan baiño hobequi; ene baitan behar duçu hemendic harat gauça guciez paufatu deufen-ere grina-ric gabe.

### XIII. CAPITULUA.

*Gauça guciez billhuci behar dela JESU-CHRISTOREQUIN perferqui communione saindu bat eguiteco.*

#### A R I M A C.

**N**OIZ içanen naiz asqui dohatfu, oi ene Jaincoa, çu bakharric caufitceco, çuri neure bihotça iduquitceco, eta çutaz goçatceco ene arimac desiratcen duen beçala; halaco façoinez non nihorc ez bainau guehiago arbiatuco, eta creaturec ez bainaute mobituco, eta ez baitarotet behatuco-ere?

IMITACIONEA. IV. LIB. 361

Baiñan mintçatuco baitçaizquit çu niri ,  
eta ni-ere çuri buruz buruan adisquide bat  
bere adisquidearequiñ mahaiñean mintço  
den beçala.

Nic desiratcen dudan gucia , nic çuri gal-  
detcen darotçudan gucia da , ô ene Jaincoa ,  
çurequiñ bat eguiñ nadiñ osoqui , lacha de-  
çadan ene bihotça creaturen amudiotic , mis-  
terio saildu hau maiçago ofrendatuz , eta  
errecibituz ikhas deçadan ceruco gauça eter-  
nalen guerotic guerorat guehiago gustatcen.

Helaz ! ene Jaincoa , noiz içanen naiz haiñ  
hertsiqui çurequiñ bat eguiña , eta çure bai-  
tan hondatua ; non ene burua-ere ahantcico  
baitçait osoqui ?

Çaren enequiñ , ni çurequiñ içan nadint-  
çat , eta hemendic harat bat baicen içan ez  
gaitecentçat.

2. Çu çare eguiazco ene maitea *millen* Cant.  
*artean hautatua* , çure baitan nahi dut pau- 5. 10.  
fatu , bici naiceiño.

Çu çare Jainco baquetiarra ; çuc dakhar-  
queçu lekhu gucietarat baquea , eta sofegua ;  
çu etçaren lekhuana esta penatic oiñhaceric ,  
eta miseria eciñ akhabatuzcoric baicen.

Isaie.

Çu çare eguiazco Jainco gordea *commu-* 45. 15.  
*nionean* , çuc estuçu ariaric , eta eguireco- Job. 21  
ric gaichtaguinequiñ , simpleequiñ , eta hu- 16.  
millequiñ dire çure solasac. Prob.  
3. 12.

Sacra-  
mendu  
faindua  
ren offi-  
ciotic.

Oi ala çure spiritua estia baita, Iauna,  
çure amudioaren samurtasuna çure umeei  
iracuchteco hasten ditutçunaz gueroftic ogui  
goço, gustoz, eta cerutic iausiricaco batez.

Deut.

4. 7.

Eguiazqui esta poblatic den handienic-  
ere bere Jaincoac haiñ hurbill dituenic, no-  
la çu baitçare hurbill çure cerbitçari leiale-  
tatic, nahi duçunaz gueroz içan hequien  
egunorozco oguia, hequien consolatçaco,  
eta hequien bihotçac cerurat altchatceco.

Ibid.

3. Ceiñ poblu da munduan guiristiñoen  
pobluarequiñ compara ditequenic?

Non caufituco da ceruaren azpian creatu-  
ratic haiñ Jaincoaz maitaturic, nola atima  
faindu bat, ceinetan sartcen baita Jaincoa,  
haren hazteco bere haragui loriofaz?

O gracia ecin ezplicituzcoa, fagore be-  
recia, amudio neurri gabecoa Jaincoac gui-  
çonari bereciqui marcatcen dioena!

Cet bihurtuco diot Jaincoari hambat gra-  
cia, fagore, eta amudioarentçat?

Estut deus haren gogaracoago denic ene  
bihotça baiño, ceina ematen baitior alde  
baterat bere bihotçarequiñ hertsiqui bat  
eguiñ deçantçat.

Oi ene arima Jaincoarequiñ osoqui iun-  
tatua balitz, orduan ene barren gucia bozça-  
rioz betheliteque!

Orduan Iaunac etran lieçaquet enequiñ:

Egon nahi baduçu, nic-ere nahi dut çure-  
quiñ egon : eta nic ihardets nioçoque : Ah !  
launa , gogotic , egudaçu fagorea enequiñ  
egoteco , nic nahi dut çurequiñ egon ene bi-  
hotz guciaz.

Ene nahi gucia da ene bihotça ičan dadiñ  
osoqui , eta bethicotz çurequiñ bat eguiña.

XIV. CAPITULUA.

*Arima saindu batçuec communiatceco duten  
guciaz.*

A R I M A C.

**O**l ene Jaincoa , cein handiac , cein ha- Psalm!  
nitçac diren çure beldur direnentçat 30. 10.  
gordeac daoscatçun ontasunac , eta estita-  
sunac !

Orrhoitcen naicenean cembat kharrequiñ,  
eta debocionerequiñ arima on batçuec hurbil-  
tzen diren çure sacramendatat , gorritcen naiz  
ahalquez ikhustea cembat epheltasunequiñ ,  
eta antsicaberasunequiñ ni hurbiltzen naicen  
mahaiñ saindu hartarat.

Ahalcatcen naiz ceren agor , eta gostu ga-  
be guelditcen naicen ; ceren estudan barnea  
samurtua , eta sustatua çure aitciñean ; ce-  
ren estudan sentitcen comunionearentçat  
hambat amudio , eta khar nola bertce ha-  
ñitcec , ceinac eciñ baitçaozquen nigarrac  
ifuri gabe bere desiren , eta berotasunaren  
podorez.

Bere kharrac idec-arasten cioten bere bihotceco, eta gorphutceco ahoa çure errebitceco urbicien ithurria beçala, eta çure haraguia ianic bere gofearen safiatceco.

Hargatic hurbiltcen ciren çure mahaiñeratz bozcario handi batequiñ, eta apertu, hirritz, eta gofete spiritual batequiñ.

2. Oi ala hequien fedea beroa baitcen, eta bicia ala harc ungui frogatcen bairu errealkui present çarela sacramendu hortan!

Luc. Arima *hec eçagutu dute eguiatzqui Iauna*  
24. 35. *oguiaren haustean, eta eracuchten dute*  
*Emausco discipuluec* beçala JESUS hequiequiñ dabillhala; hequien bihotçac haren amudioz haiñ sustatuac direnaz gueroftic.

Helas, ala utrun bainaiz ni haiñ debocione samurretic, eta haiñ amudio khartfutic!

JESUS ona, eta estia, orhoi nauçun urricari pobre laceriatu bat naiz çure airciñean.

Indaçu orhoi çure amudiotic cembait inhar bederen communione sainduan ene fedea handi dadintçat guerotie guerorat guehiago, ene esparantça borthitz dadintçat, eta ene bihotça behiñ çure amudioz sustatua ceruco manna hor dastatu ondoan behiñ - ere ephel estadintçat.

3. Çure misericordiac, Iauna, eman dieçaquet errechqui hambat desiratcen dudan gracia hori, ceñia baita ene ganat ethortcen çarenean isurtcea ene bihotcerat susco, eta

kharrefco; amudiozco eta estitafunecco spiritu huta.

Ecen arima bereci hequien afeccione, eta desita khartsuac sentitcen estitudan arren, ematen darotacu bederen afeccione bero hequien guticia.

Desitatcen dut handisqui, eta othoitsten çaitut partale eguiñ naçacun haiñ beroqui maite çaitusten arimen merecimendutan, bai eta oraiño hequien lorian.

### XV. CAPITULUA.

*Debocionea ardiesten dela humiliatuz, eta norc bere buruari ukho eguiñez.*

#### JESUS-CHRISTOC.

**D**EBOCIONECO gracia behar duçu galdeguñ cinciñez; desitatu beroqui, igniqui pacienciarequiñ, eta esparantçarequiñ, esquerrequiñ errecibitu; humilltasu-nequiñ beiratu; arthosqui hari ihardetsi, eta hartaz baliatu, eta utci Jaincoari hautua har deçantçat berac placer duen manera, eta dembora çure visitatceco.

Humiliatu behar duçu hagnitz debocioneric batere, edo guti baicen sentitcen, ez duçunean; baiñan etçaitçu hargatic bihotça etori behar, eta estuçü behar sobera tristatu.

Maiz Jaincoac colpe batez, eta ahantz orduan ematen du dembora lucez eman nahi çatu estuena, eta othoitçaren hastean eman



estuena akhabantçan ematen du batçuetan.

2. Haiñ flacoa bada guiçona, non Jaincoac egortcen balioçça graciaç hanc galdeguiten diotçan beçaiñ farti, eta bete nahien arabera eciñ iasan bailerçaque.

Iduricaçu beraz debocione bero baten gracia esparantça fermu, eta paciencia humill batequiñ baiñan ezbadarotçu Jaincoac eman nahi, edo eman ondoan ezarian khentcen badarotçu çure gaiñ eguiçu, eta siñherzaçu escas hori çure bekhatutaric heldu dela.

Ecen maiz gracia ren debeatceco edo hastantceco gure ganic; asco da deus guti, baldiñ deus guti behar bada deithu, eta ez escas handi batençat iduqui haiñ ontasun handia debeatceco asco handi dena.

Cer ere baita traba hura dela handia, edo chumea garaitcen baduçu, eta khentcen alde baterat, galdetcen duçuna ardietsico duçu.

3. Ecen noiz eta ere bihotz guciac emanen baitçaizco Jaincoari, eta çure fantasia ren arabera ez baituçu hau edo hori galdeguiten, baiñan haren escuetan alde baterat emanen baitçare causituco çare baque handi baten, eta Jaincoarequiñ hertsiqui iuntatua, ceren çure contentamendu gucia içanen baita Jaincoaren nahiaren complitcea.

Hala norc-ere bere chedea Jaincoa ganat altchatuco baitu bihotz simple, eta chuchen batequiñ, eta bere burua garbituco baita

creaturen amudio defordenatu, edo herra gucietaric, haiña gai içanen da graciaren errecibitceco, eta ardiesteco Jaincoa ganic debocionearen dohaiña.

Ecen Jaincoac estitu bere benediccioneac isurtcen toqui hutsatarat baicen, eta cembatenaz nihorc guehiago ukho eguiten baitiote behere huntaco gauceti, eta hiltcen baitçai bere buruari, bere burua mezpreçatuz, hambatenaz graciac heldu çaizco lasterrago, eta hañitçago, eta da libroago ceruco gaucetarar bihotçaren altchatceco.

4. Orduan haren spirituco beguiac idequico dire caustituco du bere burua aberatz ceruco ontasunez; eta berac-ere miretisco du bere çoriona, haren bihotça idequico da, eta çabalduco bozcarioz, eta emanen du bethicotz bere burua haren escuetan.

Manera hontan bethecten da benediccionez Jaincoa bere bihotz guciac billhatcen duena, eta bere arimaz gaizqui baliatcen estena, hura munduco gauça vanotan emplegaturic.

Halacoari ematen çaiõ communione sainduan Jaincoarequiñ hertsiqui bat eguiteco gracia, ceren haiñac ez baitio behatcen bere debocioneari, eta bere consolacioneari, aiticitic sacrificatcen baitiotça debocione, eta consolacione guciac Jaincoaren ohoreari, eta loziari, ceñac hobequi billhatcen baiti-

tu sacramendu hortan causitcen duen gustu  
spiritual guciac baiño.

## XVI. CAPITULUA.

*Aguertu behar diotçogula çure beharrac  
JESUS-CHRISTORI, eta galdetu bere  
gracia.*

## A R I M A C.

**E**NE Salbatçaille, gucz estia, et amai-  
tagartia, ceñaren orai errecibitcea de-  
siratcen baitut eguiazco debocione batequin.

Eçagutcen diturçu ene flaquetiac, eta ene  
beharrac.

Badaquiçu nolacoac diren ene gaitçac  
eta bicioac, eta ceñ maiz naicen penatua,  
tentatua, altatatua, khechatua, eta bekha-  
tuz-ere liçundua.

Heldu naiz çure ganat etremedio bakhar-  
rerat beçala, othoitsten çaitut, consola na-  
çaçu, eta atin dietçaquidatçu ene penac.

Gauça guciac daquizquienari mintço nat-  
çαιο, ene barren gucia ikhusten duenari ene  
perfetqui consolatceco, eta laguntceco ba-  
kharric gai denari.

Çuc badaquiçu estela nihor-ere, ni baiño  
on beharragoric, eta berthute guciez gabe-  
tuagoric.

2. Huna non naicen, ene Jaincoa, po-  
brea, eta billhuça çure aitciñean gracia gal-  
deguiten

deguiten darotçut, misericordia esque na-  
gotçu.

Ene gosearen fashatceco indaçu bicitcea-  
ren oguia, ene epheltasunaren kbentceco,  
fusta naçaçu çure amudioaz; ene itsutasuna-  
ren sendatceco argui naçaçu çure bisaiaco  
arraioez.

Gambia dieçadaçu gostua halaco maneraz  
non munduco atseguinac causituco baititut  
khiratsez betheac, bicitce huntaco penac,  
eta gaitz guciac arinac; eta munduan laudat-  
cen diren gauça guciac mezpreçagatriac, eta  
ahanstecoac.

Itçul açu ene bihotça çure ganat, altoha  
çaçu cerurat, eta ez naçaçula utz basatua,  
eta errebelatua lurrean ibiltcerat.

Esteçadan causi, ez orai ez nihoiz, goço-  
tic çure baitan baicen; ceren çu baitçate ene  
ianaria eta edaria, ene amudioa eta ene boz-  
çarioa, ene atseguina eta ene on gucia.

Oi ochala çure presenciaz sustatcen ba-  
nin duçu, erretcen, eta çure baitharat oso-  
qui gambiatcen; halaco façoinez non amu-  
diaz çurequin bat eguinic, eta su sacratu  
hartaz nolaz baitere urthuric, ez bainintequè  
çurequin spiritu bat baicen.

Esteçaçula permeti ene arima doan çure  
ganic gose hutz eta agor; baiñan balia çaite  
ene alderat misericordia hartaz beraz, cei-

ñaz haiñ miragarriqui baliatu baitçare çure  
sainduen alderat.

Norc behar luque miretsi çu errecibitcean  
gucia susco eguiten baninz-ere, eta samur-  
tasunez çuretçat urteen baninz-ere; çu ce-  
roni çatenaz gueroftic fu bat bethi bichtua,  
eta nihoiz iraunguitcen etçarena, khar bici  
bat bihotçac garbitcen, eta spirituac arguit-  
cea ditutçuna.

XVII. CAPITULUA.

*Nolaco amudio eta debocionearequiñ behar  
dugun deçratu JESUS - CHRISTOREN  
errecibitcea sacramendu sainduan.*

ARIMAC.

**I**AUNA, nahi çaitut errecibitu debocione  
handi batequiñ amudio bero, eta guticia  
kharitsu batequiñ, hala nola eguiñ baitute  
çure sainduac, eta hasitz presuna prestac,  
ceiñen debocionea çure gogaracoa içatu bai-  
ta, eta ceiñac haguitz Jaincotiarqui bici iça-  
tu baitire.

O ene Jaincoa, amudio eternala, ene on-  
tasun bakharra, ene dohatfutafun fiñ gabe-  
coa, nahi çaitut errecibitu egundaiño sainduc  
içatu duen, edo içatu ahal duquen guticiatic  
botthitcenatequiñ, eta errespeturic handie-  
narequiñ.

2. Eta gai ez naicen arren debocionezco  
sentimendu horien ene baitan içateco, ha-



lere ofrendatcen darozquitçut ene bihotceco  
afeccione guciac, neronec guticia khartçu  
hec guciac banitu beçala.

Ofrendatcen darozquitçut halaber ene bi-  
hotz guciac humilltasun handirequiñ arima-  
ric Jaincotiarrenac ahal tusquen desiraric  
khartsuenac.

Ez dut deus - ere enetçat itchequi nahi ;  
bainan neure burua, eta neure ontasun gu-  
ciac nahi ditut bihotz onez çuretçat sacrifi-  
catu, eta guciac çure cerbitçucotz emplega-  
tu, eta cosumitu.

Ene launa, eta ene Jaincoa, ene creat-  
çaillea, eta erresquetatçaillea, nahi cintuzquet  
egun errecibitu çuri dagotçun beçalaco sa-  
murtasun errespetu, ohore, eçagutça, amu-  
dio, eta saindutasun guciarequiñ ; fede, es-  
parantça, eta garbitasun guciarequiñ, hala  
nola errecibitu baitcintuen Virgina loriosac  
çure ama sainduac, noiz eta ere Incarnacio-  
neco misterioaten bertia ekhartcen cioen,  
aingeruari ihardetsi baitcioen errespetu, eta  
humilltasun handirequiñ : *Huna launaren* Luc:  
*nescatoa, compli bedi ene baitan çure errana.* 1. 38.

3. Nahi nuque gai baninz çure aitcinean  
aguertcecobihotça desirafainduz betheric, eta  
çure amudioz sustaturic disposicione saindu  
hequequiñ, ceinetan baitcen Joannis-Baptis-  
ta sainduetan den handiena, eta çure aitcinean



dari dohotfua , noiz eta ere Spiritu faindua-  
ren mobimenduz ianci baitcen bere amaren  
fabelean , eta noiz eta ere iendartean ceña  
biltçala ikhufiric erran baitçuen çutaz hu-  
milltasun , eta zelo handirequiñ : *Espofaren*  
Joan. *adisquidea bozcario handitan da espofare-*  
3. 29. *quiñ denean, çeren aditcen baitu haren boça.*

Ofrendatcen darozquitçut halaber çute  
fainduei eman diotçotçuten bozcario Jain-  
cozcoac , afeccione kharfhuac , spirituen be-  
re baitharic ilkhitceac , argui naturaz gora-  
gocoac , eta ceruco visioneac.

Hec ofrendatcen darozquitçut creatura gu-  
ciac ceruan , eta lurtean egundaino eman ,  
eta seçulan emanen darozquitçuten laudorio  
guciequiñ.

Ofrendatcen darozquitçut nahiz enetçat,  
nahiz ene othoitçetan gomendatu behar da-  
rozquitçudan gucientçat , guciez behar beça-  
la laudatua , eta lorificatua içan çaitçentçat  
eterniratean.

4. Ene launa eta ene Jaincoa , errecibi çat-  
çu nic çuri laudorio infinituen emateco da-  
dan defira , eta çure perfeccione neurri gabe-  
coen arabera ohoratua ikhusteco dudan na-  
hia , eta guticia.

Ohore hori bihurtcen darotçut , eta nahi  
darotçut bihurtu egun guciez , eta momen-  
tu guciez-ere.

Eta gombidatcen ditut , othoisten tut eue

IMITACIONEA. IV. LIB. 373

bihotz guciac ceruco spirituac, eta guiristiño  
leial guciac lagun naçatela çure laudarcen,  
eta çuri esquerren ematen.

5. Lauda beçaitçate launa, lurreco populu,  
calta eta erdara guciac, lorifica beçate çure  
icen adoragarria bozcario faindu, eta zelo  
khartfu batez bere baitaric ilkhitic.

Misterio faindu hau debocionerequiñ, eta  
ertespeturequiñ celebratcen dutenec, eta fe-  
de bici batequiñ errecibitcen dutenec ardietz  
beçate çure ganic ene bekhatuen barkha-  
mendua.

Orrhoit beitez othoi ni naicen beçalaco be-  
khatore dohacabeaz mahaiñ faindutic ilkhit-  
cen direnean, çurequiñ miñqui bat eguiñac,  
debocionez uquituac, eta samurtuac, boz-  
carioz, eta consolacionez betheac, eta oso-  
qui faliatuac.

XVIII. CAPITULUA.

*Estela sobera curiosasunequiñ çundatu be-  
har misterio hau; baiñan humillqui ar-  
raçoiña eman behar dela fedearen azpian.*

JESUS-CHRISTOC.

**E**NE Semea, beguira çaitte curiosasun al-  
fer batez misterio handi hunen çundat-  
cen haritcetic, beldurrez eror çaitecen du-  
dazco, eta siñhetz gortasunezco tulumbio  
barrenerat.

Prob. 25. 27. Jainco guciz goraren maiestatea çundatu nahi duena, haren loriac egotcico, eta aspiratuco du, carga garaiac beçala.

Guiçonaren spirituac asma deçaquena baiño guchiago daique Jaincoaren escuac.

Esta debecatcen eguiaren billhatce humill, eta simplea nihor prest dagoenean arguieu errecibitcerat, eta Eliçaco aitec iracasten darocutena siñhesterat.

2. Dohatsu da simplequi, eta lanoqui dabilhana, gauça gaitz, eta spiritua nahaz deçaquetenei ihes eguiten diotena, eta Jaincoaren manamenduen bide chuchenean sefurantçarequiñ ibiltcen dena.

Hanitcec galdu dute debocionea gauça illhunac, eta bere eçagutçaz goragocoac iaquiñ, eta çundatu nahiz.

Estarotçut galdeguiten spiritu gora bat, eta misterioen eçagutça barren bat; baiñan fede simple, eta bicitce chahu bat.

Çutaz beherago diren gauec-ere ichitcen badute çure eçagutça, nola bada iaquiñen tutçu çutaz gorago direnac?

Humilia çaitte Jaincoaren aitciñean, emaçü çure arraçoïña fedearen azpian, eta içanen tutçu cerutic çure spiritua soseguan emateco beharco ditutçun argui guciac.

3. Badire misterio hunen siñhestearen gainean tentacione borthitçac ditustenac, baiñan hori heldu da hobequi etsaiaren ma-

leciatic, ecen - ez hequien fede escafetic.

Çu etçaitecela penetan eman, etçaçula iharduc çure gogoetequiñ; estioçoçurela ihardetz harc ematen darozquitçun dudedi, baiñan siñhetz çaçu Jaincoaren hitça; entçun çatçu Sainduac eta Profetac; eta çure ganic ihesi egorrico duçu spiritu maleciazco hura.

Horlaco tentacioneac progortchos dire maiz Jaincoaren cerbitçariantçat.

Ecen deabruac estitu tentatcen siñhetz gotrac, eta gaichtaguiñac; hec osoqui bere-tuac daozca; baiñan leialei, eta Jaincotiarrei milla tentacione, eta arsecabe egortcen diotçate.

4. Çoaz beraz mahaiñ saindurat fede fer-mu, eta garbi batequiñ, eta errespetu hu-mill batequiñ.

Eta çure spiritua ichitcen daten gauça guciez pausa çaitte Jaincoaren gaiñean.

Etçaitu enganatuco siñhesten baduçu; bai-ñan enganatuco çate çure burua siñhesten ba-duçu.

*Jaincoa simpleequiñ, eta bihotz chuche-nequiñ dabilha: humillei agueritcen çaiote: chumeei ematen diote inteligencia, eta arguia: Arima garbiei ematen diotçate hai-ñitz eçagutça; baiñan bere gracia gordetcen diote spiritu curiosoi, eta superbioei.*

Guiçonaren arraçoiña flacoa da, eta en-

gana diteque; baiñan fedea beñi eguiazcoa da, eta eciñ enganaruzcoa.

5. Hala arraçoiña, eta argui naturala fedeari behar çaio iarraiqui; estu behar haren aitciñean ibilli; ez hura defeguin, eta irauli.

Ecen sacramendu handi huntan fedear, eta amudioac, daoca lehenbicico herunca berthute gucien artean, eta efetu handiac eguiten tuste manera gorde, eta eciñ erran beçalaco barez.

Jainco eternalac icate, eta podore infinitua duenac eguiten tu ceruan, eta lurrean gauça handiac, eta gure eçagutçaz goragocoac; eta haren obra miragatriec ichitcen dute gure spirituen hedadura gucia.

Hortaz obra hec ez balire guiçonaren spirituz goragocoac, eta etrechqui eçagut ahal balitez, ez litezque deithu behar miraculluzcoac, eciñ erran, eta esplicaruzcoac.

### AKHABANTÇA.

#### GAUDEAC.

**G**AUDE, Virgo Mater Christi,  
Quæ per flamen concepisti,  
Gabriele nuntio.

Gaude, quia Deo plena,  
Peperisti sine pena,  
Cum pudoris illo.

Gaude magos advenisse,  
Aurum, thus, myrrham tulisse  
Tuo Unigenito.

Gaude Christo moriente,  
Quia ipso triumphante,  
Nostra fuit redemptio.



Gaude quia tui nati,  
 Quem dolebas mortem pati,  
 Fulget resurrectio.

Gaude Christo ascendente,  
 Qui in cælum te vidente,  
 Motu fertur proprio.

Gaude quæ post ipsum scandis,  
 Et est honor tibi grandis,  
 In Cœli palatio.

Ubi fructu ventris tui,  
 Per te nobis ætur frui,  
 In perenni gaudio. Amen.

*IONDONI LEON, Aphetzicu eta Martyr Bayonato  
 Hirico eta Diocesano Patrostriari Emafte icorremçat.*

*O T H O I T Ç A.*

**S**AN LEON, Saindu handia, gure arbasloen Apostolu içan çaren beçala, orai-ere ( heyen fedetic mendratuac-garen arren) Jainco guciz misericordiosa ganic ardietsen-daroz-quigutçan laguntça handien aciaz, gure Apostolu icaretic guelditu ez-garena: çute arartecotasun botheretsurat dut ar-recorlu nahiz eneçat, nahiz dakharquedan fruiamereçat; içan deçantçat mundurat urusqui eman-duquedan ondoan, Bathaioco Ur sainduan, Graciarat berriz- sorreco çoriona. Çute othoitçez eguiçu, gure lehenburasloen crima dela causa, emastequiaç erditcean iafaterat condenatuac içan-garen doloreac eta penac, içan daquizquidan arinduac eta laburtuac. Oraidanic hec guciac offruten-darozquitçat Jesu-Christo gure launari presentatceco, bere passioncan eta Gurutcearen gainetan berac iasan-dituenequiã bat eguitceco; balia-daquizquidantçat, arren, ene bekharuen barkhamen-dutan, eta ene haur hunen salbamendutan. Çute protec-cionearen azpian ematen-dut, nerequiã-batean; eta erre-queritçen-çaitut. Jaincoa ganic batari eta bertceari ardiets-teaz, haren Manamenduen aribera bicitecco, eta çue pre-dicatu-darocuçun federean maximac haltoqui aguertceco eta gure baitan eçagut-arazteco, gracia, sisean hel-guite-gerçat bicitce eternalerat. Halabiz.

*FIN A.*





C A P I T U L U E N.  
T H A U L A.

LEHENBICICO LIBURUA.

Bicitce spiritualecotz on diren abisuac.

- I. CAP. **I**MITA JESU-CHRISTO, mezpreça munduco  
vanitate guciac. pag. 25
- II. Guti iduc gure buruac, humill behar dugu ičan  
gure iaquin guciequin-ere. 28
- III. Jaincoaren entçurea, norc bere buruaren eçagut-  
cea eta garaitcea dela eguiazco doctrina, eta  
ikhafi behar den çuhurtcia. 30
- IV. Ez errechqui sinhers bertceez erraten den gaiz-  
quia. Ez gaizqui iuia, edo mintça bertceez.  
Balia prudenciaz. 35.
- V. Nola behar diren iracurri Escriptura faindua, eta  
debocionezco liburuac. Conseillu galdetu behar  
çaiela presuna çuhur eta prestuei. 36.
- VI. Affeccione eta guticia desordenatuez. Ecin duque-  
gula baqueric hec mortificaturic eta heciric  
baicen. 37
- VII. Gure esparantça gucia eman behar dugula, ez  
gure baitan, edo bertce guiconen baitan, baiñan  
Jaincoa baitan, ceina ganic heldu baitire on gu-  
ciac. Humiliatu behar dugula eta gure buruac  
iduqui behar ditugula bertce guciac baiño gu-  
tiago. 39
- VIII. Hautatu behar dela adisquide çuhur eta prestu  
bat, ez dela behar famillertu edo trabatu, man-  
danoequin, guciz gazteequin, aberatsequin,  
emaztequiequin, baiñan gure famillertasuna  
içan behar dela presuna bertçutezcoequin, Jain-  
coarequin eta aingueruequin. 41
- IX. Maita obediteca eta bertceren guidaren azpian  
içateca; nor bere ustean ez sobra finca, erot  
bertceren nahirat eta abisurat. 42

## CAPITULUEN THAULA.

- X. Utz mundanoen compañiac eta solas sobraniaz  
coac, beguira ichilltasuna; probetchos direla so-  
las spiritualac. 44.
- XI. Nola behar den ardietsi bihotceco baquea, eta  
aitciña goan berthutearen bidean. Heci behar  
direla bicioac, eta guticia desordenatuac. 45.
- XII. Cein progotchos den sofricea. 48.
- XIII. Tentacioneen progotchuaz, eta nola behar  
çaioten contra eguiñ. 49.
- XIV. Ez iuia bertceez temerarioqui; finca çatçu be-  
guiac çure gainean, eta etçaitecela iar bertceen  
accioneen iuic. 54.
- XV. Accione guciac amudiorequiñ eguiñ behar di-  
rela. 55.
- XVI. Nola behar tugun iasan bertceren escasac. 57.
- XVII. Religioneco bicitceaz. 59.
- XVIII. Sainduen exempluaz progotchatu behar du-  
gula. 60.
- XIX. Debocioneco pratiquez. 63.
- XX. Maitatu behar dela erretiramendua, eta ichill-  
tasuna. 68.
- XXI. Bihotceco urriquimenduaz. 73.
- XXII. Consideratu behar ditugula mundu huntaco  
miseriac. 76.
- XXIII. Heriotcean behar dugula pensatu, eta har-  
tarat preparatu. 81.
- XXIV. Jaincoaren iuiamendu ikharagarriaz, eta  
Bekhatoreen suplicioez. 86.
- XXV. Guerotic guerorat berthutean aicciñatcera  
behar dugula lebiatu. 91.

---

## BIGARREN LIBURUA.

Bicitce spiritualean arimaren abantçuaz.

- I. CAP. **S**Arthu behar dugula gure barrenean, eta  
conversatu JESU-CHRISTOREQUIN. 99.
- II. Guicõnec eciñ deus daguiquetela bere esparantça  
Jaincoa baitan emana duenaren contra. 104.

# CAPITULUEN

III. Barreneco baqueaz.	106.
IV. Bihotceco garbitasunaz eta chedearen simpletasunaz.	108.
V. Gogo gucia eman behar dugula gure buruen esteñtasunean eta Jaincoaren handitasunean pentsatzen.	109
VI. Conciencia onaren baqueaz.	111
VII. Maitatu behar dela J E S U S gauça gucien gainetic.	114.
VIII. JESUSEN amudioa dela on gucien ethorquia.	116
IX. Barreneco agortasunez eta desgustuez.	119
X. Jaincoaren gracienczat behar den esquer eta eçagurçaz.	124
XI. Gucic dutela maite JESU - CHRISTOREN gurutcea.	128.
XII. Gurutcea dela ceruco bidea.	131.

## HIRURGAREN LIBURUA.

Barneco consolacioneaz.

I. CAP. <b>N</b> ola behar den preparatu Jaincoaren aditcerat.	140
II. Arimac Jaincoari galde eguitendio arren mintça daquion bihotcerat.	142
III. Jaincoaren hitçac humiltasunequin entçun behar direla, eta hañitceç estitustela hec asqui pisatcen.	144
IV. Eguiaren eta humiltasunaren arabera ibilli behar dela Jaincoaren aiticñean.	148
V. Jaincoaren amudioaren effetu miragarriez.	151
VI. Nola amudioa estagoen atseguin spiritualetan, baiñan bai gudutan leial icatean.	156
VII. Arimaco agortasunetan begniratu behar dela humiltasuna, eta baquea.	160.
VIII. Nola behar dugun gure burna ez estatu Jaincoaren aiticñean.	163
IX. Nola Jaincoa baita gucien siña, eta azquen chedeç, hari behaturic eguin behar direla gauça	

# T H A U L A.

- |  |      |
|--|------|
| guciac.  | 165  |
| X. Cein on den Jaincoaren maitateca, eta mundua-<br>ren mezpreçateca.  | 167  |
| xi. Guicia onac ere behar ditugula bridatu, spiri-<br>tuaren azpian eman haragua, eta spiritua Jain-<br>coaren azpian. | 171  |
| xii. Pairacor ican behar dela gaitcetari, eta arbua-<br>tu behar direla arseguinac.                                    | 172  |
| xiii. Obedienciaz.   | 175. |
| xiv. Jaincoaren iuliamenduetan pensatuz behar<br>dugula beguiratu obra onen vana-loriaric.                             | 177  |
| xv. Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic<br>baicen.  | 179  |
| xvi. Jainco choilla baitan billharu behar dugula<br>gure consolacionea eta sofegua.                                    | 182  |
| xvii. Gure buruazco artha gucia eman behar du-<br>gula Jaincoa baitan.   | 184  |
| xviii. Pacientqui behar dugula sofritu munduco<br>lacieriac JESUS-CHRISTOC beçala.                                     | 186  |
| xix. Nola behar tugun pairatu afruntuac eta<br>mezpreçioac.  | 188  |
| xx. Eçagutu behar tugula gure flaquecia propioac,<br>eta mundu luntaco miseriac.                                       | 190. |
| xxi. Jainco choilla baitan causitu behar dugula<br>gure sofegua.   | 191  |
| xxii. Orrhoitu behar dugula bechi, Jaincoa ganic<br>icatu ditugun ungitez.   | 199  |
| xxiii. Lau abisu probetchos bihotceco baquearen<br>icateco.  | 202  |
| xxiv. Estugula behar curiositasunic bertteren ber-<br>rien iaquiteco.  | 206  |
| xxv. Certan dagoen bihotceco baquea, eta aicciña-<br>mendu spirituala.   | 207  |
| xxvi. Spirituco libertatea ardiesten dela, iracortez<br>baino hobequi ohoitez.   | 210  |
| xxvii. Gure buruentçat dugun amudioac guibe-<br>latcen gaituela ontasun soberanoaren amu-                              |      |

# CAPITULUEN

- dioric. 212
- xxviii. Estugula ičan behar mihi gaichtoen beldur. 215
- xxix. Othoistu, eta laudatu behar dela Jaincoa atsecabetan. 216
- xxx. Nola behar dugun Jaincoaren laguntça galde-  
tu. esperantçarequiñ grácia bihurtueo çaicula. 217
- xxxI. Creatura guciac arbuiatu behar ditugula, na-  
hi badugu creatçaillea caufitu. 221
- xxxII. Batbederac ukho eguñ behar dioela bere  
buruari, eta bere guticiej. 225
- xxxIII. Guiçonaren bihotceco arintafuna ecin pausa  
daitequela Jaincoa baitan baiten. 227
- xxxIV. Cein goço den Jaincoa maite dutenençat 229
- xxxV. Nihor estela tentacionetarie segurantçan  
mundu huntan bici deñio. 232
- xxxVI. Mezpreçatu behar ditugula guiçonen iuia-  
mendu vanoac. 234
- xxxVII. Utcj behar dugula osoqui gure burua Jain-  
coaren nahirat, bihotceco libertatearen içateco 236
- xxxVIII. Nola behar dugun campoco gancetan com-  
portatu, eta Jaincoa ganat iheli eguñ hirrif-  
cutan. 238
- xxxIX. Jaincoari utcj behar diogula gure eguitecoen  
artha, eta haren ganic iguriqui gauça guciac. 240
- xl. Guiçonac estuela berenez onic, eta ecinduque-  
la deusez-ere buruperic. 241
- xli. Mundu huntaco ohoreac mezpreçatu behar di-  
tugula. 245
- xliI. Bicitce huntaco baquea estugula guiçonen bai-  
tan eçarri behar. 246
- xliII. Cein vanoac den munduco iaquintafuna. 248
- xliV. Estugula behar campoco gancez spiritua tra-  
batu. 250
- xliV. Estela edo cein lñhetñ behar, eta gui behar  
dela mintçatu. 251
- xliVI. Jaincoa baitan eman behar dagula gure fidant-  
cia mihi gaichtoz çaurtuac garenean. 255

# T H A U L A.

- XLVII. Munduco pena guciac gogotic behar direla pairatu bicitce eternalaren ardiestece. 259
- XLVIII. Ceruco dohatfutafunaz, eta mundu huntaco miseriez. 262.
- XLIX. Dohatfutafunaren guticiaz, eta bertce munduco golardoez. 266
- L. Nola arima affigituac eman behar duen Jaincoaren escuetan bere burua. 271
- LI. Gauça humilletan hari behar dela, handiagoric ecin eguin direquenean, guciz agortafuneco demboran. 277.
- LII. Bathederac uste behar duela gastiguac hobequi dituela mercei consolacioneac baino. 279
- LIII. Munduco ontafunequin iofiac direnei estioçotela Jaincoac ematen bere graciae. 281
- LIV. Graciaren, eta naturaleçaren mobimendu differentez. 284.
- LV. Naturaleçaren corrupcionez, graciaren beharraz, eta hanc arimetan eguiten dituen effectuez. 290
- LVI. Gure buruari ukho eguin behar diogula, eta iasan gurutcea JESUS-CHRISTOC beçala. 294
- LVII. Etçaicula bihotça erori behar gure escasengatic. 297
- LVIII. Ez ditugula çundatu behar Jaincoaren iuamenduac, eta gutaz gorago diren gauçac. Cer maneraz behar ditugun ohoratu sailduac. 300
- LIX. Jainco choilla baitan behar dugula eman gure esparantça gucia. 307

## L A U G A R R E N L I B U R U A.

Aldareco sacramendu adoragarriaz.

- A** Mudiozco deiha mahain sailduat. 311
- I. CAP. Cembat errespetuequin behar den errecibitu sacramendu saildua. 312.
- II. Jaincoac sacramendu huntan guizonari miragarriqui eracughten dioela bere ontafuna eta amudioz. 320



# CAPITULUEN THAULA.

- III. Probetchos dela maiz communiatcea, 328  
 IV. Communione sainduaren abantailac, 329  
 V. Aldareco sacramendu sainduaren excelenciaz, eta  
 apheztafunari daocati garbitafunaz. 333  
 VI. Communionetic urruntcen denac bicitceati ihes  
 eguiten dioela, eta indignegul hurbiltcen denac  
 heriotcea ematen dioela bere buruari. 336  
 VII. Noie bere burua examinatu behar duela mahain  
 saindurat hurbildu baino lehen, eta hartu bere  
 escasen usteco deliberacione fermu bat. 337  
 VIII. JESUS-CHRISTORI osoqui eman behar gaizcola,  
 hanc bere burua guretat eman duen beçala. 341  
 IX. Gure buruac, eta gure guciac behar diotçogula  
 Jaincoari ofrendatu, eta oñionz eguin behar dela  
 gucientçat. 343  
 X. Communione saindutiç estela arraçoin guiz gu-  
 belatu behar. 346  
 XI. Arimac JESUS-CHRISTOREN gorputçaren, eta  
 Escriptura sainduaren behar handia duela. 354  
 XII. Artha handirequin behar dugula preparatu  
 communione saindurat. 357  
 XIII. Gauça guciçz billhoci behar dela JESUS-  
 CHRISTORIQVIN pertetqui communione sain-  
 duan bat eguiteco. 360  
 XIV. Arima saindu batçue communiatceco duten  
 guciçaz. 363  
 XV. Debocionea ardieffen dela humillatuz, eta noie  
 bere buruari ukho eguinez. 365  
 XVI. Agueru behar diotçogula gure beharrac JESUS-  
 CHRISTORI, eta galdetu bere gracia, 368  
 XVII. Nolaco amudio eta debocionearequin behar  
 dugun desiratu IESU-CHRISTOREN errecibiteca  
 sacramendu sainduan. 370  
 XVIII. Estela sobera curioftafunequin çundatu behar  
 misterio hau; bainan humillqui arraçoina eman  
 behar dela fedearen azpian. 373

*Capituluen Thaularen akhabantça.*

